

EUSKALTZAINDIA

**EUSKAL
GRAMATIKA
LEHEN URRATSAK-III
(LOKAILUAK)**

**EUSKAL GRAMATIKA.
LEHEN URRATSAK-III
(LOKAILUAK)**

**GRAMATIKA BATZORDEA
EUSKALTZAINDIA
1990**

**EUSKALTZAINDIA
GRAMATIKA BATZORDEA**

**EUSKAL GRAMATIKA
LEHEN URRATSAK-III
(LOKAILUAK)**

1990

GRAMATIKA BATZORDEA

Burua: Patxi Altuna

Buruordea: Pello Salaburu

Idazkaria: Patxi Goenaga

Idazkariordea: Maria Pilar Lasarte

Kideak:

Lino Akesolo

Miren Azkarate

Piarres Charriton

Andolín Eguzkitza

Jean Haritschelhar

Alan King

Jose Mari Larrarte

Jose Antonio Mujika

Beñat Oyharçabal

Karmele Rotaetxe

EGLU-III

Liburu honetan agertzen diren txostenen egileak:

Patxi Altuna
Miren Azkarate
Patxi Goenaga
Jose M. Larrarte
Jose Antonio Mujika
Pello Salaburu

Laguntzaileak:

Lino Akesolo
Piarres Charriton
Andolin Eguzkitza
Jean Haritschelhar
Alan King
Maria Pilar Lasarte
Beñat Oyharçabal
Karmele Rotaetxe

Azken moldatzaileak:

Patxi Goenaga
Pello Salaburu

Corpus-a manelatzea eta EJIE-rekiko
bitartekotza: Jesus Mari Makazaga

AURKIBIDEA

Hitzaurre gisa	xiii
1. Perpaus elkarketa eta lokailuak.....	1
1.0. Sarrera	1
1.0.1. Perpausak ez dira ugarteak: testu batean josiak agertzen dira.....	1
1.0.2. Hizketa, hizkuntza, perpausa eta esaldia	2
1.0.3. Perpausa, gramatikaren lehengaia.....	4
1.1. Perpaus mailako lotura Juntagailuak eta menderagailuak	8
1.1.1. Perpausen arteko mugak	8
1.1.2. Perpaus bakuna eta elkartua	9
1.1.3. Juntadura eta menderakuntzaren arteko bereizketa	14
1.1.4.- Juntaduraren egitekoa	16
1.1.5. Alboratze hutsezko juntadura.....	16
1.2. Lokailuak.....	18
1.2.1. Lokailuak, testu mailako lotura bideratzeko tresnak	19
1.2.2. Lokailuen sailkapen bat	23
1.2.3. Lokailuen kokalekua perpausan.....	25
1.3. Lokailu eta juntagailuen arteko harremanak eta bereizkuntzak	27
1.4. Laburbilduz	29
2. Emendiozkoak	33
2.0. Sarrera	33
2.1. <i>Ere</i>	35
2.2. <i>Gainera</i>	51
2.3. <i>Bestalde / bertalde</i>	53
2.4. <i>Halaber (orobat, berebat)</i>	57
2.5. <i>Behintzat</i>	64
2.5.1. Lokailu honen forma eta kategoria.....	64
2.5.2. Funtzioa eta erabilera. Mintzagaia eta galdegaia.....	65

2.5.3. Zenbatasuna	68
2.5.4. Presuposizioa.....	68
2.5.5. <i>Behintzat</i> eta honen kideak.....	69
2.5.6. Bestelako erabilerak	70
2.5.7. Lokailuaren tokia.....	71
2.5.8. Juntagailuekin batera	73
2.6. <i>Bederen, bederik, behinik behin</i>	74
2.7. <i>Badere</i>	76
2.8. <i>Badarik (ere)</i>	78
3. Hautakariak	79
3.0. <i>Sarrera</i>	79
3.1. <i>Bestela / Bertzenaz</i>	80
3.2. <i>Osterantzean</i>	85
3.3. <i>Gainerontzean</i>	86
3.4. ' <i>Ezpere(n)</i> ' eta ' <i>ezpabere</i> '	89
3.4.1. <i>Ezpere(n)</i>	89
3.4.2. <i>Ezpabere</i>	90
4. Aurkaritzakoak	93
4.0. <i>Sarrera</i>	93
4.1. <i>Ordea</i>	95
4.1.1. Forma	95
4.1.2. Tokia	95
4.2. <i>Berriz</i>	98
4.2.1. Forma	98
4.2.2. <i>Esanahia</i>	99
4.2.3. Tokia	100
4.2.4. Juntagailu eta lokailuekin batera.....	102
4.3. <i>Ostera</i>	103
4.4. <i>Aldiz</i>	104
4.5. <i>Aitzitik</i>	107
4.6. <i>Bizkitartean, bitartean, bien bitartean, artean</i>	109
4.6.1. <i>Bizkitartean</i>	109
4.6.2. <i>Bitartean</i>	110
4.6.3. <i>Bien bitartean, (i)arte horretan, artean</i>	111
4.7. <i>Alta, alabaina, alabadere</i>	112
4.7.1. <i>Alta</i>	112
4.7.2. <i>Alabaina</i>	114
4.7.3. <i>Alabadere</i>	115
4.8. <i>Dena dela, dena den</i>	116

4.8.1. Forma	116
4.8.2. <i>Dena dela</i> lokailuaren tokia	118
4.8.3. <i>Dena den</i> lokailuaren tokia	119
4.8.4. Juntagailu eta lokailuekin batera	120
4.9. <i>Hala ere, hala eta guztiz ere</i>	121
4.9.1. Forma eta balioa	121
4.9.2. Tokia	123
4.9.3. Juntagailu eta lokailuekin batean	125
4.9.4. Bestelako balioak	126
4.10. <i>Haatik/hargatik, horratik/horregatik</i>	126
4.10.1. Forma eta balioa (<i>hargatik, horregatik</i>)	126
4.10.2. Forma eta balioa (<i>haatik eta horratik</i>)	128
4.10.3. Tokia	129
4.11. <i>Barren</i>	131
4.12. <i>Badarik ere</i>	132
4.13. Aurkaritza adierazten duten esapideak	133
5. Ondoriozkoak	135
5.0. Sarrera	135
5.1. ' <i>Beraz</i> ' eta ' <i>Bada</i> ' kide	136
5.2. <i>Beraz</i>	141
5.2.1. Forma eta balioa	141
5.2.2. Perpausean duen lekua	143
5.2.2.1. Perpausaren hasieran	144
5.2.2.2. Perpausaren barnean	144
5.2.2.3. Joera nagusietatik kanpokoak	146
5.2.2.4. Perpausaren barnean bigarren lekuan	147
5.2.2.5. Zenbait aditzondoren ondoan	148
5.2.3. <i>Beraz</i> + modu-aditzondo erakuslea	148
5.3. <i>Bada</i>	149
5.3.1. Forma eta balioa	149
5.3.2. Aurreko perpausaren kontrako ' <i>bada</i> '	155
5.3.3. Lagunarteko hizkerako zenbait erabilera	160
5.3.4. Literatura klasikoan	161
5.3.5. Perpausean duen lekua	163
5.4. <i>Hortaz</i>	167
5.4.1. Forma eta balioa	167
5.4.2. Perpausean duen lekua	168
5.4.3. ' <i>Hortaz bada</i> '	169
5.5. <i>Orduan</i>	169
5.5.1. Forma eta balioa	169

5.5.2. Perpausean duen lekua	170
5.5.3. Juntagailuen indargarri	172
5.6. <i>Honenbestez, Horrenbestez, Hainbestez</i>	173
5.7. <i>Halatan, Hala</i>	175
6. Kausazkoak	177
6.0. <i>Sarrera</i>	177
6.1. <i>Zeren</i>	177
6.1.1. Forma eta balioa	177
6.1.2. Beste lokailuekin batera	181
6.2. <i>Zergatik</i>	182
6.2.1. Forma eta balioa	182
6.2.2. Tokia	184
6.3. <i>Alabaina</i>	184
6.3.1. Forma eta balioa	184
6.3.2. Tokia	185
6.4. <i>Bada</i>	187
6.4.1. Forma eta balioa	187
6.4.2. Tokia	190
6.5. <i>Izan ere</i>	192
6.5.1. Forma eta balioa	192
6.5.2. Tokia	194
6.5.3. Beste zenbait partikulaz lagundurik	195
Bibliografia	197
Gai aurkibidea	207

HITZAURRE GISA

Hona hemen aurreko *EGLU-1* eta *EGLU-2* liburukien ondotik dakargun *EGLU-3* hau. Euskaltzaindiak bideratu nahi duen eta euskaldunok behar dugun hizkuntz eredurako beste urrats bat gehiago delakoan kaleratzen dugu. Izan dituen aitzindarien bidetik doanez eta helburu orokor berberei jarraituz zaienez, seguru asko sobera daudeke hitzaurre luze eta aspergarriak. Dena den, lege da nola-halako aurkezpen labur bat edo egitea.

Edukiari dagokionez, liburuki berri honek, *lokailu* deitu ditugun zer gramatikal batzu ditu aztergai. Ez dakigu asmatu ote dugun izen honekin. Baina hor zehar perpausen artean, testuari lotura ematerakoan perpaus batetik bestera eraman behar izaten den hariari eusten laguntzen diguten hainbat hitz eta esapide berezirentzat lekua bilatu nahi izan dugu geure gramatikan. Hemen aurkituko diren hitzak askotan perpausen arteko zirrikitu horietan kokatuak ikusten ditugu, sarri ez dakigularik zein den garbi beren gramatika kategoria. Hauek dira *lokailu* izenez bataiatu ditugun elementuak.

Hau dela eta, esan behar da *lokailu* hitza ez dugula gramatika kategoria berri bat. Kategoriaren aldetik gehienak *aditzondo* direla argi dago. Hauetako asko, hain zuzen, perpausentzat funtsezko bi lekutan agertu ohi zaizkigu: a) galdegai modura batzutan, eta b) mintzagai modura nahiz mintzagai denari lagun eginez. Eta, hain zuzen, mintzagai gune honetatik perpaus batek aurrekoarekin duen lotura zer nolakoa den aditzera etuateko balio izaten dute. Bestalde, badira liburu honetan lokailuen sailean sartterazi ditugun beste zenbait hitz, nekez haritzen dutenak galdegaiaren egongunea. Hala ere, bi perpausen arteko lotura markatzeko zeregina betetzen dutela dirudi, goragokoek bezalaxe. Batak eta besteak lokailutzat hartu ditugu.

Nolanahi ere, norbaitek pentsa lezake alferrik egin dugula "zaku" berri bat eta are alferrikago saiatu garela zaku hori betetzen: aditzondo badira, zergatik ez utzi bakean beren aditzondotasunean? Egia da hori zenbaitetan egingarri zela. Pentsa dezagun, adibidez, **orobat**, **bitartean** eta **antzeko** batzuetan. Baina, zer egin honen aurreko gramatika eta hiztegi askotan *juntagailu* gisa sailkatuak aurkitzen diren beste hainbatekin, adibidez, **aldiz**, **berriz**, **ordea**, **beraz**, **bestela** eta **abarrekin**? Hauek, ongi finkatzen saiatu garen erizpideen arabera, ezin ditugu egiazki juntagailutzat hartu. Formaz, gainera, aditzondoaren itxura handia dute askok eta askok. Eta, dena esan behar denez gero, azken multzo honetakoen kategoria finkatu beharrak ekarri gintuen, hain zuzen, puntu honetara. Hemendik sortu zen lokailu direlako hauen berezi beharra.

Horrenbestez, sail berri bat irekitzeari bidezko eritzi diogu, lokailuen saila, hain zuzen. Hauen zeregina zein den azaltzen ahalegindu gara lehen kapituluan. Ondoren lokailu hauek sailkatzen eta sail bakoitzekoak banan-banan aztertzen saiatu gara. Baliteke irakurleen batzu ados ez egotea gure ikuspuntuarekin. Gramatika Batzordea ere, eztabaida luzeen ondoren iritsi da hemen eskaintzen dena formulatzera. Nolanahi ere, gauza bat da sailkapena, zuzena nahiz badaezpadakoa, eta beste bat, hemen jasotzen diren esamoldeak eta lokailu direlako hauen erabilpena. Onbeharrez eskaintzen ditugu, nolanahi ere, bata eta bestea. Sailkapenak sailkapen, lokailu bakoitzari buruz eskaintzen diren usadioak, aholkuak eta arauak dirateke irakurlerik gehienendako interesgarrienak. Izan ere, lokailu direlako hauek, beste zenbait gramatika tresna bezala, gure solasari behar duen lotura eta kohesioa emateko nahitaezko baliabideak ditugu. Baliabide hauek ez dira euskal herri guztietan modu berean erabiltzen, baina euskara batua hobeki garatuko da han hemen barreiatuak dauden baliabide desberdinak geureganatuz, ezagutzen dugun euskaratxoia inguruko haize freskotik eta beste euskaldunen molde berezietatik gordez baino. Ez diezagutela esan behinola Scaligerok, euskara zela-eta, esan zuen harako hura: "Euskaldunek, elkarriz ulertuko baliote bezala hitzegiten dute, baina, nik ez dut sinisten" (cf. J.P.C. Southall (1918), *Mirror, Prisms and Lenses*, Doven Publications, New York (1964)).

Liburu honen oinarri oinarrian dauden testuak *Orotariko Euskal Hiztegia*-rako erabili den corpusetik atereak dira ia gehienak. Ortografia ere corpus horretarako erabaki zena da. Corpus hori modu erosoagoan erabili ahal izateko EJE-ren laguntzaz baliatu gara, bestalde. Jakina, eskuartean dugun hau bezalako lan bat burutzeko orain arteko gramatikak eta, batez ere, hiztegiak, miatu beharra izan dugu.

Baina amai dezagun. Orrialde hauetan sartu diren ordu guztiak alferrikakoak izango ez direlakoan gaude. Dena den, hemengo "dotrina" behin betikoa ez denez gero, ongi etorri irakurle ororen iritzi, kritika eta aholku guztiak.

Gramatika Batzordea

1. PERPAUS ELKARKETA ETA LOKAILUAK

1.0. Sarrera

1.0.1. Perpausak ez dira ugarteak: testu batean josiak agertzen dira

Hitzegiten dugunean hotsak erabiltzen ditugu esanahi bat aditzera emateko. Hots-kate horretan nolabaiteko abstrakzioa eginez, gramatikak *perpausak* bereizi ohi ditu, besteak beste. Baina perpaus horiek ez dira atze-aurrean dituzten gainerako perpausetik erlaziorik gabeak. Hain zuzen, orain arte perpausaren osagaien azterketa -bereziki perpausa osatzen duten izen sintagmen eta aditzaren azterketa- burutzen saiatu bagara, orain perpaus horiek bata bestearekin josterakoan gertatzen diren gorabeheraz aritu beharrea gara. Perpausak elkarrekin josteko eta testu koherente edo lotu bat eratzekeo hiztunak zenbait baliabide ditu eskura. Horietako batzu *juntagailuak* izango dira, *juntaduran* erabiltzen direnak, eta beste batzu *menderagailuak*, *menderakuntza* deituko dugunari bide ematen diotenak. Bi gailu hauek perpaus mailako lotura gauzatzen dute. Esan nahi baita, perpausak elkartzeko beste perpausak osatzeko balio dute. Perpaus elkarketa bideratzen dute, hortaz. Baina bada, *guk lokailu* deituko ditugunak ere. Hauek ere perpausak josiz goragoko testu bat, ondo jositako testu bat, koherentea, osatzeko erabiltzen ditu hiztunak. Hala ere, lotura honen ondorioa ez da, nahitaez, beti beste perpaus bat, testu bat baizik. Izan ere, lokailuak solas mailako edo testu mailako lotura gauzatzen duten gramaika baliabideak dira. Ez dira, berez, perpaus elkarketa bideratzeko gai.

Hemendik aurrera, bada, perpausak elkarrekin lotzeko -baina esana dugun bezala, lotura hori ez da izango beti ere berdina- hiztunok eskueran ditugun *lokailuez*, *juntagailuez* eta *menderagailuez* aritu beharko dugu.

Nolanahi ere, gramatika tresna horiek aztertzen hasi baino lehen, zenbait kontzeptu argitzeari nahitaezko deritzagu.

1.0.2. Hizketa, hizkuntza, perpausa eta esaldia

Gramatikak bere gain hartzen duen eginkizuna hiztunak hizkuntza bat dakienean, "dakien" horren berri ematea da. Hizkuntza, hortaz, "jakite" bat da, hiztun arruntak duen "jakite" edo ahalmen hori, beste hainbat giza-ahalmen bezala, normalki oharkabekoa bada ere. Baina hizkuntza oso mekanismo konplexua da eta hiztunak darabiltzan elementu desberdinak (*hotsak, hitzak, perpausak,...*) sartzen dira jokoan. Hizkuntz gaitasunak, hizkuntza "jakiteak", elementu horiek guztiak menderatzea eskatzen du, baina menderatze hori modu orokor eta erabatekoan gertatzen da, ez zatika edo sakabanaturik. Esan nahi baita, hizkuntza menderatzea ez da oso ebakera ona izatea bakarrik edo hitz asko ezagutzea, adibidez. Hizkuntza jakitea perpausak eratzen jakitea da, nahiz eta hitzegiterakoan bestelako "jakiteez" ere baliatzen garen. Perpausak ez dira liburuetan edo hiztegietan aurkitzen, gorderik. Aitzitik, hiztunak aldioro sortze lanean aritu behar du, hots: hizkuntza ikasteko prozesuan barneratu zituen erregelak erabili behar ditu hotsak eta esanahiak elkarrekin lotzeko, hitzegiten dugunean hori egiten baitugu: hotsak erabiltzen ditugu esanahi bat solaskideari helarazteko. Nolanahi ere, gauza bat da hiztunak barneratua duen "jakitea" (*hizkuntza, alegia*) eta "jakite" hori egunoroko bizitzan erabiltzea, baliatzea. Jakite hau egunoroko bizitzan gauzatzeari *hizketa* dei geniezaioke.

Bestalde, *perpausa* aipatu dugu. Sarritan bi zentzutan -aski desberdinetan gainera- erabili izan da *perpaus* hitza. Alde batetik *hizkuntz ariketari* -hizketari, beraz giza jokabideari, dagokion zerbait bezala-, eta, bestetik, hiztunaren *gaitasunaren* -hizkuntzaren- deskribapena izan nahi duen gramatikari dagokion zer teoriko gisa. Lehen esanahiaz aritzeko, halere, nahiago dugu *esaldi* hitza erabili eta *perpaus* hitza bigarren zentzurako gorde. Horrela, gramatika perpausaz arituko da eta ez esaldiez. Perpausa kontzeptu teoriko bat genuke, hizkuntzalaritzak eta gramatikak erabiltzen dituzten beste hainbat kontzepturen gisakoa (*fonema, morfema, sintagma, aditza*, eta antzekoak bezalakoa, alegia) eta, horrenbestez, alde aurretik emana ez zaiguna. Aldez aurretik emanak ditugunak solasaren banean, hizketaren fruitu gisa, datozen *esaldiak* ditugu eta hauetatik abstrakzio eginez asmatu dute gramatikariek *perpaus* kontzeptua. Kontzeptu teorikoa denez, alferrik hasiko gara perpaus bila gramatikatik kanpo, hauek ez baitira esistitzen mundu errealean, gramatika baizik. Mundu errealean, eta gizakion jokabidean aurkituko ditugunak esaldiak izango dira, hiztunek hitzegiterakoan jaulkitakoak.

Gauzak horrela, erraz ulertzen ahal da izan daitezkeela esaldiak perpaustzat ezin har daitezkeenak -pentsa, besterik gabe, hitzegiterakoan gertatzen diren hutsegite ugarienez, edo zerbait esaten hasi eta bukatu gabe zenbat bider gelditzen

garen, edo norbaitek gogoa beste nonbait duenean gerta daitezkeen hutsegiteez. Horiek denek, normalki beren helburu komunikatiboa bete dezakete, baina gramatika ikuspegi batetik begiratuta, perpaus okertzat hartuko genituzke, edo, nolana ere, perpaus izatera iristen ez direla esan genezake. Eta alderantziz, izan daitezke benetako perpausak, gramatikaren inongo erregelarik urratzen ez dutenak, baina haien luzera edo konplexutasunagatik, adibidez, komunikazio normalean nekez onartuko genituzkeenak eta, horrenbestez, esan ere nekez esango genituzkeenak. Adibidez:

- (1) Joseba gizon zarpail hark aurkeztu zizkizun haurrekin zihoran emakume argal hark buruan zeramatzan asmo guztiak kanporatzeko gai izango zela hain erraz komentzinuko gintuelakoan agureak esan zituen kontu haiek denak inork sinistu balitu ere, ez dut uste historian zehar izan diren hainbeste eta hainbeste zorigaitzen erantzuleen aipamena egiteko prest leudekeenetariko inortxok ere beste horrenbeste egingo lukcenik.

Bestelako onartezinak ere gerta daitezke. Esaterako, honako adibide hauek perpausak izango lirateke gramatikarentzat, eta perpaus zuzenak, gainera, baina solasaren ikuspegitik aski desegokiak direla esango genuke:

- (2) a. Jaun txit argia, kaixo!
b. Arratsaldeko hamaikak eta erdiak ziren.

Perpaus diren aldetik, berriro esan, ez dute inongo gramatika erregelarik urratzen bi perpaus hauek, baina esaldi gisa aski desegokiak gertatzen direla ezin uka. Non da desegokitasun horren sustraia? Ez, noski egituraren konplexutasunean, ez eta egiturari dagokion araren bat urratzean ere. Arrazoia, (2a)-n da "jaun txit argia" alde batetik eta "kaixo" bestetik, nekez uztar daitezkeela, hizketa maila desberdinetakoak baitira: bata hizkera formalekoa eta bestea, guztiz lagunartekoa. Hala ere, (2a)-ko katea hori, gramatikaren ikuspegitik, honek ezartzen dituen egiturari buruzko arauak errespetatzen dituen aldetik, perpaus gramatikala dela esan daiteke. Alegia, katea hori desegokia bada ez da gramatika arazoengatik, beste zerbaitegatik baizik. Beraz, gramatikatik at egongo litzateke desegokitasun horren berri ematea. (2b) perpausa ere esaldi desegokia da, baina ez inolako sintaxi arauik hausten duelako, munduaren ezaguerari dagokion zerbaitegatik baizik. Alegia, arratsaldeko 11.30-rik ez baita.

Eman dezagun batek "Zeinen gau ederra!" esaten duela eta hamar bider errepikatzen duela leku eta garai desberdinetan. Bistan da hor hamar esaldi desberdin gertatzen direla, nahiz eta perpaus bakarra eta bera izan.

Hortaz, esaldi kontzeptua eta perpaus kontzeptua bi gauza dira. Hizketa eta hizkuntza ere bi kontzeptu diferente diren bezala. Hizketarakoan esaldiak erabiltzen ditugu, baina gramatikaz aritzerakoan -eta gramatikak, berriro esan, hitzunik duen ahalmenaren, hots: hizkuntzaren, deskribapen teorikoa izan nahi du- perpausez arituko gara.

Solasaren oinarriko osagarriak edo urratsak, hortaz, esaldiak dira. Esaldiak ekintza komunikatiboak ditugu, hizkuntz ariketaren -hizketaren- fruitu. Perpausak, berriz, egitura sintaktikoak dira. Azken hauek dira, berez, gramatikaren langai.

Baina hizketarakoan, esaldiak bata bestearekin kateaturik gertatzen diren bezala, perpausek ere elkarrekiko loturak eta erlazioak izango dituzte. Lotura hauetariko batzu gramatikaren aztergai izango dira bete betean. Beste batzu, berriz, beste nonbait aztertu beharko dira. Dena den, perpausen arteko loturaz arituko gara hemendik aurrera.

1.0.3. Perpausa, gramatikaren lehengai

Gramatikak, solasalditik abiatuz -gogoan izan hau dela egiazki gauzatzen den errealitatea- eta abstrakzio eginez, perpaus kontzeptua asmatu du. Baina, arestian esan bezala, perpausek elkarren arteko erlazioak dituzkete, esaldiek dituzten bezalaxe. Har dezagun, esaterako, honako adibide hau:

- (3) "Neure burua berriz ere presondegian ikusi nuenean, haren irudiarri lotu nahi nintzaion eriosuar. Haren beroak inguratzen ninduen ametselan eta eguargiz. Elkarri idazten genion. Gero, ez dakit ongi zer gertatu zen. Bitarteko genituen kartek eskaintzen ziguten gaia idorregia zen, agian, eta alferrik egiten genituen leherrenak asperturik eta gogaiturik utzi gintuzten azkenean. Dena den, gero eta bakanago agertzen ziren eskutitzak; azkenik, mututu ziren. Ez diot sekula txartzat hartu. Horrelaxe garabiliza biziizak. Hura urrundu zuen eta azken batean nerau naiz, segur asko, urrutien saihestu nauena." (K. Mixtelena, "Motivo español", *Euskal idazlan guztiak IX*, 94-95)

Testu hori, idatzia den arren, solasaldi baten zati ere kontsidera daiteke. Solasaldi hori zenbait esaldiz josia agertzen zaigu. Hain josia non horietako esaldi asko nekez agertu ahalko bailirateke berekasa. Izan ere, badituzte elkarren artean halako lotura sintaktikoak eta semantikoak: erakusleak agertzen dira, juntagailuak, aditzondoak eta abar, esaldi batetik bestera garamatzatenak. Testu hori, gramatikariaren ikuspegitik, perpausez osatua legoke eta perpaus horiek ere elkarrenganako atxikimendua erakusten dutela agertzen zaizkigu.

Testu batek koherentea behar du izan, eta koherentzia hori zenbait faktoreren gainean oinarritzen da. Adibidez, solasgai desberdinen artean nolabaiteko erlazioa izan behar da. Gai batetik besterako pausuak, adibidez, ezin dira nolana eman, eta abar. Faktore horien artean, gainera, batzu gramatikari dagozkion elementuak dira. Beste batzu, berriz, ez. Hor dugu, esaterako, anafora. Anafora batek aurrekari bat eskatzen du. Aurrekari-anafora erlazio horiek sarritan perpaus berean gertatzen badira ere, beste askotan perpausaren mugak gainditu egiten dituzte. Pentsa, adibidez, (3)-an agertzen diren **haren, horrelaxe, hura** eta antzekoez. **Horrelaxe garabiltza bizitzak** perpaua, adibidez, osoa da egituraz, baina ulertuko bada, testuan gora joan behar da **horrelaxe** horrek zehazki zer esan nahi duen jakiteko.

(3)-ko adibidetik irten gabe, hor ikusten dugu **dena den** bezalako esapidea ere. Honen antzekoak sarri erabiltzen ditugu esaldiak lotu nahi ditugunean: behar denean, **dena den** erabiliko dugu, eta beste batzutan, beste esapide batzu: **nolana ere, hala ere, bestalde, gainera**, e.a., bakoitzak bere balio berezia duelarik.

Fenomeno hauek perpausen mugak gainditu egiten dituzte. Perpauak ezin du, horregatik, askotan zentzu "osoa" beregan izan. Horregatik, hain zuzen, zentzu osotasuna sarritan aipatua izan bada ere gramatiketan perpaua definitzerakoan, bistan da ezin garela horretan oinarritu perpaua definitzeko. Hala ere, perpaua da gramatikak bere azterketarako erabiliko duen unitatea. Perpaua da gramatikak aurkitzen duen muga. Hortik gora nekez abiatuko da.

Baina solasean, hizketan, ari garenean, esaldi asko jaulkitzen dira, bata bestearen ondoren eta erlazonaturik. Esana dugu gramatikak solasaldi horretan perpauak bereizten dituela, besteak beste. Baina perpauetik goragoko analisirik ez du egiten gramatikak, perpaua kontsideratzen baitu gramatikak deskribapenerako unitaterik handiena. Baina, zer dela eta ezartzen dio gramatikak bere buruari perpausaren muga, hortik gorako azterketak albora uzten dituelarik? Alegia, ez al da posible perpauak bere osagaietatik abiatuz aztertzen diren bezala testua ere aztertzea, testuaren osagaiak perpauak direlarik? Testu-Gramatikak, hain zuzen, horixe du helburu. Baina delako Testu-Gramatika honek eta perpausaren gramatikak metodologia eta oinarti teoriko desberdinak eskatzen dituzte.

Dena den, bada arrazoi funtsezko bat ohizko gramatikaren zeregina perpauera mugatzeko. Izan ere, pentsa liteke perpauari berari ere gainerako hizkuntz unitateei aplikatzen zaien analisi distribuzionalaren parekoren bat aplikatu lekiokoela. Baina -eta hemen dago arazoa- perpau baten osagaiak -izen

sintagmek, aditz multzoek eta abarrek- edo hemendik beheragoko osagaiak, *-morfemek*, adibidez- zer nolako distribuzioa duten erabakitzea oso erraza da. Hizkuntz elementu baten distribuzioa elementu hori ager daitekeen testuinguru desberdinak dira. Horrela, testuinguru beretan ager daitezkeen elementuek distribuzio bera dutela esango dugu eta distribuzio bera duten elementuek kategoria bat osatuko dute. Horrela, neke handirik gabe, asma daiteke perpausak duen egitura -jerarkia erakusten duen egitura- zein den. Baina perpausekin ezin dugu era berean jokatu. Perpausa gramatika unitate bat dugu, baina bere osagai guztien artean mugapen eta lotura distribuzionalak ezar daitezkeen bitartean, bera, berez, ezin daiteke goragoko klase distribuzional batean sartu. Alegia, perpausaz osatutako perpaus ez den beste goragoko "kategoriarik" bilatzen ezin gara hasi. Zenbait perpausaz perpaus elkartuak osatzen badira, jakina, arazorik ez da perpaus elkartu hau ere aztertzeke, baina perpaus desberdinek osatzen duten testua perpausa ez bada, perpaus segida bat baizik, ezin dugu perpausari aplikatu diogun analisi-metodoa aplikatu. Distribuzio nozioa trukagarritasunean oinarritzen da eta ezin zaie aplikatu perpausari. Izan ere, perpausa, bestelako ezein forma gramatikalen barruan ez dagoen modu edo eratze linguistiko askea da distribuzioari dagokionez. Hor bilatu behar da gramatikak bere buruari ezarri dion muga horren zergatia. (Ik. Bloomfield, *Language*, 170)

Gure helburua, hortaz, ez da testua aztertzea, perpausa baizik. Baina sarritan perpausetan nolabait aurreko perpausari, edo ondokoari ere bai zenbaitetan, erreferentzia egiten dioten elementuak -aditzondoak, gehienetan- aurkitzen dira. Elementu hauek perpausaren barruan ageritzen direnez, gure gramatikak jaso egin behar ditu.

Sarrera honen ondoren badakigu, hortaz, zein izango den gure aztergaia: perpausa, hau baitugu geure gramatika azterketaren lehengaia eta oinarritzko unitatea (ik. *EGLU I*, 27 hh.).

Perpausetik beherako elementuak ez dira bere eskuko unitateak, haren osagaiak baizik. Osagai mailakatuak, gainera. Goitik behera abiatuz, perpausa *izen sintagmaz* eta *aditz sintagmaz* osatua dagoela esan genezake, aurrena; gero, hauen osagai diren *izena*, *izenlaguna*, *adjetiboa* eta gainerako *mugatzaileak* alde bategik, eta *aditza*, *adizlagunak* eta gainerako *izen sintagmak*, bestetik. Eta horrela aurrera, azken osagaietaraino iritsi arte. Har dezagun, esate baterako, geure gramatikaren lehen adibidea (*EGLU I*, 27 orr.):

(4) Liburu bat emango dizut.

Perpaus horren lehen osagaiak honako hauek dira:

(5) IS[nik] AS[liburu bat emango dizut]

Izen sintagma -(4)-ean isilpean dagoena berau- bere aldetik ni izenordainak eta -k ergatibo markak osatzen dute. Aditz sintagma, berriz, **liburu bat** izen sintagmaz, **emango dizut** aditzaz eta isilpean utzitako **zuri** izen sintagmaz osatua legoke. Eta azterketa ez da hor amaitzen: azken hauen osagaiak ere berezi daitezke... Guztiarekin ere, perpausaren osagai dira denak, zein bere mailan.

Gorago esandakoaren arabera, gogoan hartu behar da, perpausa bera ere beste perpaus zabalago baten osagai izan daitekeela. Errekurtsibotasunaren baliabideak eskatzen duen aukerari zor zaio hori. Aukera horren arabera, izan ere, maila jakin bateko unitateak bata besteari erantsiz edo bata bestean txertatuz maila bereko unitate zabalago eta konplexuagoak osa daitezke. Edo bestela esan: unitate jakin baten osagaien artean maila berorretako beste unitate batzu ager daitezke. Perpausaren kasuan ere gauza bera gertatzen da: bere barnean beste perpaus batzu izan ditzake, osagai gisa, perpaus **bat** izateari utzi gabe. Aldera ditzagun, esandakoaren argigarri, honako perpaus hauek:

- (6) a. Egia esan digute.
b. Trena berandu iritsiko dela esan digute.

Adibide horietan ageri diren perpausak ez dira berdinak: (6a) perpaus soila den bitartean, (6b) perpausak beste perpaus bat du bere barnean, osagai gisa:

(7) p[p[Trena berandu iritsiko dela] esan digute]

Dena den, (6)-ko bi perpausak maila batean egitura bertsua dutela berehala ohartzen gara: batean objektu zuzena **egia** izen sintagma den bitartean, bigarrenean, paper hori berori betetzen baitu, **trena berandu iritsi dela** perpausa izango da objektu. Hortaz, (6a)-n **egia** izen sintagma perpausaren osagai den bezalaxe, (6b)-n ere perpaus txertatua osagai izango da.

Izen sintagmak eta aditz sintagmak perpausa osatzen duten bitartean, perpausetik gora, lehen esan den bezala, *testua* dago, hots, perpaus mailako unitatea osatzen ez duten perpaus diferenteen hurrenkera luze edo laburragoa. Hurrenkera hori, ordea, perpaus den goragoko katearik osatzen ez duen neurrian, ez da, zuzenean bederen, perpausaren gramatikari dagokion

aztergaia. Baina azterkizun dira, maila horretako loturak -testu mailako harremanak, alegia-, hala nola anaforak, elipsiak, lokailuak eta horrelakoak.

Demagun, konparazio batera, honako testu hau:

- (8) Aizo ekarri zuten Mikel etxera. Hori jakin bezain laster, bisitara joan nintzaion. Ez zidan, halere, askorik eskertu.

Bigarren perpauseko hori erakusleak aurreko perpausean esandakoari egiten dio erreferentzia. Mikel da, bestalde, bigarren perpaus horretan isilik utzitako *nori sintagma* berreskuratzeko bide ematen diguna. Eta hirugarren perpauseko halere lokailuak aurreko perpausarekiko aurkaritza adierazten du. Horiek, ordea, esan bezala, testu mailako harremanak dira, ez perpaus mailakoak. Hor, izan ere, hiru perpaus diferente ditugu, hiruren artean goragoko perpausik osatzen ez dutenak:

- (8) i. Aizo ekarri zuten Mikel etxera.
ii. Hori jakin bezain laster, bisitara joan nintzaion.
iii. Ez zidan, halere, askorik eskertu.

Azter ditzagun perpaus arteko lotura hauek. Lehenbizi, perpaus mailako lotura aipatuko dugu, juntadura eta menderakuntzari dagokiona hain zuzen, eta ondoren, testu mailakoa.

1.1. Perpaus mailako lotura: Juntagailuak eta menderagailuak

Lokailuez gainera, juntagailuak eta menderagailuak ere eskaintzen dizkio hizunari gramatikak. Hauen egitekoa ere testuari lotura ematea litzateke, baina, lokailuek testu mailako edo solas mailako lotura bideratzen badute, juntagailuekin eta menderagailuekin perpausak lotu ezezik, elkartu ere egiten dira, elkarketa horren ondorioz lortzen dena perpaus delarik halaber.

1.1.1. Perpausen arteko mugak

Lokailuek bideratzen duten lotura solas mailako lotura dela esan dugu. Horrek esan nahi du lokailu bidez "lotuak" edo "josiak" agertzen diren perpausak zein bere eskuko izan daitezkeela lokailua gorabehera.

- (9) Euria dakar. Beraz, euriakoa hartuko dut.

diodanean, hor bi perpaus ditugu, ez bat. Hori entonazioak sala diezaguke edo, idazterakoan, bien artean ezarri dudak puntuak. Hala ere, batak bestearekin badu nolabaiteko lotura. Perpausen arteko mugak non gauzatzen diren, ordea, ez da gramatikak beti ere estu eta zehatz erabakitzen duen gorabehera. Batzutan, egia da, perpausen artean sortzen den erlazioa perpaus elkartuari dagokiona da nahitaez: horrela loturiko perpausak ezin dute inolaz ere bere eskuko izan; bata bestearen mendeko izango da beti ere:

(10) p[p[Gaizki zabilzala] esan didatc]

(11) p[p[Hor bizi den] -a anaia dut]

Beste batzutan, berriz, -juntaturari eta alborakuntzari dagokienetan, batez ere- aukera izaten dute hiztunek perpausak dauden daudenean, elkartu gisa nahiz bakoitza bere eskuko uzteko, testu mailako loturatik aurrera pasa gabe.

(12) "Benetan, aren lepo lodi beltzak izurdearen antz pixkat badauka. Baña oraindino itxurazko gizona dagotsu". (D. Agirre, *Kresala*, EFA, Oñate, 1967, 144 or.)

Zein bere eskuko diren perpaus bi ditugu hor, egileak, horrela nahi izan balu, perpaus konposatu bakarra egin bazezakeen ere:

(13) Benetan, haren lepo lodi beltzak izurdearen antz pixka bat badauka baina oraindino itxurazko gizona dago

Berezirik utzi ditu, halere, testu mailako harreman lasaiagoan.

1.1.2. Perpaus bakuna eta elkartua

Bi mota handi berez daitezke perpausen artean: bakuna eta elkartua. Bere osagaien artean beste perpausik ez duenari **bakuna** esaten zaio eta bere barnean beste perpausen bat duenari, berriz, **elkartua**. Aldera ditzagun, konparazio baterako, honako perpaus hauek:

(14) a. Liburu bat eman nion.
b. Liburu bat eman nion baina ez du irakurri.

(15) a. Zure laguna bizi da hor.
b. Dendan ikusi dugun laguna bizi da hor.

Adibide horietako (a) perpausak bakunak dira: ez bataz ez besteak ez du bere barnean beste perpausik. Bigarren perpausak, berriz, (14b) eta (15b), alegia, elkartuak dira, hots: errekursibotasunaren bidez konplexuago bilakaturiko unitateak dira. Ez gisa berekoak, ordea:

(14b) adibidean bi perpaus ditugu (P₁ eta P₂) **baina** juntagailuaren bitartez juntatuak, perpaus handiagoa - P_O - osatuz:

P_O[P₁[liburu bat eman nion] junt[**baina**] P₂[ez du irakurri]]

(15b) adibidean, berriz, mendeko perpaus bat dugu perpaus nagusiaren barnean txertatua, haren osagai delarik:

(16) P_O[P₁[Dendan ikusi dugu] mendg[-n] laguna bizi da hor]

Kategoria bateko atal batek bere barnean kategoria bereko osagaiak izateko ahalbideari deitzen zaio errekursibotasuna. Hau hizkuntzak duen ahalbide guztiz ezaguna da eta horri esker, hain zuzen, lortzen da elementu kopuru mugatu bat behin eta berriro erabiliz, teoriaraz azken gabekoa litzatekeen perpaus kopurua lortzea.

Errekursibitatea perpaus mailan ezezik izen sintagma mailan ere gertatzen da. Adibidez:

(17) Gizon horren gurasoen lagunen etxea

izen sintagma dugu, baina izen sintagma horren osagai den **gizon horren gurasoen lagun**en ere izen sintagma bat da, eta honek, halaber, beste izen sintagma bat du osagai: **gizon horren gurasoen**, eta honek beste bat: **gizon horren**. Beti ere izen sintagma bat aurkitzen dugu beste goragoko izen sintagma baten osagai gisa.

Hau perpaus mailan ere gertatzen da:

(18) Egunkarian bi eta bi lau direla uste dudala idatzi dutela esan didate.

Horregatik, gramatikarentzat perpauserik goragoko unitaterik ez dagoela esaten dugunean, bestela badirudi ere, ez dago inolako kontraesanik. Zeren perpausa beste perpaus baten osagai den neurrian gramatikak perpausekin lanean segi dezake. Esan nahi baita, perpaus baten gainerik ez dago gramatikarentzat unitate zabalagorik. Perpaus bat beste baten osagai izan

daiteke, baina iristen da momentu bat non perpausetik gora beste perpausik ez dagoen. Perpausen hurrenkerak testua osa dezake baina hau ezin da izan gramatika unitatea. Horregatik, perpausaren gramatika ez bezalako batek aztertuko du testua.

Bi modu ditu errekurtsibotasunak unitateak luzeago eta konplexuago egiteko: juntatze-bidezkoa bata eta txertatze-bidezkoa bestea. Perpaus elkartua, hortaz, bi eratakoa izan daiteke:

a) **Juntadura**-ren bidez gauzatua, hau da, maila bereko perpaus bi edo gehiago juntatzen dituena.

b) **Menderakuntza**-ren bidez gauzatua, hau da, perpaus bat beste baten barnean osagai gisa txertatua duena.

Hirugarren mota bat ere berezi ohi da inoiz elkarruen sailean, **alborakuntza**-z gauzatzen dena, alegia. Hau da, ez juntagailurik ez menderagailurik ez duena. Ondoko perpaus hauek alderatuta ikus daiteke zer den alborakuntza hori:

- (19) a. Zu hor zaude eta ni hemen.
b. Zu hor zaude, ni hemen.

- (20) a. Isilik dago, ezer ez dakielako.
b. Isilik dago, ezer ez daki.

Bai (19a) adibidean eta baita (20a) adibidean ere perpausak elkartzen dituen "jorskailua" agerian dago: eta juntagailua lehenbizikoan eta **-elako** atzizki menderatzailea bigarrenean. Beste bi adibideetan, (19b) eta (20b)-n, ordea, ez dugu horrelakorik: alboratze hutesz sortu da perpaus elkartua bietan ere.

Ez dirudi, halere, alborakuntza hori juntaduraren eta menderakuntzaren hurren jar daitekeenik, maila bereko hirugarren saila balitz bezala. Haren egitekoa, izan ere, juntadurari dagokiona baizik ez da: perpausak bata besteari erantsita juntatzekoa, alegia. Eta erabilera ere juntadurari dagokiona du bai perpaus elkartuko bigarren perpausaren eginkizun diren elipsiei dagokienean, (21) eta (22), bai banakaritzari dagokienean (23) eta baita hikako alokutiboaren onargarritasunari dagokienean ere (24):

- (21) a. Nik arraina jan dut eta zuk haragia.
b. Nik arraina jan dut, zuk haragia.

- (22) a. Nik autoa badut eta zuk ez.
b. Nik autoa badut, zuk ez.
- (23) a. Ez duk etorri ez etorriko ere, hik aldegiten ez baduk.
b. Ez duk etorri eta ez etorriko ere, hik aldegiten ez baduk.
- (24) a. Laguna dinat Manu eta ez naun bakarrik utziko.
b. Laguna dinat Manu, ez naun bakarrik utziko.

Azken honetan, gainera, menderakuntza ez bezalakoa da alborakuntza:

- (25) a. Lasai egon, neska, laster etorriko dun.
b. Lasai egon, neska, laster etorriko bait da /*dun.

Juntagailurik gabeko juntadura da, hortaz, labur esateko, alborakuntzak gauzatzen duena.

Hauxe da, beraz, aipaturiko perpaus mota hauei dagokien eskema:

1. BAKUNA

2. ELKARTUA

2.1. JUNTADURA

2.1.1. Juntagailuz: $P \dashrightarrow P_1 \text{ juntg. } P_2$

2.1.2. Alborakuntzaz: $P \dashrightarrow P_1 P_2$

2.2. MENDERAKUNTZA: $P \dashrightarrow x P_1 y$

(perpaus motak, konplexutasunaren arabera)

Perpaus elkartuak sortzeko bideak zeintzu diren azaldu dugu orain artekoan eta, erraztasunari begira, adibide laburrak eman ditugu gehienetan. Gogoan hartu behar da, dena den, errekursibotasunari esker amairik gabe luza daitezkeela perpausak, bere barnean behar adina perpaus berri sartuz. Juntaturiko perpausari, esate baterako, beste perpaus berri bat erantsi dakieke eten gabe. Jakina, perpausak beti ere luzera jakin bat izango dute, baina ez dago inon alde zuzenetik ezarritako arauik perpaus bati beti ere beste bat txertatzea edo gehitzea debekatuko dionik:

(26) p[P1 P2 P3 P4 ...]

(26) Jonck egurra ekarri zuen, Mirenck sua piztu zuen, Andonik patatak zuritu zituen, ... eta Joxepak gitarra jotzen pasatu zuen denbora guzia.

Edo, txertatze bidezko elkarketa gauzatzen denean, mendekoari beste mendeko bat txerta dakioke beti ere, nahi adina luzatuz katea:

(27) p[... P4[P3[P2[P1[...]]]]]

(27) Elorriko zela uste dudala esan nion gizonak ez du sinistu nahi nik esandakoa denek onizat ematen dutela

Are gehiago, perpaus juntatuak eta mendekoak nahasi egin daitezke, bere artean, unitate are konplexuagoak osatuz. Guzti honen argigarri ematen dugun ondoko adibidean, konparazio baterako, juntaturiko bi perpaus ditugu beste mendeko baten mendeko direnak, nagusi biak bere aldetik juntatuta ageri direlarik:

(28) Zenbat urte dituen eta non bizi den galdegiten zaionean, lotsatu egiten da eta ez du ezer erantzuten.

Bestelako luzapen errekursiboetan bezala, honetan ere hiztunon oroimen ahalmen mugatuak eragozten du perpausk neurri jakin batetik aurrera luzatzea; ez, ordea, gramatikak, honen arabera, izan ere, mugarik gabe luza baitaitezke perpausaren barneko perpaus eranste horiek.

1.1.3. Juntadura eta menderakuntzaren arteko bereizketa

1.- Juntagailua daukagunean, maila eta izaera bereko perpausak edo perpaus atalak elkartzen dira. Menderakuntzan, berriz, lotzen diren bi perpausetarik nagusi dena aldatu ohi ez den bitartean, menpekoak itxuraldatze handiak jasan ditzake.

2.- Koordinazioan elkartutako bi atalak, normalki ordena jakin batean onartu behar dira. Ordena aldatuz gero, esanahi aldaketa ere gertatzen da sarritan. Menderakuntzan, berriz, ez da horrelakorik gertatzen. Perpaus txertatuek perpaus nagusian edozein osagaik izango lukeen askatasun berbera izango dute lekuz aldatzeko. Horrelakorik ez dugu juntaduran. Adibidez:

- (29) a. Nerea da liburua baina utziko dizut.
b. Utziko dizut liburua baina nerea da.

Ordena desberdinak badu eraginik hemen esanahian. Baina ondokoan ez:

- (30) a. Irakasleak atzo amari ez nuela ikasi esan zion.
b. Ez nuela ikasi esan zion amari irakasleak atzo

e.a.

Hemen ordena aldaketa gainerako perpaus lokabeetan agintzen duten debeku berberen mende dago.

3.- Juntagailu bakoitzak bere berezitasunak ditu erabilpen mugei, balioari eta horrelakoei dagokienez. Baina badira juntagailu guztiei, juntagailu diren neurrian, dagozkien berezitasun jakin batzu ere. Hona, azterketa sakonagoak geroko utzita, bat edo beste:

a.- Leku jakina eta zehatza betetzen dute juntagailuek perpaus elkartuan: emendiozkoa (eta) eta hautakariak (edo, ala, ezpa) juntagunean kokatzen dira beti ere:

- (31) a. Irakaslea erabat haserratu zen eta ikasgelatik alde egin zuen.
b. Gizon hori alkatea da edo haren antz handia du.

Baina aurkariak ere hortxe du kokaleku gehienetan, inoiz atzera pasa badaiteke ere:

- (32) a. Berandu etorri zara baina ez dizut ezer esango.
b. Berandu etorri zara, ez dizut ezer esango baina.
c. Berandu etorri zara, ez dizut, baina, ezer esango.
d. Ez dizut ezer esango, berandu etorri zara baina.

Baizik juntagailuaren kasua guztiz alderantzizkoa da: bigarren perpausaren azkenean ematen da gehienetan, inoiz perpausen arteko juntagunera ekartzen bada ere:

- (33) a. Joxepa ez da gurasoekin bizi, lagun aberats batekin baizik.
b. Joxepa ez da gurasoekin bizi, baizik lagun aberats batekin.

Baino, azkenik, bigarren perpausaren ondoan doa beti:

- (34) Joxepa ez da gurasoekin bizi, lagun aberats batekin baino.

b.- Menderagailuek ez bezala, juntagailuek ez dute hikako alokutibaren erabilera eragozten:

- (35) a. Horrela esan diat eta horrela duk.
b. Horrela esan diat, horrela delako/*dualako

4.- Euskaraz, normalki, menderakuntza atzizki bidez egin ohi da: **-en, -ela, -elako, -elarik, -enez**, e.a. Aurrizki batzu ere izan ohi dira: **ba-** eta **bait-**. Hauek denek aditzari itsatsirik joan behar izaten dute. Horregatik, hain zuzen, perpaus bateko adizki batek horrelako aldagarririk baldin badarama, seinale perpaus txertatu edo menpeko baten aurrean gaudela. Bestalde, adizkia jokatu gabe badago (aditz izena nahiz aditz partizipioa) dagokion kasu marka edo, daramalarik (**-tzen, -tzeko, -tzera, -tzeak, -tzeari; -tua, -turik, tuta, -tuz**, e.a.), orduan ere perpaus txertatu baten aurrean gauden seinale.

Juntaduran, berriz, adizki biak itxura beretsukoak izango dira. Bi perpaus juntatu beren aldetik beste batean txertatuak badaude, orduan txertakuntza honi dagokion moduan aldatuak egongo dira adizkiak:

- (36) Berandu iritsi direla baina errurik ez dutela esan dute hurrek.

Juntaturiko perpausak ez badaude besteren mende, orduan, jakina, aditza bere osotasunean, inolako eranskinik gabe agertuko zaigu:

- (37) Berandu iritsi dira baina ez dute errurik.

1.1.4.- Juntaduraren egitekoa

Juntadura ez da perpausetara mugatzen. Juntagaiak, izan ere, bai perpausak eta bai bestelakoak ere izan daitezke: perpaus lokabeak -(38)- zein mendekoak -(39)-, baina baita sintagmak -(40)- edo honen osagaiak ere -(41)-:

(38) Atertu du eta banao kalera.

(39) Beranduegi dela eta etxera doala esan digu lagunak.

(40) Miren eta Peru etorri zaizkigu.

(41) Iltasoko eta lehorreko langileak zeuden han.

Juntagailutik juntagailura aldeak badira horretan: (40) eta (41) bezalako perpausetan, esate baterako, eta erabil badaiteke ere, ez dirudi baina aurkaria erabil daitekeenik. Izenondo eta izenlagunen artean, ordea, aurki daiteke:

(42) Liburu on baina garesti bat erosi nuen.

Juntadura bere zabalean hartuta, dena den, honako hau esan daiteke: maila bereko unitateak elkartzen direla juntagailuen bitartez: izen sintagmak ("**liburu handi hori eta mahai gaineko luma**"); aditzondoak ("**atzo eta gaur**"); adjetiboak ("**mutil langile eta alai hura**"), eta abar. Unitate horiek perpausak badira, juntaduraz sortzen den egitura ere perpausa izango da, perpaus elkartua:

(43) p₀[p₁[Gizon askok lanik ez du] eta p₂[beste askok duen lana utzi nahi luke]].

1.1.5. Alboratze hutsezko juntadura

a.- Hizki edo partikula jakin eta berezirik erabili gabe burutzen den juntadurari esaten diogu *alborakuntza*. Hau da, izenak berak aski argi adierazten duenez, perpausen alboratze hutsez gauzatzen dena da alborakuntza:

(44) Oso argia da Miren, asko daki

(45) Beranduegi da, etxera noa.

Perpausak ezezik, sintagmak ere albora daitezkeela dirudi:

(46) Haurak, gazteak, helduak, han zuden.

Hitz elkarketa bera ere egin daiteke alboratze hutsez: **senar-emazte, zeru-lur, txuri-urdin**, e.a.

b.- Bada aipamen berezia merezi duen alborakuntza bat: banakaritzari dagokiona. Hau, izan ere, alboraturiko perpaus bietan hitz edo parikularen bat -aditzondoa, gehienetan- errepikatuz gauzatzen da anitz aldiz, gorago esan dugun bezala:

(47) Etxekoak agurtu behar ditun, bai irieten haizenean bai sartzen haizenean.

(48) Ez du inor agurtzen, ez arrotzik ez ezagunik.

Kideko diren bi aditzondo ere erabiltzen dira inoiz:

(49) Hala iritecan nola sartzean atea ondo itxi behar da.

Adizkiak berak ere izan daitezke nahikoa errepikagai:

(50) Dela zurekin dela zu gabe, ni banao.

(51) Izan dadin eguncz, izan dadin gauez, iristen zarenean kasu egin.

(52) Hau falta duela bestea falta duela, beti eskean dabil.

Alborakuntza hau, jakina, juntaduraren parekoa denez, juntagailu eta guztiko egitura batez ordezkatu daiteke:

(53) Ez du inor agurtzen, ez arrotzik eta ez ezagunik.

(54) Dela zurekin **nahiz** dela zu gabe, ni banao.

Juntagailu hautakaria bera ere errepika daiteke, gainera:

(55) Edo hau falta duela **edo** bestea falta duela, beti eskean dabil.

(56) **Nahiz** goizean joan **nahiz** arratsaldean joan, lanean aurkituko duzu.

Ikusten den bezala, errepikatzean datza guztia. Lehen zatian eta bigarrenean elementu bera errepikatuz (**bai... bai**, esate baterako) edo elementu kideak emanaz (**hala ... nola**) gauzatzen da banakaritza.

Hortaz, ez dugu juntagailu banakaririk aipatu beharrik. Konposizio distributiboa, izan ere -horrela mintza bagaitezke- ez da juntaturaren bitartez gauzatzen, juntagailuz edo alborakuntzaz juntaturiko perpausetan partikula batzuk errepikatuz baizik: **bai... (eta) bai; ez ... (eta) ez; dela ... (eta) dela; zein ... zein; nahi(z) ... nahi(z)...** Ez dira, ordea, errepikaturiko partikula horiek beroriek juntadura gauzatzen dutenak, **zein eta nahi(z)** juntagailuen kasuan izan ezik. Haien egitekoa beste hau da: juntaturari balio banakaria ematea. Azken batean, banaketa zentzu hori errepikatzearen bidez eta osagaiak korrelazioan jarriz lortzen da. Gainera, zentzu banakaria era askotako errepikatze eta enumerazioen bidez lor daiteke. Adibidez: **alde batetik..., bestetik..., azkenik....; lehenbizi..., gero..., azkenik...; batzu..., besteak..., etab.**

Dena den, gorago esan bezala, kontsidera daiteke alborakuntza \emptyset juntagailu baten bidez gauzaturiko juntadura dela:

(57) PO[P₁] junt[\emptyset] [P₂]

1.2. Lokailuak

Koherentzia duen testu baten barnean kokatuak dauden perpausen artean harremanak gertatzen dira. Harreman hori juntagailuen edo menderagailuen bidez gertatzen bada, lotutako perpaus horiek perpaus elkaru bat osatuko dute, perpaus bat, nolana ere, eta perpaus den neurrian, gramatikaren aztergai izango da.

Baina perpausen artean gerta daiteke beste mota bateko lotura ere, solas mailakoa, gorago aipatu duguna bezain hertsia ez dena. Hau da, hain zuzen, hemen aipatu nahi dugun lotura, solas mailakoa, alegia.

Sarritan perpausak bere eskuko izaten segi dezakete nahiz ager daitekeen elementuren bat -lokailua, hain zuzen- perpaus horiek elkarrekin duten lotura semantikoaren berri ematen diguna. Jakina, lokailu hauek perpaus elkartuetan ere ager daitezke, bereziki juntagailuren baten arrimuan.

Jatorriz bestelakoak izanik, gerora zeregin honetara erakarritako hitzak edo esapideak dira *lokailuak* gehienetan. **Bestela eta halere** (=hala ere), adibidez, aditzondo dira, izatez. Eta horrela, gehienak.

1.2.1. Lokailuak, testu mailako lotura bideratzeko tresnak

1.- Testu bat osatzerakoan, perpausak nolabait elkarrekin 'josi' egiten ditugu, horretarako *lokailu* deitzen ditugun gailu gramatikal batzuez baliatuz. *Lokailu* hauek nolabaiteko ñabardura ezartzen diote perpaus batek bestearekin duen erlazioari:

(58) Saia zaituz lanean, gizona, **bestela**, miseria gorrian biziko zara beti.

(59) Igandea zela bazekien. Lan egin behar, **halere**.

Kasu hauetan, perpaus lokabeak ditugu begien aurrean:

(58) a. Saia zaituz lanean, gizona.
b. **Bestela**, miseria gorrian biziko zara beti.

(59) a. Igandea zela bazekien.
b. Lan egin behar (**zen**), **halere**.

Baina perpaus pare horietako bakoitzeko bigarrenean ageri den lokailuak (**bestela** eta **halere**) perpaus horrek aurrekoarekin nolabaiteko lotura, erlazioa, duela esaten digu. Solas mailan perpaus horrek aurrekoarekin nolako lotura duen adieraziko digu, hortaz, lokailuak. Horregatik hautatu dugu *lokailu* izena bera ere, testu batek behar duen lotura, koherentzia, bideratzeko tresnak baitira.

Perpausak, beraz, askotan, aurreko perpausetik erlazioa markatzen duen hitz edo partikularen bat eramaten du. Horrela, elkarren segidan datozen perpausak perpaus elkartua ez osatu arren, bien arteko lotura adieraztera dator lokailua.

Baina lokailu deitzen ditugunak bere eskuko izaten segitzen duten perpausen artean ezezik, perpaus elkartuetan ere ager daitezke, perpaus juntatuetan bereziki:

(60) Joxepak astoa nahi zuen eta Antonik, **berriz**, autoa eskatzen zuen.

Hemen agertzen den **berriz** horrek eta juntagailuz juntatutako bi perpaus horien arteko nolabaiteko kontrakoasuna markatzen digu. Hain zuzen, lokailu hori faltako balitz, adieraziko ez litzatekeena:

(60) P[P1[Joxepak astoa nahi zuen] juntg[eta] P2[Antonik, berriz, autoa eskatzen zuen]]

Baina lokailua bera, berekasa, ez da gauza perpaus elkartu bat osatzeko, honako adibide honetan ikus daitekeen bezala:

(61) Joxepak astoa nahi zuen. Antonik, berriz, autoa eskatzen zuen.

Hemen bi perpaus lokabe haititugu.

Hortaz, perpausak juntatuak badaude, (60)-an bezala, juntadura aurrera eramaten duena ez da guk lokailu deitzen dugun hori, **eta** juntagailua bera baizik. Horrek esan nahi du perpaus elkartu bat osatzeko juntagailuren bat behar dela -eta lehenago defenditu dugun bezala, alboratze hutsa bera juntagailurik gabeko juntadura da, edo nahiago bada, Ø juntagailuz lortzen den juntadura- eta juntagailu honezaz gainera lokailua agertzen bada, lokailu hori zerbait gehitua izango litzateke. Juntagailurik ez bada -alborakuntzako Ø juntagailua barne-, lokailua gora behera, perpaus lokabeen, bere eskukoen, aurrean aurkituko gara: hori da (61)-ek erakusten diguna.

2.- Baina berez juntagailu direlakoek berek ere izan dezakete leku perpaus lokabe baten hasieran, hots: aurrekoarekin perpaus elkartu bat osatzera iritsi gabe. Har dezagun, adibidez, honako hau:

(62) "Ez zen, noski, lagun-arteke berrikerarik, niganako agertzen zuen halako urriki hotza baizik. **Eta** berriz giltzapean uzteko puntuan, honelako zerbait esan zidan:

-Beno, beste bat arte. Ez zekiat ze arraiogatik sartzen zareten horrelako isuluetan. Ea jasoko duan urte mordoxka hori ez den gehiegizkoa gertatzen. A, lehengoa ahaztu zaidak, jakina, eta haren kondizionala...

Eta hitz biluzi hauek gelditu zitzaizkidan, egun haietako irain eta zakarkeria guzuen ondoren, gogoan josiak." (K. Mitxelena, "Motivo español", *Euskal Idazlan guztiak IX*, 92).

Hor -idazleak hautatu duen idazteko moduak aski nabarmenkiro erakusten digunez- **eta**-rekin hasten diren bi perpausak, elkarren artean nolahalako lotura badute ere, ez daude perpaus elkartu bat osatzeko moduan. Testuaren hariak behar ez den etenik izan ez dezan, horrelakoak behartezko gertatzen dira askotan. **Eta**, **eta** bezala, beste zenbait gailu -askotan "makulu" ere gertatzen direnak- erabili ohi ditugu.

Ez esanahiaren aldetiko harreman nahi bezain estuak ez are juntagailuaren erabilerak berak ere, ez dute, hortaz, besterik gabe, perpaus elkartua dagoenik ziurtatzen. Nola lotu dituen hiztunak, hortxe dago kontua. Hona hemen Axularrek eskaintzen dizkigun mila adibideetariko bat:

- (63) "... Lehenbizikorik arima haren ondoan zebiltzan Deabruak musikatzeintu, eskarniatzeintu, iriz iokatzeintu.

Eta gero hartzen du arima hura, besarkatzen du, lainkoaren aitzinera eramaiten du, erraiten dioela Jainkoari: Iauna, huna non den zuk gomendiotan eman zenerautan arima: manatu nenduzun begira nezala: begiratu dut, sendorik eta salborik bihurtzen deratzut. Errezibi ezazu bada, eta emozu huni zure loria, eta niri ere, neure trabailluaren golardoa, eta pagamendu.

Ordea baldin arima hura ilkitzen bada, (...) orduan utzten du bere Aingiru begirailleak..." (P. de Axular, *Guero*, 358).

Paragrafoaren hasiera hasieran ageri da **eta** juntagailua. Eta gauza bera gertatzen da **ordea** lokailuarekin. Berez juntagailu litzatekecnak eta lokailuak, biek, funtsean zeregin bera betetzen dute, hortaz: testuari zor zaion koherentzia ematea. Beraz, biak lokailu direla esan dezakegu, **eta**-k berak ere ez baitu lortzen -paragrafoen artean dagoen idatzizko eta intonaziozko etena frogaperpaus elkartu bat osatzea.

Nola egituratu duen hiztunak esaldien arteko erlazioa, halako intonazioa erabiliko du eta halako eten-pausak egingo ditu. Perpausaren amaierari intonazio jakin bat dagokio eta hori erabiliz gero, perpausa hortxe amaitzen dela esan nahi du, hurrengoarekin perpaus elkarturik sortzen ez dela, alegia. Bestelako intonazioa ematen zaionean, berriz, perpausa oraindik amaitu ez dela esan nahi da eta hurrengoarekin bat egiten duela. Intonazioaren egitekorik behinenetako bat, hain zuzen ere, hizketa zein eta nolako unitateetan egituratu den markatzea da, unitate horien arteko erlazio sintaktikoen adierazgarri. Eta ez perpaus mailako unitateei dagokienean bakarrik, baita haren osagaiei dagokienean ere. Beste unitateen kasuan bezala, perpausaren amaierako muga ere intonazio jakin batek adierazten du.

Hori dela eta, ondoan ematen ditugun adibideek intonazio diferentea dute: aurrena *bi perpaus* diferenteren dagokienez da beti ere eta bigarrena *perpaus elkartu bati* dagokiona, zeinek bere azterketa berezia duelarik.

- (64) a. Egin ezazu esaten zaizuna, adiskide. Eta ez zara damutuko.
b. Egin ezazu esaten zaizuna, adiskide, eta ez zara damutuko.

- (65) a. Zerbait behar duzunean beldurrik gabe kasu egiteko esan dizut beti. Baina ez dut inoiz zure berririk izan.
b. Zerbait behar duzunean beldurrik gabe kasu egiteko esan dizut beti, baina ez dut inoiz zure berririk izan.
- (66) a. Saia zaitetz ahaleginean hartutako lanbidetan, gizona. Edo ekin, bestela, beste lanbide berriren bati.
b. Saia zaitetz ahaleginean hartutako lanbidean, gizona, edo ekin, bestela, beste lanbide berriren bati.

Perpausen luze-laburrak, konplexutasunak, adierazkortasunak eta horien antzekoak dira hiztunaren erabakia batera edo bestera eragiten dutenak.

Nolanahi ere, gogora etor dakiguke honako zalantzaren bat, alegia, eta juntagailu izaki lokailu lanetan aurki badezakegu, ez ote da pentsatu beharko berez lokailu omen direnak ere (**bestela, berriz, hala ere, ...**), perpaus juntatuetan agertzen direnean, juntagailu direla eta, horrenbestez, juntagailu/lokailu arteko bereizketa funts gabea dela? Adibidez:

- (67) a. Egin ezazu agintzen zaizuna, adiskide. Bestela ~~damu~~uko zaizu.
b. Egin ezazu agintzen zaizuna, adiskide, bestela ~~damu~~tuko zaizu.

edo

- (68) a. Semea soldadu dauka. Alaba, berriz, ikasten.
b. Semea soldadu dauka, alaba, berriz, ikasten.

Galdera bidezkoa da, baina erantzuna ere baduke, zeren lokailu direlakoek juntagailuek ez bezalako jokabidea dutela argi ikusten da: a) lokailuak (**bestela, berriz, beraz, ...**) juntagailuekin (**eta, edo, baina...**) batera ager daitezke. Gainera, **berriz** bezalako bat, adibidez, **eta** nahiz **baina**-rekin batera ager daiteke. Beraz, pentsatzeko da lokailuen zeregina testu mailan kokatzen dela, perpausekin perpaus zabalagoak osatzeko birtuterik ez dutelarik. Perpaus konplexuetan agertzen direnean ere, perpausak elkartzeko indarra juntagailuarena izango litzateke eta ez lokailuarena berarena. Eta b) lokailuek oso kokaleku librea dute bigarren perpausaren osagaien artean, juntagailuek ez duten bezala. Juntagailuak, juntagailu denean, leku finkoa du. Dena dela, mugak ez dira erabat argiak. Eta sailkatzeko orduan, zalantzak behin baino gehiagotan sortuko zaizkigu.

1.2.2. Lokailuen sailkapen bat

Lokailu deitu ditugun guztien egitekoa bat bada ere funtsean, adierazten duten harreman motari begiratu gero, sail diferenteak berezi daitezke hemen ere:

a. Emendiozkoak

Hauk denek dute halako gehitze zentzu bat. Gehitze hori erreferentzia mundua zabalduz gertatzen da batzutan, eta, beti ere aurreko perpausan esandakoari zerbait eransten diote. Gehitze hori inolako murriztapenik gabea izan liteke. Hori da, adibidez, lokailutzat ematen dugun ere-ren kasua:

(69) Ni ere banaoa.

esanez gero, "Ni + X goaz" suposatzen da. Horregatik diogu "gehitze" kutsua duela ere horrek.

Gehitzen dena nolabait zalantzan jarriaz ere gehi daiteke:

(70) Ni behintzat banaoa

dioenak *ni banaoa* esaten du eta zerbait gehiago ere gehitzen dio, nahiz eta gehitzen den horretaz ziurtasunik emateko gai ez dela adierazi. Hots, hau litzateke (70)-en parafrasia, nolabait: "*ni (+ X) goaz*" baina X-en joatea badaezpadakotzat jotzen dut eta, beraz, ziurtasunik gabe baieztatzen dut X-ren joatea.

Sail honetan sartuko ditugu honako lokailu hauek: **badere, bederen, bederik, behinik behin, behintzat, bestalde, bestela, ere, gainera, halaber, berebat, orobat**, eta agian beste bakarren batzu. Hiztegiko elementu direnez, sail irekia osatzen baitute.

Bestalde, gorago esan bezala, juntagailuak ere lokailu gisa erabiltzeko ahalbidea badu hiztunak. Hortaz, eta bera ere lokailu izan daiteke. Horretarako aski da eten markatu baten ondoren, eta batez hastea perpausa. Eta horrek aurrekoarekin nolabaiteko lotura markatzen du baina perpaus elkartu bat osatzera iritsi gabe.

b. Hautakariak

Hautakari direlako hauek, nolabait, aurreko perpausaren kontra jartzen duten aukera edo hautabide bat aurkezten dute. Hona hemen, multzo honetan sartu beharrekoak: **Bestela, bertzenaz, ezpabere, ezpere(n), osterantzean, gainerontzean, gaineratikoan, e.a.**

Juntagailuena baino askoz ere zabalagoa eta irekiagoa da, dena den, sailkapen hau. Sail bakoitzeko hitz eta esapideen zerrenda aisa luza daiteke, horretara jarritz gero; eta baita sail berriak aurkitu ere, beharbada. Izan ere, esapidetzat hartu ditugunak eta egiazki lokailuizat eman ditugunen artean muga non ezarri ez dago oso garbi. Bestalde, zenbait lokailu multzo batean baino gehiagotan sar daitekeela dirudi, sarritan multzo desberdinen artean dagokeen muga ez baita guztiz finkoa. Hurbilketa lasai gisa baizik ez da hartu behar, beraz, goian emandako sailkapen hau. Izan ere, sailkapenak berak baino interes handiago duela uste dugu aipatu lokailu hauek dituzten nabardurak eta balio desberdinak ahalik eta xehekien emateak. Eta horretan saiatuko gara, hain zuzen, lan honen hurrengo ataletan.

c. Aurkaritzakoak

Oraingoan, lokailuak aurreko perpausari buruz bigarrenak duen kontrakolasuna markatzen duela esan liteke.

Alabadere, alabaina, aitzitik, aldiz, barren, berriz, bizkitartean, bien bitartean, bitartean, dena dela, dena den, haatik, halere, hala ere, hala ta guztiz ere, hala ta ere, horratik, ordea, ostera, alta, alta bada...

Hauei, goian egin dugun bezala, **baina** gehitu beharko litzaieke, juntagailu ezezik lokailu ere izan baitaiteke.

d. Ondoriozkoak

Perpaus bat aurrekoak baieztatzen duenaren ondorio dela aditzera emateko erabiltzen ditugun lokailuak agertuko zaizkigu hemen: **bada, beraz, beraz honelatan, hortaz, horrenbestez, halaz eta, orduan, ...**

Erakusleren bat tartean duten beste zenbait esapide ere, hala nola: **horregatik, hori dela eta, hori dela medio eta abar ere zeregin bereko esapideak ditugu, baina hauen gardentasuna hain handia izaki eta osagai duten**

erakuslea hain garbiro azaltzen dutenez, lokailuen sailean sartzea, agian, askotxo litzateke. Horregatik, adberbio esapide gisa utziko ditugu. Nolanahi ere, ondoriozko lokailutzat hartu ditugunen zeregin berbera bete dezakete.

Eta behin hona iritsiz gero, ohart gaitezen zenbait lokailu multzo batean baino gehiagotan sar litekeela. Adibidez, ondoriozko adberbio esapidetzat eman dugun **horregatik** hori aurkaritza lokailu ere izan daiteke. Eta zer esanik ez, honen ordain garbia litzatekeen **horratik**. Horrek ematen digu honako perpaus hauen arteko desberdintasunaren berri:

- (71) a. Partidua laburra izan zen. Ez zen, **horratik**, erraza izan.
b. Partidua laburra izan zen. **Horregatik**, ez zen erraza izan.

Dena den, **horregatik** eta **horratik** formak funtsean bat izanagatik, batak gordetzen duen osotasunak eskubidea ematen digula dirudi oraindik ere kausazko adizlagun arruntzat, eta ez lokailutzat, hartzeko.

e. Kausazkoak

Hauek goragokoen guztiz kidekoak dira: txanpon baten bi aurpegi bezala izango lirarteke ondorioa eta kausa. Oraingoan, bigarren perpausa aurrekoaren zergatia edo arrazoia dela adierazteko erabiltzen dugu lokailua. Hemen sailka litezkeenak honako hauek dira: **zeren** (aditzak inolako menderakuntza seinalerik (hots: **bait-** edo **-en**) ez duenean), **zergatik**, **alabaina** (baina gogoan izan badela **alabaina** juntagailu bat ere **baina-**ren kidea), **bada** (hau garai batean aski gaitzetsia izan zen erdara kutsu handiegia zuela eta (cf. Azkue, *Morfologia*, 491 orr.), izan ere, **baizik** eta, hain zuzen ere...

1.2.3. Lokailuen kokalekua perpausean

Askatasun handia dute, bestalde, lokailuok bigarren perpausean hartzen duten tokiari dagokionean. Hasiera hasieran, tartean -kontraste jakin baten zerbitzuan- edo amaieran joan daitezke gehienak, lokailutik lokailura aldeak badira ere:

- (72) a. Nik bete dut esandakoa. **Halere**, zuk ez didazu agindutako saria eman.
b. Nik bete dut esandakoa. Zuk, **halere**, ez didazu agindutako saria eman.
c. Nik bete dut esandakoa. Zuk ez didazu, **halere**, agindutako saria eman.
d. Nik bete dut esandakoa. Zuk ez didazu agindutako saria eman, **halere**.

Sarritan lokailu deitu ditugun hauek mintzagaiaren eta iruzkinaren artean kokatzeko joera dute. Nolanahi ere, galdegaiaren eta aditzaren artean ez ditugu normalki aurkituko, salbuespenak aurki badaitezke ere. Badakigu lokailu hauetako askoren berezko kategoria aditzondoa dela, baina lokailu gisa lan egiten dutenean, badirudi perpausean mintzagaiaren arrimura biltzen direla, eta berak ere mintzagai bihurtzen direla. Hartu duten beren mintzagai leku horretatik, hain zuzen, ezartzen dute aurreko perpausari buruz daukagun erlazioaren ñabardura semantikoa. Adibide bat jartzeko, pentsa dezagun **bestela** bezalako batekin gertatzen denaz. Hau berez aditzondoa da, modua adierazten duen aditzondoa. Era honetako aditzondoei berez dagokien lekua galdegaiarena izan ohi da :

(73) Nik artairinez egiten ditut opilak, baina Anttonik **bestela** egiten ditu.

Perpaus honetan Anttonik pastelak nola egiten dituen esaten zaigu. Hala ere, Anttoniren opilgintza zehazkiago nolakoa den jakin nahi bada, aurreko perpausera jo beharra dago. **Bestela** hori artairinez adizlagunarekin nolabait erlasionatua dago eta horrela jakin dezaket Annonik nola egiten dituen opilak. **Artairinez**, nolabait, **bestela**-ren aurrekaria izango litzateke. Horri esker, badakigu Anttoniren opilak egiteko errezetan ez dela artairinik sartzen.

Har dezagun orain beste adibide hau:

(74) Taloa artairinez egin behar duzu, **bestela**, ez zaizu ondo aterako.

Hemen **bestela**-k bigarren perpauseko lehen lekua hartu du, mintzagaiarena nolabait. Leku honetatik, **bestela**-k ez du zehazki **artairinez** adizlagunarekin ikustekorik, perpaus osoarekin baizik. Horregatik, hain zuzen, perpaus horrek onar dezakeen parafrasia baldintza kutsukoa da, **bestela**-k nolabait perpaus oso bat ordezkatzan duelarik:

(75) Taloa artairinez egin behar duzu. **horrela** egiten ez baduzu, ez zaizu ondo aterako.

Eta hau, esan behar da, lokailutzat hartu ditugun askorekin gertatzen da, batez ere nola halako anafora balioa dutenekin (**hortaz, horratik, hala ...**).

1.3. Lokailu eta juntagailuen arteko harremanak eta bereizkuntzak

Hemen lokailuentzat sail berezi bat sortu badugu ere, badakigu sarritan arazoak gerta daitezkeela lokailuen eta juntagailuen arteko bereizketa egiterakoan. Hor bilatu behar da *juntagailuen* sailean beste hainbat hitz eta partikula sartu izana euskal gramatiketan. Esanahiaren erizpideari jarraikiz egin izan da hori batez ere, eta ez, hitz edo partikula horien egitekoa benetan perpausak "juntatzekoa" ote den aztertuta. Horrela, juntagailutzat hartu izan dira maiz inola ere perpausak juntatzeko zeregina betetzen ez duten hitz asko. Bi bidetatik gertatu da hori:

a) *Lokailuen* kasua dugu, hasteko. Hauek, izan ere, berez testu mailako elementuak, hau da, perpausetik perpauserako loturari ñabardura jakina emateko erabiltzen direnak badira ere, juntagailutzat hartu izan dira inoiz, esanahiari dagokionean juntagailuen pareko eta baliokide izan daitezkeelako. **Baina** juntagailuaren baliokidea da, esate baterako, **ordea lokailua**, biak aurkaritzari baitagozkio. Horregatik, ez da harritzeko gure gramatiketan juntagailuen sailean aurkitzea.

Batzuen eta besteen egitekoa desberdina da, ordea. Lokailuek (**aitzitik, aldiz, bada, berriz, halere, ordea, etab.**) berez perpaus diferenteen artean dagoen loturari marka berezi bat ezartzen diote. Berariaz ez dute, juntagailuek bezala, perpaus elkarturik osatzen jadanik juntatuak dauden nahiz lokabeak diren perpausen aneko erlazioari ñabardura bat ezartzen baizik. Eta, horrexegatik, juntagailuak metatu ezinak diren bitartean, lokailuak erraz etor daitezke juntagailuen arrimura, debeku handirik gabe, haiek indartzeko edo: ***eta baina, *baina** edo eta horrelakoak normalean ezinak diren bitartean, **eta aldiz, eta ordea, baina halere, eta beraz**, eta gisa horretakoak onargarriak dira guztiz:

(76) Mikel zintzoa dela esan didate. Zu, **aldiz**, bihurri samarra zarela mundu guztiak daki.

(77) Mikel zintzoa da **eta** zu, **aldiz**, bihurri samarra.

Azken adibide honetan **aldiz** lokailuak ez du juntadura burutzen. Hori, izan ere, **eta** juntagailuak egiten du. Lokailua horren arrimura etorri da, aurkaritzari dagokion ñabardura eranstera.

Era berean, alborakuntza hutsez juntaturiko perpausetan ere erabil daiteke lokailua:

(78) Mikel zintzoa da, zu, aldiz, bihurri samarra.

(79) Zaharra da, arin dabil halere.

Baina horrelakoetan ere lokailua ez da juntagailutzat hartu behar, ez baita bera juntadura gauzatzen duena. Hori alborakuntzak egiten du, gorago esan bezala. Eta alborakuntzaren arrimura etorri da lokailua, aurkaritzari dagokion ñabardura eranstera. Guztiz pareko zeregina betetzen du, beraz, lokailuak (76)-(79) perpausetan.

b) Perpaus bakunaren banean lekua har dezaketen hitz edo partikula batzu ere hartu izan dira inoiz juntagailutzat. **Bai, ez** (errepikaturik ageri direnean), **baizen, baizik, ere**, eta horrelakoak, alegia. Hauek, ordea, perpaus bakuneko elementuak izan daitezke, baiezkoaren edo ezezkoaren markagarriak batzu eta erreferentzia munduaren zabalgarri edo murrizgarriak bestek:

(80) a. Badator trenea.
b. Ez dator trenea.

(81) a. Etsaia ere inaite behar duzue.
b. Familiakoak baizik ez dituzte onartzen.

Juntaturiko perpausetan ere erabil daitezke hitz eta partikula horiek, noski: ez, ordea, perpausak juntatzeko zereginetan, perpaus bakunari eransten dioten ñabardura bera eransteko baizik:

(82) a. Garaia da eta badator trenea.
b. Garaia da, badator trenea.
c. Garaia da, baina ez dator trenea.

(83) a. Egunez bete egoten da eta gauz ere jende asko ibiltzen da.
b. Egunez bete egoten da, gauz ere jende asko ibiltzen da.
c. Jende asko joan zitzaizen ate joka, baina lagunak baizik ez zituzten onartu.

Partikula hauen egitekoa ez da, bistan denez, perpausak elkartzea, juntagailuen edo alborakuntzaren bidez juntaturiko perpausari bere ñabardura eranstea baizik. (83)-ko adibideetan, esate baterako, ere eta baizik partikulek erreferentzia mundua zabaldu eta murriztu egiten dute, hurrenez hurren, perpaus bakunetan bezala. Alde bakarra dago: konposatuetan erreferentzia, bakunetan ez bezala, zehaztua dagoela: aurreko perpausak mugatzen du erreferentziaren esparrua.

Ohar gaitzen, bidenabar, lokailutzat jo ditugun hauetariko batzu perpausen arteko lotura menderakuntzazkoa denean ere gerta daitekeela. Pentsa, bestela, honako adibide honetan:

Ere-k, (ikus aurrerago), agertzen den perpausetik kanpo bialtzen gaitu nolabait. Hori perpaus bakunean gertatzen bada, inguruan duen testura bialduko gaitu edo, testurik ez bada, zerbait presuposatzerara behartzen gaitu.

(85) Nik ere hori egingo dut

esaten badut, horrek aurretik izan dezake honako perpaus hau, adibidez:

(86) Joseba zinera joan da.

Testuinguru horretan (85) ulertzeko inolako oztoporik ez dago: 'ni ere zinera joango naiz' esan nahi du.

Testuinguru hori ez bada, nolabait honelako zerbait suposatu behar da, (85) zentzuzkoa izango bada:

(87) X-k zerbait egingo du.

Baina goiko adibideak erakusten diguna da perpausetik irten beharrik ez dagoela ere horri zor zaion interpretazioa emateko. Perpaus elkartu batean aski da behar den aurrekaria mendeko perpausentzate. Dena den, hau behar bada ere elementuaren ezaugarri berezi bat dugu, zeren gorago esan den bezala, honen zeregina dagokion izen sintagmaren erreferentzi mundua zabalitzea denez, perpaus bakunetan ere ager daiteke, inolako alde aurretik emandako perpausen presentzia beharrezko ez delarik.

1.4. Laburbilduz

a.- Lokailuak solas mailako loturaren zernolakoaren adierazgarritzat jo ditugu, berek berez perpausik lotzen ez dutelarik. Esan nahi baita, lokailuak gorabehera, bi perpaus jadanik juntatuak egon daitezke, juntadura bidez nahiz alborakuntzaz. Kasu honetan lokailuak ñabarduraren bat erantsiko dio loturari: ez da berdin, adibidez, beraz erabiltzea edo hala ere erabiltzea.

(88) Nik amaitu dut neure lana eta zuk, beraz, ez duzu zer eginik hemen.

(89) Diru asko galdu du eta ez dio, halere, askorik inporta.

Alborakuntzaren arrimura ere etor daitezke:

(90) Nik amaitu dut nere lana, zuk, beraz, ez duzu zer eginik.

(91) Diru asko galdu du, ez dio, balere, askorik inporta.

Bigarren perpausari dagokion elementua da beti ere lokailua eta ez du berak juntadurarik gauzatzen. Juntagailurik baldin bada, juntadurari ñabardura jakin bat eransten dion elementua izango da lokailua; bestela, berriz, alborakuntzari erantsiko dio ñabardura hori. Elementu hauei ezarri dizkiegun deiturek, hortaz, honako oinarri hau dute: lokailuak testu mailako lotura (semantikoa, funtsean) gauzatzen dutenak lirateke. Perpaus elkarketa, berriz, juntagailuz eta menderagailuz gauzatzen da. Denak ere koherentziaren zerbitzutan daudelarik. Jakina, juntagailuaz gainera lokailua ere ager daiteke. Hori da hain zuzen lokailuen eta juntagailuen arteko bereizketa egin ahal izateko erabil daitekeen erizpide nagusienetarikoa. Zeren juntagailu bi ezin bait dira juntadura batean metatu: *eta edo, *eta ala, *baina edo... Zenbait juntagailuri, egia da, eta eransten zaie ondotik: edota, baizik eta, nahiz eta.... Horrelakoetan, ordea -antzeko kasu guztietan bezala- emendiozko balioa galdu egiten du eta juntagailuak, aurrekoaren indargarri edo bilakatuz.

b.- Perpausak lokabeak ere izan daitezke, perpaus elkartu izatera iritsi gabe. Orduan lokailuak perpaus batetik besterako "hariari" bide ematen dio, hemen ere goragoko ñabardura erantsiz:

(92) a. Haizea dabil. Beraz, ez naiz hondartzara joango.

b. Haizea dabil. Ez naiz, hala ere, hondartzara joango.

Bi perpaus hauek, biak, guztiz normalak dira, lehen begiratuan ezetz badirudi ere. Aski dugu egoera desberdinak pentsatzea. Esate baterako (92a)-n suposa dezakegu, haizea ibiltzea ez dela hondartzara joan ahal izateko egoerarik aproposena, eta horregatik, hautatzen dut beraz bidezko lotura: bigarren perpausa lehenbizikoaren ondorioa bait da. (92b) adibidean, berriz, eman dezagun *wind-surf* zalea naizela eta, horrenbestez, haizea behar dudala neure kirola egin ahal izateko. Egoera horretan, noski, **hala ere** aurkitzeak ez gaitu batere harritzen. Horraz, presuposizioak eta abarrak tartean sartzen direlarik, pragmatikaren munduan erabat murgilduak aurkitzen gara lokailuak direla medio.

c.- Eta azkenik, berez juntagailu direnak ere nolahalako lokailu gisa aritzen ahal dira, bi perpausen arteko gramatika-lotura -perpaus elkartu bat osatuz-gauzatzen ez badute ere, hiztunak bien arteko erlazioa nola ikusten duen esaten digutelarik.

Hortaz, edo perpaus lokabeetan agertuko zaizkigu -aurrekoarekin duen harreman semantikoaren berri ematen digutelarik- edo jadanik "juntatuak" -juntagailu bidez nahiz alborakuntzaz juntatuak- dauden perpausen arteko harremanaren xehetasunen bat eskaintzera etorriko zaigu lokailua.

2. EMENDIOZKOAK

2.0. Sarrera

Emendiozko lokailuek halako gehitze zentzu bat ematen dute testuan zehar. Jakina, gehitze zentzu hori nabarmen ageri da eta bezalako juntagailu batekin: lehenago esan den moduan, partikula hau berez juntagailua baldin bada ere (bi perpaus nahiz bi izen sintagma lotzen baititu), lokailu moduan erabiltzea ere ez da batere gauza arraroa, beste juntagailu askorekin gertatzen den legez. Ikus ditzagun, esate baterako, hurrengo adibideok. Lehenbiziko hiruetan eta juntagailua lokailu moduan agertzen zaigu perpaus hasieran. Ondoren datozenetan, berriz, juntagailu bera daukagu (lokailu moduan hemen ere) perpaus hasieran ezezik, pasarte hasieran ere:

- (1) Izan ere, egungo eguneko hizkuntzaz ari ez denak, ingurukoak begi-belarriz jasotzen ez dituenak, testuak behar ditu lekuko, ordukoari nahiz bari artatsekoa izan, antzemango badio, inoizko hizketaren bitartez inoizko hizkuntzaren muinera helduko baldin bada. Eta filologia da, besterik baino areago, testuez, bestela esan, gatzaturik, *érgon* bihurturik, gelditu den hizketaz (esaldi, perpaus eta luzeagoez) mintzatu behar duen jakite mota (L. Michelena, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, 694. orr.)
- (2) Kasu honetan, gainera, Beriain berarengana jo dezakegu, erosoenetakoa ez bada ere bidea, bitartekoak bertan behera utziaz. Eta bitartekoa bera, Larramendi alegia, ez zebilen oker, oraingo Telletxeak erakutsi duen legez (L. Michelena, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, 695)
- (3) Baditu bere logeak, baina, lege horiek erabiliko baditu, erabilkizun den gaia behar du horretarako. Eta gaia ezin izan daiteke testua baizik, testu idatzia, noski, izkribuzkoekin ari garenean lanca (L. Michelena, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, 697)

- (4) **Eta** honeraino, ustez, esan-nahia ongi jaso dut: ez dut, haatik, garbiro ikusten zer zor zioten ontziek Etxeberriri eta honen esku abilari (iaioari, trebeari, nahi duzuenari). (L. Michelena, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, 697)
- (5) **Eta** argi bezain garbi irudituko zaigu gramatika aldetik. (L. Michelena, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, 698)
- (6) **Eta** Arestik, horren oraintsuko dugun Arestik, hainbeste ezagutu dugun Arestik, hain ozenki mintzatzen zen Arestik, *contra esto y aquello* maiz aski, utzi du pasarte ilunik ageri. (L. Michelena, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, 699).

Hala ere, zenbait partikula lokailu (eta ez lokailu bezala erabilitako juntagailu) huts dira batez ere. Emendiozkoen artean aipatu behar ditugu batetik **ere**, **gainera**, **bestalde**, **halaber** eta, bestetik, **behintzat**, **bederen**, **bederik**, **behinik** **behin**, e.a. Hauek guzti hauek gehienetan adberbioak dira berez, lokailu lana egiten dutenak testuan zehar.

Lehenbiziko multzoko lau lokailuek, hau da, **ere**, **gainera**, **bestalde** eta **halaber**-ek, aurreko perpausean esandakoari zerbait gaineratzen diote. Gaineratze hori aski neutroa da, aurreko perpausari zerbait gehitu besterik ez baitugu egiten (X + emendiozko lokailudun perpausa):

- (7) gure herriko plaza oso handia da. Edera **ere**.
- (8) gure herriko plaza oso handia da. Edera, **gainera**.
- (9) gure herriko plaza oso handia da. Edera, **bestalde**.
- (10) gure herriko plaza oso handia da. Edera, **halaber**.

Horrela, (7) perpausean herriko plazari buruz emandako kualitate bati (handia izateari, alegia) beste kualitate bat gaineratzeko erabili ditugu lokailu horiek, adibideetan ikusten den bezala. Guztiz berdinak ere ez dira, jakina, ere lokailua gainerako guztiekin konbina daitekeen bitartean, beste hiruak nekezago aurkituko baititugu elkarren artean bat eginez:

- (11) gure herriko plaza oso handia da. Edera **ere** (bai), **gainera**.
- (12) gure herriko plaza oso handia da. Edera **ere** (bai), **bestalde**.
- (13) gure herriko plaza oso handia da. Edera **ere**, **halaber**.

Beste hiru lokailuekin, ikusiko dugun bezala, honako hau bakarrik esaten da, nonbait:

(14) gure herriko plaza oso handia da. Gainera bertzalde, ederra.

Lau lokailu horiek kendurik, bigarren multzoan agertzen zaizkigunekin, eta hauen artean behintzat jarriko dugu lehenbizikoa, gehitze hori ez da hain modu "neutroan" gertatzen eta beti ere aurreko perpausetik biltzen dugun erreferentzia hori ("X" hori) nahikoa markatua da, kontzesio kutsua duelarik batzutan, baldintzazkoa bestetan, e.a.:

(15) Miren ez dakigu joango den. Gu behintzat joango gara.

(16) Ez dugu esango egunero egin behar denik kirola. Baina, astean behin bederen egitea, oso komenigarria izaten da.

(17) Ongi ongi, ez dugu uste. Baina konpontzen da ingelesez, konpontzen, trakeski badere.

Har dezagun hemen (15) adibidea. Mireni buruz zerbait esan dugu eta berehala hau gaineratu: Miren joaten bada edo ez bada..., aipatu baldintza ezarriz. Horregatik bereizi ditugu emendiozkoen sailean bi azpimultzo.

2.1. Ere

2.1.1. Hitz honek bi forma erakusten dizkigu, euskalkien arauera: ere eta bere, lehenbizikoa dugularik zabalduena. Lokailu hau beti ezkerreko aldean duen osagaiari atxekia doa, honekin halako batasun bat eginez.

2.1.2. Euskal hiztegi eta gramatiketan ez da xehetasun handiegirik ematen morfema honen kategoriari buruz. Gure ustez, lokailu hau, kategoriari dagokionez, aditzondoa dela esan daiteke, lokailu bezala erabiltzen duguna, solas mailan bi esaldiren artean nolabaiteko erlazioa eta lotura geratzen dela adierazten diguna.

2.1.3. Balioaren alderik, esan dezagun lokailu honek zabaldu egiten duela perpausaren erreferentzia-mundua, ondoko adibideotan ikusten den bezala:

(18) Miren eta Maddalen afaltzera joan ziren. Peru ere haiekin joan zen.

(19) Koldo eta Jone ez dira agertu gaur. Paixi ere ez da agertu.

Ikusten ahal denez, perpaus horietako interpretazio hau dugu, gutxi gora behera: lehenbizikoan bada talde edo multzo bat "Miren"-ek eta "Maddalen"-ek osatzen dutena eta multzo horren ezaugarria da multzoko kideak afaltzera joan zirelako hori. Beste hitzetan esanda: testuinguru jakin batean multzokide guztiak afaltzera joan ziren. Bada, "Peru", besteak bezala, multzo horri dagokiola baieztatzen dugu, multzo horren barnean sartu behar dugula alegia, beste biekin batera, "Peru"-ren tokia horixe dela adieraziz. Bigarrenean, ber gauza, ezezko batekin oraingoan: bada multzo bat "Koldo" eta "Jone"-k osatzen dutena eta multzo hori definitzen duen tasuna da multzoko kideak ez direla agertu gaur. Nolabaitere esateko, ezezko tasun batek definitzen du oraingoan multzoa. Bada, "Patxi" beste biekin batera sartu behar dugula ari gara esaten oraingoan.

Ere lokailua ageri zaigun bakoitzean suposizio bat egin behar dugu perpaus horren erreferentzia munduaz. Gure kasu hauetan badakigu norbait joan dela afaltzera edo norbait ez dela agertu. Hori dela-eta, afaltzera joan den norbait horretaz gain edo agertu ez den norbait horretaz gain, Peruk eta Patxik gauza bera egin dutela ari gara esaten. Perpaus hauek zuzen ulertu nahi izanez gero, nahitanahiez onartu beharko dugu batean "Peru + X" joan direla eta bestean "Patxi + X" ez direla agertu. Normalean "X" hori testuinguruak edo aldian aldiko egoerak identifikatzen du beti. Ohart gaitzkeenez, halako balio anaforikoa du ere lokailuak, aurreko zerbaitekin duen lotura adierazten baitu.

2.1.4. Adibideetan ikusten denez, ere lokailua dagokion izen sintagma edo bestelako perpaus osagaiaren ondo ondoan jartzen da, sintagmari erantsia enklitiko bezala ahozkatzen dugularik: "Peru(e)re", "Patxi(e)re", "Perube", "Patxibe". Beste hitzetan esateko, lokailu honek ezin dio inola ere hasierarik eman perpausari, izen sintagma, aditz edo adizlagunen baten laguntzan erabiltzen dugulako, beti zerbaiten ondoan eta ondoren. Zoritxarrez, egun hedatzen ari diren eta hain sarriegi entzuten diren perpaus hasierako "*Ere bai...", "*Be bai...", "*Eta ere bai..." bezalako esaldiak guztiz arrotzak ditugu euskaraz, euskara ezagutzen dugun neurrian behintzat:

(20) - Nor joango da mendira?
- Peru. *Ere bai Jone.

(21) - Nor geldituko da hemen afaltzen?
- Jon. *Eta ere ni.

Hala ere, euskaldunen usadioa desberdina baita kontu hauetan euskalkien artean, ekialdean aski hedatua dago honako jokabide hau:

- (22) Nahiz ez den halako estado haundia Idahok badauka denetarik frango poliki: desertu gorak, gaitzeko mendi eta oihanak eta ere laborantzako lur alde onak (Herria, 2067. zenb.)

Ez da nolana agertzen hor eta ere segida, nahitaz halako enumerazio bat edo eskatzen baitu: "desertuak, mendiak, oihanak eta ere lurak". Dena dela, esan bezala, ekialdeko egileetan bakarrik aurkituko dugu normalean erabilera hau.

Beste erabileretara itzultzen baldin bagara orain, agian erabilerarik maizena (18) eta (19) esaldi horietan jarri duguna dateke, izen sintagmaren ondoan ageri zaigunean. Ez da hori leku bakarra, hala ere, beste edozein perpaus osagairen ondoren ere jar baitaiteke:

- (23) Etxe hau planta ederekoa da. Handia ere (bai).
- (24) Herriko gazteekin ederki konpontzen omen da alkatea eta zaharrek ere oso ongi.
- (25) Gaur ez du astirik izan egunkaria irakurtzeko eta bihar ere ez du izango.
- (26) - Nor joango da mendira?
- Antton. Eta Amaia ere (bai)
- (27) - Nora joango zara oporretan?
- Parisera. Eta Nizara ere (bai)

Adibide guzti hauetan halako presuposizio garbi bat seinalatzen du hitzunarentzat ere lokailuaren erabilerak, lehen adierazi dugun moduan. Lokailuaren ezkerreko aldean geratzen dena mintzagaitzat hartzen dugu, hitz egingo dugunaren erreferentzia ingurune bezala definitua oraingoan mintzagaia (ikus *EGLU-1, Eraskina*), nahiz eta hor ematen dugun informazioa ere berria den. Eta hori gertatzen da galdera baten erantzunari beste zerbait gaineratzen diogunean ere, azkeneko adibideetan ikusten den moduan: "Antton" galdegaia da, horretan ez da dudarik, baina ondokoak "Amaia ere" erantzen duenean, "Amaia" ez da galdegaia, mintzagaia baizik, perpaus horretan galdegaia perpausaren baiezkotasuna delarik. Badira hori horrela dela pentsatzeko bi froga gutxienez: hasteko, "Nor zara zu?" bezalako galdera bati (hau da, galde hitzen bat agerian duen perpaus bati) ezin diezaiokegu besterik gabe "Antton ere" nahiz ere lokailua inguruan daraman beste edozein sintagmaz baliaturik erantzun. Gainera, adizki trinko batez itzultzen dugunean esaldia, baiezkotasuna azpimarratzeko balio duen "ba" partikula (adizki perifrastikoetan

edo ezezkoetan ez da desberdintasun formal hau ikusten ordea) erabili behar dugu:

- (28) - Nor doa gaur mendira?
- Anton (doa / *badoa)
- Eta Amaia ere (badoa / *doa)

Nolanahi ere, diferentzia formalak beti ageri ez diren arren, presuposizioa aldatu geratzen zaigu ere lokailua jarri bezain laster, lokailu honek solas mailako beste zerbaiten erreferentzia hartu behar baitu.

2.1.5. Lokailuaren ezkerrekoa mintzagaia den aldetik, perpausaren hasieran nahiz amaieran joan daiteke (ikus guzti honetaz *EGLU-1. Eraskina*):

(29) Amaia ere badoa

(30) Badoa Amaia ere

Bestalde, perpausaren edozein osagai izan daitekeenez mintzagai -aditza bera ere barne-, edozein osagaik eraman ahalko du ere bere eskuinetara:

(31) Afaldu, berandu afaldu zuen egun hartan

Eta, hortik, testuingurua aldatu dugularik oraingoan:

(32) Afaldu ere, berandu afaldu zuen egun hartan

Alegia, zerbait berandu egin zuen egun hartan, eta zerbait horretaz gain, afaltzera ere berandu joan zen. Honen tankerakoak ditugu beste honakook ere:

(33) Irakurri ere, halako zerbait irakurria naiz ni.

(34) Adibidez, *alternatiba* ez dugu sartu, idazle goaren gehiengoak onartzen ez bide duelako, eta erabiltzen hasi ere duela guxi hasi delako (I. Sarasola, *Hautu lanerako hiztegia*, 1. liburukia, 26. orr.)

(35) Etorri ere, oraintxen nator betetzenik (Y. Etzaide, *Joanak-joan*, 186)

(36) Egia zor zaion lekua ematen dio, eman ere (J. Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 37)

(37) Txapela kentzeko gerturik nengoke, egon ere (J. Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 5)

Hauek bezalakoetan ("ikusi ere", "joan ere", e.a.) badirudi itzuli hauek nolabaiteko autonomia hartu dutela eta zenbait kasutan bederen normalean ere lokailuak bete behar duen zeregina bigarren mailan geratzen dela. Argi aski ikusten da hori "izan ere" esapidearekin, esate baterako. Esapide hau bere aldetik doala dirudi eta ondoren edozein aditz darraiola aurkituko dugu egungo eguneko euskarari. Hori dela-eta, kausazko lokailuen artean sailkatu dugu esapide hori.

2.1.6. Honaino egin dugun aurkezpenean jarri dugu, nolabait esateko, ere lokailuaren erabilera estandarra, euskalki guztietan berdina samar erabiltzen dena. Jakinaenez, ordea, euskaldunen artean ohitura desberdinak daude. Har dezagun perpaus simple bat:

(38) Miren gaur Iruñera joango da

Perpaus honen barnean sartzen badugu orain ere lokailua, esanahia bera aldatu egingo zaigu, lokailuaren kokaguneari arabera:

(39) Miren ere gaur Iruñera joango da

(40) Miren gaur ere Iruñera joango da

(41) Miren gaur Iruñera ere joango da

Perpaus hauetan, hemen ez da dudarik, ere lokailua sintagma diferentearekin doa aldi bakoitzean eta horrexegatik esanahia aldatu agertzen zaigu aldioro: "Norbait joan da eta Miren ere joango da", "Miren noizbait joan zen eta gaur ere joango da", "Miren gaur beste norbait joan da eta Iruñera ere joango da".

Jakina; kontu handia izan behar dugu lokailuak biltzen duen sintagmarekin. Horrela, aldrebeskeriak entzuten dira sarritan, ere horrek berarekin daraman presuposizioa guztiz aldatu gertatzen baita. Ikus ditzagun ondoko adibide hauek:

(42) -Guk goian afalduko dugu. Eta zuek?

Hemen galdetzen ari gara zuek zer egingo duzuen, ez non afalduko duzuen. Hortaz, horren erantzun zuzenak honakook dira:

(43) -Guk ere (bai)

(44) -Guk ere (goian)

Baina ezin dezakegu erantzun beste hau:

(45) *-Goian ere

Nahiz erantzun hori zuzena izan beste testuinguru batean:

(46) - Hemen behean bada lekua afaltzeko. Eta goian?
- Goian ere (bai)

Arrazoi beragatik, elkarrizketa honetan oso gaizki erabilia da lokailua:

(47) - Nobela saria Paxik irabazi du. Eta olerki saria?
- *Paxik ere

Hor eman daitekeen erantzun bakarra hau baita:

(48) - Olerki saria ere (bai)

Lehen esan dugun moduan, lokailuarekin batera doan sintagma perpausaren beste tokietan ere agertzen ahal zaigu:

(49) Gaur Iruñera joango da Miren ere

(50) Iruñera joango da gaur Miren ere

(51) Miren joango da gaur ere Iruñera

e.a.

Adibide guzti hauek oso arruntak direnez, ez digute inolako arazorik planteiatzen perpausen esanahia interpretatzeko orduan. Zer egin, ordea, ondoko bi adibideekin?

(52) Miren gaur Iruñera joango ere da

(53) Iruñera joango da ere gaur Miren

Esaldi hauetan ikusten dugu ere lokailua aditzaren ondoan dagoela: aditz nagusia eta aditz laguntzailearen artean, batean, eta aditz nagusia eta aditz laguntzailearen ondoren, bestean.

Esan dezagun, hasteko, erabilera hau orain arte ikusi ditugun besteak baino mugatuagoa izateaz gain, interpretazio kontuetan ere badirela desberdintasun franko euskaldunen artean. Ikus dezagun lehenbiziko kasua, hots, ere lokailua aditz nagusia eta aditz laguntzailearen artean jartzen dugunekoa:

(54) Irakurri ere dugu Lehendakariak Madrilera joateko asmoa duela

Perpaus honek bi interpretazio ditu: bat, horrelakoak entzun edo esaten dituen euskaldun orok emango liokeena eta, bestea, batez ere ekialdeko euskalkietara mugatzen dena:

(55) Gaur goizean irailian entzun dugu Lehendakaria Madrilera joango dela. Eta ez bakarrik entzun, irakurri ere egin dugu egunkarian hiri hartara joateko asmoa duela

(56) Guzti hau ere irakurri dugu: Lehendakariak Madrilera joateko asmoa duela

Bigarren interpretazio honetan iduri du aditzaren eskuinaldera bota dugula perpausaren zati bat, hain zuzen, ere lokailuak ukitzen zuen zatia, luzeegia delakoan edo. Orduan, lokailua lekuz kanpo bezala geratu zaigu hor, aditz nagusiaren ondotik. Parafrasia, bigarren kasu honetan, honela egin genezake:

(57) Lehendakariak Madrilera joateko asmoa duela ere irakurri dugu

Ohartzen ahal garenez, adibide horretan ere perpaus osoarekin doa:

(58) [Lehendakariak Madrilera joateko asmoa duela] ere irakurri dugu

Hori dela-eta, euskal perpausentzat sintagmek agertzeko duten askatasunagatik, batzutan hau bezalako adibideak aurkitzea ez da batere zaila:

(59) Madrilera joateko asmoa duela Lehendakariak ere irakurri dugu

Jakina, horren interpretazioa honako hau da, nahiz eta lokailua izen sintagma baten ('Lehendakariak') ondoren, eta ez aditzaren ondoren, doan:

(60) [Madrilera joateko asmoa duela Lehendakariak] ere irakurri dugu

Beste hitzetan esana: ere lokailua perpaus osoarekin doa eta ez 'Lehendakariak' izen sintagmarekin bakarrik. Beti ere, zernahi gisaz, testuinguruari egin behar zaio kasu:

- (61) - Kontseilariak Madrilerako joateko asmoa duela jakin dugu
- Bai, egia. Asmo bera duela Lehendakariak ere irakurri dugu

Beraz, hor irakurri behar dena da 'Lehendakariak ere asmo bera duela', 'Lehendakariak ere Madrilerako joateko asmoa duela'.

Zemahi gisaz, ere-ren erreferentziak ez du nahitaez eskuinaldean egon beharrik, testuinguruaren arabera aurreko esaldian ere egon baitaiteke (ikus beherago (73) adibideaz egiten dugun oharra)

Horiek ditugu bi interpretazioak bada: "ez bakarrik entzun, irakurri ere bai" eta "zerbait ere irakurri".

Geroago ikusiko dugunez "baita ere" bezalako itzulietan halako zerbait egiten dugu, hor ere lokailua aurreratua bezala ageri baitzaigu. Berehala ukituko dugu puntu hau.

Hona hemen literaturako adibide batzu:

- (62) Zazpi urthetan pozoatu nahi izan zuten; baina etzion edariak deusik egin. Behar bada on egin ere zion (J.M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 73)
- (63) Eta hala apezek nola aintzindariak, denek atseginekin ikusi zuten Jesus jauna estekatua eta beren soldaduen eskuetan. Egin ere zioten hainitz laido eta azkenean, oihu egin zuten guziek, hiltzea merezi zuela (B. Joannateguy, *Sainduen Bicitzea*, 28)
- (64) Egiti zuten baratzeri-salda koipe puska batekin, baina Agerak laster ezagutu zuten etzala aragi-salda, eta galdetu zion: Jualimo: gaur ere osurala al degu?. Salda onek ala dirudi, bada aragirik ikusi ere ez du (P.M. Urruzuno, *Ur-zale baten ipuiak*, 24)
- (65) Nik, zure tokian, liburutxo ortan euskeraren alboan itzulpen on bai ipitiko nuke. Ala egin ere dut, aren aolkuari nagokala (Orixe, *Barne-muinetan*, 10)

Badugu, azkenik, beste erabilera bat: zenbaitetan, ere lokailua aditz nagusia eta aditz laguntzailearen ondoren ageri zaigu. Goiko adibide berbera erabiliz gero:

(66) Irakurri dugu ere Lehendakariak Madrilera joateko asmoa duela

Erabilera hau ekialdera mugatua dago eta mendebaleko euskaldunen artean neketan aurkitzen da. Interpretazio aldetik, nolakoa den testuingurua, esaldiari ematen diogun hizkera doinua e.a., hiru aukera eskaintzen dizkigu: goiko biak, (55) eta (56), eta beste hirugarren bat: lokailua, askotan, bere eskuinaldean ageri diren sintagmetako bati loturik dago, esaldiaren interpretazioa oso anbigua gertatzen delarik orduan. Zenbat eta sintagma gehiago, hainbat eta anbiguoago.

(67) Hola uste dute ere ene lana ikusi duten guziek (J.B. Arhu, *La Fontainaren aleghia-berheziak*, 13)

Adibide honen parafraasia hauxe da:

(68) Ene lana ikusi duten guziek ere hala uste dute

Honen pareko dirateke ondoko adibideok:

(69) Beila tokietan bereziki, zozbat jende ez dira jarraitzen egiazki graziarik darion bedcratziurrun balios horri!. Hala nola Xaberrin. Horrat biltzen dira ere, oste gaitzean, Nafarra guziko gizonak eta gazteak, berdin urrunetik oinez jinak (P. Narbaitz, *San Frantses Jatsukoa*, 275)

(70) Jupiter asitzen da eztanda egiten, duenean alako figura ikusten. Lertu nai dute ere abere guziak farraz eta algaraz txiki eta andiak (A.P. Iurriaga, *Ipuiak*, 127)

(71) Baderitzat (...) txit gauza egoki ta baliosua izango dala bizitza au maiz irakurtia. Denbora berian arkituko dute ere emen beste asko kristau erok, Jaungoikoaren bildur gutxirekin zeruaz azturik, lurreko atsegin debekatu igarakorren billa dabiltzanak, beren animako eritasunen sendagai berezia (C. Beovide, *Asis'ko Laria*, 18)

Beobideren adibideak erakusten digunez, mendebalean ere ikusten dira noizean behin halako esaldiak, baina argi dago ekialdean maiztasun handiagoa dutela.

Mitxelenak berak ere erabilzen ditu noizean behin:

(72) Badakigu ere zer diren *eskolatu* eta bai *ikastolatu*, erroak *eskola* eta *ikastola*. (L. Michelena, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, 698)

Hor, lanaren testuinguruak erakusten digunez, ez du esan nahi beste zerbaitez gain jakin ere badakigula, baizik *eskolatu* eta *ikastolatu* hitzak ere zer diren badakigula.

Hortaz, zalantzarik egon ez dadin, esan dezagun hiru sail bezala egingo ditugula lokailu honen erabileran:

1. Sintagma baten ondoan jartzen dugunean. Euskaldun guztiontzat berdin.

2. Aditz nagusiaren ondoan dugunean. Euskaldun guztiak interpretazio arrunta, ekialdekoek bigarren interpretazio bat ere bai. Ikus gorago eman adibide eta esplikazioak.

3. Aditz laguntzailearen ondoan dugunean. Oro har ekialdean bakarrik erabilia, oso anbigua gerta daiteke: interpretazio arrunta, bigarren interpretazioa eta baita edozein sintagmari lotzeko aukera ere (hirugarren interpretazioa). Nolanahi ere, anbiguetate hau bigarren kasuan ere gertatzen da, ere lokailuaren ondoan sintagma bat baino gehiago suertatzen denean. Beraz, badirudi perpausaren esanahia aski ukitua geratzen dela ere hori 'lekuz kanpo' ikusi bezain laster. Ikus, esaterako, ondoko adibide hau:

(73) Aitor dezagun bada euskara orain arte, Euskal Herriko eskoletarik kanpo atxiki izan dugula, hori baita Herrian Herriko mintzaira hiltzera kondentzea. Ikusi ere da horrelakorik munduan baina "koloniak" deitzen ziren eskualdeetan eta izan du gaitz horrek ondorioz, ondorio odoltsurik" (*Herria* 2068)

Nola interpretatu behar dugu hori? Hiru interpretazioak dira posible: "kontu guzti hau ez da bakarrik buruan daukagun ideia bat, ikusi ere da...". Besterik gabe esan dezakegu "horrelakorik" sintagmarekin doakeela, bigarren interpretazioan ("horrelakorik ere ikusi da kolonietan, alegia...")? Edo, hirugarren interpretazioan, "koloniak deitzen diren eskualdeetan ere ikusi dela horrelakorik" ulertu behar da hor?

Aipa dezagun, azkenik, oso arrunta ez den arren, zenbaitetan indarturik (ba-rekin edo ez-ekin) ageri dela aditz laguntzailea:

(74) Jakin ez ezen, irakurri ere badet oarrez... (Larramendik Mendibururi egin zion kantan)

(75) (...) aurki adituko dira ta geienak dagoaneko aditzen ere badira (Larramendik Mendibururi egin zion kantan)

2.1.7. Izan ere, baditu beste erabilera batzu lokailu honck. Zenbait kasutan, oso arrunta da perpauseko osagai guztiak ezabatzea, lokailuarekin doan sintagma eta lokailua bera izan ezik (batzutan "bai" edo "ez" erants dakioke lokailuari ondoren, batez ere mendebalean egiten delarik hau):

- (76) - Peru gaur etorriko omen da
- Jone ere (bai)

Hala ere, hor aukeran eman ditugun arren "Jone ere" nahiz "Jone ere bai", biak erabiltzen baitira, euskalkien arabera, ez dira bi itzuliak pare parekoak: **bai** horrek aditz sintagma ordezkatzen du, biak batera ageri ezin direlarik:

- (77) Jone ere etorriko omen da

- (78) *Jone ere bai etorriko omen da

2.1.8. Orain arte ikusi ditugun adibideetan ez bezala, zenbait kasutan ere lokailua perpaus koordinatu baten barruan agertzen ahal zaigu. Azkeneko esaldia bera har dezagun lekuko:

- (79) Peru gaur etorriko omen da eta Jone ere (bai).

Koordinazioan ageri den bigarren perpausaren baiezkotasuna azpimarratzeko **bai** erabil daiteke (egin dugun oharra kontuan hartuz, jakina), adibide horretan bezala edo juntagailuaren ondoren jarritz, itzuli hauek sortzen direlarik orduan:

- (80) Peru gaur etorriko da eta bai Jone ere

Gauza berbera suertatzen da ezezkoetan ere:

- (81) Peru ez da gaur etorriko eta ez Jone ere

Kontua da, ordea, juntagailuak eta baiezko nahiz ezezkotasuna markatzeko erabiltzen dugun partikulak elkarren artean duten ordena aldatu ere ager dakigukeela:

- (82) Peru gaur etorriko da, bai eta Jone ere

- (83) Peru ez da gaur etorriko, ez eta Jone ere

Baina orain beste zerbait gertatzen zaigu: "bai+eta" eta "ez+eta" segida hori elementu autonomotzat jotzen du hiztunak maiz aski "baita" edo "ezta" bezala ahozkatuz gainera, hizkera arruntean:

- (84) - Egunon
- **Baita** zuri ere

(85) Hozildu zen, epeldu gero eta azkenik, hoztu ez ezik, **baita** izoztu ere

Eta hori gertatzen denean ez da batere harrizkeoa ere bera ere lekuz aldatu eta dagokion osagaiaren ondoren ez, baizik aurrean jartzea:

(86) Peru gaur etorriko da, **baita** ere Jone

(87) Peru ez da etorriko gaur, **ezta** ere Jone

Hau egitean, jakina, badirudi ere-ren erabileraren funtsezko arau bat hausten dugula, esan den bezala, lokailu honek beti behar baitu aurretik sintagma bat edo osagai bat. Itzuli hau idazle klasikoetan ere agertzen den arren, ez da dudarik batere XX. mendean ezagutu duela hedadurarik handiena. Horrela, Axularrek hiru aldiz erabiltzen du, Belapeirek behin bakarrik, Larramendik bi aldiz, e.a. XIX. mendetik hasten dira adibideak ugaltzen eta XX. mendean erabilera guztiz arrunta da, denok dakigun moduan.

Koordinazio juntagailuaren aurrean jarri nahi izanez gero, ez dirudi desberdintasunik gertatzen den hor. Gertatzen zaigun beste aukera bat ere betetzen da orduan, "eta+bai" edo "eta+ez" eta ere segidan emanez:

(88) Peru gaur etorriko da, **eta bai** ere Jone

(89) Peru ez da etorriko gaur, **eta ez** ere Jone

Esan beharra da, nolana ere, "ezta" edo "eta ez" sarriago eta ugariago ageri direla liburuetan beren pareko diratekeen baiezkoak baino ("baita", "eta bai"), berdin ere lokailua agerian dutela nola lokailu hau gabe ere. Hona hemen adibide batzu "eta ez ere" itzuliaren gainean moldatuak:

(90) Iñori gaizkirik ez egitea ez egintzaz, ez izoz eta ez ere gutiziaz (D. Legaz, *Cristauzen Icasbidea*, 28)

(91) Lagun urkoaz yuzgo gaistorik arinki ez egitea, au da, erakayik eta funtsik gabe, eta aren utsak ez erratea, ta ez ere entzutea (D. Legaz, *Cristauzen Icasbidea*, 30)

- (92) ta egia au da: euskera ezta, nabarmenki, oker-bide, yakin-bide egin eztegulako; eztegu egin yakinbide zuzen, ta ez ere makur (X. de Lizardi, *Itz-lauz*, 52)

Azkeneko adibide guzti hauetan ere legokiokkeen lekutik kanpo dagoenez, neketan jakinen dugu orain perpaus luzeago batean zeri dagokion zuzen. Jo dezagun ondoko oinarrizko adibide hau:

- (93) Zerbitzaria ez da bere jauna baino handiago eta ez morroia nagusia baino gehiago ere

Oinarrizkoa deitzen dugu, horko osagai guztiak zein bere tokian baitaude: koordinazio juntagailua bi perpausen artean, ezezko partikula perpausaren buruan eta azkenean aztertzen ari garen lokailua. Goian egin dugun interpretaziora jotzen baldin badugu hauxe da ere lokailuak suposatzen duena: bada multzo bat non ukatu egiten dugun norbait beste norbait baino handiago dela. Ba, bada beste zerbait ere multzo berean sartzen duguna (morroia ez dela nagusia baino gehiago, alegia). Lokailua orain lekuz mugitzeko askatasuna emanaz gero, ondoko aukera guzti hauek aurkitzen ditugu idazleen artean (P. Altuna, "Juntagailu kopulatiboak", *FLVI*, 1986, 47-97):

- (94) Cergatic, ez da servitziaria bere nagusiya baño andiyagoa, ezta ere discipuloa, bere maisua baño (Fr.J.C. Echev.)
- (95) Morroia ez baita nagusia baño aundiago, ezta ikaslea ere, irakaslea baño (Apaiz bank)
- (96) Ez da ikaslea irakaslea baño geyago, ez eta morroya nagusia baño geyago ere (Olabide)
- (97) Ez da ikaslea erakaslea baino gorago, ez eta mutila bere jauna baino (Ezkila)
- (98) Ezta dicipulua nausia baino guehiago eta ez sehia bere jauna baino guehiago (Harander)
- (99) Ez da ikaslea maisua baino handiago, eta morroia ere ez nagusia baino handiago (Yakin)
- (100) Icaslea ez da irakaslea baño geiago; ez morroia ere nagusia baño (Orixe)
- (101) Icaslea Maisua baño gueyago ez da; morroya ere ez nagusia baño (Lardizabal)

Eman arrazoiagatik beharbada, hau da, "baita+ere" eta "ezta+ere" segidek euskararen oinarrizko lege bat hausten dukeelako edo, idazle anitzek ez du guztiz gogoko erabilera hau eta bigarren mailan uzten du. Esan dezagun, zernahi gisaz, Mitxelenak berak ere, usu eskeintzen ez dizkigun arren, ez dituela batere gaitzesten:

- (102) Badakigu, behintzat, *geniezazkizuekeen* esaten, baldin ederki esana badago. **Baita ere**, gainera *topikoa bihurtu da* (ze arraio bihurtu ote da "topiko" hori? eta *bi penike bakoitzeko*, harako zahar elbarrituek *bina* esango luketenaren ordainetan (L. Michelena, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, 351. orr.)
- (103) Etxeberri Ziburukoaren *Manual*-ak badu zatitxo bat, balearen arrantza dela eta, nahikoa eta gehiegi nahasia. **Baita ere**, horrek edo Etxeberriren beste obraren batek, latineko distikoetan egina den eskeintza, nik zeharo ezin aditu dudana (L. Michelena, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, 696)
- (104) Eta ez nuke nahi inork hau txartzat har lezan, neure buruari harrika eta ez besteri ari naizenez gero. **Ezta ere** harako gorago esan dudana hura: euskaldunok, alegia, geure hizkuntzaz landa besterik ere beharko dugula etorkizunean (L. Michelena, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, 348)
- (105) Gure oraingo kezkabideak, pentsatzen dudana esan behar baldin badut, hitz kontukoak dira gehienbat: hiztegi kontukoak ere bai, beraz. Ez zaigu falta ez urritasunik **ezta ere**, hau hori bezain nabarmen bada ere, gehiegizko aberastasunik (L. Michelena, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, 351)

Dena dela, oharri gaitezen adibide guzti hauetan "baita ere" edo "ezta ere" segida hauek perpaus hasieran jartzen ditugula bakarrik, eta ez amaieran. Azkeneko adibidean ere hala irakurri behar dugu: "...ezta ere gehiegizko aberastasunik". Hortaz, badirudi euskaraz lekuz kanpo daudela ondoko esaldiok:

- (106) - Jone ez da mendira joango gaur
- *Peru ezta ere
- (107) - Koldok buruko mina omen du
- *Patxi baita ere

Hori zergatik ez dugun (zergatik ez genukeen) esan behar zehaztea ez da gauza erraza. Badakigu ere lokailua, halako itzultietan, lekuz kanpo dagoela, ez baita legokiokoen osagaiaren ondoren ageri. Hala ere, "baita+ere" perpaus hasieran jarriz gero ez dago arazorik. Kontua da, ordea, **ere-z** gainera **baita** edo **ezta** horiek ere perpausaren azkeneraino eramaten baldin baditugu,

perpaus okerra suertatzen dela, **eta** juntagailua ezin delako juntatzen dituen bi osagaien atzean, bien erdian baizik, joan. Agian horregatik ez dira erabiltzen halakoak literamra klasikoan.

2.1.9. Jakina, hauetaz kanpo, ere anitzetan ezagun da beste lokailuak indartzeko edo ("halaz guztiz ere", "halarik ere", "zernahi gisaz ere", e.a.), forma klixetuetan ("batere", "asko ere asko", "batez ere", "izan ere") edo mendeko perpausetan ("erosi badu ere...", "...baino ere handiago", "esatea ere!", e.a.). Gauza bera gertatzen da "inor", "ezer", "deus", "inoiz", e.a. bezalako egituretan. Guzti hauek bere lekuan ikusiko ditugu, ez hemen, hemen, hain zuzen ere, ere bakarrik ageri denean eta bere oinartziko esanahia galdu gabe ageri zaigunean aztertu nahi izan baitugu.

2.1.10. Esan dezagun, azkenik, ere lokailua edozein juntagailurekin (emendiozko balioa nahiz bestelako balioa izan juntagailuak) ager daitekeela:

(108) **eta** zu ere joan zaitezke

(109) **baina** zu ere joan zaitezke

(110) **edo** zu ere joan zaitezke

(111) Saindu hau ere egiptoarra zen sortzez. **Eta** hunc ere galduak zituen bere buraso aberats eta jainkotiarrek (B. Joannateguy, *Sainduen Bicitzea*, 120)

(112) Non garbitu biar dok ik, demoniño orrek? Elxera ixil-isillik, **eta** laster juan be gero, aizto ori emen itzila, katu txalxar ori (Kirikiño, *Abarrak*, 39)

(113) Pedro zetorren bere ondoren, **bañan** au ere uruti (*Euskal baladak*, 235)

(114) Ez du hainbertze indar, **bainan** harck ere on egiten du (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 163)

(115) Aitak ezagutzen du bere semea bethidanik; beraz hura bezain zahar da semea, ezagutzaren haurra. **Bainan** elxhar ere maite dute bethidanik (J.M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 906)

(116) Goscak hil ditzan, edo diru xahutzcak loutsaraz; **edo** berak ez loutsaturik ere jendea dadin akit, beti emaiten (J. Hiriari-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 151)

(117) Ez balitz sorthu, edo egon balitz ere azken gizon bat bezala ilhunbean, nihork etzuen ikusiko haren eskasa (J.M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 80)

Hau guzti hau laburtuz, hortaz, honela geratzen zaigu (eskema guzti hauek adibideetan zehar esplikatutik daude):

- 1) **X ere** (X hori edozein osagai izan daitekeelarik, aditza ere bane)
- 2) ... **eta X ere (bai)**
- 3) ... **eta X ere (ez)**
- 4) ... **eta bai X ere**
- 5) ... **eta ez X ere**
- 6) ..., **bai eta X ere**
- 7) ..., **ez eta X ere**
- 8) ..., **baita X ere**
- 9) ..., **ezta X ere**

(honaino eskema hau enskaldun guztiek segitzen dutela esan daiteke)

- 10) ..., **eta bai ere X** (ekialdean)
- 11) ..., **eta ez ere X** (ekialdean)
- 12) ... **baita ere X** (mendebalean)
- 13) ... **ezta ere X** (mendebalean)
- 14) ...* **X baita ere.**
- 15) ...* **X ezta ere.**
- 16) * **ere X**
- 17) * **eta ere X** (ekialdean bai, enumerazioetan)
- 18) * **X ere baita**

19) * X ere ezta

20) * ere bai X

21) * ere ez X

2.2. Gainera

2.2.1. Forma aldetik berehala ikusten dugu "gain" izenak eta adlatiboaren kasu markak osatzen dutela emendiozko lokailu hau. Posposizio bezala ere erabiltzen dugu ("Fonetikaz eta fonologiak **gainera...**"). Baina hemen lokailu gisa ageri zaigunean bakarrik hartuko dugu kontuan. Noiz erabiltzen dugu? Dagokion perpausak aditzera ematen duena, aurreko perpausean emandako informazioari gaineratzen zaionean:

(118) Askojakina zen Axular eta trebea, **gainera**, zekiena esaten

Perpaus honen bigarren zatian ageri zaigu **gainera** lokailua. Hortaz bigarren zatiko informazio hau ("Axular trebea zen zekiena esaten") gaineratu egiten zaio aldeaz aurretik geneukan informazioari ("Axular asko jakina zen"). Esan daiteke **gainera**-k balio argumentatiboa duela, esan nahi baita, hiztunak dioenaren bermagarri edo indargarri erabiltzen dugula, aurretik aipatu beste zerbaiten ondoan:

(119) Ez du balio orain harengana joan nadin. Akiturik nago eta oso berandu da. **Gainera** euria ari du.

Lokailu honek, adibide horietan, eta ondokoetan ere, ikusten denez, bere autonomia osoa du, "gain"-ek izen gisa izan lezakeen erreferentzia guztiz galdua baitu:

(120) Arrigomietan beste ohidura bat dago. **Gainera**, zer daki ama batek mutikoen gauzak, edo... (Oskillaso, *Kurloiak*, 64.a)

(121) Arritzekoak ziran aren adimenaren irardausia ta ark eraiki zuek etxaguntzaren ederra. **Gainera**, askotarako gizona zan, izan ere: ta onela arrigariago ta ikusgariago egiten zaigu (J. Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 5)

2.2.2. Gehienetan, beti ez bada ere, perpaus hasieran doa lokailu hau:

(122) Egunero norberak bere burua azter bearra zeukean, iru galdera oiei erantzunik: zertan egin dut uts? Onik egin al dut? Egin behar nuenik egiteke utzi al dut? **Gainera**, eizuten zilegi babarrun eta gaztai-belarrik iaterik... (J. Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 53)

(123) Patxik etzuan aurkitzen atseginik neskaileen jokotian, eta **gainera** euren aginduak bethe behar izaten zituan behi (Oskillaso, *Kurloiak*, 39)

Zenbaitetan, hala ere, perpaus azkenean ere aurkitzen dugu **gainera** lokailua:

(124) Zuk merezi baño txikiago izango da gaurko penitentzia; ta neronek lagunduko dizut, **gañera** (N. Etxaniz, *Euskal Antzerkiak. Kontu-kontari*, 122)

(125) -An bertako gizonak dagozak, nik liburu batian irakorri najuan, jakintsu bati **gañera**. -Bai ete? erantzun zetzan Matxinek barrez-barrez, tranpan arrapau ebala pentsaurik. -Ai, ai-ai, asto bereinkatua, sinistu eiten dok **gañera**; zelan bizikodituk ba iretargian gizonak? (J. San Martin, *Zirikadak*, 108)

Beste batzutan, berriz, perpausaren barnean ere:

(126) Ez omen dio mutillak nai lukean bezela arpegirik ematen Malentxok; ez omen daki arrek, **gañera**, neskatxari nun ta nola iz egin leikion (D. de Aguirre, *Garoa*, 174)

2.2.3. Lokailu hau zenbaitetan **eta** juntagailuarekin agertzen da:

(127) Asko jakina zen Axular **eta gainera**, idazle aparta

(128) Ez naiz hemen horretaz jardungo, lxit nahasia bait da gai hori **eta, gainera**, oraindik ez daukadan jakitea eskatzen du (J. Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 342)

(129) -Koxmerengatik nai aña zitalkeri bota dituzu, ta ortik etorri dira emengo oztasunak, emendik alde egitiak. -Baña, nik Koxmerik ikusi ere ez badet! Ta, **gañera**, zuk biali dezula zeorrek esan didazu (T. Alzaga, *Burruntziya*, 39)

(130) Egia da, danok egiten genduen gauzea zan, lenago, geure gurasoak alantxe erakutsi euskuelako, **eta, gañera**, guztiok ekandu zarren gordezalcak giñalako (D. de Aguirre, *Kresala*, 84)

Baina gainera eta ere gainera ere aurkitzen ahal dira:

- (131) Esan det ixilik galde dezazula; **baña** orain diot **gañera**, urliaren konurako gauzaren bat jakiten badezu, ixilik gorde bear dezu zeregan (J.B. Aguirre, *Eracusaldia* I, 601)
- (132) Hilko zera, eta andik laxter gorputz ori ezur-uts izango da, (...) ar likitxen pilla nazkagarri bat. **Baña gañera**, baldin kondenatzen bazera, ikatza baño beltzago egongo da zure arpegia ifernuan (G. Arruc, *Mayetzeco illa*, 29)
- (133) Gernikako arbola abestu eban Aldea de Camposkoak. Ondo abestu be, **gañera** (N. Alzola, *Atalak*, 64)
- (134) Aurak ola mendian ikaratzea, ez da gauza zalla, bañan ezta egokia ere. Gosarie ere jan digu **gañera** (M. Lekuona, *Eun dukat*, 29)
- (135) Baiba, ta gero auxe, ajia galanta, gorputza ondatu, dirua galdu ta osasuna makaldu; lotsatu be ezeiz eitzen **gañera** (J. San Martín, *Zirikadak*, 94)

2.2.4. Esan dezagun, azkenik, ezin direla nahasi **gainera** eta **gainerontzean** (eta honen aldakiak), azken lokailu hau aztertzen dugunean ikusiko den bezala.

2.3. Bestalde / bertzalde

2.3.1. 'Beste' izenondoak ('bertze' lapurteraz) eta 'alde' izenak ('althe' Zuberoan) osaturiko hitz elkartua dugu berez. Baina lokailu bilakatzen zaigu askotan. Eta orduan 'beste (alde bate)tik' esan nahi du.

Perpausaren banean betetzen duen funtzioa, gainerako emendiozko lokailuekin gertatzen den bezala, gehitzearena da: 'lehen esandakoaz gainera, beste hau ere bai' bezalako zerbait adierazten duenean nabari da ongi aski funtzio hori. Beraz, ekintza bati beste bat gehitzen zaiola adierazteko balio du. Hori ikusten da ondorengo adibide hau bezalakoetan:

(136) Euria da. Haizea, bestalde. Beraz, ez dago mendira joaterik.

(137) Jakin behar da, bestalde, hori egia dela.

Adibide hauek erakusten dutenez, 'bestalde' lokailuak aurreko 'Euria da' perpausak dioenari 'haizea ere badela' gaineratzen dio. Edota 'lehen esandakoaz gainera, egia ere badela jakin behar dela'. Beraz, 'bestalde' lokailuak 'gainera' lokailuaren balioa hartzen duela esan daiteke:

(138) Euria da. Haizca, gainera. Beraz, ez dago mendira joatearik

(139) Jakin behar da, gainera, hori egia dela

2.3.2. Lekuari dagokionez, lokailu hau ia ia nonahi agertzen ahal zaigu: perpausaren hasieran batzutan, edozein osagaiaren ondoren bestetan (galdegaiaren ondoan salbu, jakina) eta perpaus amaieran ere, beti aukeran, ondoko adibide guzti hauek frogatzen duten bezala. Hona hemen, esaterako, perpaus hasieran ageri zaigunean:

(140) Ez diteke ez lumaz, ez margoz, ez argazkiz, etxe-barne-ikuskitan ori bizikiago ikus-arazi. Zein erraz ta neurritz datorkion bear-mintzoa. Bestalde, badezu or olckari-aztarnik ere (X. de Lizardi, *Itz-tauz*, 15)

(141) Hanitxek bazakien Haritchabalet apez zela. Bestalde, lotsarik gabe, berak hori erraiten zian goraki (J.B. Constantin, *Haritchabalet (...) gainean*, 27)

(142) Aita maitea, ez da egun arrain aro. Bertzalde, arrain guti da itsaso huntan, eta ez dugu lehen aldia hutsik gohazila (F. Laphitz, *Bi saildu hescualdunen bizia*, 216)

(143) Benateri, aphaletuk: to, gure neska horrek, potreta tiki hau hiri emateko esan daukak! Hitz bat baduk barnean. Bertzalde, postaz eihorri dituk bi letra. To-itzik (P. Larzabal, *Iru ziren*, 94)

(144) Ez badut begitartez aitaren eiterik, bertzalde badut asko haren heinekorik: kasko berdin gogorra bonetaren petik, zango itipi berdina, bideko emerik (M. Echamendy, *Bertsoak*, 71)

Ondoko adibide guzti hauetan, berriz, perpausaren barnean ageri da, dela aditzaren ondoren, dela beste edozein osagaiaren ondoren, edo perpaus azkenean ere:

(145) Bristi, brasta, bazoan, bide pollitari behera, gaztena-ondoen itzaleuk haitz ederren itzalera, bere buruarekin iriz. Bethi iriz ari zen, bestalde, Zaroko zapataina! (J. Barbier, *Supatzer chokoan*, 29)

(146) Aberearen sen eta grifletatik geien aldendu dena, eta orregatik arriskurik aundienean dagoena. Egia da, bestalde, diote, abere denetan interesatueena ere ba-dela (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 65)

- (147) Mugaz bertzaldeko pertsulari lagun horiek aunitz estimatzen eta maitatzen ditut nik, eta uste dut horiek ere egiten nautela ni. Badut bertzalde alde hortan adixkide asko. (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 55)
- (148) Huna zer dioen bertzalde gizon aipatu batek: Gaskoina bera ez laiteke galtzerat utzi behar, bainan are gutiago eskuara (J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 13)
- (149) Jainkoak gure on handitan kontu idukiko dauku gure xede ta nahi onaz. Jakin behar dugu bertzalde ezteela gauza guti bat, meditazioean sentitzen diren idortasunak penitentziatzko izpirituz hartzea ta jasatea (M. Duhalde, *Meditacioneac gei premiauuenen gainean*, 98)
- (150) Damurik oraiko gazteek guti dituzte maite eskuarazko liburuak! Damurik, bertzalde, gira eskualdunak hoin ezazol eta hoin zozo, gure arbasoen mintzairen alderat (J. Etchepare, *Beribitez*, 76)
- (151) Gainera, erbestean areago ikas zezakean, aldi artako Atenai'n baino. Asko dakusanak asko ikasi daroa, bestalde (J. Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 12)
- (152) Beraz, balentzat on datekena, galgarri gertatzen da bestearentzat. Bat bera da on eta txar, bestalde (J. Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 33)
- (153) Haren ahaleko eskualzale guti orai, gutartean. Astia nun ginuke bertzalde? Urthe idorrak erori zaizkigu bizkarrerat: egiteko hanitz edo gutiegi, irabaziak xuhur,... (J. Etchepare, *Beribitez*, 5)
- (154) Orduan agorrazten dute berriz lur hura bera idortegian; aintzinean bezala herrautselara bihurtarazten dute bigarren aldiko, eta kausitzen da lehenbiziko phisu bera duela. --Zer? --Leheneko phisu bera, eta khuiarena bertzalde? (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 76)

2.3.3 Zenbait kasutan eta juntagailuarekin batera erabiltzen da, gainerako emendiozko lokailuekin gertatzen den bezalaxe, beti ere perpausaren hasieran jarritz:

- (155) Libro zira, beraz! Libro! Eta bestalde iknsten dut etzirela mensa (J.B. Etchepare, *Mendekoste gereziak eta beste*, 94)
- (156) Aita on harek erraiten dio: To bi miliun urretan. Eta bestalde izanen dituk hiru iniliun lurretan (M. Etchamendy, *Bertsoak*, 150)

- (157) Eskuaraz mintza, eta bertzalde ikas eskuara (J. Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 218)
- (158) Garbia ez balinbada, nola airebitzen zare predikatzera? -Itiazioz ez du ihardesten. -**Eta bertzalde**, nondik du zure lagunak planta gabeko arropa hori? (F. Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 95)
- (159) Hala hala da, eta lana ere bururatuxea dugu, ene ustez. -Bai, **eta bertzalde**, gauerdik ez ginduzke bidean atxeman behar (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 121)

Esan dezagun, azkenik, **baina** juntagailu eta **berriz** lokailuarekin ere ikusten dela zenbaitetan. Zenbaitetan ere-rekin ere:

- (160) Bai orixe! **Bestaldetik**, berri, naiko eskasak ziran lenago ere gariak eta, ezetorren andik galkuntza aundirik (T. Agirre, *Uztaro*, 132)
- (161) Aren esanetara zuden Bañeztar guziak. **Bestaldetik**, berri, zefiek baretu Guraiatarren aldekoak? (N. Etxaniz, *Euskal antzerkiak. Kontu-kontari*, 58)
- (162) Gu ez gira Platon bezain fida gure sortzezko jiteari: beldur gira bekatuak gure begia isu edo goibel, mundu huntan gireno. **Bainan**, bertzalde, biziki ausariago gira girixtinoak (J. Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 919)
- (163) Erakutsi dugu jadanik hori gezurra dela... **Bainan**, bestalde, nungo teologiak dauku buruan sararazi sakramentu baten hartzeko gizonak behar duela, lehenik, eta bere baitarik grazia horren gai bilakatu? (P. Narbaitz, *San Frantses Jatsukoa*, 175)
- (164) Animalien erregeak zilhoan eri zauntzanak bere azpiko guziri ordena zaien igorri: arraza ziren guziek, adardun, adargabeek, bidal zetzaen gorthera monarka bisitatza, deputatu hautatuak; zauzkala segurhatuak berak, baita are segidak, lehoiñ hitzaren azpian; aurkituren zutela han karifio eta begitarte: seguranza ere bertzalde hortz eta aizaparren kontra: ez baitzen hau gauza alferra (L. Goyhetché, *Fableac edo aleguac*, 122)

Euskara mintzatuan 'gainera' eta 'bertzalde' biak batera ere usu aurkitzen ditugu:

- (165) Hori oso gizon aberatsa da. **Gainera bertzalde** erranen dizuet, zuen jakineko, hemengo auzapeza dela

2.4. Halaber (orobat, berebat)

2.4.1. Azkuek bere hiztegian sartu zuenetik hartu du hedadura jatorriz ekialdeko euskalkietakoa zen lokailu honek: euskal literatura ikustea aski da konturatzeko batez ere lapurteraz izan dela erabilia hasiera hasieratik, mendebalean ia ia agertzen ez delarik historian zehar. Egungo euskara idatzian, ordea, oso erabilia da. Formari begiratu badirudi "hala" adizlagun modalak eta "ber" morfemak ("berriz", "berrehun", "berregin", "bera", "berau", eta horrelako hitzetan ageri den partikula berak alegia) osatzen dutela. Ez da harrizkoa, hortaz, **halaber** lokailua emendiazkoa izatea, aurreko perpausaren esandakoari zeozer gehiago gaineratzeko erabiltzen baitugu. Nolabaitere itzultzekotan "gauza bera", "gisa berean", "modu berean" edo horrelako zerbait esan nahi luke honek:

(166) Zorakeria da bizitza luzea desiratzea; zorakeria da halaber etorkizuneko bizitzaz ez oroitzea

Kontura gaitzen perpaus honetan ederki ordezkia daitekeela ere lokailuaz:

(167) Zorakeria da bizitza luzea desiratzea; zorakeria da ere etorkizuneko bizitzaz ez oroitzea

(168) Zorakeria da bizitza luzea desiratzea; zorakeria da etorkizuneko bizitzaz oroitzea ere

Esan bezala, perpaus hori honela interpretatzen dugu:

(169) Zorakeria da bizitza luzea desiratzea; gauza bera etorkizuneko bizitzaz ez oroitzea

Alegia, zorakeria bati ("bizitza luzea desiratzea"-ri) beste zorakeria bat gaineratzen diogu ("etorkizuneko bizitzaz ez oroitzea"). Horregatik esan dugu lokailu honek zuzenean eransten diola beste zerbait aldeztetik esandakoari.

2.4.2. Lokailu hau lotura ezartzen dion perpausaren hasieran joaten ahal da:

(170) Ezkurretik ezagun da haritz larraifekoa, bere fruiturik sagarra, bai beretik fikoa. **Halaber** da ezagutzen berelik herioa, ezen lasumagarria uzten du hatz ondo (J. Echeberri (Ziburukoa), *Manual Devotionezcoa*, 43)

- (171) Bada lege dugu examinazeko doktrinan ezkondu baño len guziak, ezi zer erakutsiko du eztakienak? **Alaber** ikasi gaztetik emasteki lanak josten, errokan, ogi ta lixua egiten, kozinazen, ta gañarakoak (J. Lizarraga, *Programa de vida cristiana*, 116)
- (172) Arizarrak bertzetarik abantaila darama: **halaber** da anderetan ni ponatzen nuicna (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 147)
- (173) Jainko bat adora zazu, **halaber** maitha osoki (F. Echeverri, *Guiristino-doctrina (Luzaide)*, 17)
- (174) Hirc izena (...) exalta eta glorifika baitaite lekhu guzietan. **Halaber** duán hik gure gainean dominazionea. (J. Leizarraga, *Othoizta*, 5)
- (175) Konbeni da orazio au eta berzeak erran ditezten aditzen den lengoajea. **Alaber** konbeni da orazionetan eskatzen diraden gauzak eska ditezten sines. (E. Materre, *Doctrina Christiana*, 185)
- (176) Hartzen dut borondate fermu bat ez gehiago bekatuik egiteko, zure grazia sailduarekin batean; **halaber** hartzen dut borondate nere bekatuen osoki konfesatzeko. (F. Echeverri, *Guiristino-doctrina (Luzaide)*, 35)
- (177) Maite dut zure begitarrea, maite zure boz ezta, / **halaber** zure irri gozoa, zure izaite guzia (Xalbador, *Odolaren minizoa*, 114)
- (178) Baldin maiz eroritzen badira, **halaber** maiz iaikitzen dira; baldin maiz egiten badute bekhatu, **halaber** maiz erremediatzen dute. (P. de Axular, *Guero*, 346)

2.4.3. Nolanahi ere, ez da perpaus hasiera lokailu hau ikusiko dugun leku bakarra. Esate baterako, perpaus amaieran ere joan daiteke:

- (179) Obeto esan, etxeko guztiak dagoz arriskupe, Nikanor berbera **alaber** (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 142)
- (180) Urruñarrak, berantegi jakinik, ezin etorri dire; eta bertze frango **halaber**. (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 160).

Halaber perpausaren azkeneko aldean ageri zaigularik, garbiago ikusten da lokailuaren aditzondotasuna, adibideetan gertatzen den legez. Badirudi hor aditzondo hutsa dela.

Bide batez, **halaber** eta **ere** zein hurbil dauden ikusteko, aski dugu azkeneko adibide horri behatzea. Hor bi lokailuak ageri zaizkigu. Lekuz

aldatuko bagenitu, perpaus horren esanahia ere aldaturik geratuko litzaiguke?
Ez dugu uste:

- (181) Gizonek zuei egin deitazuen nahi dituzuen gauza guziak egin icitezue zuek
halaber haiiei ere

Gainera, pasarte hori nola itzuli izan duten beste idazle batzuk ikustea
baino ez dugu:

- (182) ...zuek ere hei (J. Haraneder)
(183) ...ere gisa berean (*Test. Berria. Lapurdico eusc.*)
(184) ...zuek ere egiezute (J.A. Uriarte)
(185) ...zuek ere ekin (B. Echenique)

2.4.4. Batzutan mintzagaiaren (mintzagai hanpatuaren, askotan) ondoan
ageri zaigu:

- (186) Inazio etzen jakintsua. Nekez mintzo zen, hurriki zitzaion atheratzen elhea;
haren idaztician, **halaber**, ez da ezagun idazlearen antzerik. (J. Etchepare,
Beribitez, 65)
- (187) Mediterranea ezagutzen dugu guk ere [...] Lau dago eta nare bere hedadura
guzian, Bere hedadura guzian, **halaber**, urdin-urdina da. (J. Etchepare,
Beribitez, 81)
- (188) Hafei egiten diozuen fabore espirituala, segura zaiteste, zebei **halaber**
gerthauko zaitzuela. (P. d'Argaignarats, *Devoten Breviarioa*, 231)
- (189) Eskerrak eman zituen, ogiak autsi ta bere ikasleai banatu zizkien, aiek gizaldeai
eman zitzaieten. Bi arraiak **alaber** guziaz banatu zizkien, bakoitzak nai adinbat
(P. Iraizoz, *Yesukristo gure Yaunaren bizia*, 211)
- (190) Ar zazu, irakurle, egiozu begi argia, irakurri-ala zure euskal-zaletasuna bazka ta
goza dedintzat; kritikak **alaber**, bere eginbearra danez, adieraz beza naiz zuzen
naiz oker legokena (Gaztelu, *Musika Itilla*, 6)
- (191) Zutan dago bekhaoren remedio guzia, esperanza, osagarri eta salbamendua; zuk
gibela demazuna nola baita galduia, zure gomenduan dena **halaber** da salbuia
(B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 75)

- (192) Eta ezkonza saindu Jainkoaz ordenatu haur da halako berthutetako, non haren kausaz senharrak ezpaitu bere gorputzaren botherea, baina emazteak: emazteak-ere halaber eztu bere gorputzaren botherea baina senharrak (J. Leizarraga, *Othoizta*, 26)
- (193) Beraz arrazoinekin, gelditzen den ondoko ondoreagatik, laburzki egiten den bekhatuari, emaiten zaika gatzigu luzea eta sekulakoa. Eta hala emaiten zaika halaber laburzki egiten den obra onari ere, sekulako loria eta pagamendua (P. de Axular, *Guero*, 394)

2.4.5. Maiz kara erabiltzen da aditzaren ondoren:

- (194) Merczimendua eztaza zeruko bisioneen eta konsolazioneen izatean; ez datza halaber skriptura sainduaren ungi aditzean (M. de Chourio, *Jesu-Christoren Imitacionea*, 168)
- (195) Ikhusten duzunean norbait, zuhurtziaz, zuzentasunez (...) berregindua, separa zazu halaber, bere baitarik duena, Zerutik errezibitu duena-ganik (J. Haraneder, *Gudu izpirituala*, 131)
- (196) Errezibi zazu, eta betho gaitzatu zure graziez. (...) Orhoit zaite halaber, Iauna, Purgatorioan diren arima gaixoez. (*Andredena Mariaren ilhabetea*, 55)
- (197) ...bere modestia handia agertu zuen, trublaturik ikhustearekin aingerua gizonaren idurian; erakhutsi zuen halaber bere prudentzia. (A. Jauretche, *Meditacioneac*, 350)

2.4.6. Baiezko nahiz ezezko partikularekin ere ageri da:

- (198) Othoitz egin diezazugun hillez eta biziez / Bai halaber atsekabe guri egin nahiez (J. Etcheberri (Ziburukoa), *Manual devotioenezcoa*, 15)
- (199) Halatan beraz erran behar da jakintasuna dela gizonaren perla, jujusa eta diamant preziatua, bai halaber adimenduko goibeldurak umariarazten tuen iguzkia. (J. Etcheberri (Saraka), *Obras vascongadas*, 176))
- (200) Zorrozki beiratu behar gare jenden laudorioen ta munduko ohoren guuziagatik, deusik ez egin sekulan xede hortaz, ez halaber uts egin gabe egin gogo zenik deusik, mundutarren burlen eta erasion beldurrez. (M. Duhalde, *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, 67)

2.4.7. **Eta** juntagailuarekin batera:

- (201) Heldu naiz zure oifetara / Amudioz kargatua, / **Eta halaber** ethortzen naiz / Beldurrez arraillatua. (B. Gaselucar, *Eguia Catholicac*, 122)
- (202) Obligatiak dira hartu duenaren lehen bano lehen errendatzera, **eta halaber** egin duen damiaren erreparatzera (*Caichima (Laneville)*, 96)
- (203) Bainan gizonaren indarrak emaztearenak ez bezalakoak dire; **eta halaber** eginbideak. (B. Joannateguy, *Sainduen Bicitzea*, 130)
- (204) Nausi batzu halakoak dira non, ezagutzen ahal balituzte beren schiak **eta halaber** beren burua, ahalge bailitazke beren nausigoaz. (J. Etchepare, *Buruchkak*, 39)

2.4.8. **Eta** juntagailua **eta** baietzko nahiz ezezkotasunaren partikularekin:

- (205) Gauza guztiek ohi tik zefek bere moldeak, / **Baita** promesak **halaber** bere iustu legeak. (J. Etcheberri (Ziburukoa), *Manual Devotionezcoa*, 27)
- (206) Eskribatzen den gauza, hobeki pentsatzen **eta** konideratzen baita, berehala solhasean erraien dena baiño, **eta bai halaber**, halatan huts ere gutiago egiñ. (P. de Axular, *Guero*, 171)
- (207) Behin elkhargana abiatuz gero, gaitz da handik pizten den suaren iraugitzea, **eta bai halaber** iendearen ixilik edukitzea. (P. de Axular, *Guero*, 263)
- (208) Fazoin bera egin dezakezue mirra arnoarekin hirakiturik, **bai eta halaber** leizarrarekin. (M. Dassaça, *Laborarien abisua*, 593)
- (209) Ez da haren gogoa bere arartekotasunaren enplegatzea guri ardiesteko gure salbamenduaren kontrako laitekenik, **ez eta ere, halaber**, abusa gaiten ardiesten dauzkun ongiez. (A. Jauretche, *Meditazioneac*, 371)

2.4.9. **Ere** lokailuarekin bakarrik agertzen ahal da:

- (210) **Eta** ezkonza **saindu** Jainkoaz ordenatu haur da halako berthuletako, non haren kausaz senharrak ezpaitu bere gorputzaren boherca, baina emazteak: emazteak-**ere halaber** eztu bere gorputzaren boherca baina senharrak (J. Leizarraga, *Othoitza*, 26)

2.4.10. Autore batzuren artean aski arrunta da lokailu hau modu-konparazioa egiteko erabiltzen ditugun perpausetan aurkitzea, hala hutsaren ordeztartzen delarik orduan:

- (211) Nola espanatzen baitu dragoiak marifela / Halaber izituren du Antekristek fidela (J. Echeberri (Ziburukoa), *Manual devotioinezcoa*, 72)
- (212) Ezen nola zelhaietan arriberek bidea / Halaber nahi dik egin Justiziak berea. (J. Echeberri (Ziburukoa), *Manual devotioinezcoa*, 91)

Hemen ikus daiteke berriro ere **halaber** eta **ere**-ren artean dagoen parekotasuna: **nola ... halaber bikotea bezala ... ere bikotearekin ordeztka** baitaiteke:

- (213) Ezen erriberek zelaietan bidca egiten duten bezala nahi du Justiziak ere berca egin

2.4.11. Esan dezagun, bukatzeko, lokailu gisa aztertu dugun honek "-ko" atzizkia hartzen ahal duela, izenlagun bihurtuz horrela:

- (214) Fermuki sinhosten dut entzutera nohan meza dela, Jesu-Kristo zure seme Jainkoaren gorphutz eta odolaren Sakrifizioa; ofritzeko manca halaberekoa ez izan arren, hark berak Kalbafioko mendian gizon guztientzat ofritu zuen Sakrifizio hura bera. (*Andredena Mariaren ilhabetea*, 45)

Adibide honek erakusten digu orain lokailu honen aditzondotasuna argiago, ezin baitugu ahaztu, azken batean, lokailuak aditzondoak (edo aditzondo izanak) ditugula lotura kontuetan erabiltzen ditugunak.

2.4.12. Lokailu honen parekoak ditugu **berebat** eta **orobat** lokailuak ere. Ondoko adibideotan ikus daitekeenez, **halaber** bezala, lokailu hauek ere perpaus hasieran, perpausaren barnean, junlagailuekin, e.a. erabiltzen dira. Hona hemen batzu perpaus hasieran, esate baterako:

- (215) Irugarren egunean goizean-goiz mendia odei illun batek aru zuen, eta asi ziran tximistak irteten, eta turmoia jotzen. **Berebat** aditzen zan tronpetasofu zorrotz bat, jendea mendirontz alderatzeko, ziona. (F.I. Lardizabal, *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*, 77)
- (216) Mirenek eskeñi didan baño zorion biziagoa bear du nere biozak, eta arkitzen alegindu bear dut denaren gañetik. **Berebat**, pentsatu gabe aukeratu nuen nere

bizibidca; ta ez naiz zoriotsu ifola gabe. (Txillardegi, *Leturiaren egunkari ezkutua*, 112)

- (217) Bat-batean aziendak janhariz aldatzen badira, ethortzen zaiote hantura edo berze gaitz zenbait. Orobat, bazka ferdeak akhabatzerakoan, ez dezatzula abereak bat-batean ezar jan idorrcan: bero laitezke. (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 258)
- (218) Baztandarra zen Francisco de Elizondo aita kaputxinoa ere, besteen artean "Lore usaindun inamitsuak" liburua izkiriatu zuena. Orobat Amayurko erretore izan zen Cruz Goyneche jaunak ere eskuaraz apainki idatzi zuen (M. Izeta, *Dirua galgarri*, 11)
- (219) Orduan, Noe sartu zen barnean bere emaztearekin, bere hirur seme eta heien emazteekin. Orobat arkarat hartu zuen abere eta hegaztin mola guztietarik pare bat (Zerbizari, *Ixtorio Saindua*, 13)

Perpauaren barnean orain:

- (220) An ez nuan ordea irakurri, berectara etorri zala ta bereck ezutela ongi artu; ongi-etorri egin ziotenari lainko-seme izateko eskubide eman ziela. An irakurri nuan berebat, itza, lainkoa, aragitik, odoletik, giza-gogotik ez baiño lainkoagandik sortua dala. (Orixe, *Aitorkizunak*, 167)
- (221) Zerura igaten banaiz, zu han zare; ifernura jausten banaiz, orobat han zare. (J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 154)
- (222) Errien borondateak egin oi du bere buruzagien izendapena. Berak erabakitzen du, orobat, boterearen itxura edo tankera (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 187)

Juntagailu nahiz lokailuekin oraingoan:

- (223) Ikara latzetan nindagon, eta berebat sulu nintzan, aita, zure urrikia itxedonez eta artan poz-iauzi eginez. (Orixe, *Aitorkizunak*, 218)
- (224) Jatekoak diran zerak bere, agiri dira eskaparate zabalean, eta edariak orobat. (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 126)
- (225) Da birtute bat, animatzen, eta indartzen gaituana edozein neke sufrizera pekaturik ez egiteagatik; eta orobat gerra justuan izan dira gizon baleroso asko miragarritzko bikloriak fortalezako birtute onekin iritsi dituenak. (J.I. de Guerrero, *Sayaquera*, 85)

- (226) Jainkoaren fedea beeraka dijoan neurrian, morala ere berebat amilka dijoakigu
(L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 95)¹

Aipa dezagun hemen, azkenik, **orobat...nola** egitura ere ageri dela euskal literaturan (hala...nola, nola...hala zentzuarekin):

- (227) Kemen emaztekoa **orobat** labajutzen da, **nola** gizakia, mendi lanetan (M. Mendigacha, *Cartas a Azkue*, 137)
- (228) **Nola** hegaztinak ikusten duen saretik ihes egiten baitu, **orobat** egizu (Zerbizari, *Ixorio Saindua*, 58)
- (229) Mahaiña diozu mundu guztiari hedatzen, digneki rzebitzera bat bedera manatzen. Onak eta gaixtoak ere hartzen dute **orobat**, **nola** argitzen baitaroc iguziak **orobat** (J. Etxeberri (Ziburukoa), *Noelac*, 123)

Hauetan aski argi dago egiazki aditzondoa dela.

2.5. Behintzat

2.5.1. Lokailu honen forma eta kategoria

Hasieran esan dugu emendiozko lokailuak bi sailetan banatzen ditugula. Orain arte ikusi ditugu lehenbiziko multzokoak, nolabaitere 'neutroenak' direnak edo. Gaineratze hutsa egiteko erabiltzen ditugula aitortu dugu sarreran. Orain ematen diogu hasiera bigarren multzoari, baldintza estuagoetan erabiltzen ditugularik lokailu hauek. Eta hauen artean **behintzat** dugu lehenik aztertuko duguna. Forma aldetik, eta lokailu honen historia kontuan hartzen baldin bada, ongi ikusten ahal da, 'behin' adizlagunak eta '-tzat' destinatiboan eta prolatiboan ageri den atzizkiek osatzen dutela lokailu hau. Idazleen artean aldaki bat baino gehiago izan du, ohitura den bezala anitzek ez baitute tarteko 'h' hori erabili eta beste batzuk '-tzat' horren ordez '-zat' nahiago izan baitute,

¹ Zenbaitetan, **berebat**-ek, aditzondo izaki, predikatua osa lezake:

- (a) Kornelio txit ona eta Jainkoaren bildur andikoa zan, **eta** elxeoak ere **berebat** ziran. (F.I. Lardizabal, *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*, 498)

Hemen, jakina, lokallurik ez dugu.

'beintzat', 'behintzat', 'beintzat' eta 'behintzat'. Zenbait euskalkitan "behin" bera bakarrik ere erabiltzen da:

- (230) Honek behintzat, ez dio berriz ere sartuko eskua zakurrari letaginetan
- (231) Honek behin, ez dio berriz ere sartuko eskua zakurrari letaginetan
- (232) Patar gaixtoetan, arbolak du ematen hobekienik; hastapenean ongi arthatoz, oihana nausiarazten bada. Semeak. Gaur behin erran darotazu xixuriak egin behar dorela (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 35)
- (233) Itsasoa ez othe dugunez, hemen ere ikusi-gabe utzi behar? Hala luke iduri, behin (J. Etchepare, *Beribilez*, 77)

Bestetik, hitz hau biltzen duen kategoria eta 'ere' hitza biltzen duena, kategoria bera ez bada, oso hurbilekoa dela esan dezakegu. Biek egiten diote erreferentzia 'beste' zerbaiti, aurreko perpausen batean baieztu nahiz ukaturiko zerbaiti alegia. Horrela, 'ni ere joango naiz' esaldian 'beste norbait' joango dela baieztatzen ari gara. Honen antzera, 'ni behintzat joango naiz' baldin badiogu, berriz, 'beste norbait'-ez ere ari gara, norbait hori ez dakigularik joango den ala ez, dudan jartzen baitugu ekintza hori. Baina ekintza bera dudan jartzen dugun arren, 'behintzat' lokailuak berarekin darama erreferentzia horren egitearen ezinbestekotasuna. Hau da, bi kasuetan (ere-rekin eta behintzat-ekin) erreferentzia hori nahitaezkoa da: halako tasunak dituen multzo batean sartzen naizela ni, diogu batean, ere darabilgunean; behintzat-ekin, berriz, ez gaudela ziur bestea multzo horretan ere sartzen den ala ez, baina ni bederen, ni hor sarturik nagoela kontu segurua da.

2.5.2. Funtzioa eta erabilera. Mintzagaia eta galdegaia

Funtzioari dagokionez, esan denari buruz nolabaiteko muga jartzeko erabiltzen du hitzunik behintzat lokailua. Esanahiaren aldetik bederen, behinik behin, segurik edo bederik lokailuen baliokide da gehienetan. Izan ere, zenbait kasutan, aurrerago ikusiko dugun moduan, eta batez ere harridurazko esaldi mota batzutan, behintzat bakarrik erabiltzen da, ez gainerakoak. Azken urteetan aski zabaldu den gutxienez lokailua ere sail berekoa da, baina honen erabilera batez ere zenbatasuna adierazten duten sintagmetara mugaturik ageri da literaturan zehar.

- (234) Gurutzean josirik zegoala ere, iru itz gutxienez otoitzezkoak izan ziran (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 124)

- (235) Etziran zentzatu, geienak beintzat, aginte onekin ere, eta agindu bear izan zuan berriro elizak, komulga zitezela gutxienez urtean beñ, pazko loratuan (J.B. Aguirre, *Eracusaldia* I, 479)

Esanahiaren aldetik lokailu guztiok oso hurbil baldin badaude elkarren artean, distribuzioari dagokionez, euskalkiak hartu behar dira kontuan. Ondoko lerroetan esango denez, oso esanahi zabala har dezake lokailu honek, nolakoa den testuingurua. Maiz aski, perpausean adierazten den ekintzaren baiezkotasun edo ezezkotasunean, lokailuaren aurrean biltzen diren sintagmei halako muga bat jaritzeko erabiltzen du hiztunak **behintzat**, horri kontrajartzen zaion informazioa isiltzen dugula adieraziz edo:

- (236) Koldo eta Jone **behintzat** etorri dira

Hain zuzen ere, hemen, **Koldo eta Jone** (**Koldo eta Jone bederik**, **Koldo eta Jone behinik behin**) etorri direla adierazten dugu, gainerakoen etortzea zalantzan jartzen dugun bitartean. Gure adibidearekin segituz, **Koldo eta Jone** etorri direnen multzokoak direla ari gara esaten, multzo horretako besteak nor izan daitezkeen, baldin badira ere, berdin zaigularik.

Adibide hori izan daiteke agian lokailu honen erabilerarik zabalaren ispilu. Orain arte ikusi ditugun gainerako lokailuekin gertatzen den moduan, testuinguru egokia izan gabe nekez erabil daiteke lokailua, esan nahi baina, ez gara gure solasean besterik gabe hasiko lokailu hau bamean daukan perpaus batekin zuzen zuzenean, beste zeozer presuposatzen ez dugun bitartean **behintzat**. Goiko adibide horretan hiztunak badaki norbait etorriko dela edo jendearen esperoan dagoela, nahiz agian une horretan ez den ziur jende guztia azkenean agertuko denentz. Horregatik baieztatzen du **Koldo eta Jone** gutxienez baietz, horiek etorri direla, perpausaren galdegaiaren baiezkotasuna azpimarratzen delarik hor. Esaldi hori honako galdera honen erantzun egokia litzateke:

- (237) Etorri da norbait?

Ekintza horren ezezkotasuna markatzeko ere berdín berdín erabil dezakegu lokailu bera:

- (238) **Koldo eta Miren behintzat** ez dira etorri

Adibide honetan egoera desberdina dugu: badirudi **Koldo eta Miren**, besteak beste, espero genituela baina oraingoz hauek ez zaizkigula agertu. Ez

dakigu ziur besteak etorri diren ala ez, baina badakigu Koldo eta Miren ez daudela hemen. Ekintzaren baiezkotasun eta ezezkotasun hau dela-eta, ez da harritzeko lokailu honen ondoan 'bai' eta 'ez' (edo baiezkotasuna nahiz ezezkotasuna adierazteko erabiltzen ditugun bestelako partikulak) ere agertzea. Horixe da, hain zuzen ere, literaturan behin eta berriz ageri zaiguna:

- (239) Erriari gebendu zaion ura lurperatzeko asmoa al den? Ura beintzat bai, neba baitet, baina ik ere, nai ez baden ere (J. Zaitegi, *Sopokel'en antzerkiak*, 162)
- (240) -Gizon guztiak, Kain bezala, izandu ziran gaiztoak? Geienak beintzat bai (J.A. Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 15)
- (241) -Noiz, ta zenbat aldiz komulgatu behar da? Urtean bein beintzat bai (J.A. Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 185)
- (242) -Orain ere igesegingo ote zun? Iges egin edo libratu beintzat bai. (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 38)
- (243) Buru geiago... ez dakit; ille geiago beintzat bai (T. Alzaga, *Burruntziya*, 34)
- (244) Ori dok-eta, astotxu! Onetan beintzat baietz neu nagusi izan! esan eban otsoak, pozaren pozetz dantzan asten zala (F. Bilbao, *Ipuin-barreka*, 185)
- (245) Ikusiko dozu beti diardubela euren buruak garbituten. Txarriak beintzat ez (J.A. Uriarte, *Dialogues basques*, 34)
- (246) Egun danetan dagoz sarturik eleizen, abadien aurrean santu baten gisan; gero ikusi biar zer moduz dabilizan, Zintzo asko orain arte beintzat ezta izan (K. Enbeita, *Bertsoak*, 162)

Perpauz galdegaiaren baiezkotasunaz eta ezezkotasunaz aritu gara; ez da beharrezkoa, hale ere, galdegaia perpausaren baiezkotasuna nahiz ezezkotasuna izatea, galdegaia beste zerbait ere izan baitaiteke:

- (247) Rahab emakume galduaren izenekoa zan: ala ere, edo bere bizitza gaiztoa uzitza zeukalako, edo Jainkoak ordu artan biotzean ukitu ziolako, Israel'tarrai beintzat, txit arrera ona egin zien (F.I. Lardizabal, *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*, 108)
- (248) Ta neure buruaz baiño urrukiago nintzan nire nagosi gaxoaz, zortzi egunez ez eban ezer agora eraman-da. Etxean beintzat, ondo egon gifan yan barik. Nik ezlakit nondik ebillen eta zer yaten eban (Orixe, *Tormes'ko itsu-mutilla*, 85)

Adibide guzti hauetan, **behintzat**-en ezkerrekoaldean ageri dena mintzagaia den arren, galdegaia gauza anitz izan daiteke: 'ixit harrera ona' eta 'ondo'.

2.5.3. Zenbatasuna

Oso arrunta da **behintzat** lokailua zenbatasuna adierazteko erabiltzen ditugun aditzondo eta zenbatzaileen inguruan agertzea:

- (249) Oek nai ta ez bezala izango dituzte, **geienez beintzat**, tentazio ta eragozgarri andiak, ala infernuko etsaien aldetik, nola mundukoenetauk (J.A. Moguel, *Confesioe ta comunioco eracasteac*, 235)
- (250) Zazpigarrena, prestaera ederrarekin artzen duanaren biotzean ixurteza, **askotan beintzat**, bere gozotasun miragarriak, animako pakea, eta atsegin-kontentu garbiak (J.B. Aguirre, *Eracusaldiac* I, 398)
- (251) Garatz edo negozio andiak erabili dabezan gizonak, ola-jaunak, lantegi-jabeak, **askok beintzat**, aldi laburrean irabazi gizen-gizenak egin ebezan; aberats andi, aberats okitu egin ziran, eta onelan lurreko ondasunik geienak esku gitxian batu (J. Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 24)
- (252) Bai, amar... edo asko **beintzat**, ardi, beor moxal ta oiso danak nastean, batabestearen atzetik leiaz, garo salletan aurrera itxuturik, otarietan barruna zarrapaztaka,... (D. de Aguirre, *Garoa*, 157)

Esan dezagun laburtzeko, bada, **behintzat** lokailua pareka daitekeela batzutan **segurik**-ekin eta **bederen**-ekin ere: adibide horietan edozein lokailu jar daiteke. Dena dela, azkeneko honek baditu 'behintzat'-ek biltzen ez dituen esanahiak.

2.5.4. Presuposizioa

Lokailu hauen erabilerak, beti bezala, zerikusi handia du hiztunaren eta entzulearen presuposizioekin. Esaldi bera gerta liteke onargarri edo ulertezina, hiztunaren presuposizioa ere aldatzen denean. Horrela, jo dezagun ondoko hau:

- (253) Aprobatu bai **behintzat** aterako du

Hor ulertzen dugu, gure presupozioa da, aprobatua baino gehiago ere atera daitekeela, bestela ez bailuke zentzurik perpaus horrek. Ikus dezagun beste honako hau:

(254) Matrikula **behintzat** aurako du

Egoera arrunt batean ulertezina litzateke perpaus hori. Jo dezagun, ordea, ikasketak bukatu berri dutenen artean aukeratzen ditugula hoberenak eta haien artean banatu nahi ditugula sariak. Eta sari horiek bi direla: "Ikasketen Sari Berezia" (hoberenentzat) eta "Matrikula", besterik gabe (bigarren gelditzen direnentzat). Orduan, testuinguru horretan (matrikula baino sari hoberik onartzen dugulako presupozizioan), goiko esaldi hori zuzen legoke. Ez dezagun ahaztu, norbait edozein azterketetara aurkezten dencan zero **behintzat** seguru daukala. Ber gauza suertatuko zaigu bestela ere:

(255) Everest **behintzat** igoko du

Guretako, seguraski ere, normalean Anbototik edo Gorramendiitik pasatzen ez garenondako, ez du ez, perpaus horrek zentzu gehiegirik. Hala ere, gu izan beharrean Himalaia aldera abiatu den mendizale batek esaten baldin badigu, eta mendizale horren asmoa baldin bada Everest-ekin batera Lothse eta Annapürnä ere igotea, orduan, eta orduan bakarrik, perpausa bere tokian egongo litzateke.

2.5.5. Behintzat eta honen kideak

Behintzat, ordea, ez da euskalki guztietan ezaguna eta lokailu honen lekuan zenbait euskalkitan **segurik** da erabiltzen dena, horrela bereizten direlarik mendebaleko (**behintzat**) eta ekialdeko (**segurik**) euskalkiak. Hortaz, goiko adibide horietan berdin berdin erabil daitezke bi lokailuak, bata zein bestea, pare parekoak direlako:

(256) Koldo eta Miren **behintzat** etorriko dira

(257) Koldo eta Miren **behintzat** ez dira etorriko

(258) Koldo eta Miren **segurik** etorriko dira

(259) Koldo eta Miren **segurik** ez dira etorriko

Bi hauen parekoa dugu, geroago ikusiko dugun moduan, **bederen** lokailua ere eta **behintzat** bezalaxe erabil daiteke, nahiz, literaturan ikusten denez, ezezko perpausetan maizago ageri diren beste bi lokailuak:

(260) Koldo eta Miren **bederen** etorriko dira

(261) Koldo eta Miren **bederen** ez dira etorriko

Zernahi gisaz, honek ez du adierazi nahi **behintzat** eta **bederen** berdin berdinak diren. Bi lokailu hauek alor semantiko diferenteak dituzte, eremu handi eta zabal batcan (handiengan) bat egiten duten arren: **bederen** lokailuak badu besteak ez duen baldintzazko kutsua. Beherago itzuliko gara puntu honetara.

2.5.6. Bestelako erabilerak

Behintzat lokailuak baditu beste bi erabilera aipagarri: harridurazko zenbait perpausetan ageri zaigunean eta "lehenik" edo horrelako zerbait adierazi nahi duenean. Jakina; lokailu hau perpaus arrunt guztietan aurkituko dugu (adierazpen perpausetan, baldintzazkoaten, aginte perpausetan, e.a.). Zernahi gisaz, badira literaturan harridurazko perpaus berezi batzu:

(262) yasoko dabe deabruak, ta ondatuko dabe beingo-beingo baten infernuko sugarrtan. O zori-gogorreko bekatuak **beintzat!** (P.A. Añibarro, *Escu-liburua* 2, 37)

(263) Zu zara ene odola eta ene gauza guztien ganetiko gauzea. O odol estimagarria **beintzat!** (P.A. Añibarro, *Escu-liburua* 2, 120)

(264) Inaziok, Santa Teresak, San Yoan Kolunbanok, beste milla ta milla askogaz batera, egiaztuko dabe nik ditodan gauza au. **Bai beintzat**, liburu santuak dira zeruko su ederra biotzean biztuteko su-arri ta kaltzeru alazokoak; dira su ori azi ta eukitiko su-garria (J.A. Uriarte, *Dialogues basques*, 22)

(265) Orra emen zelan munduko gauzarik balijotsuenak zor jakezan abretxu batzubei. **Bai beintzat**. Nok esango leuke erregcen ta erregifen apaindurijak onei zor jakezala?

(266) -Jakin baneutsan nor zan, beragaz neu batu? Ez **behintzat**, bai lenago mutill zar igartu (F. Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 273)

Halako kasuetan, ikusten denez, **behintzat** jarri baldin badu ere idazleak, aski argi dago hor ez dela **segurik** edo **bederen** erabiltzen ahal. Egun, hau esango genuke, besteak beste, hor:

- (267) **bai noski, bai horixe, bai eiki, bai segurki, bai phürü** (euskalkien arabera, eta czezka ere gauza bera)

Ohart gaitezten, bide batez, **segurki** diogula hor, eta ez **segurik**. Beraz, **behintzat** eta **segurik** parekoak izanik ere, harridurazko esaldiotan idazle bakan batzuk **behintzat** erabili arren, ez dugu guk horrelako adibiderik aurkitu **segurik**-ekin. Aldiz, oso arrunta gertatzen da **segurki** halakoetan.

2.5.7. Lokailuaren tokia

Idazleen arabera, **behintzat** leku askotan ageri zaigu perpausean. Perpaus hasieran, esaterako:

- (268) kondairatzalle adituena, goian jaio zala diote. Eskafieraren 2n, adigarriyan. **Beintzat** sala-nausi izandu zan atalburuban kanpoko aldetik eta ondoko sala-aurrearen etxa-goian irakurtzen da onela (J.I. Arana, *San Ignacio Loyolacoaren bicitza*, 3)

- (269) Gaxoren bat zearo gaizkitu zaio-ta. Azpiletako gizona. **Beintzat**, ez zigula itzegin nai ba-zirudin. Lenago ez zan onelakoa (A. Labayen, *Euskal Eguna*, 74)

Kontua da, ordea, **behintzat**-ek, esaldiaren hasieran jartzen dugularik, beste esanahi bat ere izan dezakeela, hiztun askoren ohiturari harrigarri egin baldin badakioke ere:

- (270) Jorratzeak bi on dakharzke. **Behintzat**, hiltzen ditu belhar gaixtoak, zeinek iresten baitute lurak ogiari eman behar lukeen gozoa, eta horrengatik premia dira jorrak, bereziki belar tzarrak hazitzen hari direnean edo aintzintxean (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 72)

Badirudi hitz honen esanahia bestelakoa dela hemen. Aurreko zerbaitekin lotura adierazten du, bai, baina beste era bateko lotura, adibide guzti horietan 'hasteko' edo 'lehenbizikorik' edo horrelako zerbait esan nahi baitu:

- (271) **Hasteko**, hiltzen ditu belar gaixtoak...

- (272) **Lehenbizikorik**, hiltzen ditu belar gaixtoak...

Halako kasuetan, badute lekurik **bederen** eta **behinik behin** lokailuek ere?. Antza denez, zenbait hiztunek **behin bederen** erabil dezake (zentzu honekin, hain zuzen):

(273) **Behin bederen** hiltzen ditu belar gaixtoak...

Bestetik, **behinik behin** ere erabili izan da zentzu honekin:

(274) Iru gisatara utsegin diteke gai onetan. Utsegin diteke **benikben** baldin apaintzen bada bat duan aditari ez dagokan cran. (J.B. Aguirre, *Eracusaldia* II, 92)

Testu honetan argi aski ikus daitekeenez, "hasteko" edo halako zerbaite esan nahi du. Berritoki ere oharzen gara zein hurbil dauden elkarren artean hiru lokailu hauek: **behintzat**, **bederen** eta **behinik behin**.

Orain arteko adibide gehienetan lokailua perpausaren hasieran aurkitu baldin badugu ere, normalean, hasiera hasieran agertu beharrean, tartean agertzen zaigu, hiztunak formula bat baino gehiago erabili ohi duelarik, adibideetan ikusi den moduan. Esana dago haxe dela agian maiztasunaren aldetik gehien erabiltzen dena:

(275) Salatu, **behintzat**, salatu zituen

Lokailuaren ezkerrekoa, aipatu bezala, mintzagai hanpatua da sarritan. Bide batez, esan dezagun mintzagaiaren eta aditzaren arteko erlazioak modu askotara gerta daitezkeela. Goiko adibideak erakusten duen bidez gain, beste honakook ere ez dira falta:

(276) Salatu **behintzat**, salatu zituen

(277) Salatu **behintzat**, egin zituen

Esan dezagun, azkenik, lokailua perpaus amaieran ere agertzen ahal dela:

(278) Bañan... zuk ere egiñ bear dezu nik agintzen dizudana, nik egiñ al nezakcana bada **beintzat** (V. Moco-roa, *Damuba garaiz*, 9)

(279) Ondo ulertu dau eskabidea? Gulangokoaz berorren burua bat egitea, Zeuek gura badozuc **beintzat** (D. de Aguirre, *Kresala*, 124)

- (280) Elxerako zerbait inguratu bear. Ta onik al dira gizona ta semea? Oeak ozten ditugu, beintzat (N. Euxaniz, *Lur berri billa*, 94)
- (281) Amerikara, zegaitik zuaz ba? An urte batzuk eginda diru zati polit bategaz etortiarren. Ekarriko ete dozu gero...Beste batzuk ekarri dabe beintzat (Kirikiño, *Bigarrenengo Abarrak*, 130)

2.5.8. Juntagailuekin batera

Edo koordinazio juntagailu hautakariarekin ere agertzen da noizean behin:

- (282) Bigarren doia: Apaizari dagozkan gauzen jakitua, edo beintzat artarako gogotsua, eta arretaduna izatea (J.B. Aguirre, *Eracusaldia* I, 551)
- (283) Bada sarritan egindako konfesioakiñ oso paga zentzake bizitz onetan, edo beintzat atera zentzake zorren zati andi bat (G. Arrue, *Mayetzeco illa*, 96)
- (284) Orobat izan zan Erri onetan jaioa, edo beintzat bertako jatorria, Jeneral ospatu Miguel Lopez de Legazpia, Filipinasetako ugarteen irabazkintzallea (J.I. Iztueta, *Guipuzcoaco provinciaren condaira*, 478)
- (285) Bost minutu ibilteko, gutxienez ordu erdi behar zuan orratz handiak. Edo beintzat hau da Patxiri iruditzen zitzaiona. (Oskillaso, *Kurloiak*, 168)

Oharño gisa esan dezagun, azkenekoz, lokailu hau aurreko sintagmari (edo dagokion perpaus zatiari) loturik ematen dugula hizkera doinuan, etenik gabe gehienetan. Hori dela-eta, normalean ez darama komarik aurreko aldetik idazteko orduan, baina komadun adibideak ere aski ugari eta arruntak dira literaturan:

- (286) Israel'tarrai, beintzat (Lardizabal)
- (287) Aparia, beintzat (Zabala)

2.5.9. Laburtzeko, hortaz, honela geratzen zaigu lokailu honen distribuzioa:

1) **behintzat, bederen, behinik behin, gutxienez** (zenbatasuna), **segurik**

2) **behintzat** (harr.): **segurki, jakina, noski**

3) **behintzat**: **hasteko, lehenbizikorik, behin bederen, behinik behin**

4) **bederen**: **kontzesio kutsua**

Hots: **behintzat** lokailuak balio du beste lauak ageri diren tokian jartzeko ('bederen', 'behinik behin', 'gutxienez' eta 'segurik'); **behintzat** lokailua, harridura berezi hori adierazten duenean, 'segurki', 'noski', 'jakina' eta halakoez ordezkara daiteke, euskalkien arabera; **behintzat** lokailuak beste esanahi bat ere biltzen du, 'hasteko' edo halako zerbait adierazi nahiko lukeena: literaturan 'behin bederen' eta 'behinik behin' ere ageri dira esanahi berarekin inoiz. Azkenekoz, **bederen** kontzesio kutsuarekin erabiltzen dugu maiz.

2.6. Bederen, bederik, behinik behin

2.6.1. Formaz ez, baina esanahiaz (gehienetan segurik) ikusi dugun **behintzat** lokailuaren pareko dituzkegu hiru lokailu hauek. Forma aldetik, **bederen** (edo honen aldakia **bedere**) eta **bederik** haurrideak ditugu (bata genitiboaren markarekin eta bestea partitiboaren morfologiaz hornitua). Argi ikusten da, bestalde, **behinik behin** delako hori **behin** aditzondoaren gainean eraikia dela.

Denek esanahi bera, neurri batean behintzat, dutelarik, euskalkien arauera daude sailkatuak, lehenago ere esan dugun moduan. Hortaz, "bai"/"ez" partikulen inguruan, harridurazko esaldietan, sintagmen artean, perpaus hasieran, perpaus amaieran, e.a., ageri dira, ondoko adibideok erakusten diguten moduan:

(288) *Haserreko borthitzek, (...), osasunik hazkarrena maiz flakutzen dute, batzutan laster ere bai, eta bethi kasik berantxago bederen bai, suhar langit batek bezala. (M. Duhalde, *Meditacioneac get premiatsuenen gainean*, 198)*

- (289) -Berantegi heldu zira; Marianne gaixoa Jainkoa baitan pausatu da! -Alo! Aldi huntan bederen ez dut galdu ene Pauerako bidaia! (P. Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 93)
- (290) Neskatxa kanporat orduko, bere hamar sosekoarekin doluz, urrikitzen zaio muhilarri, eta bere khexuan, sakreka hasirik, erraiten du: deabruak eraman baleza bederen! (J. Barbier, *Ipuinak*, 127)
- (291) Denborak denak kontsolatzen ditu! Bederen zurekin Europarat ereman nezazu... (P. Larzabal, *Iru ziren*, 106)
- (292) Batzu eta besteeri ez ote dizkigu bederen gure mugak oroit arazten? (*Herria*, 2067.zbk)
- (293) Ez zituen haren gogoa eta bihotza baizik erdeinatzen. **Edo bederen**, uste zuen oraindik Isabela baten haragi mardul eta beroak emanen ziola haren etsipen isilak eskaltzen zuen mozkorraldia (J. Mirande, *Haur besoeakoa*, 35)
- (294) Ala ere, gezur-eskola artan aintzinatu ez nezakela etsirik, oberik ezean, artan lasai egoitea erabaki nuan epelago ta nagiago bederen (Orixe, *Aitorkizunak*, 117)
- (295) -Oruk zear joan eta zer alderdi dan itaunduko al dizut? -Bai, entxo! iñor bizi ba'da bederik (J. Zaitegi, *Sopokel'en antzerkiak*, 106)
- (296) Edo etzun uste igesegin zezakenik, edo berak utzi zion, erdizka bederik eisita (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 116)
- (297) Pedro'k erantzun zion: Jauna, beste guziak zogandik gaitzerako bidea artuko balute ere, nik **benik-bein** etzaitut utziko. Egiaz, esaten dizut. (F.I. Lardizabal, *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*, 441)

Lokailu guzti hauek oso loturik daude elkarren artean eta sarritan oso zaila da benetako bereizketak egitea. Hori dela-eta (alde batera utziko ditugo harridura perpausez eta "hasteko" bezalako itzuliei buruz aipatu ditugun ñabardurak), ez dirudi batere zaila denik lokailu hauek elkarren artean trukatzea, erabilera aruntenetan behintzat:

- (298) Koldo eta Jone behintzat etorriko dira
- (299) Koldo eta Jone bederen etorriko dira
- (300) Koldo eta Jone behinik behin etorriko dira

2.6.2 Horretaz gain, lehen esan bezala, harridurazko zenbaitetan **behintzat** lokailua **segurki**-rekin ordezkutzen dugu eta beste batzutan (egia esan, gehienetan) **segurik**-ekin, **bederen**-ekin edo **behinik** **behin**-ekin. Nolanahi ere, eta hemen legoke **bederen** eta beste lokailuen arteko desberdintasunik azpimarragarriena, **bederen** lokailuak badu besteek askoz ere nekezago eskuratzen duten (inoiz eskuratzen baldin badute) kontzesio kutsua:

(301) Helduko da, zeharka **bederen**

(302) Otxoa de Arin, esate baterako, ez da berebizikoa, baina nolabait ere, Bizkai kutsuari eskerrak agian, moldatzen da, trakeski **bederen**.

Argi dago hor "zeharka bada ere" eta "trakeski bada ere" esan nahi duela. Ezin dugu mulizo honetako beste lokailu batez ordezkatu hor.

2.7. Badere

Bereiz utzi dugu hitz hau, gure ustez honek aparteko esanahia duelako bere erabilerarik arruntenean. Esan dugun bezala **bederen** lokailuak badu zenbait kasutan kontzesio kutsua:

(303) Euskaraz ez daki ongi, baina gaztaroan entzunari esker agian, moldatzeko gai da, trakeski **bederen**

Hor ezin da 'behintzat' esan, adierazi nahi dena 'bada ere' edo antzeko zerbait izango bailitzateke. Bada, **badere** lokailua horik dator, hain zuzen: "bada+ere" itzulitik, jakina. Beraz, argi dago "bada ere" itzuliak baduela kontzesio kutsua. Gure idazleen artean antzek kontzesibo moduan erabiltzen dute "bada ere" nahiz "badere" ("badare" bezala ere), mendeko perpaus arruntak sortuz horrela. Hori gertatzen da Leizarraga, Oihenart, Duvoisin, Bordel eta beste batzuekin. Berdin berdin bertsolari askoren artean ere. Kasu guzti hauetan, esaterako, ez da ailegatu lokailu izatera eta mendeko perpausaren aditz arrunta dugu:

(304) Mundu hunetako bizitzea hanbat miseriatarara suiet **badere**, fidelarentzat Iainkoaren benedikzione bat da (J. Leizarraga, *Othoizta*, 59)

(305) Naduka ni, hotz **badere**, erriek bihotzean (A. Oihenart, *Poesiak*, 40)

(306) Guziok nolerebait, ta nola ez dakizutela badere, Meditazio, Konsiderazio eta Orazio mentala egin oi dezute askotan (A. Cardaberaz, *Egercicioac* II, 10)

(307) Ikasi zuen gauzak obekiago pentsatzen eta arrazoiaren antz pixka batekin badere egiten (F. Goñi, *Lurdes-ko gertaera goguangarriyak*, 72)

Askotan ez da, ordea, adizki oso bat, iharturik geratu den zerbait baizik:

(308) Bi-iru urte da pasatuxia zintzotu zala gizona, nekez bada're sinistu zuen emaztearen esana; lan-toki ona arapatu du, entregatzen da kintzera; garai batian ori bezela orañ ni nago gizona (Txirrita, *Bertsoak* II, 174)

Hor adizkia balitz, badirudi "bazen ere" edo halakoren bat behar genukeela.

Bere adizkitasun osoa galtzen duelarik, ordea, lokailu bihurtzen zaigu beharbada, emendiozko gainerakoen esanahia eskuratuz:

(309) Beragatik asmo onekin egunian orritxo bat badere letu biar dezu (C. Bcovide, *Asis'ko Loria*, 17)¹

(310) Nik este bakar bat det tripan, eta bera zuzen-zuzena, eta ala, aotik sartu-ala, bete-ala dijoa bere bidez kanpora, eta apurtxo bat bada're barruan geldituko bada, egarria iltzeko, askotxo sartu bear izaten det (P.M. Uruzuno, *Ur-zale baten ipuiak*, 52)

Jakina, hemen formak hain labainkorak izanik, 'bederen' eta 'badere' bezalakoekin nahaspideak sor daitezke:

(311) Bigarrena: urtean bein **bedere** konfesatzea, edo lenago eriotzeko peligroan aurkitzen bada (*Cristau-Dotrina (Baztan)*, 48)

¹Hemen **behintzat** ere ager zitekeen, **seguru** asko, agian esanahi ez erabat berarekin

Hor, noski, 'bederen' da: euskalki batzutan ongi bereizten dira "bedere" ("bederen" esan nahi duela) eta "badere" ("bada ere" esan nahi duelarik: "Hori badere eginen dugu" = "Hori baizik ez bada ere eginen dugu"). Kontua da, nolana ere, eta honekin amaitzen dugu, hitz hau ('badere') argi eta garbi lokailu ez baldin bada ere, idazleek erabiltzen duten neurrian, lokailu izateko bidean den adizkia izan daitekeela.

2.8. Badarik (ere)

Sail honetan sartu beharko genuke, halaber, **badarik ere** esapidea (eta honen aldakiak):

- (312) Eta debozioezko sentimendu hek guziak merezi ezitularik, **badarik ere** presentatzen derauzkitzut ene bihotzeko afekzioeak (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea*, 284)
- (313) Eserziza hori eta bertzeak eginen dituzun egunetan, mengoarik ezpada ere osoki aparta zaitezin jendekin ibiltetik, **badarik** aphur bat apartatu behar zare, guzien gainetik arratsaldetan, muga hobezgoz ohera ahal zaitezkenzat, eta konsiderazioneen egiteko premia den espirituko eta gorputzeko errepausua har dezazun gatik (S. Pouvreau, *Philotea*, 510)
- (314) Emazte baten senharra urrutitik heldu bada, emazte hark dakien bezain sarri bihurtu dela, eta haren hitza enzuten duenean, egitekolan amarratua delarik, eta zenbait konsiderazione bortitzek hura bertzen artean badaduka ere, **badarik** haren bihotza ezrago loturik, aitzitik bertze gogoeta guziak largatzen, bere baitan solhas egiteko senhar etorriarekin (S. Pouvreau, *Philotea*, 514)

Zernahi dela, esapide hau ez da gaur egun ia ia erabiltzen, orain arte ikusitako lokailuak gaineratu direlako.

3. HAUTAKARIAK

3.0. Sarrera

Sail honetan biltzen diren lokailuak "hautakariak" deitu dirugu, hiztunak hautaketa bat adierazi nahi duenean erabiltzen dituelako. Jakina: hautaketa hau egiteko erabiltzen diren partikularik ezagunenak "edo" eta "ala" dira, baina hauek ez dira lokailuak, juntagailuak baizik, nahiz sarritan, beste juntagiluekin gertatzen den moduan, lokailu bezala ere ageriko zaizkigun. Baina, dena dela, hauen berri juntagiluekin batera emanen da.

Hautakariak agertzen diren perpausetan halako kontraesan bat aurkituko dugu, bi zatien arteko aukera bat egin behar baita eta biak batera ezin baitira bete:

- (1) edan ura edo egarriak geldituko zara
- (2) edan ura, bestela egarriak geldituko zara

Esaldi horietan badirudi ura edatea eta egarriak gelditzea, biak aldi berean eta batera, ezin gertatukotzat jotzen dituela hiztunak eta, honenbestez, bietako baten aukera egin behar duela. Horra zergatik deitzen ditugun hautakari.

Hurren datozen lokailu hauek hautakariak baldin badira ere, sarri askotan mugak ez daude batere garbi eta esanahi bat baino gehiago eskuratzen dute, unean uneko elkarrizketa baldintzak nolakoak diren. Hortaz, ez da harritzekoa izanen honako lokailu hau hautakaria dela bai, baina aldi berean emendiozko kutsua edo aurkaritzako ñabardura duela esaten badugu. Beti ere, lokailuen mundua oso labainkorra eta irristakorra baita. Solasaren barneko lotura segurtatzeko erabiltzen ditugunez, gure hizkera baldintzak aldakorrek dira guztiz, mugagabeak eta hainbat baldintzaren pean geratzen direnak. Ikus ditzagun, zernahi gisaz, zein diren lokailu hautakariak: **bestela-bertzenaz, osterantzean, gainerontzean, ezpere(n), ezpabere, e.a.**

3.1. Bestela / Bertzenaz

Formaz eta sortzez, aditzondo ditugu bi lokailu hauek. Ikusten ahal denez, **beste** eta **-la** modu atzizkiaz osaturikoa da **bestela** ("bestelan", "bertzela") eta **bertze**-ren forma gehi "-n" eta kasu instrumentalaren marka, **bertzenaz** ("bestenaz").

Formaz ezezik, balioaz ere aditzondo izan daiteke **bestela** eta, horrelakoetan, perpausaren barruan zuzenean aditzari lotua doa. "Beste modu batera" esan nahi du, hain zuzen, ondoko adibide hauean ikus daitekeenez:

(3) **bestela** ezin badut, oinez joango naiz

(4) ariketa hori **bestela** egin behar duzu

Beste batzutan, ordea, esapide-lokailu bilakatzen zaigu, beste hainbat aditzondo bezala. Eta, orduan, inguratzen duten perpausoko aditz sintagmatik eta gainerako elementuetatik aparte doa, normalean horietarik eten batek -idartzia denean, komak- bereizten duelarik.

Bertzenaz berriz, lokailu lexikalizatu bezala bakarrik erabiltzen da lapurteraz.

Lokailu diren aldetik, bi egiteko bete ditzakete hitzok:

a.- Gehienetan, aurreko perpausaren aditzari dagokion balizko esanahia dute, beti ere halako baldintza bat edo dagoela ezkutuan seinalatuz. Honela:

(5) eguzkia bada, hondartzara joango gara. **Bestela**, etxean geldituko gara

(6) haurrek hamarretako joan behar dute ohera. **Bestela**, oso nekaturik jeikitzen dira biharamonean

Adibide horietan ikusten denez, **bestela** lokailua perpaus oso baten laburduratzat har genezake: "bestela geriatuko balitz", "eguzkirik ez bada", "hamarrak ondoren joaten badira", e.a. Beste modu batera esanda: "aurreko perpausak esaten duena betetzen ez bada" esapidearen laburdura litzateke, alegia. Euskal literaturan oso arrunta da erabilera hau eta idazleen artean behin eta berriz aurkitzen da:

- (7) Irtzen zaite bada errota orrotatik. **Bestela**, zai, ta iriñ usuraz kargaturik ondatuko zera su eta garren lize izugarian (J.B. Aguirre, *Eracusaldia* II, 190)
- (8) Zük plazer düzüna bethi dit eginen; **bestela**, enündüzün Lunbardiarik jinen (*Charlemagne-ren pastorala*, 621)
- (9) Txarragoak dira baxo-erdi ta zurrutaren ondoren izaten diran tiroak. Esan dezatela, **bestela**, santa Ageda eta beste gaxotegiak, baita tellatupe askotako ez-bearrak ere (I. Munita, *Gure mendi ta oianak*, 049)
- (10) -Miñik ete-duan, difuat. -Miñik ixan ez, ostera? -Zelan egingo neuke berba, **bestela**, min barik? (Otxolua, *Bertolda'ren...*, 168)
- (11) Lagunak esan ziotenean, goazcmak, Xalbat, otzak gogortuko au, **bestela**, hegiaphaltarrak etzun zirkiñik egiten, ezpaitzan gauza ez zutitzeko eta ezla urrats bat emateko ere (Y. Euxaide, *Jouak-jouan*, 264)
- (12) -Onelako azaririk ez dute beñere arrapagallun atxituko. -Gazta ona ipiñi ezkeror zefiek daki? -Idiazabal'koa izan bearko luke, **bestela...** (A.M. Labayen, *Euskal Eguna*, 73)
- (13) Alaba eramatea naikoa ez duela orain nere diruak nai al dizkik? -Nola artako du ba, **bestela?** (A. Barriola, *Goi-Argi*, 32)
- (14) Ezin bizi izango naiz aitaren etxean. -Nun bada, **bestela?** (A.M. Labayen, *Euskal Eguna*, 114)
- (15) Bazter zaite, ihes egizu, ilkhj bekhatutik, **bertzenaz**, Jainko hasarreak harrapaturen zaitu (J. Duvoisin, *Liburu ederra*, 103)
- (16) Eskualdun etxeko jaunak, eskualdun lur gizenaren jabeak, ohart zaizkote sator-lan izigarriari! -Edo, **bertzenaz**, bethilik eskualdunik baizen ikusi ez den tokietan (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 905)
- (17) -Hik ba, hik eginen duk bide, osagarriak laguntzen bahu segurik... -Hemen bi... -Agian ba... -Ez luke balio, **bertzenaz**, hola urrutzea! (P. Larzabal, *Iru ziren*, 42)
- (18) Etsaiak dituzue oro homen. Gauden mantso, xahu gira, **bertzenaz!** (Zerbitzari, *Azkaine, gure sorterrria*, 31)
- (19) Hazia bota zak ildoan, ez besainka barreatuz. **Bestenaz**, ura sakian bezala litcekek (E. Zubiri, "Lanak", *Nafarroako euskal idazlariak*, 35)

- (20) Aldiz bere lagunak ezin buruaren jabe egon, nolana izizpak ustutzen alferrik, ezin egon beazari eman gabe naiz gure gizona beti ari zen geroko begiratzeko, bestenaz aldia eldu zelarik batere gabe arkitu zitezkeela (F. Irigaray, "Lanak", *Nafarroako euskal idazlariak*, 141)
- (21) Balinba nahiko du holako gizonak, lagunizen duelarik zeruko dohainak, eskaldunen fedea berriz besarkatuko, eta heiekin bizi herria altxatu? Errotik katoliko dire eskaldunak; ez ditezke bertzela hekien lagunak (J.M. Hiribarren, *Eskaldunac*, 81)
- (22) aitortzen deraizugu kurios girela zure adinaren berri jakin nahi ginukela chun urte baituzula iduritzen zaigula edo zure bisia tronpos da bertzela (*Euskal Baladak*, 117)

b.- Badu, dena den, **bestela** lokailu honek beste esanahi bat ere, baldintzazko perpausaren kutsua guztiz galtzen ez duen arren: "gainontzean", "delakoa alde batera utzita", "hori bazter utziz" eta antzeko esapideen baliokide izango litzateke bigarren esanahi honekin. Beraz, murriztea izango litzateke lokailu honen zeregitea, hurrengo adibideetan ikusten baita:

- (23) Los Angeles hiri zabala eta hedama da. Gainera errepideek gain behera gurutzatzen dute. **Bestela**, ez dago gaizki

Hor esan nahi dena da Los Angeles hiriaren zabaltasuna eta bestelako eragozpenak alde batera utzirik, hori guzti hori ahazten badugu, ez dagoela batere gaizki gure hiri.

- (24) Noiznai amabost bat egun edo ilabete egingo ditu an elurrak, eta kezka ematekoa da. **Bafla, bestela**, nik uste bafla erri politagoa (*Uztapide, Sasoi joan da gero*, 354)
- (25) Hura ere bat, bere erratekockin, hau bezala; egungo eguncan nehor guti baita haren eta huren kaskoko gizonik; batek ala bertzeak, ziren tokian, zilo bat ederra utzi baitute, nekez-nekez betotzekoa. Ez ziren, **bertzenaz**, batere elgar iduriak... (J. Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gixon*, 104)
- (26) Yuietak izan behar zein yuiatua; hartakotz guzietan, zuzen aipatua, arimaz garbi eta bidetan miraila, orroiturik, **bertzenaz**, hirigarri dela (J.M. Hiribarren, *Eskaldunac*, 191)

Lokailu honen kokaguneari dagokionez, adibideetan hala ikusten da, batzutan hasieran jartzen dugu:

- (27) Utzi nazan utzi, Madalen. Bestela, biar goizean ugelduz josia jeikiko naun orelako igortziakin (T. Agirre, *Uztaro*, 15)
- (28) Ixiltzen naiz; bertzenaz nere lagunak samurtuko zauzkit, toki guzia ebasten dioedala (J. Hiriar-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 83)

Perpausaren barruan ere koka daiteke, bai aditzaren eta bai galdegai ez den beste osagairen baten ondoan:

- (29) Obeto esan, aspaldi genbilzan Naparroa'n barrera, mugaz beste alderditik ere Naparroa baita. Ikus, bestela, non-nai, etxe-aizinetan naiz pillo ta-tokietan (X. de Lizardi, *Itz-Lauz*, 48)
- (30) Baliatu zait; barnexko baitziren; Orain, bertzenaz, bizi ez nintzen izanen (J.B. Elissamburu, *Poesiak*, 201)

Eta, orobat, perpausaren azkenean:

- (31) -Bafan uste al dek, nerekin etorri naiko duela? -Usteko ez diat ba? -Asko aldatu bearko zikan, bestela (T. Alzaga, *Ramuntxo*, 98)
- (32) Huna filistandarren arrazoinamendua; baldin behiak Israelgo bidcari lohzen bazaizko, horik ageriko da Israelgo Jainkoak zehatu gaituela; ordean behiek hartzen balin badute bertze biderik, hori izanen da seinale bat gure gaitzak ez direla Israelgo Jainkoa ganik heldu; et horri beharrak zirela, bertzenaz (B. Larreguy, *Testament zaharreko eta berrico historia*, 258)

Lokailu gehienak bezala, hauek ere juntagailuen ondoan joan daitezke, haiek gauzatzen duten juntadurari bere balizko esanahia edo indar murriztalea erantsiz. **Eta**-rekin erabil daiteke, jakina, bai adiera batean, bai bestean:

- (33) **Eta** bestela dijosla zakurraren salara (P.M. Urruzuno, *Ur-zale baten ipuiak*, 13)
- (34) Ezpadakik, ikasi, **eta** bestela ixilentzio! (P.M. Urruzuno, *Ur-zale baten ipuiak*, 33)
- (35) Baina egiak ez du bide bai baizik; **eta**, bertzenaz ere, izenak ez baitu usainik, salbu-eta zuen errespetua, xantre horrek, hor, ikusi zuen, keffo bat zariola, **eta** urrin bat gaitza (P. Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 73)

Baina juntagailuarekin, berriz, bigarren adieran baizik ez da ageri:

- (36) Erderatik San Juan de la Cruz, edo olako zerbait itzul nezake, bai, **baño**, **bestenaz**, ez daukat idazteko lengo eznairik (Orixe, *Fichas y apuntes sobre J. Lizarraga*, 19-2-30)

Aski maiz, azkenik, **edo** nahiz **edota** hautakariekin ikusiko dugu:

- (37) Bere flakia aitortu bear. Bere plaua mugatu bear. **Edo**, **bestela**, irentsi nazala bere arrokeriak (Txillardegi, *Leturiaren egunkari ezkuntza*, 182)
- (38) Aska nazazute, **edo ta**, **bestela**, egingo diat nik ezegitekoren bat gaur emen (M. Lekuona, *Eun daukat*, 49)
- (39) Frantzia beheean, herraustarik ematen da landetan. Hemen ere hala egin daiteke, **edo bertzenaz** gainerako ongariekin nahasteka (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 172)
- (40) Sarrerako atondoan jartzen dira, meza bitartean, gizonczkoak zutik. **Edota**, **bestela**, goiko korura igo (T. Agirre, *Uztaro*, 25)
- (41) Pauloren burasoak hil ziren urthe hartan berean, enperadorek oihu eginarazi zuten Egiptoan eta beren meneko zituzten herri guzietan, etzezaketela gehiago onets giristinorik izan dadin hekien erresuman; giristino zirenek behar zutela beraz arbutatu beren erlijioa, **edo bertzela**, hiltzerat kondenatuak izanen zirela (B. Joannateguy, *Sainduen bicitzea*, 113)

Bada lokailuarekin ere erabiltzen da inoiz **bestela**:

- (42) Esprika beza argiro eta ejenploekin, **bada bestela** ezin ondo adi nezake (J.A. Moguel, *Confesioe ta comunioco eracasteac*, 104, 104)
- (43) Gere barruko deseoak, eta ansiak, eta gere borondatea Jaungoikoari osoro ematea; **bada**, **bestela**, nun dagoan gure descoa eta amorioa, an dago gure biotza (J.I. Guerrero, *Sayaquera*, 404)

Ezi lokailuarekin (= **ezen**) ere ez dugu adibiderik falta:

- (44) Ezizüü ororen eiztia lege zeren natürak behar beitiü süstengatü izan; bena zure lege saintiak ezizüü unhesten behar beno haboro, eta haboruening plazer egiten dienen txerkhatzia; ezi **bestela** aragia ezpiritiaren kurre altxa litezü (M. Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 218)

Esan dezagun azkenik, **bertzenaz** lokailuak, balio murriztalea duenean, ere lokailuaren laguntza ere har dezakeela. Ikus goiko (35) adibidea. Eta baita:

- (45) Ezpeletar batek salatu daut hori beharrixilorat, eta orok badakigu auzoek ontsa badakitela elgarren berri, (...) Bertzenaz ere herriak, jendeak bezala dira (P. Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 55)

3.2. Osterantzean

Lokailu honen formak ez du, bistan da, inolako zalantzarik eskaintzen: "oste" izena dago oinarrian, "-rantz" eta "-(e)an" kasu marken bidez birdeklinatua (ber gauza 'osterontzean' formarekin ere). Lokailu bilakaturik, **bestela-ren kidekoa** dugu, bizkaieraz maizago erabilia:

- (46) Eskerrak olloak emoten eutsozan arrautza arcri! Osterantzean ez dakit nik bere ortuko porru-berakatzekin bizirik urtererik ete eukanik (F. Bilbao, *Ipuin-barreka*, 255)
- (47) Urte egik oillo orrek sukalde orretatik, osterantzean ikusiko dok eure narrua, ta laster ikusi bere, sator bideak baiño zulo geiagoz! (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 143)
- (48) Agudo ibili behar dugu, osterantzean, haurra ere galdu egingen da (G. Aresti, *Ipuinak*, 82)

Kokalekuari dagokionez, hasieran joateko joera erakusten dute normalean adibideek.

Ondoko esaldietan ikusten den bezala, **baina** juntagailuaren ondoan ageri da batzutan eta **berriz** lokailuaren laguntasuna duela ere bai bestetan:

- (49) (...) eskolarako baiño gogo andiago izango ebala Nikanor'ek nai edonok, antxe mendi bazterrean ibiltzeko ta egoteko, Elxera...bai, jaten eta lo-egiten. Baña osterantzean, antxe ederto: gauzak artu, gauzak itxi; eskuetan erabili, sakelean sartu; gero, atara (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 21)
- (50) Ixas-aldian, bada porru-eskiftetan, osterantzean barriz, estaziñotetan; pizka bat geldi ba'dauz, laster pasajetan; orrela bixi dira egun guzuetan (K. Enbeita, *Bertsokak*, 162)

3.3. Gainerontzean

Aditzondoa da hau ere, formari dagokionez **-gain** izena birdeklinatuaz sortua, hain zuzen ere-, baina lokailu gisa erabiltzen dena, **osterantzean-en** pare-pareko. Honen, eta orobat **bestela** lokailuaren bi balioak bere ditu lokailu honek ere: baldintzari dagokiona eta murriztalea:

- (51) Obligaziyo askoren mende bizi gera gurasuak, prezisamente guk azi biar aur inozente gaixuak, erakutsiaz nola diraden Jesukristoren pausuak, **gañerontzian** guretzat datoiz **kastigu** izugarriak (Pello Errota, *Bertsokak*, 24)
- (52) Lagun bezela ona bazan, etsai bezela bildur izatekoa zenuten; **gañerontzean**, mesede egiteko ta laguntzeko beti prest zegoen (N. Etxaniz, *Euskal antzerkiak. Kontu-kontari*, 137)

Itxura bertsukoak diren **gainerakoan**, **gaineratikoan** eta **gainerakoz** lokailuek, berriz, balio murriztalea baizik ez dute erakusten:

- (53) Zeren premiazko atseginak, erran nahi da, ezkontza sailduaren xedera eta intenzionera behatzen dutenak segitu behar dirclarik, badarik bihotza eta gogoa ezura nihoiz ere hetan amarratu behar. **Gainerakoan**, nor nahik bertutic hunen behar handia du (S. Pouvreau, *Philotea*, 252)
- (54) Hori da aitari dagokan bihotz baten egitekoa, (...) **Gainerakoan**, ene irakurle maitza, egia da eskiribatzen dudala bizitze debotaz, debot enaizelarik; (S. Pouvreau, *Philotea*, 926)
- (55) Egin detzagun guziak, gure aldeük eta gure eskuko denaz bezenbatean, ahalik hobekiena; **Gainerakoan**, gauden deskantsu; Jainkoaz eztauku gehiago galdeizen (M. Duhalde, *Meditazioneac gei premiatsuenen gainean*, 50)
- (56) -Nekhazalearentzat zein da abere motarik hobena? -Ordokietan abere handi eta tipia mendiclan. -**Gainerakoan**, idia ona izateko, behar da irazkiz gora eta luze (J. Duvoisin, *Dialogues basques*, 92)
- (57) Hurbildanik edo urrundani arimentzat galbide baitzen. Hori segur. **Gaineratikoan**, (...) hura bezen bihoiz onekorik guti (J. Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 114)

Kokalekuari dagokionez, hasieran kokatzeko joera nabarmentzen da garbi, noraezkoa ez bada ere. Ikus, esaterako, honako hau:

- (58) Eizait hau, gañerantzean, lenengo aldiz gertatu (Txillardegi, *Leturiaren egunkari ezkatua*, 96)

Juntagialuekin ere erabiltzen da, kideko lokailuak balira bezala edo:

- (59) Aurreneko urteetako ikas-lanetan Ekdusingo parrokiak zerbait lagundu izan behar zion; baño, gañerontzean, berak bazun zerekin zuritu Seminarioko pagabearra (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 18)
- (60) Ez hartatik izan khexos, ez grifatsu, ez sentitua gatik ere nahi litezken bezalako debozionario sentimendu gozoak ta bihotzeko samurtasunak; egigun gure aldetik ahalik hobekiens, eta gainerakoan gauden deskantsu kofesioaren gainean erran dugun bezala (M. Duhalde, *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, 62)
- (61) Haurrak elgarrekin euskaraz mintzo hauteman orduko, gazligatzen gintuen; baina gainerakoan etzen batere jaun ertora baino garratzagoa (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 26)
- (62) Infernua daudenek ere minagatik, iragaien dituzten presagatik, due sentimendu, damu eta urriki. Baina bertze gainerakoan, itsutuak, ostinatuak, eta bere faltarik behar bezala ezagutzen ezutela, (...) daude (P. de Axular, *Guero*, 396)

Ere lokailuaren arrimuan ere ez da falta:

- (63) bainan bethiere aldi bakhotxan azken aldikotzat errebitzen banitu bezala, gainerakoan ere ahal dagidan ongi guzia eginez, (...) heriotze on baten egiteko grazia Jainkoari eskatzea (M. Duhalde, *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, 125)

Kontura gaitezen hemen ezin ditugula nahasi gainera eta orain ikusten ari garen gainerontzean lokailuak, lehenbizikoa emendiozkoa baita (beraz, zerbait gaineratzen duena) eta bigarrena hautakaria. Adibide hauetan ikus daiteke ongi aski hau:

- (64) Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainera, lurrikarak izuen dira.

Hemen Los Angeles hiriar buruzko kualitate bat aipatu dugu lehenik (zaratatsua izatea) eta beste bat gaineratu diogu gero (lurrikara tokia izatea). Kualitate horiek bata bestearen kontra jartzen ez ditugun neurrian, beti erabil dezakegu gainera:

- (65) Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainera, txikia.

(66) Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainera, zikina.

(67) Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainera, garbia.

Zeini zer kualitate erants dakiokkeen, perpausean adierazten dugunaren inguruko presuposizioek esanen digute: jo dezagun, esate baterako, pelikula bat egin behar dela eta hiri baten bila gabiltzala horretako. Hiri hori nolakoa nahi dugun, zaratatsua eta txikia, zaratatsua eta zikina, zaratatsua eta garbia, denak zuzen leudeke goiko esaldi bakoitzean. Hala ere, nekez aurkituko dugu inor leku zaratatsuak maite dituenen. Hortaz, ondoko perpausa ez litzateke zuzena izanen, hor aipatzen diren bi kualitateak, hain zuzen, elkarren kontrakoak baititugu:

(68) ?*Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainera, oso atsegina.

Balio murriztalea duen **gainerontzean** lokailu hautakariarekin, ordea, ez da halakorik gertatzen:

(69) Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainerontzean, oso atsegina.

Hor ez dago inolako arazorik: lehenik kualitatea aipatzen dugu eta gero lokailu batez baliatzen gara "kontu hori alde batera utzita" edo halako zerbait adierazteko. Beraz, ez ditugu bi baieztapen horiek bata bestearen gainean jartzen hor: lehena ahazten baldin badugu bakarrik eta ahazten dugun neurrian bakarrik, hau da, haren kontra jartzen garen neurrian, da egia bigarrena. Hori dela-eta, bietako bat aukeratu behar dugu nahitaez. Ikus dezagun, azkenik, nola hurrengo adibideak ez duen inolako zentzurik:

(70) ?*Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainerontzean, lurrikarak izaten dira.

Hiri bat "zaratatsua" izatea ala ez "atsegintasunarekin" erlazionaturik egon liteke, eta horrexegatik diogu gure gustokoa izan daitekeela nahiz zaratatsua den. Aldiz, zaratatsua izatea eta gainera lurrikarak aurkitzea ez dago, gure munduan, bata bestearen kontra jartzerik. Horra hor zergatik ezin den **gainerontzean** jarri: lokailu honek halako aukera zerbait eskatzen du, hautaketa baten egin beharra alegia.

Laburtuz, hortaz, hona hemen paradigma osoa:

(71) Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainera, lurrikarak izaten dira

(72) ?*Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainerontzean, lurrikarak izaten dira

(73) ?*Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainera, oso atsegina.

(74) Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainerontzean, oso atsegina

3.4. 'Ezpere(n)' eta 'ezpabere'

3.4.1. Ezpere(n)

Lokailu zaharkitu hau ere bestela-ren parekoa dugu, neurri batean bederen. Izan ere, besteak beste, baldintza moduko hautaketa adierazteko ere balio baitu: "horrela ez bada, aurreko perpausak esaten duena betetzen ez bada" edo adierazten du ezperen-ek adiera horretan. Eskema baten bidez, honela irudikatuko genuke ezperen-ez osatzen diren perpausen esanahia:

A, ezperen B = A, eta A ez bada, B.

(75) Genobebak samurtasunik andienaz eskutik eldu zion, bafia berak eskua atzeratu, eta izuturik esan zion: aii, utzadazu; zure eskua otza dago gela bezala. Eraman nazazu ezperen hillaren esku orrekin zere zulora; bada bizi au nerretzat astuna da eta ezin jaso dedana (G. Arruc, *Santa Genovevaren vicitza*, 104)

(76) Iujeori zegoela ez iakinez zer egin, mehatxu handiarekin hitza zioten egin: Pilatus, etsi ezazu Jesusen kondemnatzera, edo ezperen zaudezen kargulik ilkhitzera (J. Etcheberri (Ziburukoa), *Noelac* 114)

(77) Oien aurkez-aurke entzun nai baduzu, esateko gerturik nauzu. Ezperen, yauregi barnera goazen (J. Zaitegi, *Sopokel'en antzerkiak*, 59)

Balio murriztalea ere izan dezake, bederen eta behintzat lokailuen antzekoa, hain zuzen:

(78) Eta baldin zure borondatea ezpada, launa, hanbat grazia egin dakigun, non lekhu asignaturik dugun, ezpere permiti bekigu, otoi, ia gure artean iarrria den ordenanza, empatxurik gabe kontinua ahal dezagun (J. Leizarraga, *Othoizta*, 95)

(79) Joseph hire semearen / urrikal bekik pena / edo ezperen Birjina / erdi bharrarena (J. Etcheberri (Ziburukoa), *Noelac*, 50)

Hirugarren adiera badu, ordea, **edo** juntagailuaren baliokidetzat har daitekeena (juntagailu hautakaria litzateke hemen), edo baita lokailu honen oinarrian dagoen **ezpa** juntagailuarena ere:

(80) Manual debotioezkoa, edo ezperen, oren oro eskutatzen erabiltzeko liburutxo (J. Eicheberrri (Ziburukoa), *Manual devotioezkoa*, 1)

(81) Raquel, ezperen Jethro zeritzon aphezaren zazpi alabek jo zuten leku bererak (B. Laneguy, *Testament çaharreco eta berrico historia*, 117)

Adibideetan ikusten denez, perpaus hasieran edo aditzaren ondoren ageri da gehienetan. Juntagailuaren segidan ere.

3.4.2. Ezpabere

Gaur egun bizirik dirauen bizkaierazko lokailu hau, **ezperen**-en antzekoa da, lehenbiziko adierari dagokionean batez ere eta baldintza kutsuko hautaketa adierazten du ("hori betetzen edo gertatzen ez bada", "bestela", edo halako zerbaiten esangura duelarik):

(82) Onek berbak emon biar dira oso osuan? Bai, jauna, gustiyak bat itxi baga: **ezpabere**, eztago bautismorik (Nicolas de la Quadra, *Doctrina Cristinauba*, 1784)

(83) Zer egin bear da iflor murmuretan dagoanean? Eragotzi albadagi, **ezpabere** beste konbersaziño bat atera edo joan arik (B. Olachea, *Doctrina Cristiana* 115)

(84) Zer egin bear dau deungaro ezkondata daganak? Billatu defensore jakituria andiko bat, ta egin onek esango deusana. **Ezpabere** beti biziko da pekatuan (J.A. Moguel, *Kristauaren Ikasbidea*, 259)

(85) Zelan ondo bataiatuten da? Ezarten jakala seiñari ura, albaledi burura, ta **ezpabere** gorpuzeko zatirik andienara (*Cristiñau Doctrinia (Laudio)*, 58)

(86) Emen eskatuten dogu librau eta apartau gaizala Jangoiko gure Jaunak demonifloen tentazionetarik, edo **ezpabere**, aetan ez jausteko emon deigula bere grazia (B. Olachea, *Doctrina Cristiana*, 94)

Baizik-en pareko adieran ageri da ondoko adibidean. Erabilera hori ez da, beharbada, zuzenegia, **ezpa** hitzak betetzen baitu normalean zeregin hori, ez

ezpabere lokailuak. Eta, hain zuzen ere, liburu horren ondoko edizio batzutan **ezpada** hitza ageri da, **ezpabere**-ren ordez (aurkaritza balioarekin, juntagailua litzateke hemen):

- (87) Pekarri mortalian konulguetan danak artzaiten dau Jesu Kristo? Bai, Jauna, baia ez bere onerako, **ezpabere** bere kaltian (*Cristinau Doctrinia (Laudio)*, 74. Geroagoko edizio batzutan: "ezpada bere kaltian")
- (88) -Josetxo, ez dozu zetan artu naibagerik, Maxima ta Ermokenen berbakaitik. -Ez ama eurakaitik, **ezpabere**, Eladitxori deusadan errukiagaitik baño (J.M. Echeita, *Josecho* 192)

Esan daiteke, beraz, **bestela** lokailuak duen lehen adieran erabiltzen dela, batez ere, lokailu hau: A, **ezpabere** $B = A$, eta A ez bada, B.

Lokailu honek ere perpausaren hasieran kokatzeko joera nabarmena erakusten du, noraezekoa ez izanik ere:

- (89) Zembai sentiduko eban Jesukristok Judasen dollorkeria au? Esan begie **ezpabere** bere berba bigunak: Judas neure adiskidia, esan eutsan... (*Durango euskaraz lau sermoi*, 34)

Goiko adibideak kontuan harturik, oso arrunta da **eta eta edo** juntagiluekin batera agertzea.

4. AURKARITZAKOAK

4.0. Sarrera

Izenak berak argiro erakusten duen bezala, bi perpausen artean gerta daitekeen kontrakotasuna edo aurkaritza aditzera emateko erabiltzen dira sail honetako lokailuak. Beraz, alde horretatik **baina**-ren pareko dira nolabait. Azken hau, jakina, juntagailua da berez eta perpaus elkartuak bideratzeko erabiltzen dugu gehienetan:

(1) Nerea da liburua **baina** utziko dizut

Eta horixe da, seguruenik, aurkaritza adierazteko euskarak duen biderik emankorrena. Beste batzutan, ordea, lokailu bezala ere erabiltzen dugu **baina**, hau da, testuari berari (eta ez perpaus elkartuari) lotura ezarriz:

(2) -Orixe dauko^{ue}, ba; erderaz ipini dautosuez ingitxuak eskakizunaz, eta Erregeak aintzat artu bez. -Baiña, ori zelan? Erderaz ez dakie ala? (Kirikiño, *Bigarrego Abarrak*, 44)

Horrelakoetan, bistan da, **baina**-k ez ditu perpausak elkartzen. Testu mailako lotura bideratzen du, hau da, ondoan duen perpausak aurrekoekin nolako erlazio semantikoa duen adierazi baizik ez du egiten, gramatika juntadurarik gauzatu gabe.

Aurkaritzako lokailuek ere horixe bera egiten dute, hots, perpausen arteko kontrastea aditzera eman. Aski luzea da lokailu hauen zerrenda: **ordea; berriz; ostera, aldiz; aitzitik; bizkitartean, bitartean, bien bitartean...**ditugu batetik; **alta, alabaina, alabadere; dena dela eta dena den; hala ere, haatik, horratik** eta hauen kideak bestetik; **barren...** ere aurkaritzako lokailua izan daiteke. Azkenik, kontuan hartzekoak dira, orobat, kontrakotasuna adierazten duten esapideak ere: **guztiarekin ere, edozein modutan, zernahi gisa, nolanhahi den, edozelan ere...**

Aurkaritza adierazten duten lokailuak dira denak, baina badituzte hala ere diferentziak elkarren artean, bai esanahiaren aldetik, bai maiztasunaren aldetik eta bai euskalkiei dagokienez ere.

Perpasean hartzen duten tokiari dagokionez ere bada alderik. Batzuk, inoiz perpausaren hasieran kokatzen badira ere, honen barnean joateko joera dutela dirudi, osagai baten edo zati luzeago baten ondoan (horrelakoak dira, esate baterako, **ordea**, **berriz**, **ostera** eta **aldiz**); beste batzuk, berriz, perpausaren hasieran joateko joera erakusten dute, nahiz eta perpaus barnean joateko debekurik ez duten (horrelakoak dira, esate baterako, **aitzitik**, **bizkitartean**, **alta**, **dena dela**, eta **hala ere**).

Inoiz, harridurazko esaldietan eta, perpausaren azken tokia hartzen dute berariaz lokailuotako batzuk, hari enfasi berezia emanaz:

(3) Ha dolorea, **ordea!** (S. Pouvreau, *Iesusen Imitacionea*, 37)

(4) Hara bestea, **berriz!**

(5) Igel barrabanok atrapetako ona zala-ta, Markolbek goizean egifiko arto ta ogi guztiak eskuratuta, osifera bota eutsezan. Au bakarrik balitz **ostera!** (F. Bilbao, *Ipuin-barreka*, 247)

Ondoko orrietan saiatuko gara guzti hori zehatzago azaltzen. Aurrera baino lehen, **ordea**, beste puntu bat aipatu behar dugu. Aurkaritza lokailu hauetako asko aditzondoak dira jatorriz. Eta gainera, jatorria gorabehera, aditzondo garbi bezala jokutzen dute sarri askotan:

(6) Biurtu nai det **berriz**, nere pekatuakin irabazi nuen estadura (A. Kardaberaz, *Egercicioac II*, 136)

(7) Zure iraupenak bigunduko dau zeruba; Jo atia, egin oles **ostera ta ostera**, ta edegiko jatzu (J.A. Moguel, *Confesiño ona*, 282)

(8) Ditugun gauzarik maiteenak eta bearrenak ere utzi ta galdu bear ditugu, gaizpidea edo pekatuak bidea ematen badigute. Lege zarrak ematen zuen **aldiz**, ezkontza austeko baimena, ezkonduak berexi ta bizi-alarguntzeko eskubidea. Ortarako senarrak aski zuen paper batean bere emaztea uzten zuela idatzi, ta paper ori emazteari eman (P. Iraizoz, *Yesu-Kristo gure Yauraren bizia*, 123)

Zenbaitetan, egia da, ez dago argiegi non ezarri behar den muga, hauxe bera gertatzen baita beste lokailuekin ere. Dena den, perpausen arteko

benetako lokailu gisa agertzen diren kasuak interesatzen zaizkigu hemen eta horiek aztertzen saiatuko gara.

4.1. Ordea

4.1.1. Forma

Ordea eta **ordean**, biak erabiltzen dira. Hedatuena, hala ere, lehenbizikoa dugu, **ordean** lapurteraz erabiltzen delarik. **Orde**-k, hain zuzen, beste zerbaiten edo norbaiten ordain esan nahi du; beraz, perpausen arteko nahiz perpausen osagaien arteko nola halako aurkaritza edo kontrastea aditzera eman nahi denean guztiz aproposa gertatzen da lokailu hau:

(9) Ni zurekin joango naiz, aita ordea etxean geldituko da.

Perpaus bi ditugu hor elkarren ondoan jarriak. Ordea lokailuak bi perpaus horien arteko aurkaritza aditzera ematen du, horretarako bi perpausotako osagai bana hartuta eta biak elkarren kontraketat aurkeztuz: 'nik zerbait egingo dut' eta 'aitak beste zerbait egingo du'. Eta horixe da, funtsean, beti aurkituko duguna kutsu adbertsatiboa duten lokailu eta juntagailuetan. Alde horretatik, **baina** juntagailuaren baliokide hurbila da ordea:

(10) Ni zurekin joango naiz, baina aita etxean geldituko da

4.1.2. Tokia

Baina juntagailua normalki bigarren perpausaren hasieran kokatzen den bitartean, **ordea**-k normalean bigarren perpausaren barnean hartzen du toki, perpaus horren osagaien baten ondoren -ikus, esaterako, (9) eta (10) perpausen arteko aldea-. Horrela, bigarren perpausoko osagai hori hanpatua edo gelditzen dela esango genuke, aurreko beste osagai baten kontra jarritz, bien arteko oposizioa markatuz (**ni...**, **aita**, **ordea**,...). Ezkerrean duen osagai horrekin bereziki lotua joan ohi dela dirudi gainera, komak gorabehera, eta ez ondoren datorrenarekin:

(11) Atzenekoak lenengo, eta lenengoak atzeneko izango dira: deituak asko dira, esleitua, ordea, gitxi (F.I. Lardizabal, *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*, 423)

- (12) Ixasaldera zuzentzen ditu begiak. Ez dakuse begiak, ordea, ezer (T. Agirre, *Uztaro*, 69)

Gogoan hartu behar da, hori bai, askatasun handia izaten dutela lokailu hauek perpausaren barnean kokatzeko:

- (13) Josebak emazteari txokolatinak ekarri dizkio, hark ordea nahiago zuen perfume on bat.
- (14) Josebak emazteari txokolatinak ekarri dizkio, hark nahiago zuen, ordea, perfume on bat.
- (15) Josebak emazteari txokolatinak ekarri dizkio, hark nahiago zuen perfume on bat, ordea.

Bistan da, hala ere, ez dela nonahi eta nolnahi kokatzen ahal. Mintzagai-galdegai egituraren arabera kokatzeko joera duela dirudi, lege finkorik ezartzen erraza ez bada ere.

Hasteko esan behar da **ordea**-k ez duela nahi ta ez mintzagaia markatzen. (11) perpausaren bigarren atala hartzen badugu, adibidez, **esleituak, ordea, gitxi** esan beharrea, berdina berdina esan liteke **gitxi, ordea, esleituak**. Ondoko adibidean ere argi ikusten da hori:

- (16) Aiek ezutzen; guk, bai, ordea, bi mutilen ezagutza (Orixe, *Euskaldunak*, 230).

Bestalde, galdegaiaren eta aditzaren artean normalean kokatzen ez bada ere, ez du debeku handirik galde hitzen ondoren kokatzeko:

- (17) (...) ikusten zuen an egoterik etzeukala, Nola, ordea, irten? (F.I. Lardizabal, *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*, 170)

Dena den, euskalkien arteko diferentziaren bat ere egon daiteke **ordea**-k perpaus barruan hartzen duen kokaguneari dagokionez.

Perpausaren azken muturrean ere joan ohi da inoiz:

- (18) Hiru bider jo nuen txirrina. Ez zidan inortok ere erantzun ordea.

Kasu hauetan badirudi perpaus bien artean gertatzen dela aurkakotasuna, kontrastea zein osagaiaren artean dagoen bereziki markatu gabe.

Harridurazko perpausen azken muturrean ere sarritan joan ohi da. Ikus (3) eta:

(19) *Zer oitaze ordea!* (Orixe, *Aitorkizunak*, 221)

Aditzik gabeko esaldiak dira horiek. Ondorengoa, berriz, aditz eta guztiko esaldia dugu eta ordea azken muturrean doala kontsidera dezakegu, seme hori bokatibo edo baita; beraz, perpausetik kanpo gelditzen den zerbait:

(20) *Zer dezu, ordea, seme?* (V.Mocoroa, *Damuba garaiz*, 24)

Perpausaren hasiera hasieran ere ageri da inoiz, hori maiztasunik handieneko kokalekua ez badu ere:

(21) *Ken ditzadala zugandik nere begiak? Ordea, noratuko dituz? Irauli ditzadala beste aldera? Ordea, zu izan nere alde guzi, zu nere aurre ta atze* (M. Larramendi, *Panegrico de S. Agustín*, 14)

Axularrek eurrez darabil horrela, gaurko zenbait idazlek bezala:

(22) *Bapatean etxe guztia ixilik gelditu zen, eta gizona zerraldo errotzera zihoala ikusi nuen, belarriak huts egiten ziotela. Ordea medikuak eta osabak eutsi egin zituen(...)* (B. Atxaga, *Obabakoak*, 125)

Nolanahi ere, bi kasu hauetan badirudi lokailuak berekin duen kontrakotasun balio hori nolabait gesaldua gelditzen dela.

4.1.3. Juntagailuekin eta lokailuekin batera

Gehienetan inolako lagunik gabe agertzen da ordea. Ez da harritzekoa, halere, **baina** juntagailuari lagun egiten diola erabiltzea, **baina** ordea bikotea osatuz:

(23) *Aitzbitarte ospatsu hura (...) dijoakion santutegi eder jaierazko batean biurtua arkitzen da, kapilla ta jarduntza santuetarako etxea ere Jesusen Konpafiak an ditubela. Baina ordea, aintbateratoko damukizuna edo penitentzi neurrigabeak, bada ainalakotzai gero santu berak iduki zituen, aurki oso auldu zuten* (J.I. Arana, *S. Ignazio Loyolacoaren bicitza*, 23)

bai, are maiztasun handiagoz, perpausaren osagai baten ondoren kokatua delarik ere:

(24) (...) ta esan nuan nere kolkorako : **Baño nola ordea**, orrenbeste bertsolari ateratzen den errian, olerkari orren gutxi? (Jautarkol, *Biozkadak*, 906)

(25) **Baina** nundik aiera dituzue, ordea, berri auek? (R.M. de Azkue, *Ardi galdua*, 32)

Hauetan **baina**-ri berez zor zaion aurkaritza indartzera bezala dator ordea. **Hala ere** lokailuarekin batera ere erabil daiteke, aurkaritzaren indargarri hemen ere:

(26) Nai izan ezkeru, erraz ausiko zitukean arek danak edozertan. Alaere, ordea, etzuan egundo indarrak burugabe erabiliko (T. Agirre, *Uztaro*, 115)

4.2. Berriz

4.2.1. Forma

Beste hainbat lokailu bezala, jatorriz aditzondo da **berriz**, formak berak argiro erakusten duen bezala : **berri** + **z**. Eta erabili ere maiz erabiltzen dugu aditzondo bezala, denbora aditzondo bezala hain zuzen --ikus (6) adibidea--. Ondoko bertsoan ikusten da garbi hori:

(27) Leitzan jaio ta Orion
bizi dana herriz
hoberentzat jotzen det
rimaz eta neurriz.
Kantatzeko ahosapai
ezlizkoa, herriz,
zein ezta hark txoratzen
bere bertso berriz?
Holakorik eztaikit
sortuko dan berriz.

(Goiburu bertsolariak kantatua, ikus R. Iraola, *El Diario Vasco*, 1990-1-24)

Hor ikusten denez, lokailu ezezik aditzondo eta adjetibo ere (bertso **berriz**) izan daiteke, besteak beste, **berriz**. Hemen, hala ere, lokailu gisa duen erabilera interesatzen zaigu eta hori aztertzen saiatuko gara.

4.2.2. Esanahia

Aurkaritza adierazten duen lokailua dugu hau ere eta oso erabilia gainera. **Ordea**, **ostera**, **aldiz** eta **aitzitik**-en pareko da alde horretatik, nahiz eta esanahiari dagokionez erabat baliokide izan ez. Ez da erraz, dena den, elkarren arteko esanahi ñabarduraren berri ematea.

Badirudi, esate baterako, **berriz** eta **ordea** lokailuen artean erabateko kidesunak ez dagoela. Badirudi **ordea**-k nolabait aurreko perpausak baieztatua ezabatu edo ukatu egiten duela; lehenago esan edo presuposatu dena zuzendu egiten duela, alegia, haren kontrakoa baieztatuz. **Berriz**, aldiz, aurretik esandakoari zerbait berri eta diferente eranstea erabiltzen dela dirudi. Alde honetatik, ondoko bi perpaus hauek pittin bat desberdinak izango lirateke:

(28) Goizean pasiaztera irten naiz. Arratsaldean, **berriz**, lanca geratu naiz.

(29) Goizean pasiaztera irten naiz. Arratsaldean, **ordea**, lanca geratu naiz.

Lehenbizikoan, goizekoaren eta arratsaldekoaren arteko aldea edo kontrastea ematen da aditzera; goizean gauza bat egin dudala, alegia, eta arratsaldean beste bat. Bigarren perpausera aurkaritza, **berriz**, beste nonbait dago: hor, izan ere, solaskideak uste izan dezakeen zerbait ukatu egiten dela dirudi. Goiz eta arratsalde kalean ibili naizela uste izan dezake hark beharbada, baina ez da horrela, arratsaldean lanca geratu naiz.

(30) - Gu mendira joan gara

- Nik ere mendira joan nahi nuen. Ez didate, **ordea**, ezer esan

Ikusten denez, adibide honetan **ordea** lokailua jarri dugu, **berriz**-ek lekuri ez duelarik hor:

(31) - *Nik ere mendira joan nahi nuen. Ez didate, **berriz**, ezer esan

Hitz batez esateko, **ordea**-k kontraktasuna adierazten du beti ere eta horretan **baina**-ren baliokide hurbila da. **Berriz** ez da horren markatua: kontraktasuna bezala kontraste soila edo aldea seinatzeko ere erabiltzen da eta horrelakoetan, jakina, ez da **baina**-ren guztiz parekoa. Zenbaitetan, gainera, badirudi topikoaren aldaketa seinatzeko baizik ez dela erabiltzen. (27) adibidean bezala. Emendiozko kutsu bat ere badu horrelakoetan.

4.2.3. Tokia

Berriz lokailua ere bigarren perpauseko osagairen baten ondoren kokatzen da normalki, osagai hori nolabait nabarmenduz. Sarritan perpaus bakoitzeko osagai bana hartuz bien arteko kontrastea markatzen dugu lokailu honekin:

- (32) Begira bada, zein mardo, gizen ta mamitsua nagoan. I berriz, zatar ori, burutik ofetara ago, edo autsez josia, edo basatua (V. Moguel, *Ipui onac*, 46)

Esaldi horretan, eta horixe da gehienetan gertatzen dena, bi perpaussek funtsezko egitura bera dute eta **berriz**-ek bien arteko kontrastea markatzen du. Horrelakoetan, esan liteke lokailuaren aurrean kokatzen den osagaia bigarren perpausaren mintzagaia dela. Alegia, lokailuaren zeregina horixe izango litzateke : osagai horren mintzagaitasuna markatzea edo, gorago esan dugun bezala, mintzagai berria nabarmentzea, mintzagai aldaketa seinalatzea:

- (33) Arrantzaleak ziran batzuk; besteak, berriz, an inguruan etxegintzan ari ziran langille ta argifak (T. Agirre, *Uztaro*, 204)

- (34) Amak bere gauzatxoak eraman nai; aita, berriz, beranduegi izango ote zan kezkarekin, biak asarretu ziran (M. Ugalde, *Itzailleak*, 14)

Baldintzazko perpausa ere (hau da, baldintzaren protasia) berez mintzagai izan ohi delarik, lokailu honen ezkerretara ager daiteke:

- (35) gaizki itzezin badut, erakutsi zaidazu zertan utsegin dedan; zuzen itzezin badut berriz, zergatik yotzen nauzu? (P. Iraizoz, *Yesu-Kristo gure Yaunaren bizia...*, 475)

Dena dela, lokailuak ezkerretara eraman ohi duena perpausaren atal luzeagoa ere izan daiteke, aditza bera ere bame delarik. Hau, batez ere kopula-aditz batez osatuetan gertatzen dela dirudi:

- (36) Eun laurleko bota zituen an bertan, egindako erronkaren eusbide. Milla ogerlekoa izan zan, berriz, apustuaren jaso (T. Agirre, *Uztaro*, 49)

- (37) Katakumetxo bat bezin bigun eta zoli ondoratu zitzaion Balendini neska lilluragarria, aren maite-itzen egarri. Erditoteldurik eta zorabildurik zegoen, berriz, mutilla, Dornosoroko alaba ederraren aurrean (T. Agirre, *Uztaro*, 306)

Adibide hauetan mintzagaia perpausaren hasieran ezari beharrean, atzeratua bezala gertatu dela dirudi, **berriz** lokailuaren eskuin aldera pasa dela alegia. Ez dirudi, hala ere, perpaus horien esanahia ez komunikazio balioa asko

aldatzen denik leku aldaketa horrekin. Horrela, (37) perpausaren orde, beste honako hau ezar liteke, biak erabat baliokide direlarik:

- (38) Mutila, berriz, erditoteldurik eta zorabildurik zegoen, Dorronsoroko alaba ederraren aurrean

Bestelako perpausetan ere horren antzeko erdibitzearekin egin dezakegu topo. Galde perpausetan, esaterako:

- (39) Leen ain zoragarri iruditu zitzaigun udaberriko zerua, goibeldu ta lafiatu zaigu; basoaldean ain eder agiri zan loreak, bidariaren oinazpian burua makurtu bear izan du. Nora juan dira, berriz, gure inguruan oartzten genuzan irri-parreak? (T. Agirre, *Uztaro*, 312)

Edo aditza isilpean gorderik agertzen denetan ere:

- (40) Gure ama emaiak berela ikusi zun, ikaratu gabe itz oriek naasi zitezkeela, ta berela berezi zitun; nik ez, berriz, ark adierazi arte (Orixe, *Aitorkizunak*, 71)

Gogoan hartu behar dena hau da: lokailua ez dela agertzen galdegai den sintagmaren eta aditzaren artean. Horrela, (41) adibideko perpausak zuzenak dira, baina ez (42)-koa:

- (41) Aitak amari gona gorria ekarri dio. Ilobak, berriz, osabari txapela ekarri dio / Ilobak osabari, berriz, txapela ekarri dio / Ilobak osabari txapela ekarri dio berriz.

- (42) *Aitak amari gona ekarri dio. Ilobak osabari txapela, berriz, ekarri dio.

Bestelako osagai batzuk bai, ager daitezke lokailuaren ezkerretara. Galde hitzak, esaterako:

- (43) Iñora ez darama adimentuak, bere ezifia adieraztera baizik. Nora, berriz, sentimentuak? (Txillardegui, *Leturiaren egunkari ezkutua*, 136)

Dena den, ohart gaitezten, hor galde hitzaren ondoren agertzen bada ere, ez dela aditzik ageri. Beraz, pentsa genezake aditza agerian balego hauxe genukeela:

- (44) Nora darama, berriz, sentimentuak?

Ezin jar daitekeelarik hor ordea.

Aditzondoak ere ager daitezke lokailu honen ezkerrean:

- (45) Hala eginez, (...) oro xuxen gerhatzen dire; **hala nola berriz**, berant jaikitzen denean, oro makhur gerhatzen ohi baitire (M. Duhalde, *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, 48)

4.2.4. Juntagailu eta lokailuekin batera

Aurrean juntagailuren bat edo beste lokailuren bat baizik ez duela ere ager daiteke inoiz:

- (46) Kontzientzia batzuk dira erne, sentikor, minbera, hertsia: **eta berriz bertze batzuk loti, hil, lazo, zabal, eta ez antsia** (P. de Axular, *Guero*, 275)

- (47) -Biyotz nereko dama polita, asmoz muda zaite, auxen tori da: hamasei duroko urte fifa, sendatu nai zazu nere mifa. -Ez, jauna, ez ez; merezi bezin kopela beltzez esango diyot ezetz ta ezetz. -**Gañera berriz**, Juana Bixenta, utziko dizuel etxeko errenta (Bilintx, *Bertso ta lan guziak*, 80)

- (48) Bai orixe! **Bestaldetik, berriz**, naiko eskasak ziran lenago ere gariak-eta (...) (T. Agirre, *Uztaro*, 132)

Baita perpausaren hasiera hasieran ere:

- (49) Zein ederki ta laster ikasten duten euskera gaztetxo euskara baño enzuten ez duteenak. **Berriz** badator Euskalerrira eraldun andi edo azi bat, zein nekez, ta gaizki (J.A. Moguel, *Confesioe ta comunioco eracasteac*, 215)

- (50) Arpegia garbitzean (...) igarotzen bada ezarriük... ur tanta bat edo beste, ez da baraurra galduko, ta ez eragotziko komunioa. **Berriz** nori nai daki aora etorri dan txistu meca, nai loditzarra berriz irentsia gatik, komulgatu ditekela beldur gabe (J.A. Moguel, *Confesioe ta comunioco eracasteac*, 237)

Horrelakoetan badirudi perpausen arteko kontrastea markatzen dela, mintzagaiia gehiegi berezi gabe. Dena den, esan behar da erabilera hau zaharkitua dela eta ez, beharbada, gomendagarria.

Gorago esan dugun bezala, emendiozko kutsua ere badu **berriz**-ek, topiko berria nabarmentzeko erabiltzen baita sarri askotan. Ez da harrizkoa, hortaz, **eta** juntagailuaren edo emendiozko beste lokailuren baten lagun agertzea maiz. Axularrek, esate baterako, eurrez erabiltzen du **eta berriz** esapidea, (46) adibidean bezala. **Berriz** perpaus barruko ohizko lekuetan doala ere erabil daiteke bikote hori:

(51) (...) beorri gizon ezkongai ta ni berriz alarguna...Ai nere gizarajua bizi izan bazan! (M. Sorua, *Gabon, au ostaruba*, 41)

(52) Liburu gutxi bear da sagardoa polita egiteko: sagar ona. Ta edaten berriz bazekiagu! (A. Labayen, *Euskal Eguna*, 84)

Gainera, bestaldetik eta horrelako lokailuekin batera ere erabiltzen da inoiz, (47) eta (48) adibideetan bezala.

Aurkaritzako **baina** juntagailuarekin batera, berriz, askoz ere gutxiagotan erabiltzen da, arestian esan dugun bezala.

4.3. Ostera

4.3.1. Aditzondoa dugu ostera ere, goiko (7) adibidean ikusi bezala, **berriz-en** pareko gehienetan eta **alderantziz-en** pareko inoiz. Lokailu ere bada, ordea, eta horixe da hemen aztertuko duguna.

Mendebaldeko euskalkietako lokailua da **ostera**, bizkaierazkoa bereziki. **Berriz, aldiz** eta horrelakoen baliokidea da. Hauek bezala, osagai baten ondoan erabiltzen da maiz, osagai hori aurreko perpauseko beste bati kontrajarriz:

(53) Oraindiño, i bizi aiz; ni, ostera, aspaldiz-gero il nifunan (J. Zaitegi, *Sopokel'en antzerkiak*, 177)

Perpau osoa kontrajarriz ere erabiltzen da inoiz, ohizkoena ez bada ere:

(54) -Eta min andiak al ditu? -Mifirik? Esatekorik eztauka euki. Oso nekatua dago, ostera; jausia, makal, erkin-itxura gelditu da (E. Erkiaga, *Arranegi*, 81)

4.3.2. Esan dugunez, perpau barnean hartzen du maiz kokagunea **ostera-k -berriz-ek, aldiz-ek** eta horrelakoez bezala-, mintzagaia izan daitekeen osagai baten ondoan, hain zuzen. Ikus (43) eta:

(55) Berein edanago ta bizkorrago egoten dira; ni, ostera, edanago eta illago, logureak erreten (R.M. de Azkue, *Diccionario Vasco-Español-Francés*)

Zati handiago baten ondoan ere joan daiteke. Aditzaren ondoan askotan. Ikus (54) eta:

- (56) Bildots eder bat erosi eutsen. Zegaz ordaindu, ostera, txirikik ez eukan-da? (F. Bilbao, *Ipuin-barreka*, 160)

Hasieran ere erabiltzen da inoiz, gutxitan bada ere:

- (57) Ikusirik guztjak diriala modu batekuak, dua galdubagaz eukan lotsia, eta dua gixitubagaz bildurra. Ostera, biurtuten bada eurakgana galitzen dau leen geratu jakan lotsa eta bildur puskia(...) (E. Astarloa, *Urteco Domeca*, 145)

Aurkaritzako beste zenbait lokailu bezala, harridurazko perpausen amaieran erabiltzen da inoiz ostera, harridurari indarra emateko edo:

- (58) Igel barrabanok arrapetako ona zala-ta, Markolbek goizean eginiko arto ta ogi guztiak eskuratuta, osifera bota eutsezan. Au bakarrik balitz ostera! (F. Bilbao, *Ipuin-barreka*, 247)

Esan dezagun, azkenik, ostera eta osterantzean ez direla nahasi behar. Ikus azkeneko honetaz dioguna lokailu hautakarien sailean.

4.4. Aldiz

4.4.1. Lokailu honen jatorrian ere aditzondo bat dugula esan genezake, zalantza handirik gabe. Hemen, ordea, aldiz lokailua dugu aztergai, ez aldiz aditzondoa. Lokailu bezala ekialdeko euskalkietakoa dugu batipat, gaur egun euskara idatzian erabat zabaldua bada ere. Kontrakotasuna edo kontrastea adierazten du aldiz-ek ere eta, aurkaritza saileko beste zenbait lokailuk bezala, bigarren perpausoko osagaien baten ondo-ondoan kokatzen da maiz, osagai hori aurreko perpausoko beste bati kontrajarriz:

- (59) Lehenago hi baitinzan lengoajetan azkena, /orai, aldiz, izanen iz orotako lehena (B. Dechepare, *Linguae Vasconum primitiae*, 245)
- (60) Denbora hartan ohi nizin nik zugatik dolore, /orai aldiz zure faltaz mutatu niz ni ere (B. Dechepare, *Linguae Vasconum primitiae*, 155-6)

Kontrajartzea aski argi dago bi adibide horietan, hala nola zeintzu diren nabarmenduriko osagaiak : 'lehenago / orain' eta 'denbora hartan / orain'.

Ezkerreko osagai hori perpauseko mintzagaia izaten da askotan, beti ez bada ere, goiko adibide horietan ere ikus daitekeenez. Mintzagaia markatzeko balio du horrelakoetan **aldiz**-ek, **berriz**-ek eta honen kideek bezala.

4.4.2. Beraz, esan bezala, perpauseko osagai baten ondoan izaten du askotan kokaleku **aldiz** lokailuak; ikus, esaterako (59) eta (60)¹.

Perpausaren zati handiago baten ondoren ere ager daiteke **aldiz** eta are perpaus baten ondoren ere, aditzaren ondo ondoan maiz:

- (63) Usatu zara anhitz minzatzan, hitz guztiaz iuramentu egiten, usat zaitezi bada orai, **aldiz**, iuramentuen utzen (P. de Axular, *Guero*, 179)
- (64) Mintzo zare, zu, zure pentsuen arabera; ni mintzo naiz, **aldiz**, dudan ezin emanezko lekukotasunez seguratuak diren gauzen gainean sinkatzen naizelarik (E. Lapcyre, *Credo edo sinhesten dut esplikatua*, 36)
- (65) Horra zer erraiten dautan inpioak, fede gabeak. Nik erranen diot **aldiz**: zoro eta adimendu gabe bat bezala mintzo zare (E. Lapcyre, *Credo edo sinhesten dut esplikatua*, 26)

Aditza isilpean dagoelarik, ez partikularen ondoren ere ageri da:

- (66) Erraiten dizú Pater noster gure aita, ez **aldiz** enc aita (*Uskara Libru berria*, 31)

¹ Normalean, bistan da, osagai osoa izaten da lokailuaren aurrean doana. Hala ere, osagai hori apurtuz ikusten dugu lokailua ondoko adibideotan:

- (61) Úrgüllútsia, eta abirizusa sekúla eztira phausian jarten: ezpiritú **aldiz** paubre eta umil direnak, bake handi batetan daude (M. Maister, *Jesu-Kristen imitacionia* I, 16, 1)
- (62) Bena debozionia bihotzian, eta Jinkua bere begien aitzinian eztiana gaizki egina erakusten dian hitz batek ehíftera ofensatzen du. Nitan **aldiz** fidatzen dena (...) gizonen lotzarik batere gabe izanen da (M. Maister, *Jesu-Kristen imitacionia* III, 46, 3)

Osagai osoaren ondoren joan beharrean --ezpiritú paubre eta umil direnak **aldiz**... eta nitan fidatzen dena **aldiz**...--, osagaia apurtuz ageri da horietan lokailua. Estilistika kontua da beharbada. Dena den, ez dirudi honek jokabiderik ohizkoena ez eta gomendagarriena ere, seguru asko. Badirudi adibideotan aplikatu den erregela bigarren perpauseko lehen hitzaren ondoren jartzekoa izan dela, kontutan hartu gabe hitz hori perpaus osagaia den ala --hemen bezala-- perpaus osagai baten azpi-osagaia.

- (67) Bena halarik ere zure boronhatia izan bedi konplitia, ez aldiz enia (*Uskara Libru berria*, 37)

Perpausaren hasiera hasieran ere ageri da inoiz, nahiz eta ez den hori inola ere erabilerarik ugariena:

- (68) Ez nuan atsedeten Zu gozatuz; aldiz, zure edertasunak nindekarren, eta berela nere aztak zuregandik ninderaman (*Orixo, Aitorkezurak*, 175)
- (69) (...) ene hutsak ene gain hartzen ditut nik; aldiz, ama, zuri bihurtzen dut, ni baitan bada deus onik (*Xalbador, Odolaren mintzoa*, 80)
- (70) (...) egun ahal dena bihar gora daiteke; aldiz gaur goiean dena biharkotz eror ere (*L. Goyheche, Fableac edo aleguiac*, 54)

4.4.3. Lokailuetan ohizkoa denez, juntagailuen lagun ere joan daiteke **aldiz**. Eta-rekin batera maiz erabiltzen da, emendioari aurkaritza erantsiz:

- (71) Gazte nintzanian, bogoi urhetan, / Ardura nindabilan neskatilakan; / Eta orai aldiz, ostatietan, diharu gili molisan behar ordietan, nehorik enaie ikhusi nahi kunpañetan. (Etchahunen bertsoak, J. Haritschelhar, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*, 396)
- (72) Itzaldi bat egitera deitzen zaituzte; itzaldi eder bat egiten duzu, izen ona eta estimazioa eskuratu dituzu. Eta aldiz, itzaldi aula ta kaxkarra egite ezkeru, etzaituzte geiago entzungo, eta orra zigorra (*L. Villasante, Kristau fedearen sustraiak*, 103)

Azken kasu honetan **eta aldiz** esapidea ikusten dugu perpausaren hasieran. Normalagoa da, hala ere, **aldiz** perpausaren barnean gertatzea, bere ohizko kokalekuetan, (71) adibidean bezala.

Aurkaritzako **baina** juntagailuarekin batera gutxiagotan ageri da:

- (73) Geienen maite oi dan adiskide zintzoa galtzea, norik beraren bizia galtzea añaiko dut. Aldiz, baña, danau argi ta garbi dakuskezu (*J. Zaitegi, Sopokel'en anzerkiak*, 74)

4.5. Aitzitik

4.5.1. Formaz aditzondo bada ere --ikus **-tik** atzizkia--, lokailu gisa erabiltzen da batez ere **aitzitik**. Aurkaritza adierazten duten lokailuetarikoa dugu hau ere eta, hortaz, **berriz, ostera, aldiz**, eta horrelakoen kidea da.

4.5.2. Badu, halere, haiek ez bezalako erabilerarik : sarritan, izan ere, lehenbiziko perpausa ezezka doa eta **aitzitik** bigarren perpausaren hasieran kokatzen da, honela bi perpausen arteko kontrakotasuna markatuz. Horretan, perpaus hasieran joaten den **baizik (eta)** juntagailuaren ordain egokia izan daiteke batzutan. "Ez gaitzazu tentaldira eraman, baizik libra gaitzazu gaitzetik" perpausaren ordeztu **aitzitik** duenaz balia gaitetzke:

- (74) Eta ez-kaizazula utzi tenazioan erortera, aitzetik libra gaizazu gaizetuk (J. de Beriayn, *Doctrina Cristiana*, 84r)

Gainera, sarritan, lokailu honen ondoren eten bat gertatzen da. Horregatik, zenbaitetan koma ere agertuko da idatzian:

- (75) Ez gogor egin gaiztoari. Aitzitik, isork eskufeko masailan jotzen bazaitu, bestea ere eskain zaitozu (P. Iraizoz, *Yesu-Kristo gure Yaunaren bizia*, 124-5)
- (76) Geroztik, Irlandarak ezin irabazi du atzera orduan galdu zuen eremua : aitzitik, geroago eta ahulago izan da (J. Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 211)

Menderatuak diren perpausen artean ere gerta daiteke, nolabaiteko tartekarze modura, kontrakotasun hori. Ondoko adibidean, esate baterako, bi baldintzazko perpausen artean gertatzen da kontrajartzea:

- (77) Debozionerik ezpaduzu, aitzitik sentitzen baduzu idorra zarela, iar zaito ohoitzetan (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea*, 276)

Batzutan, lehenbiziko perpausa itxuraz baiezkkoa izan arren, berez, ezezkoa balitz bezalaxe da, zeren 'urrun izan', 'gibelatu' eta horien antzekoak ezezkoako predikatuak baitinugu. Horietan ere gertatzen da, hortaz, ezezkoaren eta baiezkoren arteko kontrakotasuna:

- (78) Urrun da beraz deus egin nahiko dudan haren kontra; aitzitik eginen ditut haren alde egin ahal guziak (J.M. Hiribarren, *Escaraz Eguia*, 118)
- (79) Samariako erregek nahi zituen hil-arazi guziak; ordean Eliseak gibelatu zuen hartarik. Aitzitik, eman-arazi zioten hura hartu nahiz zebiltzanei yaterat eta edaterat (B. Larreguy, *Testamentu zaharreko eta berriko historia*, 244)

Nolanahi ere, lehenbiziko perpausa normalean ezezka joan ohi den arren, zenbaitetan baiezka ere joan daiteke:

- (80) Alabainan gizonei barkhatzen baderoztetzue beren hobenak, zuci ere zuen Aita zerukoak barkhaturen darozkitzue zuen bekhatuak. Aitzitik gizonei ez badiozue barkhatzen, zuen Aitak ere zuen bekhatuak ez darozkitzue barkhaturen (J. Duvoisin, *Bible Saindua*, Mt 6,14-15)

Aipatzen ari garen kontrakotasun hori nolabait areagotzeko edo, **ez-bai** partikulak agerian jartzen dira zenbaitetan:

- (81) Gristinoak ezire zure etsaiak, aitzitik bai zure zerbitzaririk hoberenak (B. Joannategi, *Sainduen Bicitzea*, 133)

4.5.3. Aurkaritza adierazten duten lokailu hauekin guztiekin gertatu ohi den bezala, perpausaren hasieran joan beharrean, tartekatua ere joan daiteke inoiz **aitzitik**, nolabait ezkerretara jartzen den osagaiari hanpadura edo emanaz. Erabilera horretan **aldiz, berriz, ostera** eta horrelakoen pareko da. Ezkerretan daramana osagai soila izan daiteke --mintzagaia, zenbaitetan--:

- (82) Zaldizkuak esaten zien oñezkuai, aiek baño obeto burukatu zirala etsaiarekin; eta oñezkuak aitzitik beste ainbeste zaldizkuai (C. Beovide, *Asis'ko Loria*, 214)

Baina perpausaren zati handiagoa ere izan daiteke:

- (83) Ez dugu beraz zeren eman gure bihotza mundu iragankhor huni: egon behar du aitzitik, zenura altxatua; han ediren behar du orai-danik bere egiazko egoitza (B. Larreguy, *Testamentu çaharreco eta berrico historia*, 212)

4.5.4. **Aitzitik** eta **baina**, biak, esanahiaren aldetik berdintsuak dira. Hala ere, zenbaitetan biak batera aurkituko ditugu, aurkaritza nolabait indartzeko edo:

- (84) Egin iezaguk grazia haur, eztuan permetitu nahi gauza hauk sekulan ahanz dakizkigun : baina aitzitik gure bihotzetan inprimatuak ditugularik, abanza gaitezen (...) (J. Leizarraga, *Othoitza*, 8)

- (85) Uste zuen Kattinek nahigabe haundi bat ukain ziela, haren ametsak ezeztatzen. **Bainan** Kattin, aitzitik, arras kontent zen yakiuan bere osaba gaixoa bizi zela (E. Zubiri, "Lanak", *Nafarroako Euskal Idazkariak*, 63)

Eta-rekin ere ager daiteke **aitzitik** : **eta**-k lotura adieraziko luke eta **aitzitik**-ek, bere aldetik, bi perpausen arteko aurkaritza:

- (86) Hainizetan badirudi karitatez ari garela, eta aitzitik sensuen oldez hari gare (S. Pouvreau, *Jesusen Imitazionea*, 45)
- (87) Ene desgraziez alegera direnak bihur beste desohorearekin. Eta aitzitik zure bilha dabiltenak ediren bezate zure baithan bere bozkarioaren materia (B. Gazteluçar, *Eguia Catholicac*, 54)

4.6. Bizkitartean, bitartean, bien bitartean, artean

4.6.1. Bizkitartean

Aurkaritza lokailu dugu hau ere, ekialdeko euskalkietan erabiltzen dena. Adberbio esapidea da berez eta aditzondo gisa ere erabiltzen da sarritan. (Jatorriari dagokionez, ikus L. Michelena, *Fonética Histórica Vasca*, 534)

Zenbait kasutan ez da erraza izaten **bizkitartean** aditzondo ala lokailu den erabakitzen, bi erabileren arteko muga ez baitago batere argi horrelakoetan:

- (88) (...) zeren gauza batzu sori dire, zeinak **bizkitartean** ezpaitire ohorezkoak (S. Pouvreau, *Philotea*, 328)

Beste zenbait kasutan, berriz, nahikoa argi antzeman daiteke lokailu gisa erabilia dela, **alabaina** eta horrelakoen pare:

- (89) Iduri zuen bortxazkoa; **bizkitartean** borondatezkoa gerthatu zen (B. Larreguy, *Testament çaharreco eta berrico historia*, 222)

- (90) Erran dut hezerik hobe dela trefla; **bizkitartean** belhar eskasa denean, hartarik begiratuko da (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 96)

Goiko bi adibideetan ikus daitekeenez, bigarren perpausaren hasieran agertzen da maiz **bizkitartean** lokailua. Hona beste adibide bat:

- (91) Ezda zeren deus handirik erran halakoei. **Bizkitartean** badire egia entzun dutenak leze itsuenen erdian (J. M. Hübarran, *Escarat eguia*, 24)

Inoiz, ordea, perpausaren barnean tartekatua ere ager daiteke, zati luze edo laburrago baten ondoren:

- (92) Hunen araberalat haatik, badauzka barnean hiru egoitegi luze, erdikoa gorenik, zabalarik ere ba, Baionakoarena baino zabalago. Jakintsuek kausitzen diote bizkitartean akatz bat: aitzinaldea, bere ezkiladorre lau hegiekila apalskoekin bazterretan, eta, erdian, sarguiako bere atherberfoarekin, hau harrizko zango batzuen gainean xut, hanitzez berantago egina izan omen du aitzinalde hura, dena ere ez garaitikoari eman zen molde beretan (J. Etchepare, *Beribitez*, 22)

Zenbait juntagailurekin batera ere ager daiteke **bizkitartean** lokailua. Eta-ekin batera maizenik:

- (93) Ezin sinetsizkoa da, eta bizkitartean egia (J. Hiriart Urruti, *Zezenak errepublikan*, 123)
- (94) Aita Yainko da, semea Yainko, Izpiritu-Saindua Yainko; eta bizkitartean ez dire hirur Yainko; bainan Yainko bat (J.M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 912)

Baina baita inoiz **baina-ekin** ere:

- (95) Gurekin gure haur guztiak gloriako tronuetan adora zaitzate!a behi sekulako mendetan. **Bañan**, othoi, bizkitartean iguzu zure grazia (B. Gazieluçar, *Eguia Catholicac*, 207)

4.6.2. Bitartean

Hau itxuraz, morfologiaz, **bizkitartean**-en pareko dugu. Hala ere, are ilunago gertatzen da, harenaren aldean, honen lokailutasuna. **Bitartean**-en balio nagusia, izan ere, aditzondo gisakoa dugu. Eta balio horrekin erlatiboazko egituretan agertuko zaigu sarritan.

Zalantzak zalantza, ordea, badirudi batzutan behintzat aurkaritza lokailu gisa ere erabiltzen dela:

- (96) (...) ekandu dongen gaitan ikusten dana da, (...) ekandubar-askodunak ez daukala ifioz bakerik ez pozik. Bitartean, on oidadeko bidean ibiltan asiten dana, dago aisegeitez eta pozik (A. Iturzaeta, *Azaldura laburrak*, 198)
- (97) Asko egoten dira (...) erriko gizonik sendoenak noiz itoko eta jakuezan bildurrez ta ikaraz; da eurak, bitartean, adiskideai edo ezezagun batzuei laguntasuna emoten dabiltzan umankorrek (...) agertuten dira olatu guztiak euskaldun ausarditsuen arpega emonaz (D. de Aguirre, *Kresala*, 31)

Beste lokailuen antzera, **baina** juntagailuarekin eta **berriz** lokailuarekin batera erabiltzen da inoiz **bitartean**:

- (98) Zorion horrentzat egitzue bestak, **baiña** bitartean, baterarik biak, nahi nuke ukhan hartua zure bakhezko musua (L. Goyheche, *Fableac edo aleguiac*, 137)
- (99) farisauak, (...) beren baratzetako belarkien amarrenak ere ematen zizuzten. **Baiña** bitartean, oiek baño bearragoko gauzaz, zuzentasuna eta Yainkoaganako maitasunaz elzuten axolik (P. Iraizoz, *Yesu-Kristo gure Yainaren bizia...*, 273)
- (100) Biotzaren kaiean gero iskanbilla gogoa irten danean atsegin billa. **Ta** bitartean, **berriz**, jegi zorrotza! bizitzari musuka jai! eriotza (Jautarkol, *Biozkadak*, 45)

4.6.3. Bien bitartean, (t)arte horretan, artean

Aurreko bi lokailuez esan denak balio du hauentzat ere. Areagotuta, ordea. Izan ere, inon egia bada guzti hauek berez aditzondo direla, hemen da:

- (101) Egiañak egin eta etxera pakean, ondo bildu bear degu aurtengo urtean, da denbora badijua **bien** bitartean (Uztapide, *Berisolarien txapelketa*, 127)
- (102) Oriñ bada: tristatuko zarazte zifek eta egiften dezue negar ta bitarte orretan mundua irriz ta farraz ibilliko da ta bere atseginez eroetan sartua; bafia bukatuko da zuen tristanza ta orren ordezt sartuko da zuen biotzerafio zeruko atsegin garbia ta agituko zaitzue semezt erditzen den andreari gertatzen zaiona (S. Mendiburu, *Igandeetarako irakurraldiak*, 315)
- (103) Eta, ze umiltasun andiaz imini zinean yudegu gogor-amorratuen eskuetan, ukabilka, ostikoka, makillaka, ta zelan gura barregarri erabiltzeko, zu bitarte orretan ixil-ixilik, txitik bere egin bagarik, zengoala? (P.A. Añlibarro, *Escuñburua*, 202)
- (104) Emakumeak bakarrik sartu zitezkean ildegian. Gizonik ez zan ikusten eguerdiko amabiak arte. Eta bitarte orretan ildegi-barrera zurizkoz betea (A. Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 16)
- (105) Kaleetan ere ikusten dira palmerak tarteka. Etxeak, bea ta bizitza bakarra, naiko itsusiak. Artean, kanpotarrentzat zer-ikusia ba'daukate (A. Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 25)

- (106) Bukatzen zuanean, tresna guztiak arras ongi txukatu, oso garbi utzi, ta khontuz khontuz gordetan zituan, labaiñaz bethetako kutxatxo beste ondoan ipifirik. Artean Patxi aurrean egoten zan aitaren zereginak zaintzen (Oskillaso, *Kurloiak*, 103)
- (107) Ta zuri artatik bealz-muturrekin pixka bat abora ekarrita parrez asi ziran biak-afa-biak. Artean kanpoan sekulako iskanbilla sortu zan (A. Anabitarte, *Poli*, 101)
- (108) Onela, andere gaixo aren poza, askoz geroko iragarria, bertan poz gertatu zan. Igaro baiziran oraño bederlatzi urte, lokatz illunean iraultzen nintzala, askotan zuti nai ta gotorrigo itsasia. Artean, alargun garbi, zintzo, gartsu ua, zuk nai bezalako alarguna, itxaropidez alai, baiño negar-malkoz ez nagi, beure oioitz ordu orotan ez zan aurtzen, zuri nitaz asperenka (Orixe, *Aitorkizunak*, 71)
- (109) Arratsalde artan, ordea, osikolari garaitzalleen bidera irtena zan Donosti osoa. Iritsi-berria zan, artean, etxeoandrea ere-ta, garaiz etxeratu zan neskatxa (T. Agirre, *Uztaro*, 67)

Literaturan hain usu ageri ez diren arren, euskalkietan aurkitzen ahal dira **arte horretan eta tarte horretan** lokailuak ere:

- (110) Ama xaonada egiten ari zen goitian. Tarte horretan sartu omen zen lapurra etxean
- (111) Baina Afrikaraino ere hedatu du bere misionesgoa, hiru urtez, Burundi herrian. Arte horretan Baionako hiru apezpikuk beretzat begiztatu dute, bere sekretariozat harturik lehenak eta eliz-barrutiko bikari orokor beste biek (E. Larre, *Euskera* 1990,2)

4.7. Alta, alabaina, alabadere

Aurkaritza adierazteko erabiltzen diren lokailuak ditugu hauek ere, elkarrekin duten kidetasunagatik multzo batean sartu ditugunak: aurkaritza balioaz beste, balio esplikatiboa ere badute hirurek eta batez ere ekialdeko euskalkietan erabiltzen dira, **alabaina** mendebaldean ere ezaguna den arren.

4.7.1. Alta

Ekialdeko euskalkietan erabiltzen den lokailua da hau, esan bezala, joan den mendearen erditsutik honako testuetan ageri dena. Balio bikoitza erakusten du.

4.7.1.1. Gehienetan aurkaritza adierazten du inolako zalantzarik gabe:

- (112) Joan zen beraz...eta etzuten hil. **Alta** egia ederrik entzun zuten (P. Narbaitz, *San Frantses Jatsukoa*, 194)
- (113) Edariez ez dut oraino deus erranik, / **Alta** sci, zazpi trago baditut edanik! (Oxobi, *Oxobi-ren lan orhoitgarri zombait*, 158)
- (114) Eta horra Beloken berean ikusten nuela; zer ari ote? pilota-plazaren erdian, galtza beltz eta atorra xuriekkin, pirripitaz nola ibil ikusten iduri. **Alta!** Bazukeen orduan Aitzol-ek pirripitan ibilizeaz beruze kezkarik... (X. Diharce 'Irazeder', *Euskera* 1990, 2)

Harridura perpausetan erabiltzen da maiz **alta** lokailua. Horrelakoetan enfasi edo indar berezia ematen dio perpausari.

Aipatzekoa da, azkenik, **bada**-ren laguntza izaten duela sarritan, baita aurkaritza adierazten duenean ere, **alta bada --edo alta... bada--** forma hartzen duelarik:

- (115) Deneri ohore zitzaien josteta hortan baltsatzea. **Alta bada** bertsu-alde luzeak bazituen gogoz ikasteko antzerkilari bakotzak (P. Lafitte in J. Casenave, *Santa Grazi*,9)
- (116) Beraz, zeruan ez dela diozu / nik behar dudan lekua, / **alta** etzen ba izugarria / nik ein dudan bekatua (Martin Treku, *Ahal dena*, 131)

Bigarren perpausaren hasiera hasieran hartzen du toki gehienetan **alta-k**, aurreko adibideetan ikus daitekeen bezala. Ez du debekurik, halere, inoiz edo behin perpausaren barruan tartekatzeko, zati luze edo laburrago baten onodoren:

- (117) Bertze solasik nuen **alta** egungotzat gogoan (J. Hiriart-Urruti, *Zezenak errepublikan*, 75)

Aurkaritza lokailu gehienak ez bezala, badirudi **alta** ez dela juntagailuekin batera erabiltzen (***eta alta, *baina alta, *edo alta...**)

4.7.1.2. Zenbaitetan, aise gutxiagotan hala ere, bigarren perpausak aurrekoari nolabaiteko azalpena ematen diola adierazteko balio du:

- (118) Beraz, ez naiz gure arrazan ni lehena pertsutarako gogoia izan dutana. Aita zena ere, **alta**, kantari gaitza ginuen (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 32)

- (119) Ez baita erretor onaren marka hoberik erier jarraitzea baino. **Alta** hala zen hura (J. Hiriart-Urruti, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 201)

Horrelakoetan izan ere, **bada** edo horrelakoen kide dela esango genuke.

4.7.2. Alabaina

Balio bikoitza du lokailu honek ere, ez ordea guztiz berdin euskararen eremu osoan. Aurkaritza lokailu gisa iparraldeko testu zaharragoetan ageri da batez ere; balio esplikatihoan, berriz, geroago ageri da hegoaldeko testuetan eta iparraldeko batzutan.

4.7.2.1. Aurkaritza adierazten du:

- (120) O zein labur, zein gezurrezko, zein desordenatu eta itsusi diren plazer guziak! **Ala baina** gizonek helaz horditurik eta itsuturik, eztute hori ezagutzen (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea* III, 12,4). (Aurkaritza balioan)
- (121) Ereille gaistoetan dago azaro txarra, eta gero uzta soila ta utsa. **Alabañan** gutxiak daki bere jayoterriko Euskeraren erdia (...) (M. de Larramendi, *Carta a Mendiburu*, 278-9) (Balio esplikatihoan)

4.7.2.2. Egungo erabileran, berriz, gauzak bestela direla dirudi. Lapurteraz eta behenafartarrez balio esplikatihoan erabiltzen da batez ere eta hegoaldean, berriz, aurkaritza balioan:

- (122) Erretor joaiteko adinean Biriaturat joan zen alegerarik. Biriatu bere aintzineko guzienherria zuen, **alabainan** (Zerbitzari, *Azkaine, gure sorterrria*, 84) (Balio esplikatihoan)
- (123) 'Artikulo' zeri, ta zeri ez, iritzi lezaiokeen zeatz aurrez-esatea ezpaita errez, epaikerien gain uzten da etsibide ori; **alabaña**, aren muin eta ariak gaurkotasun-usaia bear du (X. de Lizardi, *Itz-lauz*, 98) (Aurkaritza balioan)

Inguruak aski argi adierazten du gehienetan zein den lokailuaren balioa. Aurkaritza balioa duenean, **bizkitartean** eta horrelakoen parekoa da. Ikus esate baterako (120), (123) eta ondokook:

- (124) Askotan arratsa ardiesten da goizeko othoitza egin gabe. Eta **alabainan** othoitza da zeruko laguntzen eta grazien ardiesteko bidea (M. Duhalde, *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, 49)

- (125) Ezakit emaztearen berririk eta **alabaña** ez naiz birjina (P. de Axular, *Guero*, 369)

4.7.2.3. Perpausaren hasieran kokatzen da maizenik **alabaina** adbertsatiboa, goiko adibideetan ageri den bezala. Dena den, ez dira gutxi lokailua perpausaren barruan daramaten perpausak, **halere**-ren inguru beretsuetan:

- (126) Nere otoitzak lagun egingo dizute. Auxe da nere burubidea. Badituzu, **alabaina**, Euskalerrian ni baino bereter jakintsuagoak, ugari (R. M^a de Azkue, *Ardi Galdua*, 102-3)

Ez dirudi, azkenik, oso maiz erabiltzen denik lokailu hau juntagailuekin batera. Dena den, **eta**-rekin erabiltzen da inoiz: ikus, esaterako, (124) eta (125).

4.7.3. Alabadere

Aurreko biak baino askozaz maiztasun urriagokoa da **alabadere** lokailua. Aurkaritza balioan, **alabaina**, **bizkitartean** eta horrelakoen parekoa da:

- (127) Aspaldikoa da errana, esperantzen erregia hil zela hospitalian ta ozartia zela astoen berdhüdia. Alabadere biak ezütianak mündian dü bide llabür eginen (J. Eguiateguy, *Filosofu Huskaldunaren Ekheia*, 244)
- (128) Biblia ezta minizo emazten adinaz, salbü Sara, Judith ta Anarenetzaz; bena Evarenaz hizik eztl aipatzen, **alabadere** dakigü güziak erhautüstürük daudiala, gu ere halakatüren giradiala (J. Eguiateguy, *Filosofu Huskaldunaren Ekheia*, 189)

Balio esplikatiboan ere erabil daiteke lokailu hau, **izan ere**-ren pareko:

- (129) Heldu da ordua, eta orai da, non egiazko adoratzaileek izpirituz eta zintasuncan baitute adoraturen Aita; **halabadere** Aitak holako adoratzaileak ditu galdatzen (J. Duvoisin, *Bible Saindua*, lo 4,23)

4.8. Dena dela, dena den

4.8.1. Forma

Bi lokailu hauek nondik sortu diren nahikoa garbi dagoela dirudi: bi perpaus fosilizatuz sorturiko esapide edo lokuzio dira.

Hauexek dira lokailuon osagaiak: **den (dan)** adizki erlatiboa + **-a** mugatzailea lehen atala, eta adizki subjuntiboa (**den**) edo adizkia + **-(e)la** menderagailua bigarrena. Egiturari dagokionez, hortaz, 'datorrena datorren, datorrena datorrela', 'dakiena dakién, dakiéna dakiéla' lirateke, e.a erabat parekoak dira. Desberdintasuna, aipatu berri ditugunak lokailu ez bilakatzean datza. **Dena dela** eta **dena den** esapideek, aldiz, inoiz jatorrizko balioa gordetzen badute ere, sarrián lokailu ginik erabiltzen ditugu.

Ondoko adibideotan, esate baterako, jatorrizko balioa gordetzen dute:

- (130) Bai, kristinauba; zaarra bazara bere, borondate ona badozu ez ezer ixildu, ta edertuteko, **dana dan** legez esateko, aterako deusuz konfesoriak bere itauniakaz pekatuik ezafenak (J.A. Moguel, *Confesião ona*, 269)

Horrelakoetan lehen atala, **dena**, bigarrenaren subjektua da eta haren balioa 'gauza guztiak', 'zer guztiak' litzateke: '**dena**' **den** legez esateko eta '**dena**' **dela** Jainkoaren beharrean, hurrenez hurren.

Lokailu funtzioa dutenean, berriz, lehen atal horrek, **dena-k**, 'zer guztiak' adieraren ordez, 'aurretik esandako guztia' adiera hartzen duela esan dezakegu:

- (131) Sainduak ez dira itsuak. **Dena den**, gobernadoreak galdeginik, manatu zion Frantsesek bere lagunari irakur zezon sakelán zuen papera (P. Narbaitz, Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, 229)

Zenbait adibidetan, azkenik, erdibideko balioa somatzen dugu: horrelakoetan **dena** erlatiboa aurreko izen sintagmari dagokio, edo hala izan daitekeela irudi dakiguke bederen; hau da, **dena**-ren aurrekaria ez da ordura arte esandako guztia, izen sintagma jakin bat baizik:

- (132) Gerokoen igarmen izkntu ortaz **dana dala**, badana besterik ez diteke ikusi (Orixe, *Aitorkizunak*, 322)

- (133) Agindu onek eragozten dau, ifloren diruba, aziendia, edo balijoko gauzia, **dana dala**, jaubiaren errazuazko naijaren kontra, norberarentzat gura izatia (F. Bartolome, *Icasiqizunac* II, 245)

Horrelakoetan zalanizak sortzen zaizkigu **dena dela** lokailutzat hartu behar dugun ala ez. Izan ere, adibide horietako 'igarmen izkutu' eta 'diruba, aziendia edo balijoko gauzia' sintagmak har daitezke **dana** artikuludun erlatiboaren antezedentetzat ('den igarmena dela', 'den gauza dela'). Garbi ikusten da azken hau gertatzen dela aditza pluralean doanean:

- (134) Neurri horren bidez neurtuz gero, gizakiak eta gizаланak, **direnak direla**, bitarikoak dira bakarrik : handi ala txiki (K. Mitxelena, *Mitzelenaren Idazlan Hautatuak*, 267)

Beste zenbaitetan, ordea, inguruko izen sintagmak pluralak izanik ezin da horrelako erlaziorik somatu. Batzutan aditza singularrean dagoelako:

- (135) Naiz ta azaletik eta zatika izan, iru irakasleok ezagunak ditugu. **Dana dala**, ezaguera oni ertzak atera dezaizkiokegu (J. Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 29)

Bestetan esanahiaren aldetik loturarik ez dagoelako:

- (136) Eskaldun odoleuk biek badukete; **dena den**, arbasoak segitzen dituzte (J.M. Hiribarren, *Eskaldunac*, 158)

Adibideotan ezin da, alegia, **dena** erlatiboaren eta izen sintagma jakin baten arteko erlaziorik ikusi. Horrelakoetan, beraz, lokailu dira **dena den** eta **dena dela**. 'Kontzesio kutsuko esapide' bezala definitu izan dira inoiz lokailu hauek (ikus L. Villasante, *Sintaxis de la Oración Compuesta*, 197). Ezaguna da, ordea, lotura adbertsatiboaren eta kontzesiboaren artean ez dagoela, sakonean, alderik. Bi perpausen arteko kontrakotasuna ematen da aditzera batean zein bestean, ikuspuntu diferentetatik bada ere : **A baina B** dio batak eta **A bada** ere, **B** besteak. Biek adierazten dute aurkaritza, koordinazioaren bidez hark eta menderakuntzaren bidez honek.

Dena den eta **dena dela**, ordea, ez dira ez juntagailu ez menderagailu. Lokailu dira eta, alde horretatik, nahikoa da aurkaritza lokailu direla esatea, hortik gorako berezketarik egin gabe. Esan behar da, hori bai, 'kontzesio, aurkaritza' adierazte horretan, lehen zatiak, **dena-k**, aurreko perpausaren erreferentzia biltzeko balio dezakeela -perpaus osoaren erreferentzia, alegia, ez perpausoko atal bat(zu)ena soilik-, jatorriz erlatibo substantibatua izanik. Baina erlatibo hori fosildu denez, askotan ez dugu halako erlaziorik somatzen. Aurkaritza lokailu gisa ageri zaizkigu, besterik gabe. Horrela, esate baterako, honako adibide hauetan:

- (137) Ez dut nik holakorik erran. **Dena dela**, ez dut nahi, ene semea, gizonari bezala mintzo natzaizunean, athera dezazun haur-solasik (J. P. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 255)
- (138) Euskaldun edo bretoinen artean egoiten naizen aldikal, herri minoritaten baithango fedea galtzen dut. **Dena den**, ustie dut azken aldian erran nauzun zuzenbidean lan zerbait egin behar gendukeela, lagun zenbait hartarako bildurik (J. Mirande, *Miranderen Idazlan Hautatuak*, 62)

Balio bereko lokailu hauek, euskalkien arabera bereziko ditugu, bestalde. Horrela, **den eta dela** ekialdeko formak ditugu eta, hori dela eta, **dena den eta dena dela** lokailuak ere ekialdeko autoreenak edota euskara batuaz idatzi dutenenak dira. **Dan eta dala** formak, berriz, mendebaldekoak direnez, **dana dala** ere mendebaldeko lokailua da. Azken euskalki hauetan ez da **dana dan** lokailua erabiltzen. Hauxe da, hortaz, banaketa: **dena dela (dana dala)** euskararen eremu osoan erabiltzen da eta **dena den** ekialdekoetan baizik ez.

4.8.2. **Dena dela** lokailuaren tokia

Bigarren perpausaren hasieran erabiltzen da maizenik **dena dela** lokailua, alborakuntzan -aurreko perpausetik puntuaz edo puntu gehi komaz berezi ohi delarik sarritan-. Ikus, esaterako, (135), (137) eta ondoko adibidea:

- (139) Nik orain ezlot gomuta zer euki eban. **Dana dala**, egunik egunera txarto yoiari (Kirikiño, *Bigarrego Abarrak*, 23)

Zuzen zuzenean juntagailuren baten ondoren ere joan daiteke:

- (140) Minoritate madarikagarrion maitasunak ez dit eni sekula profetiturik ekarri, eta **dena dela**, ezin publiko nezake Herrian, ez bainaiz ni aldizkari hortako apezten artean (J. Mirande, *Miranderen Idazlan Hautatuak*, 57)
- (141) Arimako giro bereziak agertzen dituen lan batean, gauzak eztaude alako logika edo ordena zorrotz batekin kateatuak. Baiña **dana dala**, egilleak berak zortzi parte edo atal nagusitan berezi ta partitu du bere liburua (V. Gandiaga, *Elorri*, 14)

Hortxe da, beraz, lokailu honek gehienetan hartzen duen tokia. Ez du debekurik, hala ere, perpausaren hondarrean joateko:

- (142) Zernai zaar ta ertizko eixean dezuten orok, gutun, yazki, burni landu, ari-lan, argizaiol, pertza gorri... Nik al-dakit, yar zazule, arren, Eusko-ikaskuntza'ren eskuetan, Donostia'n, Aldundi-Yauregian, Diputazioan, ditun landoletara bializ.

Gauza berbera bialtzerik ezlenean, aren argazki edo erretratu bat. Eginbearra bete-ondoren itzuliko zaizute, **dana dala** (X. de Lizardi, *Itz-lauz*, 129)

Perpausaren barruan, beste atal baten ondoren tartekatua ere, ager daiteke (ez, jakina, galdegaiaren eta aditzaren artean):

- (143) Bafa ixillari ba'zaudete, ta beldurraren nire aginduari buruz bere adiskidea edo bere burua inork alderatzen ba'du, arekiko erabakia entzun, lurralde ontako aginte-makilla ta yauralkia nere baiutut: alako gizonari, **dana dala**, inork ez bezaio itzik egin (J. Zaitegi, *Sopokel'en antzerkiak*, 63)

Izen sintagma baten ondoren doanean, dena den, gorago esan bezala, zalantzak sor daitezke lokailu balioan ala bere berezko balioan ('edozein delarik ere') erabilia izan den. Hau da, (143) adibide honetan, esate baterako, **dana dala** uler daiteke lokailu bezala aurretik esan denarekin aurkaritza ezarriaz, baina har daiteke 'edozein gizon izanik ere' balioan ere.

4.8.3. Dena den lokailuaren tokia

Dena den lokailua ere perpausaren hasieran ageri da maizenik. Ikus (138) eta ondoko adibide hau:

- (144) Nor nahi badohake pilota yokorat / hala nola baidohaz yende pasaiarat; / **dena den** eskalduna, han ungi agertzen; / han herrunka guziek betan distiatzen (J.M. Hiribarren, *Eskaldunac*, 217) -

Edo zuzen zuzenean juntagailuaren ondoan:

- (145) Ez dut uste iritzi hori zuzena denik, baina, **dena den**, badu dudarik gabe erro sendorik (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hausanuk*, 391)

Honek ere ez du debekurik, halere, perpausaren barruan joateko:

- (146) Nolazpeit azkenean elgar entzun zuten : hirur egunetarik, osoki, **dena den**, astoa du bakotzak beretzat ukanen (Oxobi, *Oxobi'ren lan orhoigarri zombait*, 94)

Perpaus hondarrean ere koka daiteke:

- (147) (...) iaketa nai baitu kartetako papera aprobetxa tzadan ene uskaraz, **dena den** (M. Mendigacha, *Cartas a Azkue*, 132)

4.8.4. Juntagailu eta lokailuekin batera

Gorago esan dugun bezala, juntagailuekin batera ere maiz erabiltzen da **dena dela**. Maizenik, noski, **baina** adbertsatiboaren ondoan ageri da, **baina eta**-rekin ere maiz erabiltzen da. Ikus (140) eta (141) adibideak.

Oso bakan bada ere, **edo** juntagailuarekin batera ere ageri da inoiz-inoiz:

- (148) Nire artikulua hau irakurri ondoan, baliteke batek edo bestek gogoan irgaitea ez daudela Europaren sartaldeko hizkuntza minoritari gaizo horiek nik diodan bezain gaizki eri, **edo, dena dela**, bidegabe ditudala euskararat hedatzen irlandarraren urkustetik atera ditudan jalgipen pesimistak (J.Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 206)

Esapide horietan ikus daiteke ondo zein den **dena dela** lokailuaren aurkaritza balioa, kontzesio gisakoa hain zuzen ere, gainerakoan juntagailuaren balioa nagusitzen delarik: **baina**-rekin doanean, bi perpausen arteko aurkaritza zuzena gertatzen da ('gauzak ez daude kateatuak, **baina** **dena dela** ataletan berezia dago libutua'); **eta** nahiz **edo**-rekin doanean, berriz, ez da perpausen arteko aurkaritza zuzena gertatzen, emendioa edo hautakaritza baizik, **dena dela**-k kontzesio kutsua eransten duelarik ('ez dut idazteko gogorik **eta** gainera, **dena dela** -gogorik izanda ere-, ezin publiko nezake aldizkari horretan'; 'hizkuntzak ez daude horren eri **edo**, **dena dela** -horrela izanda ere-, ez dira irlandarrarenak euskarara hedatu behar').

Nahiz-en ondoren ere erabiltzen da inoiz:

- (149) Gurekin **dela** ez gera ezerren bildur naiz **dena dela** (F. Munibe, *Gavon Sariac*, 16).

Hala ere, egokiago da beharbada fosildu gabeko perpaus kontzesibo normaltzat hartzea horrelakoak (nahiz datorrena datorrela¹ gisakoak, alegia).

Dena den ere erabil daiteke **baina** juntagailuarekin batean. Ikus (145). Lekuko idatzietan ez dugu **eta** **dena den** adibiderik aurkitu. Ez dirudi, halere, ezinezkoa denik.

4.9. Hala ere, hala eta guztiz ere

4.9.1. Forma eta balioa

Forma eta aldakin desberdin ugariz ageri dira sail honetako lokailuak. Aurkaritzari dagozkionak dira denak ere. Perpaus kontzesiboaren pareko direla esan daiteke, nolabait:

(150) Aberatsa da eta, hala izanik ere, pobre bizi da

(151) Aberatsa da eta, hala ere, pobre bizi da

Asko dira, esan bezala, sail honetako lokailuak eta hauen aldakinak. Badirudi, halere, bakoitzaren formari eta tradizioari begiratzuz gero, honako multzo hauetan bil daitezkeela guztiak:

Hala ere eta halere multzokoak genituzke aurrena, hedatuena eta euskararen eremu osoan erabiltzen direnak:

(152) Biak ziren euskaldun zintzoak ustean, / halere ezin adi elgarren artean
(Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 115)

(153) Adiskide maitea, eskerrik aunitz zure eskutitza gatik Txanpain-herri zoriotsutik igorri didazuna. Damu dut hala ere zu ez ikusia bazter horietara joan baino lehen, bainan pentsatzen dut bazkogaraiak elkar ikusi ahal izango dugula (J. Mirande, *Miranderen idazlan hauetarako*, 190)

(154) Abadegei bietarik batak esan eban, alan be, euzkalerriyan baño santo geiago eukela erdalerrriyan (Kirikifo, *Bigarrenge Abarrak*, 181)

(155) Ekin nion nik ere, baño atzeko aldca eman da an utzi nindun... Erregearen anaiak sifistu alare, nik utsegin niola: au naigabca! (Orixc, *Santa Cruz apaiza*, 123-4)

Halarik (ere) multzokoak, berriz, iparraldeko tradizioari dagozkio, mende honetan beste euskalkietako erabilera jasora pasa bada ere:

(156) Nahiz hekien mintzairak ez ditezken berdinak, halarik ere biak elkarren heinekoak dire (J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 36)

(157) Gorputza duelarik luzekara, halarik xuxen du, et'ezta lodi, ez mehe soberarik (A. Oihenart, *Poesiak*, 31)

Hala (eta) guzti(z) (ere) multzo zabalekoak bizkaierazko tradizioari dagozkio batez ere, mende honen erdi aldera gipuzkerazko testuetan ere agertzen hasten diren arren. Aldakinak ugariak dira hemen (guzti gabe ere erabil daiteke):

- (158) Urrea urre da beti, bafia alan da guztiz be leundu bearrak izaten ditu wreak berak (D. de Aguirre, *Kresala*, 8)
- (159) Bat batera otu iakon etzala baldin egia zuzena izango Lope astoak esan eutsana, ta ezebala ondo egin berak, Portunek, Mendiolako nagusiaren kontra aifi azkar ekitea. Alan da guzti bere ezaban barruko artega ta bakaldarik erakutsi gura, ta gitxiago bere buru artoa Pedro Mariren aurtean ialzi, ta len baiño biguntxoago itz egiflaz, erantzun eutsan:... (D. de Aguirre, *Auñemendiko Lorea*, 94)
- (160) Egun bidar jauzi zan, eta ala ta guzti berak irabazi eban jokua (T. Etxebarria, *Lexicón de Eibar*)
- (161) Atsegin-bitsetan nintzen orrela ikusi nitucnean: ala ta guztiz ere, ater gabe zirikatzen niñun orrek (J. Zaitegi, *Sopokel'en antzerkiak*, 79)
- (162) Barre egiten zien guziaz eta or konpon. Baiña ala guziz ere bazuen Simona gureak arantza zorrotzo bat biotzan (P. M. Urruzuno, *Euskal-erriak zerura*, 90)
- (163) Arrimallatan altuan dago / Birjiña Begoñakoa / ala ta bere altuagoan / Birjiña Arratekoa (Herri abestia in S. Mitxelena, *Arantzazu. Euskal sinismenaren poema*, 13)

Halaz guzti(a)z (ere) multzokoak, azkenik, gipuzkerazko tradiziokoak dira gehien bat. **Guzti(a)z** osagaia gabe erabil daiteke hau ere:

- (164) Gai onezaz, eta ala diote berak, Aita Cornejo, ondoena izegin dala; alaz guztiaz ere, ez diote oni jarri nai (C. Beovide, *Asis'ko Loria*, 120)
- (165) Ok onela penitentziako bidian dabilz erri ta estu, eta gu gabiltz penitentziarik gabe lasa ta zabal?. Alaz guztiz ere nai degu oen eriotza, ta oen bizitzak izutzen gaitu? (C. Beovide, *Asis'ko Loria*, 194)
- (166) Besoetatik barnera bultzaz / berçla du zuzendua; / alaz guztiaz, erdigite au / ba lieke luzatua (Orixe, *Euskoldunak*, 224)
- (167) -Jauna, nik ez det merezi zu nere biotzean sartzea. -Eskuaz bularra joaz. -Alaz ere itz bat esan ezazu eta nere anima sendatuko da (*Argi Done laburra*, 69)

Bestelakoak ere aurki daitezke --**halerik, halaz guzi arren ere...**--, baina hedadura gutxiko formak eta aldakinak dira.

Diren direnean, lokailua osatzen duten esapideak ditugu hauek; bere osotasunean unitate bat osatzen dutenak, alegia. Forma desberdinak elkarren artean konparatuz gero, ordea, eta kendu edo jar daitezkeen elementuak kontutan hartzen baditugu, erraz antzeman daiteke zeintzu diren unitate horiek osatzen dituzten osagai nagusiak: **hala**, erakuslearen forma markatu gabea --aurreko perpausari erreferentzia egiten diona--; egitura kontzesibo batzutan ageri den **ere** partikula; zenbait egitura enfatikotan ageri den **guzti** zenbatzaile orokorra; eta, azkenik, **ere** gabe ere beharbada kontzesio kutsua eman dezaketen **-ik** eta **-z** atzizkiak.

Lokailu hauek, **dena dela**-k bezala, aurreko perpaus osoari egiten diote erreferentzia eta harekiko aurkaritza adierazten dute.

4.9.2. Tokia

Bigarren perpausaren hasiera dute lokailu guzti hauek ohizko kokaleku, horixe ageri baitira maizenik. Bestelako tokietan ere erabil daitezke, ordea, denek joera berbera erakusten ez badute ere: **halere**-k askatasun handiagoa erakusten du bai perpaus barruan bai azkenean kokatzeko; **halarik ere**-k erraz hartzen du perpaus barruko toki, ez hain erraz ordea azken burua; **hala ta guztiz ere** eta **halaz guztiaz ere** multzokoak, berriz, perpausaren hasieran kokatzen dira ia beti, inoiz edo behin barruan ageri badira ere.

Hasiera hasieran joaten dira, beraz, sarritan lokailuok, adibideetan ikusi dugun bezala.

Zuzen zuzenean juntagailuaren ondoan ere joan daitezke, ordea:

- (168) Indar guziak eskuetan izaki, eta halere jendearen beldur! (J. Hiriart-Urrui, *Zezenak errepublikan*, 162)
- (169) Neskarar bai hemendik ai naiz / oihu ta irrintzina, / bainan halere ezin urrikal / aldean den muturdina (Maitin Treku, *Ahal dena*, 104)
- (170) Harbat aldiz abisatuak, behartuak, mehatxatuak, eta halarik ere deusik ez egiten! (M. Duhalde, *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, 216)
- (171) Aita posible balin bada dispensa nezazu kalitza hunen edatetik, bera halarik ere zure boronhatea izan bedi konplitia, ez aldiz enia (Uskara Libru berria, 37)

- (172) Mundu onetako errubaako bakarra. **Eta alan da guzti**, ara, gaisto egin izan dabe (P.A. Añibarro, *Escu-liburua*, 223)
- (173) Donostian sartu nintzan ontziak, izan zituan bidean milla eta milla estrapuzu, **baña ala guztiaz ere** urreratu giñan zorioneko Indietarako lurrera (A. Apaolaza, *Patziko Txerren*, 56)
- (174) Jainkoak dakin lapurretak eta ondamenak egin zituan **eta alaz guztiz bere** erregiñ zan Isabelek al zuan geiena goratu zuan (J.A. Irazusta, *Bizia garratza da*, 36)

Perpausaren barruan joateko joerarik handiena dutenak, esan bezala, **halere eta halarik ere** dira. Mintzagaia izan daiteke ezkerrean duten osagaia:

- (175) I itsas-aize egiñen? nik **alere** igesegifien: eguzkiaren argi-izpi biurturen (Orixe, *Mireio*, 38)

Beste zenbaitetan zati luzeagoa, aditz eta guzti duena sarritan:

- (176) Berak lo egitten eban alboko gela batera eruan eragin eutsen. Bilddur zan, **alan be**, Bertoldak ics egingo ez cie eutsan (Otxolua, *Bertolda'ren...*, 71)
- (177) Nago ez ote diren, **halarik ere**, hiri tipiko eskualdun-umeak zintzoago gelditu (J. Etchepare, *Beribilez*, 45)

Ez ditugu falta ez --aditza isilpean utzita--, **ezin, eskerrak eta horrelakoak**:

- (178) Erabateko legor-giroari noizbait aurca hartu zion, orratio, curiteak. Ez, **alaere**, nekazariak nai bezain azkar (T. Aguirre, *Uztaro*, 258)
- (179) Izanik Jaun au Guztialduna, **ezin alaere** eman digun baña geiago eman zegikegun (J.B. Aguirre, *Eracusaldia* III, 300)
- (180) Jaungoikoaren etsaia ta Jesusen maitalea, nola ondo alkartu? **Eskerrak, ala ere** garaiz oartu zirancan (D. de Aguirre, *Garaa*, 329-30)

Oso ohizkoa ez izan arren, inoiz edo behin erabiltzen da toki horretan **hala ta guztiz ere** lokailua ere:

- (181) Baña osatzen zanian, ez eban izaten luzero etxian sosogatzetik, eta berriz be jnatzen zan zorigaiztoko baserrira, gaitz guztiak aztuta, ango ordiazko jolasen bila. Emaztiak, **ala ta guzti be**, asko maite ebanetik eta aren osasunan arduriak ez ebalá lagatzen, senarran artaraiko ondocz baten kukill etxian zan

arian, juañ zan aren erremedio billa baserri demoniora senarran aiskideagana, eta asarrerik gabe, izan leikian modurik onenian, esan zetsan jakif gura ebala zergaitik bere senarra itxulitzen zan andik etxera aif galdua eta argala (T. Etxebarria, *fbiltarixanak*, 466)

Halere agertzen da inoiz perpausaren amaieran, **halarik** ere oso gutxitan eta besteak, berriz, nekez:

- (182) Ez dakit merexitua dutan adixkidantza hori, baina gogotik onartzen dut **halere** (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 55)
- (183) Gogoratzen zen gizona emaztegaiak bezperan esan ziola biharamonko sei orduen aldean telefonatuko zuela. Ez zuen ahaztu, baina aiera zen hala ere (J. Mirande, *Haur besoetakoa*, 11)
- (184) Askotan etsita gaude eztitula ifork gere baita ari ditugun asmakuntza aiek egonarriz irakurriko. Baña...ekin alarik ere! (X. de Lizardi, *Itz-lauz*, 98)

4.9.3. Juntagailu eta lokailuekin batean

Juntagailuekin batera ere erabil daitezke lokailuok, bai eta bai baina-rekin batera. **Halere** eta **halarik** ere dira honetan ere ugarietak, beste biek bakanago gertatzen delarik. Eta-ren bidez juntaturiko perpausari aurkaritza balioa ematen diete lokailuok eta baina-ren bidez juntaturikoetan, berriz, balio hori indartu eta zehaztu egiten dute.

Badute lokailuok, azkenik, aipatzea merezi duen beste erabilera bat: mendeko kontzesiboari darraion perpaus nagusian txertatzen dira batzutan **halere** eta **halarik** ere lokailuak, hari indar handiagoa emateko edo:

- (185) Erregea Erromarek garaitu bazuten-ere, **halere** egundaino Erromarren letrak eta hitzkuntza ezin har-arazi zioten (J. Etxeberri (Sarako), *Obras vascongadas*, 402)
- (186) Kreatura ez deus eta dohakabe bat baizen ez naizen arren, **halere** Jainko handia! ausartzen naiz zu ene aita deizerat (A. Baratziart, *Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco moldea*, 30)
- (187) Nahiz adin handia zuen, **halarik** ere, jarraiki ziuziaion lasterka (*Andredena Mariaren ilhabetea*, 70)

Ere partikula ez daramaten perpaus kontzesiboen ondoan ere erabiltzen dira inoiz:

(188) Itsasoak ur xort bezanbat nigar isur ahal baneza, enuke hala ere merezi konsola nezazun (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea* III, 215)

(189) Azukrea kario zelarik arras, halere argi azukrezatzen du (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 65)

4.9.4 Bestelako balioak

Aurkaritza balio zuzena duten aldetik aztertu ditugu lokailuok orain artekoan, horixe bait dute berezko balioa. Ez da ahanzi behar, dena den, **halere** lokailuak bestelako baliorik ere izan dezakeela inoiz: **gainera**, **eskerrak**, **behintzat** eta horrelakoen pare izan daitekeela, alegia, perpausari harridura kutsuren bat ematen diolarik beti ere:

(190) Arruko gaituzu? --Bai ta pozik ala ere (R. M^a de Azkue, *Ardi Galdua*, 96)

(191) Alare! Beingoan aitortu bear zenuan ez dagola ezer bazkari onik gabe (A. M^a Labayen, *Euskal Eguna*, 64)

(192) Alako aukera izan emakuniak, eta, geienetan gertatzen dan bezela, txarrenarekin gelditu zan (...) Biolinterua! Txokofaterua izan bazan alare! (T. Alzaga, *Buruntziya*, 85)

4.10. Haatik/hargatik, horratik/horregatik

4.10.1. Forma eta balioa (hargatik, horregatik)

Aurkaritza adierazteko erabil daitezkeen lokailuak ditugu hauek ere: jakina denez, **hargatik**-ek eta **horregatik**-ek kasu motibatiboari dagozkion balioak dituzte berez eta horrela erabiltzen dira **gainera** sarri askotan. Aurkaritza lokailu ere izan daitezke, ordea:

(193) Bidasoa bazenez ere ez niz orhoitu: ez girea bethi Eskualerri-barnean? **Hargatik**, mugaz hainaindiratu bezain laster gozatu zaitala eta beritu (J. Etchepare, *Beribilez*, 95)

(194) Aita galdu ginuen arte (...) artzantza izan zen ene lan nagusia, handik goiti, **hargatik**, denetarik zerbeit egin behartu zitzaudan (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 29)

(195) Zure berriak zinez poztu naute, zerbait dago, **orregatik**, zure eskutitzean poz-pozik irakurri eztedana: Leonez diozuna (R. M^a de Azkue, *Ardi Galdua*, 9)

- (196) Zenbat bider nere biotzeko bildur, arantza, abiso, libru, ta predikadoreen deiakin, otsegin didazu; ta ni orregatik zure faboreentzat beti gorra? (A. Cardaberaz, *Egercicioak* II, 144)

Kausa adierazten duten erakusle direnean, bigarren perpausoko aditz sintagmaren osagai izan daitezke, baita are perpausaren galdegai ere, eta bada, beraz, beragatik eta horrelakoen laguntza har dezakete:

- (197) Hemen laborariak ez daki arbola tratatzen. Hargatik erranen daroztut zer egiten den bertze tokietan (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 346)
- (198) Profezia hau kumplitu da osoki, noiz eta ere Tubal eskualduna bi errege handi eta Elizako seme fidel, eta leial haukien majestateari juntatu baitzaje; hargatik beraz egun arrazoin du Iruñeak handirozki loriatzeko, zeren den munduko bi monarkha handienen ama, bai halaber Espainiako, eta Frantziako erresumen artean erregiña bezala (J. Eicheberri (Sarako), *Obras vascongadas*, 175)
- (199) egiten den falta, txiki bat ezta? Bai : ta orregatik beragatik, ori egin gabe ari erraz zengokeala (...) (A. Cardaberaz, *Egercicioak* II, 173)

Aurkaritza lokailu direnean, aldiz, ez daude perpausuan horren txertatuak. Baina eta ordearen laguntza hartzen dute sarritan, baita ere partikularena ere aurkaritza esanahia sendotzeko edo:

- (200) (...) falta duenak ere ukha ahal dezake, eta eman ezteula faltarik, baiña hargatik, barren hartan, bethiere konzientzia bere egian egonen da (P. de Axular, *Guero*, 285)
- (201) Bada ordearen su batetan, guztiak berdin eta elkarrekin egonen dira. Ordearen hargatik bekhatu gehiago duenak, pena gehiago izanen du (P. de Axular, *Guero*, 285)
- (202) Ditxa ta doairik asko zuten Aingeruak, baiña orregatik ere humildadeak falta egin zien (A. Cardaberaz, *Egercicioak* II, 57)

Ezezko perpaus zenbaitetan, egia da, zalantzak sortzen dira maiz esanahiari dagokionez, batera zein bestera uler baitaitezke:

- (203) Gizonak expadituzu zure alde, ez trista hargatik; bainan duzun damu zeren etzabiltzan ongi eta begiratuki aski (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea*, 59)
- (204) Jesu-Kristo zeruan aisedeten badago ere, ez da orregatik bein ere guzaz aazutzen (J.A. Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 136)

Ezezko perpaus horiek dira, beharbada, bi erabilera eta bi adieren arteko zubi edo egin dutenak. Beste zenbaitetan, berriz, ezezko perpausetan egon arren, aurkaritza lokailutzat hartu behar dira, zalantza handirik gabe:

(205) Lo egin nahi zuen. Ez **hargatik** ohean, haren aldamenean (J. Mirande, *Miranderen idazlan hawainak*, 159)

(206) Ekanduta dagozan begiak, ez dira **orregaitino** minberatuten (J.A. Moguel, *El doctor Peru Abarca*, 128)

Lokailu direnean hiztegiko berbatzat hartu behar direla dirudi, bai **hargatik** eta bai **horregatik** ere, hau da, hiztegian berariazko sarrera zor zaiela. Lokailu gisa ez dira, ordea, berdin erabiltzen euskalki guztietan: **hargatik** ekialdeko euskalkietan izan daiteke lokailu eta **horregatik**, berriz, mendebaldekoetan. Azken honen aldakinen artean bizkaierazko **horrega(i)ti(n)o** aipa daiteke berariaz, besteak baino sarriago erabiltzen bait da lokailu gisa.

4.10.2. Forma eta balioa (**haatik** eta **horratik**)

Haatik eta **horratik**, erakuslearen motibatibotik erakarritako lokailuak dira. Aurrekoak baino berriagoak dira, baina, haiek ez bezala, hauek lokailu dira beti. Erabilera hori zehazteko eratorriak direla esan liteke beharbada.

Ekialdeko euskalkietan erabiltzen den lokailua da **haatik**, ez oso aspaldikoa: lekukorik zaharrenetan ez da ageri eta hiztegitik ere ez dute oraintsu arte aintzat hartu, **hargatik**-en aldakin hutsa zelakoan edo. Orain, ordea, bai hiztegitan lekua aitortzen zaio eta baita mendebaldean toki egiten ere, erabilera jasoan batez ere. Beti, hori bai, lokailu gisa eta inoiz ez erakusle soil gisa:

(207) Bazakian botilla bame hartan zela eta **haatik** etzian edireiten (J.B. Constantín, *Haritchabalet (...) gainen*, 21)

(208) bikario igorri zuten Ustaritzerat. Etzuen **haatik** hozur zaharrik han egin behar (Zerbizari, *Azkaine, gure sorterria*, 69)

Bide beretsua egin du mendebaldeko **horratik** lokailuak ere: **horregatik** formatik eratorria, honen lokailu erabilera ordezka dezake, are zehatzago. Aski berria da **horratik** ere eta zalantzak izan dituzte hiztegitik eta idazleek bere eskuko hitz gisa aintzat hartzeko. D. Agirrek, esate baterako, honela zuzendu zuen *Garaa*-ren ondoko testua, lehen ediziotik bigarrenera:

(209) -Au ezla orregatik oitura ona --esan zuan Josepak (72)

(210) -Au ezla orratik oitura ona --esan zuan Josepak (2. ed., 61)

Badirudi, hortaz, bigarren edizioan aintzat hartu duela Agirrek horratik hitza. Gure *EGLU*n ere (ikus *EGLU-1*, 437) aintzat hartzen dira bai **haatik** eta bai **horratik**.

Aurkaritza lokailu gisa erabiltzen da beti **horratik** ere, eta inoiz ez erakusle soil gisa.

(211) Lastoa badegu ugari; galburuak, orratio, arintxoegi (T. Agirre, *Uztaro*, 82)

(212) Ondo aitortzeko naikoa da bildur-damua, obca da, orratik, maitc-damua (*Kristau-ikasbidea Gipuzkoako euskaraz*, 74)

Honek ere, **horregatik**-ek bezala, ere partikula eraman dezake ondotik, aurkaritza balioa sendotzeko edo:

(213) Arcn amorroa ta narda! Azkenean, orratik ere, seme bat, Fortunato izenekoa, sorm zitzaien (N. Etxaniz, *Euskal Antzerkiak. Kontu-kontari*, 137)

4.10.3. Tokia

Hartzen duten tokiari dagokionez, lokailu hauek ez dute berezitasun aipagarrikerakusten. Bigarren perpausaren hasieran bezala barruan ere joan daitezke. Azkenean, ordea, nekezago.

Perpausaren hasiera hasieran joan daitezke. Ikus (193) eta ondoko adibide hauek:

(214) Jainkoa leku guztietan, ta non nai dago, orregatik ere Zeruetan zaudena esaten diogu (J.A. Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 159)

(215) Phesta hau bera zen, orduan ere! Ahatik egungo egunak ordukoak ez bezalako begitarte du (...) (P. Larzabal, *Iru ziren*, 120)

(216) albiste gutxi izaten zuten Zabaletakoak. Orratik ere, noiz edo noiz etorri oi zan eskutiz bai edo beste (D. de Aguirre, *Garoa*, 120)

Baita zuzen zuzenean juntagailu baten ondoan ere. Ikus (207) eta ondoko adibideak:

- (217) Tarragonako giristinoek bazakiten arras ongi martir sainduak zeruan zirela, eta bargatik trixie ziren (B. Joannateguy, *Ehunbat sainduen bicitcea*, 146)
- (218) Ez dago argirik, gustija da illuna; ta orregaitik, ez dot aituten zelan, baña ikusten dira, pena, ta tormentuba emoten dabeen gauza gustijak (J.J. Moguel, *Baserritar nekezaleentzaco escolia*, 93)
- (219) Zuk, dana-dala, ni makillatuba ixatua gura dozu; baña, orratifio, bardin izango yazu zein an zein emen jo, makilladak neuk artu ezkeru (Otxolua, *Bertolda'ren...*, 35)

Perpauaren barnean tartekatuak joan daitezke, haren osagaiaren baten ondoan --mintzagaiaren ondoan sartitan--. Ikus (211) eta ondoko adibide hauek:

- (220) Aita galdu ginuen arte (...) artzantza izan zen ene lan nagusia, handik goiti, bargatik, denetarik zerbeit egin behartu zitzautan (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 29)
- (221) Ni lotsarik gabe Zu ofenditzen: ta Zu orregatik ere, on geiago niri egiten! (A.Cardaberaz, *Egercicioac II*, 73)
- (222) Ez dakit noiztik, bainan aldi hartan Urepeleko ostatuetan izaiten ziren, bi trago eginez gero, pertsulan hasten zirenak karraskan. Ez dut nehor izendatuko, hainbertze baitzen entseetzen zenik. Gero ahatik denak ixildu ziren (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 39)

Edo zati luzeagoren baten ondoren, aditza bera ere barne delarik. Ikus (195), (211) eta:

- (223) Guti balio luke hargatik urreak, ez balu bertuterik dirudun jendeak (J.M. Hiribarren, *Eskaldunac*, 180)
- (224) Hor gairi iragaiten ziren ziren nafartar jaun batzuek deitzen zuten El Palacio, Jatsuarrek aldiz dudarik gabe jauregia. Bainan ez uste izan, haatik, jauregi gaitza zela Laskorrea (P. Narbaitz, *San Frantses Jatsukoa*, 33)

Juntagailuekin batera ere maiz erabiltzen dira lokailuok, bai eta-rekin bai baina-rekin ere, goiko adibideetan ikus daitekeen bezala. Halere-rekin gertatzen den bezala, perpau kontzesiboen ondoan ere erabiltzen dira inoiz lokailu hauek, aurkaritza indarra areagotzeko edo:

- (225) Edan ez badu ere, jatez orregatik bapo egina da (V. Mocoioa, *Damuba garaiz*, 27)

Aipatzekoa da, azkenik, gorago ere adierazi duguna: ere partikularen laguntza hartzen dutela sarritan lokailuok, aurkaritza indarra sendotzeko.

Esan dezagun, azkenik beste zenbait lokailu bezala, hauek ere erabiltzen direla inoiz harridura perpausetan -azken buruan maiz-, hauei enfasi berezia emanaz:

(226) Hori handia zait hargatik! (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 107)

(227) Bakarrik: zer den abatik bizia! (P. Larzabal, *Iru ziren*, 112)

(228) Zuk eraman ezer nere etxetik? Orixen orregatik! (B. Iraola, *Oroitzak ta beste ipui asko*, 111)

(229) Bixi biarraz ez az eu gogoratzen, orratiño! (Otxolua, *Bertolda'ren...*, 170)

4.11. Barren

Leku batzutan erabiltzen den aurkaritza lokailutzat har liteke hau ere. **Ba(da) arren** esapidearen laburdura izan liteke. Bigarren perpausaren azken muturrean kokatzen da beti, ez perpaus horretako ezin osagairen ondoan:

(230) -Isil zaitetz, mesedez!. -Isilik nago, barren!

(231) Esan dizut barren! (P. Mujika, *Diccionario Vasco-Castellano*)

(232) -Jerolimo, urreguan andriakin laztanka abillenian, bentana ondolik erretirau eike, auzuen barregarri izaterik nai ez pok beintzat. Ze, atzo afal-onduan nere andria ta biok lotsatu be ein gifuen zueri begira. -Baña, norekin diarduk? Atzo etxetik kanpora ibilli nintzuan barren. (J. San Martín, *Zirikadak*, 79)

Honelako perpausetan agertzen da, hortaz, **barren** hau: aldez aurretik adierazitako zerbait erantzunez edo egiten direnetan; hauen azken buruan, hain zuzen. Perpausaren azken muturrean joan ohi den **baina** juntagailuaren ordezkoa dela dirudi:

(233) -Isil zaitetz, mesedez!. -Isilik nago, baina!

4.12. Badarik ere

XVI. eta XVII. mendeetan hedadura izan zuen lokailu honek ere esanahi bat baino gehiago dauka. Batzutan kontzesio kutsuarekin ageri da euskara idatzian, ondoko Pouvreau-ren adibide honetan ikusten den bezala:

- (234) Eta iduri badagotzu zure gaitzak ezirela xipienak, begirauzu horrela gerta eztaizun zure pazienza gabez. **Badarik ere** direla xipiak, direla handiak, zuk egizu zure ahala guzien iasaiteaz pazienziarekin (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea*, 150)

Ñabardura hauek direla-eta, aurkaritzakotzat hartu beharko genuke lokailu hau sarri askotan. Ondoko adibide hauetan, esate baterako, juntagailu aurkaritzakoa litzateke:

- (235) Eta beheiturik ikhus zitzan oihalak aldaratuak: **badarik ere** etzedin sar (J. Leizarraga Io 20, 5)
- (136) Bata eta berzea egia da: ezen inozent eta hogen gabe deklaritzen da iujcaren ahoz, aditzera emaitzagatik ezen ezuela bere merezituakgatik sufritzen, baina gureakgatik: **badarik ere** solemneki kondenatzen da haren beraren sententziaz, ageri dentzat ezen egiazki gure fiadore dela (J. Leizarraga, *Othoizta*, 39)
- (237) Baina orain anhitz dirade menbroak, **badarik-ere** gorputz bat (J. Leizarraga I Cor 12, 20)
- (238) Haren distadura ezta ageri mundu hunetan; **badarik ere** neurrigabeki ederra eta aberatsa da (S. Pouvreau, *Philotea* 278)
- (239) Bada halako orduetan behi orhoitu behar da bertuteko akzionerik hainitz egitez gure espirituaren eta gaineko borondatearen puntaz. Zeren dirudielarik gure arima lo datzala eta logalez edo unhez tontorik dagocla, **badarik ere** gure espirituako akzioneerak xoil dire hargatik lainkoaren gogara (S. Pouvreau, *Philotea* 499)
- (240) Eta gogo gaixtorik ezugularik, **badarik ere** gaixtoak hainitz gaizki pentsatzen du, eta behi hitz gaixto hetaz ixilik baliatzen da norbaiten bihotzaren iragaiteko (S. Pouvreau, *Philotea* 338).

4.13. Aurkaritza adierazten duten esapideak

Aurreko orrietan aipatu direnez beste, lokuzio edo esapide mordoak dago aurkaritza adierazteko erabil daitekeena: **zernahi gisaz, nolanahi ere, edozelan bere, edozein modutan ere, edozein moduz, guztiarekin ere...** Horiek ere lokailuen pareko dira, alde batetik. Berez perpaus osoari -- eta ez aditzari soilik-- dagozkion adberbio esapideak badira ere, ezin da ukatu kate mintzatuan edo idatzian perpausen arteko lotura adierazteko ere erabiltzen direla, lokailuen pare.

5. ONDORIOZKOAK

5.0. Sarrera

Sarreran esan dugun bezala, lokailuek, solasaren zatiak elkarri lotu ez ezik, beren arteko erlazioa nolakoa den ere agerian jartzen dute. Erlazio hori perpaus bat aurreko solas zatiaren ondorioa dela seinalatzean datzanean, 'ondoriozkoak' deitzen dira. Oraintsu arte gramatiketan 'ilatiboak' deitu izan zaie, gutxi gora behera gauza bera esan nahi duen latinetikako hitz batez. Baita 'kontsekutiboak' ere arrazoi beragatik, aurreko solas zatiaren kontsekuentzia edo ondorioa markatzen bait dute. (Azkuek, *Morfologia Vasca* §712, 'conjunciones continuativas' deitzen die; Villasantek, *Sintaxis de la Oración Compuesta*, 164-169, 'Conjunciones Consecutivas Coordinadas'. Lafittek, *Grammaire Basque* §400, 'Conjonctions conclusives'). Zer nahi gisa, 'kontsekutibo koordinatuak' dira, eta ez graduatzailea aurrean duten subordinatuak, hauek mendeko perpausa osatzen bait dute menderagailuen bidez.

Ondorioa diogunean zer esan nahi dugun, garbi ageri da honako perpaus bikote hauen arteko erlazioari begiratuz gero:

- (1) Hil da → Ez du gehiago sofrituko
- (2) Etxeari kea dario → Erretzen ari da
- (3) Kalcak bustiak daude → Euria egin du bari

Ondorioa adierazten badute, hein batean aurreko solasean edo perpausuan edukia eta gordea dago handik ondoriozkutzen dena, eta ondoriozko lokailuak eduki hura agerian jarri baizik ez du egiten. Halatan, norbait hila dagoela dioenak ez da dudarik gehiago sofrituko ez duela ere dioela. Inoiz gerta

daiteke, ordea, norbaitek perpaus batetik ondoriozkatua gezurra edo okerra izatea; hala nola, kaleak bustiak ikusten dituenak euria egin duela esaten duenean, agian ez bait du euririk egin, eta bai kale-garbitzaileak goizean kaleak garbitu izan. Gezurra nahiz egia, ordea, lokailua eta perpausa ondoriozkoak izango dira eta hori bakarrik da gramatikari axola zaiona.

Euskaraz ondoriozko lokailurik ezagunenak hauek dira: **beraz** (bizkaieraz, Fray Bartolomegan bederen **begaz**), **bada**, **hortaz**, **orduan**. Hauen ondoan, nahiz hain sarri ez azaldu, **honenbestez**, **horrenbestez**, **hainbestez**, **halatan** eta **hala** ere ondoriozko lokailu gisa erabiltzen dira. Azkenik, literatura mailan beste hauek ere agertzen dira, lehengo konposatuak: **orain bada**, **beraz hunelatan**, **beraz halatan**, **beraz horrela**, **hor(re)taz gero**. Lehen eta orain, egunoroko hizkeran eta liburuetan erabilienak **bada** eta **beraz** dira. Egia da, bestalde, egunoroko hizkeran **beraz**-i leku handia kentzen ari zaizkiola **hortaz** eta berriagoa dugun **orduan**.

Aipatu lokailuok ez dira guztiz kide, bakoitzak bere erabilera eta balioa du ondoko orrialdeetan ikusiko denez. Halere, erabateko kidesunetik ez izanarren, zenbaitetan baliokide gertatzen direnez **beraz** eta **bada** lokailuak, kidesun hau aztertuko dugu lehenik; bigarren pausu batean bakoitzaren erabilera propioa bereziak aztertuko.

5.1. 'Beraz' eta 'Bada' kide

Eguneroko hizkeran eta literaturan ezagunenak eta erabilienak izateaz gainera esan behar da zenbait esalditan **beraz** eta **bada** errankide direla, bata nahiz bestea agertzen bait da; esate baterako, **ea bada!** eta **ea beraz!** gauza bera esateko erabiltzen direnean. Hala Oihenartek bigarren neurtitzean honela dio:

- (4) Eia **bada**
ordua da
suretan has sitoen
ene harzen (Oihenart, *Neurtitzak* II, 12. bertsua)

Eta hori bera diogu 'Salbe' deritzan otoitzean, *Orotariko Euskal Hiztegia*-k dioenez dozena bat Dotrinatan halaxe agertzen delarik. Aldiz Ziburuko Etxeberriek bere *Manual Devotionezcoa*-n biak darabiltzan arren, askozaz gehiagotan **Ea beraz!** Hona lehen aldiz ageri den bertsua:

- (5) Ea beraz ikhas ezak salvalzeko artea,
zeina baita gaiflerako zuhurtzien Andrea (J. Etxeberri (Ziburukoa), *Manual Devotionezcoa*, 87. bertsioa)

Halaber bata nahiz bestea aurkitzen dituzu honako esapide hauetan:

- (6) Bihotz, beraz, bihotz!, eta gorphutz... (J. Duvoisin, *Liburu Ederra*, 264)
- (7) Animo, bada, ta fuerza: zeruko erreinoak... (A. Cardaberaz, *Egercicioak II*, 86)
- (8) Ekin, beraz: lur gizena baldin bada... (A. Ibitagabeitia, *Bergiliren idazlana*, 71)
- (9) Ekin, bada, ekin, Aita nerea, eusquerari (M. Larramendi, *Mendibururi egin kartan*, 280)
- (10) Hunat, beraz, o Maitea, altxa zazu... (J. Etxeberri (Ziburukoa), *Manual Devotionezcoa*, 54)
- (11) Huna, bada, ha Jesus ona, zure misericordian... (E. Materre, *Doctrina Christiana*, 247)
- (12) Horra, beraz, arima madarikatua... (M. Duhalde, *Meditazioneac gei premiatsuenen gainean*, 146)
- (13) Aurra, bada, gaurdanik etxeko txoriak... (E.M. Azcue, *Parnasorako Bidea*, 47)
- (14) Arren, beraz, konpli dezazu... (B. Gasteluçar, *Eguia Catholicac*, 117)
- (15) Arren, bada, non sortu den... (J. Etxeberri (Ziburukoa), *Noelac*, 65)
- (16) Ha, beraz, Philotea, apartazazu... (S. S. Pouvreau, *Philotea*, 42)
- (17) Ay, bada, balckie fededunak... (P.A. Afibarro, *Escu-liburua 2*, 95)
- (18) Orain beraz behar diagu jakin (B. Gasteluçar, *Eguia katolikak*, 180)
- (19) Orain bada, sinhetsten duk... (Zib. Etxeberri, *Manual Devotionezcoa*, 51)
- (20) Agur, beraz, jaun Montaberry... (P. Larzabal, *Iru ziren*, 36)
- (21) Agur, bada, maisua, gois artian (J.A. Moguel, *El Doctor Peru Abarca*, 66)

Horiek bezalako esapideetan ez ezik, guztiz elkarren antzeko diren perpaus luzeagoetan ere aise aurki daitezke beraz nahiz bada, ezertan bereizten ez direlarik:

- (22) Ene Aita zare; indazu, beraz, othoi, zeruko ogi hura (A. Baratciart, *Guiristinoki bicitceco eta hiltceco moldea*, 431)
- (23) Indazu, bada, Jesus maitagarria... (S. Mendiburu, *Igandeetarako Irakurraldiak*, 110)
- (24) Egizu, beraz, grazia dibinoaren ama... (A. Baratciart, *Guiristinoki bicitceco eta hiltceco moldea*, 72)
- (25) Egizu, bada, (...) Jesus zuk maitatzeko... (S. Mendiburu, *Igandeetarako Irakurraldiak*, 105)
- (26) Zertako ez dugu beraz maitatuko othoizta? (A. Baratciart, *Guiristinoki bicitceco eta hiltceco moldea*, 182)
- (27) Zertako bada nere biotza josi nai del.? (A. Cardaberaz, *Egercicioac II*, 83)
- (28) Jakin behar dugu, beraz, pairaizen jakitea... (M. Duhalde, *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, 69)
- (29) Jakiñ biar da bada, emakumiak euki biar dabeela (J.J. Mogel, *Baserritar nequezaleentzaco escolia*, 195)
- (30) Har nazazu beraz, o ama maitc-maitca... (M. Duhalde, *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, 88)
- (31) Ar zatzu bada, gogoan ardura ta maiz... (S. Mendiburu, *Igandeetaroko Irakurraldiak*, 62)
- (32) Zer erhokeria beraz, hain osoki galdu...? (M. Duhalde, *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, 118)
- (33) Zer erokeria, bada, ikasi bage egia den edo ez... (S. Mendiburu, *Igandeetaroko Irakurraldiak*, 165)
- (34) Erradazu beraz zer duzun egunaz irabazten? (J.B. Archu, *La Fontaineren aleguia-berheziak*, 227)

- (35) Erradazu **bada**, lainkoaren garaziaren ardiesteko... (E. Materre, *Doctrina Christiana*, 126)

Eta ondorioa zeri deitzen diogun argitzeko (1-3)eko perpaus bikote haiek ere hain bataz zein besteaz elkarriz lot dakizkiola uste dugu:

- (36) Hil da, **beraz/bada** ez du gehiago sofrituko
 (37) Etxeari kea dario, **beraz/bada** erretzen ari da
 (38) Kaleak busiak daude, **beraz/bada** curia egin du bari

Balio berekoak direla, batzutan noski eta diakronian bedere, testu beraren itzulpena egiterakoan idazle batek bata eta besteak bestea darabilela ikusten dugunean ageri da ongien. Hona nola itzultzen dituzten Ebanjelioko zenbait pasarte hiru idazle lapurtarrek, hiru mende desberdinetakoek:

- (39) Ezta haur Jesus, Iosephen semea, ceinen aita eta ama guc eçagutzen baititugu? Nola dio **bada** hunc, Cerutic iautsi naiz? (Io. VI, 42) (Leizarraga)

Nolatan dio **beraz** horrec cerutic iautsia dela? (Haranceder)

Nolaz dio **beraz** horrek: Zerutik iautsi naiz ni? (Duvoisin)

Huná, nic igortzen çaituztet çuec, ardiac otsoén artera beçala: çaraten **bada** çuhur... (Mt. X, 16) (Leizarraga)

Içan çaitetzic **beraz** prudent... (Haranceder)

Izan zaitetzic **beraz** zuhur (Duvoisin)

Baina orain ene resumá eztuc hemengo. Erran cieçon orduan Pilatec, Regue aiz **bada** hi? (Io. XVIII, 36) (Leizarraga)

beraz erregue çare çu? (Haranceder)

Beraz errega zare zu? (Duvoisin)

Guzti hori horrela izanik ere, ezin uka **bada** eta **beraz** beste batzutan desberdinak direla balioz eta erabileraz. Har dezagun, esate baterako, honako bikote hau:

(40) Zergatik huts egin duzu **bada** trena?

(41) Zergatik huts egin duzu **beraz** trena?

Noiz erabiltzen da **bada** eta noiz **bestea**? Zertan datza bien arteko diferentzia, biak erabiltzen dituztenen artean, noski?

Demagun trena huts egin eta joan behar zuen bilerara iritsi ez denari nagusiak gero kontuak eskatzen dizkiola. Hark bere burua zuritu eta benetako arrazoa izkutatu nahirik, gezurretan esaten diola hasieran: 'Bai, bai; garaiz atera naiz etxetik'. Eta nagusiak orduan, ez bait dio sinesten, honela diotsala:

(42) Bai? Eta zergatik huts egin duzu **bada** trena?

Azkenerrako ordea, bere burua galdua ikusirik, aitortzen diola ezinbestean nagusiak susmatzen zuen egia, hots ohetik berandu jaiki zela, eta nagusiak orduan:

(43) A! Zergatik huts egin duzu **beraz** trena?

Hor garbi ageri da **beraz**-ek adostasuna bezala **bada**-k kontrakoa adierazten duela (edo gutxienez azalpen nahasia eman eta **azken** arrazoa ondo ulertu ez dela edo antzekoa). Adostasuna eta batez ere oraingoz orokorki kontrakoa deritzaguna zertan datzan ondoko orrialdeetan ikusiko dugu.

Alde berbera dutela uste dugu hori bezalako beste bikote hauek ere:

(44) Zergatik diozu **bada**, kristau zarela?

(45) Zergatik diozu **beraz**, kristau zarela?

(46) Nork esan zizun **bada**, etortzeko?

(47) Nork esan zizun **beraz**, etortzeko?

Testu guztietan hori horrela dela baieztatzea gehiegi litzateke, agian. Are, izango dira bataren ordeaz bestea lasai erabiliko luketela esango dutenak, eta ez da harritzeko, bi lokailu horien arteko diferentzia oso melarra bait da. Halaz ere uste dugu orohar **bada** ezadostasuna eta **beraz** adostasuna seinalatzeke erabiltzen direla. Ondoko orrialdeek erakutsiko digute hori hala den ala ez.

5.2. Beraz

5.2.1. Forma eta balioa

Jatorriz **bera** erakusle indartuaz eta -z kasu-markaz osatua dagoen lokailu honek badu, arestian aipatu bezala, bere eremu propioa, bada-k (oraingoz bien arteko alderaketaz ari bait gara) nekez bete lezakeena.

Beraz erabili ohi da ondorioa delakoa ia garbiro eta osoro aurreko perpausean esana dagoenean eta deus berririk handik atera ez baina ia gauza bera beste hitz batzurekin esaten denean. Adibidez:

- (48) -Lau senide hil eta hamar bizi gara
-**Beraz**, hamalau izan zarete
- (49) -Hogei mila duro nituen eta zazpi eralgi ditut
-**Beraz**, hamairu dituzu oraindik
- (50) -Hamarretan hil zen eta ni hamabietan iritsi nintzen
-**Beraz**, ez zenuen bizirik ikusi

Gehienetan dedukzio bat adierazten du, burua gehiegi nekatu gabe esanetik edonork aise atera dezakeena:

- (51) -Konpondu didate autoa
-**Beraz**, etorriko zara
- (52) -Etorriko dela esan dit
-**Beraz**, hitz egin duzu berarekin
- (53) -Asko gizendu da
-**Beraz**, ikusi duzu

Horien antzekoak dira Orixeren hauek:

- (54) -I Arcora eraman indutela ta etxean azi zutena il egin zitzaicela (...): amaika ongi elduak eta bat eldugabe yaioa.
-**Beraz**, anaia badugula linboan? (Orixe, *Quito-n arrebarekin*, 40)

- (55) Baña beste zerbait ere esaten yunate: anima oiek ez dutela gure pensakizunaren berri.
-Beraz, zertako eskatzen diegu olako ta olako gauza, esaterako, esnatu gaitzateela xuxen eta tñfel, olako ordutan? (Orixe, *Quito-n arrebarekin*, 112)
- (56) Bidezkoago zirudin Jesukristo gurutzean ez iltzea: (...) Beraz, ez zala il esan bearko (Orixe, *Quito-n arrebarekin*, 104)

Axularrengan halakoa da ia beti **beraz**:

- (57) Eztugu oren baten segurantzarik: beraz lehen baiño lehen behar dugu bide onean iari (P. de Axular, *Guero*, 42)
- (58) Misericordios da lainkoa (...): beraz eztugu zer lehiaturik obra onen egitera (P. de Axular, *Guero*, 8)
- (59) Berak dira bere baitan asko klar eta ozen. Utz ditzadan beraz nik hek, hulsik eztagidan (P. de Axular, *Guero*, 5.)

Horregatik silogismo direlakoetan ondorio edo kontsekuentzia deritzana euskaraz **beraz**-en bidez adierazi ohi da. 'Bada a un sens assez imprécis: en syllogisme on l'utilise pour traduire 'or', et c'est beraz qui traduit 'donc'...' dio Lafittek (*Grammaire Basque*, §400). Esate baterako:

- (60) -Duela 51 urte bukatu zen Espainiako gerratea.
-Bada gure andreak 50 urte ditu.
-Beraz, gerrate ondoren jaio zen.

Orain bada esan ohi du Axularrek maiz, ez **bada** soilik.

Axularren *Gero* bezala 'diskurtsozko estiloz' onduriko liburu edo mintzaldietan arrazoibide luze baten edo argudio baten amaiera ere **beraz**-ek seinalatu ohi du. Hona aldatuko dugun pasartean garbi agertzen da hori, bai eta **bada** lokailu ondoriozkoetik zertan bereizten den ere:

- (61) Huelakoak ziren zure aita launa eta bai bertze aitzinekoak ere.
Bada ezizu zuk ere zeure arrazaz ukhatu, etzara zeure leifutik eta ethorkiuk hasiandu, berzi eta ez aldaratu. Zeren (...) ioan zinen Gorthera, eta (...) ekharri zenduen (...) ordenantza eta manamendua. Beraz etzara zu ere zeure aitzinekoen girstinotasunaren gibelatzaile izatu.
Bada ez eta ohorearen iraungitzaile ere. Aitzitik badirudi ezen... (P. de Axular, *Guero*, 4)

Modu berean Oihenartek *Argia* zeritzan emaztekiagana sentitzen duen jaidura zazpi ahapalditan kantatu ondoren, beste ahapaldi honezaz burutzen du bere jarduna:

- (62) Beras higanic
 Eguin iadaric
 Nois naquidina daquidan
 lin, eta noura,
 Gorde lekura,
 Eta hi han bat aquidan (Oihenart, *Neurtitzak* III, 8. bertsoa)

Diogun halere Etxeparek ez darabilela **beraz** behinere —agertzen diren biak **bera** izenordainaren instrumental kasuak dira— eta Leizarragak ere ez askotan.

Inoiz izan daiteke **beraz** batek bere buruan duen eta hasieran adierazten ez duen argudioaren ondorio, **beraz**-ek berak elkarrizketari abiada ematen diolarik eta hainbestez zeren ondorio datekeen geroago arte agertzen ez delako. Adibidez:

- (63) -Beraz, bapo aberastu zara, e?
 -Nola beraz?
 -Bai, loteriak irten dizula esan didate
- (64) -Beraz, laster ezkontzekoak zarete, e?
 -Zuk zer dakizu, bada!
 -Nik zer dakidan? Etxebizitza erosi duzuela
- (65) -Beraz, zuk harrapatu zenidan dirua, e?
 -Nork esan dizu hori?
 -A, mundu honetan dena jakiten da

5.2.2. Perpausean duen lekua

Hor goian aipatu ditugun testuak berriz begiztatuz gero, ohartuko gara **beraz**-ek ez duela perpausean beti leku bera hartzen; batzutan perpausaren hasieran ageri da eta bestetan barnean, hau da, beste hitzen baten, mintzagaiaren atalen baten, ondoan. Dena den lokailu honen kokaguneez legerik ezin eman badaiteke ere, badira haatik zenbait joera argi eta nabari, idazle zaharretan bederen, gerokoetan ez hainbeste.

5.2.2.1. Perpausaren hasieran

Orohar hau da adierazpen perpausetan **beraz** lokailuaren kokagunea; ez, ordea, nahi eta nahi ezkoa, 5.2.2.3. puntuko adibideek erakusten dutenez:

- (66) **Beraz** beirakia baino perilosago gara (P. de Axular, *Guero*, 40)
- (67) **Beraz** haren egitetik behar duzu begiratu (P. de Axular, *Guero*, 83)
- (68) **Beraz** arrazoinekin arrenkuratuko da zuzaz ere (P. de Axular, *Guero*, 123)
- (69) **Beraz**, hire erranaren araura Jainkoaren botherea eztiagok... (J. Leizarraga, *Oihaitza*, 34)
- (70) **Beraz** asko negar egin duk, ene arima, munduan (B. Gasteluçar, *Eguia Catholicac*, 170)
- (71) **Beraz**, Gipuzkoako mugape osoan arkitzen diran Ezkiak (J.I. Iztueta, *Gipuzcoaco provinciaren condaira*, 133)
- (72) **Beraz**, dio aitzina Maria sainduaren debot handi hark, mundu huntan (...) cztetzatzula begiak aldera Maria ganik. (M. Duhalde, *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, 268)
- (73) **Beraz** ez zen iduri nahi zuen bezain gaixtoa (J.B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 6)
- (74) **Beraz** ondo ero ta zentzun bagia da... (J.A. Uriarte, *Marijaren illa*, 62)
- (75) **Beraz** beste lekuren balcan esan bearko didazu (A.M. Zabala, *Gabon gau bat*, 73)

5.2.2.2. Perpausaren barnean

Beste lokailu askorekin gertatzen den bezala, perpausaren barnean, aditzaren ondoan joan ohi da **beraz**. Kokagune hau ondoko perpaus-motetan agertzen da batipat:

- aginte perpausetan

- (76) Aldara zakitza **beraz** bidetik (P. de Axular, *Guero*, 193)
- (77) Utzazu **beraz** burutik buruan dabillazun erhokeria (P. de Axular, *Guero*, 145.)

- (78) Zaudete beraz iralzarririk ene anaia maiteak (P. de Axular, *Guero*, 250)
- (79) Hurbil zaitetz, beraz, jende munduan diren guztiak (B. Gasteluçar, *Eguia Catholicac*, 110)
- (80) Alegera bedi, beraz, berri hauk entzutcaz (J. Etcheberri (Ziburukoa), *Manual Devotioñezcoa*, 30)

- galde perpausetan:

- (81) Zertako ez zarete, beraz, garaiz etorri?
- (82) Zer antsia zen beraz hargatik? (P. de Axular, *Guero*, 129)
- (83) Zer egingen dut, beraz, ene lainkoa...? (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea*, 261)
- (84) Zertako ez dugu, beraz, maitatuko othoitzza? (A. Baratciari, *Guiristiboqui bicitceco eta hiltceco moldea*, 182)
- (85) Zer da beraz Irutasuna deritxon ezkutukia? (*Kristiñau ikasbidea. Bizkaiko euskaraz*, 18)

- adierazpen-perpaua izan arren, aditzaren ondoren izen sintagmaren lekua hartzen duen mendeko perpaua dugunean; hau da, perpaua konpletibo edo zehar-galderazkoren bat datorrenean:

- (86) Hik diok, beraz, ezen behar zela Iesus Krist gizon egin ledin... (J. Leizarraga, *Othoitzza*, 38)
- (87) Erran nahi da, beraz, salbatzaileak (...) egin duela (B. Larreguy, *Testament çaharreko eta berrico historiaa*, 226)
- (88) Ikhusirik, beraz, (...) estatutan zarela... (J. Haraneder, *Gudu izpirituala*, 141)
- (89) Iniustu lizate, beraz, (...) zuri ez itzultzea (B. Gasteluçar, *Eguia Catholicac*, 026)
- (90) Hortik segitzen da, beraz, (...) eztaitekela separa... (*Catichima* (Laneufville), 131)

- Perpaua konpletiborik gabeko adierazpen-perpausen barnean ere joan daiteke lokailua:

- (91) Ezazu beraz horietaz zer loriaturik (P. de Axular, *Guero*, 270)
- (92) Ezta beraz zer gehiago iguririk (P. de Axular, *Guero*, 78)
- (93) Utzi behar da beraz aphur bai hotziera (P. de Axular, *Guero*, 201)
- (94) Barkhatu behar diozu beraz zeure etsaiari (P. de Axular, *Guero*, 223)

- Itxuraz lokailua perpausaren bukaeran daramaten adibideak ere sail honetan koka ditzakegu. Izan ere lokailua aditzaren ondoren ageri zaigu. Lehen begiratuan salbuespentzat har dezakegun lehen adibidea ere horrelakoa da: galdegaia errepikatzen da; eta lokailua, isilpean, ezkutaturik dagoen da aditzaren ondoren kokatu da:

- (95) Berak, dio, lurretik da, lur beretikan beraz (P. d'Argaignarats, *Devoten Breviarioa*, 48)
- (96) Arbuiatu ditu hango aberatstasunak: arbuiagarriak dira beraz (A. Mihura, *Andredena Mariaren Imitacionea*, 82)
- (97) Ez da asmatzen erraz. Zertxobait badira beraz! (J.I. Iztueta, *Guipuzcoaco provinciaren condaira*, 129)
- (98) Okendo polizi elxera zamazkiun beraz! (M. Ugalde, *Iltzailleak*, 52)
- (99) Diru ederrik artuko zuan beraz? (M. Soroa, *Baratzan*, 95)
- (100) Eskola uzten duzu beraz? (F. Laphitz, *Bi saildu hescualdunen bizia*, 100)

5.2.2.3. Joera nagusietatik kanpokoak

Bestalde, badira lokailua hasieran duten aginte-perpausak ere, hauetatik multzo bat, 'beraz + deikia' egiturakoak osatzen dutelarik:

- (101) Beraz paira beza zuhurrak erhoa (P. de Axular, *Guero*, 206)
- (102) Beraz dagiogun lainkoari othoitz (P. de Axular, *Guero*, 241)
- (103) Beraz guberna ongi (P. de Axular, *Guero*, 198)

- (104) **Beraz**, justuak, alegera eta glorifika zaitezte (B. Gasteluçar, *Eguia Catholicac*, 41)
- (105) **Beraz**, launa, aitzin bekiz zure grazia (S. Pouvreau, *Iesusen Imitacionea*, 22)
- (106) **Beraz**, launa, konpli zazu agindu darokuzuna (M. Chourio, *Jesu-Christoren Imitacionea*, 21)
- (107) **Beraz**, Extebe gaixoa, errazu otoi, zer da...? (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 5)

5.2.2.4. Perpausaren barnean bigarren lekuan

Perpausaren barnean agertzen denean, aditzaren ondokoa duela ohizko lekua ikusi badugu ere, aurki daitezke adibide bakan batzu **beraz** perpausaren lehen osagaiaren ondoan daramatenak (bai galde perpausetan eta bai adierazpen-perpausetan ere gertatzen dela hau):

- (108) Arrazoifuz **beraz** (...) kondenatu zuen bere ondoko guztiekin heriotzera (P. de Axular, *Guero*, 38)
- (109) Hek **beraz** behar dira handitzetik begiratu (P. de Axular, *Guero*, 242)
- (110) Zertako **beraz** eman zioen orduan lainkoak gizonari, manamendu hura? (P. de Axular, *Guero*, 12)
- (111) Zergatik, **beraz**, Elizak dioan bezala, hura deitzen die hen sor egüna? (A. Belapeyre, *Catechima labürra*, 88)
- (112) Nola **beraz**, bihotz min bat gabe, aipha dezakezu geroko gauzez? (F. Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 247)

Dena den, adibide urri hauek egiaz salbuespentzat hartu behar dira, ez lokailuaren posizioagatik soilik, azken hiruretan lehen osagaia galdegai delako baizik; eta lokailuak, perpausaren barnean kokatzekotan, mintzagaiko atalen baten ondoren ipini ohi ditugu. Galdegaiak eta aditzak osatzen duten multzoa ezin du beste elementu batek eten. Hala ere, aipatzekoa da galdegaia, hiru kasuetan, **nola**, **zergatik** eta **zertako** galde hitzak osatua izatea. Izan ere galde-hitz hauek (eta orohar adizlagunei dagokien kasu-marka hartzen duten gainerakoek, **norekin**, **norendako** e.a.) ez dute aditzaren aurre-aurrean joan beharrik. Berezik ekialdean, 'Zergatik emandako aginduak ez dituzu bete?'

bezalakoak ez dira hain arrotzak. Galde-hitz hauen jokabide berezia da, beraz, lokailuaren leku berezi horren arrazoia.

5.2.2.5. Zenbait aditzondoren ondoan

- (113) Orai, beraz, behar diagu jakiti nor den... (B. Gasteluçar, *Eguia Catholicac*, 180)
- (114) Orrela beraz, nor da Jesu-Kristo? (M. Larramendi, *Panegirico de S. Agustin*, 17)
- (115) Halatan beraz, nihork ezin erran diro... (J. Echeberri (Sarakoa), *Obras Vascongadas*, 382)
- (116) Oraño beraz, o Iesus, besoak heda... (A. Mihura, *Andredena Mariaren Imitacionea*, 118)
- (117) Onela beraz, ikusten dugun bezela... (C. Beovide, *Asis'ko loria*, 22)

Hiru bider dio Axularrek 'Ez eta beraz...', ez ordea inoiz ere 'eta beraz'. Hau autore zaharretan ez da aurkitzen bakanka baizik. *Orotariko Euskal Hiztegia*-ko zerrendan lehen aldiz Haraneder-ek darabil, eta ondoren Duhaldek:

- (118) Duen amodio sobraniazkoa, eta beraz izan al daiteken ungi-egillerik frankoenarentzat (J. Haraneder, *Gudu izpirituala*, 75)
- (119) ...gogoramendu gaxtoei jarraiki zaje. Eta beraz bere bizian debruaren zerbitzari izan den bezala... (M. Duhalde, *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, 153)

5.2.3. Beraz + modu-aditzondo erakuslea

Batzutan beraz, lokailu sinplea, ikusi batera aditzondo den beste elementu batez osaturik agertzen zaigula esan dugu eta hala beraz **hunelatan**, beraz **halatan**, beraz **horrela** eta abar aurki daitezkeela liburuetan, nahiz egun ahozko hizkeran ia ezezagunak diren, hegoaldeko euskalkietan behintzat:

- (120) ...egin zinituzkeiela urthe batz. Beraz **hunelatan** galdututzu bertze urthe guztiak (P. de Axular, *Guero*, 109)
- (121) ...eta bat bertzearen mienbro eta parte. Beraz **hunelatan** elkhar onhetsi behar dugu (P. de Axular, *Guero*, 209)

- (122) Ordea benturaz erranen du orai hemen zenbaitek. Beraz halatan, bekhatutan negocencan, ezta zer barurturik (P. de Axular, *Guero*, 349)
- (123) -E. ... zefari gizon eginik deritza Jesu Kristo. -G. Beraz orrela, nor da Jesu Kristo? (J. Irazusta, *Doctrina Christiana* 1739)

Adibide horietan ikusten den bezala, lokailu konposatu hauek perpausaren hasieran doaz beti eta horretan bereizten dira beraz-ek perpausaren hartzen duen leku aldakorretik.

Merezi du beste puntu bat ere hemen argitzea. Aurreko atalean, 5.2.2.5. puntuan, egin ditugun aipamenetako orrela beraz, hala beraz, halatan beraz, halakotz beraz eta abar orain aztertzen ari garen berberak dira formalki, bi osagaiak elkarrekin trukaturik. Horrenbestez puntu hartan esana, hots, zenbait aditzondok beraz-i aurrea hartzen diotela, itxuraz baizik ez da egia, horietan berez aditzondo diren horiek aditzondo izatea galtzen baitute eta bien artean osatzen lokailua, konposatua noski. Horregatik esan ere dugu hemen goian "ikusitako aditzondo den beste elementu batez" osatuak direla lokailu konposatu hauek. Beraz balioari dihoakionez, batera nahiz bestera agertu, beraz-en lokailu konposatuen aurrean gaude han eta hemen, eta ez bi osagai solteren aurrean, beraz bakarrik balitz bezala lokailua eta bestea aditzondoa.

Beste modu batera esanda: 'Horrela, beraz, egin behar duzu txostena', zein izango bailitzateke 'Nola, beraz, egin behar dut txostena?' galderaren erantzuna, eta beste lokailu konposatu ('Orrela beraz, nor da Jesu-Kristo...?') hura, (114)ekoa, ez dira balioz gauza bera, edo nahiago bada, ez dira gauza bera balioz 'Beraz, horrela egin behar duzu txostena' eta Irazustaren (123)ko "Beraz orrela, nor da Jesu Khristo?" ere.

5.3. Bada

5.3.1. Forma eta balioa

Loturazko —hain zuzen, ondoriozko— lokailua dela esan dugu. Mitxelenaren hitzez esateko: 'Eso no es más que una manera de ligar una frase con la anterior' (Villasante, *Sintaxis de la oración compuesta*, 156. or.). Bi perpaus lotzen ditu, hortaz, baina aldi berean lehenaren ondorioa ateratzen.

Ikusi dugu zenbait esapidetan eta esalditan **beraz-en** pareko dela, bata nahiz bestea erabiltzen baitira aukeran. Itzultzaileak ere batuz zein besteaz baliatzen direla ikusi dugu testu berberak euskaratzean.

Garbi dago, hortaz, errankideak direla batzutan; zenbait esapidetan, **beraz** eta **bada** elkarren lehian agertzen direla. Ez beti, ordea, eta **beraz-en** erabilera propioak eta bereziak zein diren azaldu dugu. Orain **bada-renak** zein diren adieraziko dugu. Hasteko, zenbaitetan **bada** erabiltzen dugu beti, eta ez **beraz**. Honek erakusten digu beste gabe **bada-ren** eremua zabalagoa dela **beraz-ena** baino:

Oihu, aihen edo hasperenak dira batzu:

(124) Ai, ene bada! (A. Cardabraz, *Egercicioac* II, 14)

(125) Ene bada! Etorri al zara?

(126) Ene bada ta bada, Arantza laztan ori (E. Erkiaga, *Arranegi*, 73)

(127) Hor(ra) bada; nik esana gertatu azkenean!

(128) Tira bada, gizona; jaiki zaitez noizbait ohetik!

(129) Tira bada, neskatxa; has zaitez behingoz lanean!

(130) Zer bada? (=Zergatik?)

(131) Abran, baldin zuk nere esanak egiten badituzu, Ni zurekin izango naiz, eta zure egiteko guzietan lagunduko dizut: Ots bada, irten zaite bereala zere erritik (J. A. Ubillos, *Christau doctriñ berri-ecarlea*, 17)

(132) Aurrera bada! (F. Gofñi, *Lurdesko gertaera goguangarriyak*, 20)

(133) Kontuz, bada, kontuz irakurle (F. Bilbao, *Ipuin-barreka*, 254)

Beste batzu esaldiak dira, gehienetan adizki laguntzailerik gabeak:

(134) Ez bada jakin!

(135) Ez jakin bada!

- (136) **Jakin ez bada!** (A. Apaolaza, *Pavako Txerren*, 122)
- (137) **Nik al dakit bada!**
- (138) **Nik zer dakit bada nor nun dabillen?** (D. de Aguirre, *Garoa*, 199)
- (139) **Jakina bada...!** (A.M. Labayen, *Su-emailleak*, 169)
- (140) **Hor zegok bada!**
- (141) **Hor zegok bada korxa!**
- (142) **Or zegok bada iltzea!** (X. de Lizardi, *Itz-Laus*, 66)
- (143) **Ezin bada...!** (D. de Aguirre, *Auñemendiko Lorea*, 40)
- (144) **Baietz bada, Martin, egia difuatela!** (F. Bilbao, *Ipuin-barreka*, 197)
- (145) **Ezetz bada!**
- (146) **Horregatik bada!** (A.M. Labayen, *Euskal-Eguna*, 64)
- (147) **Banengoen bada!**
- (148) **Banengon bada!** (Labayen, *Euskal-Eguna*, 109)
- (149) **Zer egingo da bada!** (M. Soroa, *Baratzan*, 34)
- (150) **Hori zer duk bada!**
- (151) **Ni bai bada!**
- (152) **Ni ez bada!** (A.M. Labayen, *Su-emailleak*, 194)

Formari dagokionez esan behar da, autore zaharretan —eta ez hain zaharretan— beti osorik idatzirik agertzen den arren, azken ehun urte hauetan gutxi gorabehera ba idazteko ohitura oso zabaldu dela, batez ere hegoaldean eta konkretuki ipuinak edota elkarrizketaz josiriko testuak idatzi dituzten autoreetan, herriko hizkera kutsua hobeki gordetzearren edo; izan ere, egunoroko hizkera bizian hala ahoskatzen da ia beti.

Hedadurari dagokionez, beraz bezala, euskalki guzietan zabaldua dago **bada**, lehen eta orain, zubererari, klasikoan bederen, izan ezik. Egia da halere, iparraldeko euskalkietan ez bezalako hedadura eta bizitasuna ageri duela **bada**-k hegoaldekoetan, egunoroko hizketan, elkarrizketan, batez ere. Noiznahi esaten da eta entzuten 'Etorri ba', 'Noiz ba?', 'Ez dakit ba', 'Joan zaitez ba', eta abar. Areago, hitzun askorentzat isilgabeko errepika bihurtu da, bi hitz segidan ezin esateraino ba aldiro eta uneoro tartekatu gabe: 'Ba... esango dizut', 'Ba... ez naiz gogoratzen', 'Ba... zeuk ikus', 'Ba... joan den astean'.

Azken bost lerro hauetako adibideek argiro erakusten dute elkarrizketa giroan esanak direla perpaus horiek. Hor du bere bete-beteko lekua **bada**-k, izan ere. Hori sinesteko, aski da testu liburu bat edo zientziazko artikulua bat eskuetan hartzea, eta nekez aurkituko da **bada** bat. Hori gabe, hizkera arruntetik hurbilago dagoen saio antzeko edo ikerlanezko txosten bat hartzea, eta han ere doi-doi agertuko da **bada**. Aldiz, komedia edo antzerki edo ipuin bat hartuz gero, idazle gipuzkoar batek egina **bada** batez ere, **bada**-z josia azalduko zaigu.

Zer esanik ez, gehienetan alferrikakoa dela edota betegarri hutsa bederen; alegia, testutik kendurik ez du ezer galtzen esanahiak, askoz gubxiago erabiltzen duten ifarraldeko testuek erakusten digutenez. Gehienez ere kaleko eta egunoroko hizkeraren kutsua galtzen du, kalean eta egunoroko hizkeran darabiltenentzat, noski.

Horientzat ere eta horien hizkeran ere **bada** ondoriozko lokailua dela jar lezakete dudan batek baino gehiagok, ezin ikusirik ondoriotasunik zenbait adibidetan. Esate baterako, zertan datza ondorioa honako perpaus hauetan?

(153) -Ama, hemen aspertuta nago
-Joan **bada** kalera

(154) -Nik hori badakit
-Esan **bada**!

(155) -Hor ez dago
-Non **bada**?

Eta horrelako beste milatan. Hori garbiro ikusteko, on da konpara dezagun elkarrekin perpaus bikote hau: 'Etorri al da?' eta 'Etorri al da **bada**?'. Bigarren honetan **bada** darabilenak zerbait ikusi, entzun edo somatu du bere inguruan etorri behar zuena etorri dela pentsarazten diona, eta ikusi, entzun edo

somatu duenerik ondoriozkatzen du —dudatan, noski, eta horregatik galdetzen du— etorri dela, berak ikusi ez duen arren, eta horrexegatik darabil bada.

Diogun ere bidenabar, gero gehiagotan esan beharko dugun arren, doinuak edo azentuak edo entonazioak asko esan nahi duela bada dela eta ez dela, ez baita alferrik xitez eta beregainki elkarrizketako eta egunoroko hizketa biziko hizkia. Hori gertatzen zaio horko 'Etorri al da bada?' horretako bada-ri. Bi balio eta bi doinu desberdin ditu. Bai:

- (156) -Zenbat zahartu den Peru!
-Etorri al da bada?

Hemen galdera soilak da, lehen esan dugun bezalakoa, eta edozein galderaren doinu berbera du. Aldiz,

- (157) -Berarekin bazkaldu dut
-A ze gezurra! Oraindik etorri al da bada!

Hemen ez da galdera, benetakoa ez behintzat, erretorikoa edo baizik. Hori beste hitzun batzuk 'Oraindik ez da etorri eta' edo 'Oraindik ez bait da etorri' esango lukete. Lehengoak ez bezalako doinua du, biak hitzetik hortzera darabiltzatenek ongi dakiten bezala, nahiz oso zaila den erabiltzen ez dituenari nolakoa den adierazten oso zaila den.

Ido beretik, bi erabilera desberdin eta bi doinu dituzte bai bada eta ez bada-k ere. Adibidez:

- (158) -Gizendu egin da
-Bai bada, behi batek adina jaten baitu
- (159) -Itx egin da
-Bai bada; igerian jakin gabe tapako uretan ibiltzen zen eta
- (160) -Haitzetan zirriztatu eta bunua hautsi du
-Bai bada; arrixkua maite zuen eta
- (161) -Ez da garaiz iritsi
-Ez bada; oinez joan behar izan du eta
- (162) -Ez du aprobatu
-Ez bada; aurreko bi egunetan bakarrik ikasi du eta

Horrelakoetan lehen perpausaren ezezkoa edo baiezkoa lokailuak ontzat ematen du eta birresten, bi hizkiak —*ez/bai* eta *bada*— erabat elkarri loturik ahoskatuz eta lehenean azentua ezarriz. Entzuten dena hau da: **báiba, ézpa**, non *bada* enklitiko bihurtu baita. Eta, jakina, ezin truka daitezke bi hizkiak. Horietan **noski, jakina** edo esan nahi du.

Beste hauetan ez da hori gertatzen:

- (163) -Ez da berehalakoan gizenduko
-Bai bada; gizendu da
- (164) -Ez da horratik berriz etorriko
-Bai bada; etorri da
- (165) -Ez du inoiz ikasiko euskara
-Bai bada; ikasi du
- (166) -Berak bakarrik egin du
-Ez bada; nik ere egin dut
- (167) -Egingo nuke jaso duela harría
-Ez bada; ez du jaso, egin dituen ahaleginagatik

Hauetan aurreko perpausaren baiezkoa edo ezezkoa ukatu egiten du lokailuak; horrexegatik aurkitzen dugu **bai bada** ezezko perpausaren ondoren, eta **ez bada**, baiezkoaren ondoren. Ahoskatu ere, elkarrengandik bereiz samar ahoskatzen dira bi hizkiak: **bai-ba, ez-ba**, are gehiago zenbaitetan **eez-ba** ahoskatzen da bigarrena, e bituaz. Hau horrela izateak badu gainera zergatik: hor azken batean elisio bat gertatu bide da, eta esan zitekeen —eta esaten da batzutan— 'Etorri da bada', 'Ikasi du bada' edo 'Ez du bada egin!', 'Ez du bada jaso!'. Are, lehengoetan ez bezala, hauetan truka daitezke bi hizkiak eta esan: 'Bada bai', 'bada ez'. Horrexegatik kasu honetan **bada** atonoa da eta **bai** edo **ez-ek** bereganatzen dute azentua: **ba-bái, ba-éz**; bestean berriz **bai-bá, ez-bá** ahoskatzen da, eta aldiz (158-160) eta (161-162)an **báiba, ézpa** hauetan ez bezala.

Hona azkenik beste modu bateko bikoiztasuna:

- (168) -Ez du sega apustua irabazi
-Nola bada! Ez eta makina balitz ere

- (169) -Ez du horrela egin
-Nola bada?

Lehenean 'Nola bada'-k apustua ez irabazi izana bidezkoztat jotzen du eta irabazi izanak, irabazi balu, emango ziokeen harridura agertzen. Honek ere elisioa izkutatzen du: 'Nola irabaziko zuen bada!'. Bigarrenean aldiz galdera soila dugu eta azpian dagoen elisioa bestelakoa da, 'Nola egin du bada?', bataren eta bestearen partizipioek erakusten duten bezala (ikus (124-133)ko adibideetan presuposizioaz esana).

Orain arte esandakotik erraz soma daiteke ez dela batere erraza **bada**-ren erabilera mota guziak biltzen eta sailkatzen. Hain da ugaria eta ñabarduraz betea. Dena den zenbait multzotan biltzen saiatuko gara. Hasteko, badirudi sail handi bat egin daitekeela aurreko perpausaren kontrakoa adierazten duen **bada**-rekin.

5.3.2. Aurreko perpausaren kontrako 'bada'

5.3.2.1. 'Kontrako' diogunean, **bada**-k bere-berea duela dirudien ñabardura bati gagozkio; alegia, inork esanarekiko mesfidantza, ezadostasuna, sinesgogortasuna adierazten du ia beti, baita harridura, haserrea, erronka ere zenbaitetan. Hori horrela delarik, lehen perpausak berekin duen baieztapenak edo ukamenak (ezezkoa denean) sorrerazten du harridura edo mesfidantza. Baieztatu dena gehiegizkoa dela iruditzen zaionak, kontrako erronka egiten du (170-173)ko adibideetan, **bada** erabiliz:

- (170) -Nik **badakit** haren berri
-Esan **bada**!
- (171) -Ordubetea joan **naiteke**
-Zoaz **bada**!
- (172) -Bakarrik egingo dut
-Egizu **bada**!
- (173) -Ez diot **beldurrik**
-Emaiozu, **bada**, lehen **muturrekoa**

5.3.2.2. Baieztatu edo ukatu dena sinesgarri ez denean, galdera baten bidez ager daiteke duda. Galdera egiteko erabiltzen den galdezko izenordearen edo aditzondoaren ondoren **bada** hartzen du lokailu gisa:

(174) -Ez da Mikel joan
-Nor bada?

(175) -Ni ez noa gaur
-Noiz bada?

(176) -Ez da horregatik etorri
-Zergatik bada?

(177) -Ez du hori esan
-Zer bada?

Horietan eta ondokoetan **bada** ondoriozko lokailu dela bistan da. Hondarraren hondarrean galdera egiten duenak honako gogoeta baldintzazko hau egiten du: 'Mikel ez bada, nor da?', eta baldintzak berekin darama ondorioa. 'Nor da, hortaz?' ere esan lezake eta **hortaz** ere ondoriozko lokailua da. Bestalde, ezezko perpausak ukatu duen elementuari zuzen dagokion galdezko izenordea edo aditzondoa erabili da (174)ean. Halakorik ezin egin daiteke, ordea, lehen perpausa baiezkoa denean. Orduan,

5.3.2.3. Galdera itzulunguru baten bidez egin behar da, aditz sintagma ere isildu gabe. Esate baterako,

(178) -Jakinaren gainean dago
-Zergatik ez digu, **bada**, kontatu?

(179) -Han izan da
-Nolatan esan digu, **bada**, ezetz?

Aukera bera izan dezakegu lehen perpausa ezezkoa denean ere:

(180) -Ez dago hemen
-Nora joan da **bada**?

(181) -Hori ez diot entzun
-Zertan pentsatzen ari zinen **bada**?

- (182) -Nik ez diot esan
-Nola daki bada?
- (183) -Ez zuen sinetsi
-Nolatan esan zion, bada, baietz?

Galdera egiazkoa baino gehiago erretoriko deritzana izan daiteke, alegia erantzuna hartzeko asmoz egiten ez dena:

- (184) -Horrek irakatsiko dizue
-Horrek zer daki bada!
- (185) -Antón atzeman omen dute han
-Antón han izan al da bada!
- (186) -Ez omen dela etorriko
-Nik zer egitea nahi duzu bada!

Diogun, bidenabar, sasi-galdera hauek, erretoriko hutsak direlako, onartzen dutela adizkia forma alokutibo delakoan:

- (187) Nola etorriko duk bada, ama hil zaiok eta
- (188) Nola ez dik, bada, jakingo, beti ikasten ari duk eta
- (189) Horrek zer zekik bada!

5.3.2.4. Baiezko perpausaren bidez agindua edo ezezkoaren bidez debekua ematen denean, aginterazko adizkiak noski, kontrako iritzia edo ezadostasuna honela agertu ohi da:

- (190) -Zoaz mezatara
-Zu ez zara, bada, joaten!
- (191) -Emaiozu dirua
-Zuk ez diozu, bada, eman!
- (192) -Ez ezazu jo
-Zuk jo duzu, bada!
- (193) -Ez zaiozu irri egin
-Zuk egin diozu, bada!

Agintzen nahiz debekatzen denarekin ados egon edo ez egon, agindua edo baimena alferrik dela edo berandu emana dela ere modu berean adierazten da:

(194) -Ordu erdi barru hemen egon dadila, gero!
-Bada, oraindik ohean dago

(195) -Ez dezala jakin, e!
-Bada, esan diot

(196) -Ez jan hori, Jainkoaren izenean!
-Bada, nik jan dut

Errebelamendu, erronka kutsua ere izan dezake bigarren perpausak:

(197) -Ez gero aitari esan
-Esango diot bada

(198) -Ez ezazu anaita jo
-Joko dut bada

(199) -Joan zaituz ohera
-Ez naiz bada joango

5.3.2.5. Debekurik edo agindurik eman gabe ere modu bertsuan adierazten dugu inork esanarekiko ezadostasuna, duda edo mesfidantza:

(200) -Dena daki
-Bada, ez digu ezer esan

(201) -Goizean etorri da
-Bada, inork ez du ikusi

(202) -Lehengo astean bidali nizun
-Bada, oraindik ez dut hartu

(203) -Nik ez diot esan
-Bada, norbaitek esan dio

(204) Ezin ediren duzu: horixe zen bada (Martin Harriet: ikus *OEH*)

(205) -Nik hori ez dut nahi
-Bada, hori eskatu zenuen atzo

5.3.2.6. Harridura adierazten duenean **bada** lokailuak, orain artekoetan ez bezala, baiezko perpausari formalki baiezkoa den beste perpaus batez erantzuten zaio; eta ezezkoari ezezkoaz, baina honek, harridura adierazten duelarik, esanahia baiezkoa du, 'Nola ez bada!' esango balitz bezala. Seinalatzekoak dira gainera ezezkoetan bai hartzen duten aspektua, hots hirugarren partizipioa, bai eta 'partizipioa + ez + adizkia' ordena:

(206) -Kanpai dorreraino igo zen
-Ausartu zen, bada, mukizu hura hori egitera!

(207) -Oinez etorri zen Donostiara
-Ibili zen, bada, hainbat kilometro bakarrik!

(208) -Ez zigun idatzi
-Idatziko ez zigun bada!

(209) -Egingo nuke ez dela jaiki oraindik
-Jaikiko ez zen bada!

(210) -Ez zekien
-Jakingo ez zuen bada

5.3.2.7. Harridura ez ezik, zerbaiten nahitaez gertatu beharra ere adierazten da bestetan. Hauetan lehen perpausa baiezkoa izanik, ezezko perpausak 'partizipioa + ez + adizkia' egitura du (aurreko puntuan ikusi berriaren pare-parekoa):

(211) -Batek eman ahala jaten du
-Horrela gizenduko ez da bada

(212) -Bakarrik bizi da
-Aspertuko ez da, bada!

(213) -Berrogei kilometro ibiltzen da egunoro
-Horrela nekatuko ez da, bada!

Hauetan gainera, 'gizena dagoela', 'aspertuta dagoela'... presuposizioa dago. Aldez aurretik horrelako ustetik ez badago, ez da besterik gabe hotz-hotzean halako erantzunik ematen.

Gertatu beharra ez, baizik inoren lotsagabekeria eta ausardia azpimarratu nahi denean aditz sintagma taxu berean erabiltzen da:

(214) Txerria deitu ez zidan, bada, kakari hark!

(215) Gezurretan ari nintzela esan ez zidan, bada!

(216) Aurpegira txistua bota ez zidan, bada!

(217) Len ekarri nion sedazko txano bat polua gero bere koxkabillo batera ta bestera eroriaz, eguraldi ona edo txarra adierazten zuenarekin. Eta ez zuela artuko ez zidan esan bada» (T. Alzaga, *Ramuntxo*, 37)

Hona, azkenik, beste elkarrizketa molde luzeago hauek, non lehen aipaturiko bi mota agertzen baitira:

(218) -Eska zaiozu berari
-Nola eskatuko diot, bada!
-Eskatuko ez diozu bada, zure laguna izan eta!

(219) -Har ezazu nere dirua
-Nola bada!
-Hartuko ez duzu bada, behar baduzu!

(220) -Berak esan omen dio
-Nola esango zion bada!
-Zergatik ez zion bada, esango, baldin egia bada!

5. 3.3. Lagunarteko hizkerako zenbait erabilera

Badira beste bi solas mota, orain arte aipatuetarik aski desberdin direnak eta egunoroko hizkeran bada maiz daramatenak. Biek dute gauza bat erkide: alegia, inork eginiko galderari perpaus bakar batez erantzun beharrean, beste perpaus batez gehi bada-z erantzuten zaio. Hala nola:

(221) -Nora eraman duzue autoa konpontzera?
-Nola dagoen Igeldo bidean garaje bat... bada haraxe

(222) -Nora eraman duzue autoa konpontzera?
-Badago bada Igeldo bidean garaje bat... bada haraxe

Elkarrizketa gabe, sermoe edo hitzaldi batean, entzuleak egin uste dion galdera hizlariak berak asmatzen du eta egiten bere buruari, eta lehengo modu bersuan erantzuten; adibidez,

(223) Zergatik gertatzen den hori? *Bada*, askok ez dakitelako ongi bizitzea zer den ere

(224) Nola jakin dudan hori? *Bada*, batari eta besteari behin eta birritan galdegin

(225) Galdetuko dizute agian, ia zergatik atzerrikoen istoria eskribitzen dudan, Euskal-errikoak utzita; *bada*, bi arrazoigatik egin dut... (F. Gofi, *Lurdes-ko gertaera goguangarriak*, 19)

5.3.4. Literatura klasikoan

Orain arteko ia adibide guztiak egunoroko hizketa, elkarrizketa, bizitik jalkiak dira. Esan dugu behin eta birritan hor duela bere leku aproposa *bada* lokailuak. Hor bakarrik ez ordea, eta aipatu dugun azken adibidea liburu batetik eta liburuaren berri ematen ari den egileak dioenetik aterea da, ez elkarrizketa batetik.

Horrek bide ematen digu *bada*-k goi mailako literatur testuetan duen erabilera aztertzeko, batez ere 'estilo diskurtsibo' delakoaz eihotako liburuetan, hots egileak zerbait kontatzeko edo frogatzeko solasaldi lauaz, lasaiaz eta soseguzkoaz ontzen dituenetan. Horietan ere agertzen baita *bada*, lehen eta orain, hegoaldeko eta iparraldekoetan. Zuberera izan liteke salbuespen bakarra, beraz-en kasuan bezalaxe, nahiz Oihenartek (Tartasek ez bezala) bizpahirutan darabiltzan biak. Baina *bada* lehenagokoek ere bai, Etxeparek, Leizarragak eta Axularrek, esate baterako, gehiago ez aipatzearren.

Beraz baino askozaz sarriago gainera; Axularrek, adibidez, bi bider gehiagotan. Ez dirudi halere elkarrizketan adina *ñabardura* duenik; ezin izan ere, halako *ñabardurak* izatea elkarrizketari dagokion bereizgarria baita, aise aditzen den bezala, eta 'estilo diskurtsibo' delakoari aldiz, berez zor baitzaio neutroagoa, alegia usainik, kolorerik eta zaporerik gabea, gabeagoa behintzat, izatea.

Horrenbestez ezin espero dezakegu *bada*-k era horretako liburuetan besteetan bezanbat erabilera mota izan ditzan batetik, ez eta hauetakoetatik oso desberdin izan daitezen bestetik, azken batean ondoriozko lokailua baita hain batzuetan zein besteetan.

Bestalde, argudioz, arrazoinamenduz eta gogoetaz eihoa izatea baita honelako liburuen bereizgarri nagusia, bidezko dirudi **bada-k** horietan argudioak eta arrazoiak elkarri lotzea perpaus soilak baino gehiago. Nola lot, ordea? Ikus dezagun pare bat mota.

Beraz-ek, ikusi dugunez, argudio, arrazoinamendu edo solasaldi bat burutzen eta azkentzen duen bezala, **bada-k** askotan argudio berriari, **beraz-ek** burutu duenarekin zerikusia duenari eta hura osatzen eta biribiltzen duenari, irekitzen dio atea eta ematen hasiera. Lehen aipaturiko Axularren pasarte hartan, (71)ean agertzen da hori garbiri. Honela dio Axularrek:

- (226) Honelakoak ziren zure aita launa eta bai bertze aitzinekoak ere.
Bada eztuzu zuk ere zeure arrazaz ukhatu (...). Zeren (...) ioan zinen Gorthera eta (...). **Beraz** etzara zu ere (...).
Bada ez eta ohorearen iraingitzaile ere (P. de Axular, *Guero*, 3)

Bertrand de Echauzen aitzinekoak nolakoak ziren kontatu ondoren, lehenbiziko **bada**-ren bitartez argudio berriari ('eztuzu zuek ere...ukhatu') ematen dio hasiera; Bertrand de Echauz bera ere aitzinekoen gisakoa dela frogatu nahirik. Eta argudio berri hori garatzean eta honen ondorioa **beraz**-en bidez adieraztean, berriz ere beste argudio berri bati ('ez eta ohorearen iraingitzaile ere') ekiten dio, **bada** aurrean ezarririk.

Horrenbestez esan daiteke **beraz-ek** bere aurreko solas zatiari egiten diola erreferentzia, esana bildu eta hura burutuzat eta frogatuzat ematen duelarik. **Bada-k** aldiz ondoko solas zatiari egiten dio, hura iragartzen du, hari begiratzen eta hartara igortzen du irakurlearen arreta. **Beraz**-en ondoren esaten dena lehen ere esana dago nolazpait, ezaguna du irakurleak gutxi gorabehera aurreko lerroetatik. **Bada**-ren ondokoa aldiz ezezaguna eta berria da, muintzagai berria.

Ikus, esate baterako, Leizarragaren pasarte hau: Testamentu Berriaren itzulpena erreginari eskaini diola eta, beldur da arinkeriaz eta harrokeriaz salatuko ote duten, baldin hartarako izan dituen arrazoiak agerian jartzen ez baditu. Eta **bada**-ren bidez ekiten dio arrazoiak azaltzeari:

- (227) Andrea, zeren (...) dedikatzeraz ausartu izan naizen, mercei onez arintassunez akhusa ahal neinde, baldin (...) zerbait exkusa eman ezpaneza. **Bada**, niri haur eragin draudaten anhitz berze razoinen artean izan dirade (...)

Eta ondoren bi arrazoi aipatzen ditu.

Argudio berriari bidea zabaltzen ere dio, aurrekoa burutu dela beraz-en bidez aditzera eman gabe ere, honetarako aski baita argudio berria puntu eta aparte batean hastea, esate baterako, edota beste modu batera ere bai, orain ikusiko dugun bezala, eta maiz bietara batean. Hona Axularren zenbait pasarte, askoz gehiagoren artean hautatuak:

- (228) Badakit halaber ezin heda naitekeiela euskarazko minzatze molde guztietara. Zeren (...) minzatenen baitira Euskal herrian: Nafarroa garaian (...). Eztituzte euskaldun guztiek (...), zeren erresumak baitituzte diferent.

Bada eskiribatzeaz denaz bezanbatean ere ez naiz egiteko gabe. Zeren (...) (P. de Axular, *Guero*, 8)

Garbi dago hor Axularrek 'euskarazko minzatze molde' edo euskalkiez esan nahi zuena bukatzean, argudio berriaz, 'eskiribatzeaz', hitz egitera pasatzean, honi ateka bada-ren bidez zabaltzen diola, puntu eta aparteaz baliatzeaz gainera, ere-ren bidez argudio berria dela seinalatuz edo azpimarratuz. Orobat egiten du beste pasarte askotan:

- (229) Erleak, hain gauza itipiak eta flakoak, behatzen du mundua eztiiz ezititzeko eta ezkoz argitzeko (...)

Bada xinhauriaren gobernuaz (...), norik zer erranen du? (P. de Axular, *Guero*, 21)

Erleak ditu lehen argudioa edo mintzagaia eta xinhauriak bigarrena.

- (230) Nagia ere negu hotzean (...) lotara bere ohe berora bihurtzen da. Bada haur beror espiritualki bekhatore nagia baithan ere gerhatzen da (P. de Axular, *Guero*, 29)

- (231) Herkules hura (...) geldi dago, kheinatzea egiten du eta ez bertzerik. Hala dira bada gerotik gerora dabiltzanak ere... (P. de Axular, *Guero*, 35)

5.3.5. Perpausean duen lekua

Aurreko orrialdeetan aipatu ditugun adibideek ongi erakusten dute bada ere, beraz bezalaxe, oso mugikorra dela perpausean eta lehen burutik azkeneraino edozein leku har dezakeela. Hemen ere haatik, beraz-en kasuan bezalaxe, seinala daitezke zenbait joera nagusi. Eta joera nagusi horiek ez dira beraz-en berberak baizik, biek baitute jokabide bertsua perpausaren baitan hartzen duten lekuari dagokionez. Hiru joera nagusiak hauek dira:

5.3.5.1. Perpausaren hasieran agertzen da **bada**, baldin ondorioa adierazpen-perpausaren bidez emana badago:

(232) *Bada*, neure maitia, nik diotsut egia (B. Dechepare, 181)

(233) *Bada* haur beror gertatzen da alfer dagoena baithan ere (P. de Axular, *Guero*, 23)

(234) *Bada dela* hori egia
Prest nun erakustera (Oihenart, *Poesiak*, 29)

5.3.5.2. Perpausaren barnean, aditzaren ondoan aurkitzen dugu maizenik:

-aginté perpausetan:

(235) Biz *bada*, othoi, zure Maiestatearen plazera... (J. Leizarraga, *Othoizta*, 94)

(236) Behezak *bada*, Jauna, Kristi eurearen... (Leizarraga, *Othoizta*, 12)

(237) Errezibi ezazu *bada*, defenda ezazu, alde zakitza (P. de Axular, *Guero*, 5)

(238) Ian ezazu *bada* neurritz asko duzu bezain berze (P. de Axular, *Guero*, 90)

(239) Zohazi *bada*, nik hemen igurikatuko zaitut (F. Laphitz, *Bi saindu hescuaidunen bizia*, 120)

(240) Entzun etzatzue *bada* gure koplak berriak (J. Etxeberri (Ziburukoa), *Noelac*, 33)

(241) Mintza zite *bada*, Jauna, zeren entzuten du... (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea*, 117)

Goiko adibideetan aditzaren, trinkoaren nahiz perifrastikoaren, ondo ondoan doa **bada**.

- Perpaus hasieran:

(242) *Bada*, zareten bizi elkharrekin sainduki (J. Leizarraga, *Othoizta*, 28)

(243) *Bada* biz hala, zuk diozun bezala eta... (P. de Axular, *Guero*, 101)

(244) *Bada* dezadan aitzinetik erremedio iben (P. de Axular, *Guero*, 192)

galde perpausetan ere aditzaren atzean kokatu ohi da lokailua:

(245) Nolatan duzu bada uste hanbat denboraz...? (P. de Axular, *Guero*, 55)

(246) Zer erhokeria da bada haur...? (P. de Axular, *Guero*, 57)

(247) Zer nai dezu bada? (B. Iraola, *Oroitzak ta beste ipui asko*, 127)

Hala, horrela bezalako zenbait aditzondo galdegai denean, eta horrenbestez aditza jarraitzen zaionean ere perpausaren barnean eta aditzaren ondoan agertzen da **bada**:

(248) Hala bihurtzen da bada bekhatore nagia ere (P. de Axular, *Guero*, 30)

(249) Hala erideiten ditugu bada guk ere okhasinoak (P. de Axular, *Guero*, 33)

(250) Horrela duk bada munduko erhokeria ere (P. de Axular, *Guero*, 58)

Hemen ere ez dira falta, ordea, lokailua bigarren posizioan eta galde-hitzaren ondoren daramaten adibideak (ikus **beraz** lokailuaren kokagunea aztertzean honi buruz genioena):

(251) Zeren bada ez atzaic Beileena aitzindu? (J. Elcheberri (Ziburukoa), *Noelac*, 71)

(252) Nolatan bada, ezpa zer moicnez...? (J. Leizarraga, *Othoitza*, 50)

(253) Zeren bada erho gira gaixo bekhatariaik? (B. Deuchepare *Linguae Vasconum Primitiae*, 95)

Eta **beraz**-ekin gerratzen den bezala, **bada** perpausaren barnean, aditzaren ondoan, kokaturik dugu ondoko adibideetan, nahiz adierazpen-perpausak izan; aipatzekoa da dena den aditza dela lehen elementua, beraz, lokailua bigarren posizioan doala:

(254) Bekhatu egin diagu bada, launa, eta anhitz... (J. Leizarraga *Othoitza*, 10)

(255) Ez lizateke bada arrazoin zuk ere bitarte hartan... (P. de Axular, *Guero*, 123)

(256) Abiatu zen bada gibelat, eman zioen ihesari (P. de Axular, *Guero*, 142)

5.3.5.3. Nolanahi ere, joera horiek, salbuespenak gora behera, goi mailako literatur liburuetan betetzen dira batez ere, zaharrago eta gehiago. Mende honetako zenbait liburutan, aldiz, hauetako hizkera herrikora eta kaleko elkarrizketaren hizkerara gehiago hurbildu izan den neurrian, mugikorrako bilakatu da eta zenbait perpaus motatan leku bata nahiz bestea hartzeraz lerratu. Hala, honako perpaus honetan edozein lekutan aurki daiteke bada:

- (257) a. Bada, nik ez diot eskatuko
b. Nik ez diot bada, eskatuko
c. Nik ez diot eskatuko bada
- (258) a. Zertan, bada, ari zinen pentsatzen?
b. Zertan ari zinen, bada, pentsatzen?
c. Zertan ari zinen pentsatzen bada?

Bi lehenak hirugarrena baino maizago erabiltzen direla dirudi. Baina horrelako ereduak oso gutxi dira eta ezin esan daiteke herriko hizkeran berean bada-ren kokalekuak inolako arauik edo joerarik ez duela eta edozein lekutan ezartzea zilegi dela. Ez eta hurrik eman ere. Hona zein diren, esate baterako, Aurreko perpausaren kontrako bada'atalean (ikus 5.3.1.1.puntua) aipaturiko ereduetatik bada perpausaren hasieran nekez eraman dezaketanak. Sorta bakoitzeko adibide bat edo bi bakarrik aipatuko ditugu labur zurean:

- (259) Nor bada? (ikus (174-177))
- (260) Zergatik ez digu, bada, kontatu? (ik. (178-179))
- (261) Nora joan da bada? (ik. (180-183))
- (262) Horrek zer daki bada! (ik. (184-186))
- (263) Nola etorriko duk bada, ama hil zaiok eta! (ik. (187-189))
- (264) Zuk jo duzu bada! / zu ez zara bada, joaten! (ik. (190-193))
- (265) Joango naiz bada! (ik. (197-199))
- (266) Idatziko ez zigun bada! / ausartu zen, bada, mukizu hura hori egitera! (ik. (206-210))
- (267) Horrela gizenduko ez da, bada! (ik. (211-213))

(268) Txerria deitu ez zidan, bada, kakati hark! (ik. (214-217))

(269) Nola eskatuko diot bada! / Eskatuko ez diozu bada, zure laguna izan eta! (ik. (218-220))

Ikusten denez, oso eredu gutxi gelditzen da, zeinetan bada ager baitaiteke perpausaren hasieran nahiz barnean. 5.3.1.1.ekoen artean guztiz berdinak diren biok:

(270) Bada, esan diot (ik. (194-196))

(271) Bada, norbaitek esan dio (ik. (200-203))

Horiek horrela ere esan baitaitezke:

(272) Esan diot bada

(273) Norbaitek esan dio bada

Eta (200)eko 'Bada ez digu ezer esan' batek baino gehiagok pentsa lezake horrela ere eman daitekeela:

(274) Ez digu, bada, ezer esan

Baina honek, hark ez bezala, mesfidantza adierazten du eta honen parekoa da: 'Nolatan ez digu bada ezer esan!'

5.4. Hortaz

5.4.1. Forma eta balioa

Hona, beraz bezala, instrumentu kasu-markaz dohaturiko izenordea, ondoriozko lokailu-funtzioak betetzeko erabiltzen duguna. Erroa, bestalde, esan gabe doa erakusleatarik bigarrenarena dela.

Adibideak ez dira ugari hizkera idatzian, mintzatuan aski erabilia den arren, zenbait lekutan bederen. Ez dirudi oso zabaldua dagoenik; nekez aurkituko da gipuzkeraz ari ez den inoren idazlanean. Gipuzkeraz ere, literaturan behintzat, exenpluak ez dira batere zaharrak: mende honetakoak, eta are getra ondokoak.

Beraz, ahozko hizkeran da erabiliena, eta Gipuzkoan; hor ere osoan ez, ordea, dirudienez.

5.4.2. Perpausean duen lekua

Perpausean zein leku dagokion esenpluek erakusten digute: edozein, hasiera, erdia eta azkena. Esate baterako, hasieran dugu ondokoetan:

- (275) Leitzarrak asi dira: 'gurea gorago'; ortaz, sartu bear dik aizkora barnago (Orixe, *Euskaldunak*, 148)
- (276) Gurasuari ikasia da,
ez degu ezer osturik,
ortaz euskeraz ikasitzen guk
ez degu egin kasturik (Uztapide, *Sasoi joan dan gero*, 219)
- (277) Eder ez dana, ez da nai ta nai ez itsusi; on ez dana ere ez da nai ta nai ez gaizto;
ortaz, edertasuna ez Jainko, ez baita eder eta zori oneko (J. Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 153)
- (278) Asiera duk polita; ortaz, asi gaitzen alik eta geienetan (Txillardeggi, *Leturiaren egunkari ezkutua*, 85)
- (279) ... munduaren guzitasuna batera argitzeko, ziztriflegia. Ortaz, zer ari naiz ni, ero au, argizagi bat eskuan oian izugarrian billaka? (Txillardeggi, *Leturiaren egunkari ezkutua*, 134)
- (280) Dantzan eta dantza ondoan beji galtza tartean ibiltzen omen duk eta (...). -Ortaz, etzaio senargai aukerarik faltako, ekin zion maltzurki Allandek (Y. Etxaide, *Joanak joan*, 54)

Perpausaren barnean ere aurki daiteke:

- (281) Jainkotzat artzen bide gaitu lenengoak; sorkaritzat, ordea, bigarrenak. Au dago,
ortaz, bestea baño sustraizko egiatik bertago (Txillardeggi, *Leturiaren egunkari ezkutua*, 137)
- (282) Bide bakoitzak bere bide-muga du. Nork garamaizizke, ortaz, egiazko gure elburura? (Txillardeggi, *Leturiaren egunkari ezkutua*, 125)

Perpausaren bukaeran —hobe litzateke esatea, ez hasieran— hortaz dutenak ere bildu ditugu:

- (283) Horrenbesterekin esan dut ez dudala Oihenart poeta bezala gutxietsi nahi. Egiazko poeta dugu hortaz? (K. Mixelena, *Mixelenaren idazlan hautatuak*, 239)
- (284) Zertan da handi? Libururik gehienak nobelak ditu. Novelagile handi dugu hortaz? (K. Mixelena, *Mixelenaren idazlan hautatuak*, 271)
- (285) Kritikorik sonatuenak maiz egin izan dute kolpe huts, obrarik bikainenak txarreisiz eta txepelenak gorai patuz. —Zorrotza behar kritikak, hortaz? (K. Mixelena, *Mixelenaren idazlan hautatuak* 137)
- (286) Eta geratzen bada, bereala uzatuko du gelditasunari darraikona: ibilli egin bear da, ortaz, aurreratu egin bear da... (Txillardegi, *Leturiaren egunkari ezkutua*, 120)

5.4.3. 'Hortaz bada'

Ondoriozko lokailu hauen 2.3. puntuan 'beraz + modu-aditzondo erakuslea' deitu dugunean aztertu ditugunak bezalaxe lokailu konposatua da hortaz bada, elkar indartzen duten bi ondoriozko lokailu elkartzuz sortua.

- (287) Gañera, langileek aritu bearra zuten beren soldata eguberriko sari berexi batekin. Ortaz bada, goiz guziaz igaro zuten lan hortan (M. Izeta, *Dirua galgarri*, 95)

5.5. Orduan

5.5.1. Forma eta balioa

Formari eta jatorriari bagagozkie, izen arrunt bat dugu hori inesibo kasuan. Jakina da gero denborazko aditzondoa izatera luzatu zela ('orduan(txe) ezagutu nuen'), eta gero, ez oso aspaldi literaturan bederen, lokailu eginbideetarako gaitu zuela egunoroko hizkerak, ahozkoak batez ere eta erro handiak egin, gainerako lokailuei lur handia jateraino.

Hitz horren hiru balio horiek zenbait perpausetan ez da batere erraza bereizten eta zeinetan ari den erabakitzen: sintagma arrunta da, ala aditzondo denborazkoa, ala lokailua? Honako honetan, adibidez:

- (288) Orduan bost kilometro ibili zen

Hiru balioak datozkio ongi:

a. ordubetea bost kilometro ...

b. harako egun hartan ...

c. beraz bost kilometro ...

Testuinguruak eta ahozko hizkeran gehien erabiltzen baita, horrek dituen lagungarri guzietan: entonazioak, ahoskerak, imintzioek, eta abarrek argitzen du aldian-aldian zein den benetako esanahia.

Lokailu dena da guri hemen dagokiguna. Hegoaldean bezain zabaldua dago gutxi gorabehera ifarraldean. Han eta hemen, halere, literaturan baino egunoroko hizkeran eta hizkera horren ispilu izan nahi duten liburuetan gehiago. Baina han bezala hemen, ez oso aspaldidanik, literaturan bedere. Egunoroko hizkeran noiznahi entzuten dira honako hauek:

(289) Orduan, zer?

(290) Zer ari zara, orduan, martarran?

(291) Ez esan orduan, zeuk egin duzula

(292) Zuk ere ez dakizu, orduan?

(293) Orduan, hobe duzu ohean jarraitu

5.5.2. Perpausean duen lekua

Perpausean hartzen duen lekuari dagokionez, esenplu horiek eta liburuetatik harturiko beste hauek garbi erakusten digute lokailu mugikorra dela hau ere, leku bat zein bestea hartzen baitu aisira. Hona lehenik zenbait adibide orduan hasieran dutenak:

(294) -Mundakatik ureko baso-erxe batekoa

-Orduan jakingoaz baserriko arazoak? (J.M. Echeita, *Josecho*, 307)

(295) -Derriorean dator.

-Orduan ez tet itzegin nai (A. Barriola, *Goi-argi*, 51)

- (296) Perretxiku benenozuak jaten dituzuela? Itzekuak ba'ituzozak ez intzake oin nerekin berbetan jardungo.
Jentziak urdifiak, urritzak, kuletruak eta beste olako bost edo sei klase kendu ezkeru, beste guztiak benenozotzat jaukaz, da obe juck olan jarraitu; bitartian guk, aze tripakada eingo ditugun
Orduan dana eztok gizurra (J. San Martin, *Zirikadak*, 62)
- (297) -Bana errak, Erramun, harat yoaitian artzaingorat ez hiena aitzinetik hitzartu mutilgoa nausi batekin?
-Ez, Ellande, ez; itsuka yuan nindukan, asto bat larre agorturat yuaiten den bezala alatzeko menturan (...)
-Ordian egun latzak pasu dituk debru Ameriketa hortan? (E. Zubiri, 'Lanak', *Nafarroako euskal idazlariak*, 50)

Baina horiek adina dira **orduan** perpaus barnean dutenak, eta ez nahitaez galdezkoak direlako, bestelakoek ere hantxe baitaramate. Ikus:

- (298) -Menditarte baten sartu arren mendiyen beste aldetik ikusi; baita atxulo baten sartuta be, baita, al balitz, itxasorik sakonenaren ondarrian yarrita be, tramankuluak argiro ikusiko leuke.
-Berorregaz orduan, ezta gauza ezkuturik munduan izango. (Kirikiño, *Abarrak II*, 135)
- (299) -Berez motela bada, eskolia gora-bera, beti motela.
-Zuk difozonetik eskolia yakitiak eztauko orduan alako alde on andirik (Kirikiño, *Abarrak II*, 81)
- (300) -Argintzan baño eskien aloger askoz andiyagua ataraten neban [...], ta neure buruai esan neutson (...) ez izateko astua, ta eskien yarraitzeko; ordurako lotsak be botata neukezan-eta.
-Ederto ataratozu orduan (Kirikiño, *Abarrak II*, 61)
- (301) -Nork galerazten dizu?
-Galerazi inork ez, bafia ire gogozko dala entzun nai diat.
-Bai gizona bai.
-Iretzat orduan (Bariola, *Goi-argi*, 50)
- (302) -Aberastasuna. Askotan kaltegarria. Bear ez diran maitasunak eta griffak errazten ditulako.
-Nola sortu orduan egizko maitasuna? (A. Bariola, *Goi-argi*, 26)
- (303) -Zuk badakizu ontsa bizkitartean.
-Nik ba,

-Ama da, orduan, ez dakikena (J. Echepearé, *Beribitez*, 31)

(304) -Zer munta du gero, nik badezakel hek ez dezaketena?

-Zato orduan, eta berehala; banoa erregeren biha (J. Barbier, *Ipuinak*, 134)

5.5.3. Juntagailuen indargarri

Beste hainbat lokailuren azterketan ikusi dugun bezala, **orduan** ager daiteke juntagailu batek gauzatzen duen bi perpausen arteko lotura indartuaz, juntadura horri nabarduraren bat erantsiz. Ondoko perpausetan baina juntagailuaren ondoan doa aztergai dugun lokailua:

(305) -Eta nola deitzen zinen munduan, ez baniz ausartegi?

-Haurmaite

-Bainan orduan, eskualduna zira, eta ezagutzen zaitut segurki (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 15)

(306) Nik soldaruzkari iges egingo nioké, itxuak lagunduko lidake, **bañan**, orduan, betiko aldendu bearko genduke (T. Alzaga, *Ramuntxo*, 51)

(307) -Lurrean ezta batere gudarik biar, guda-gizonak alper-gizonak dira.

Eibartarrak: -Ederto jak, **baña** orduan gure armak nun salduko jituagu? (D. de Aguirre: *Garaa*, 354)

Egia da azken bi adibideetan batez ere **orduan** anbigua dela, lokailu nahiz adberbiotzat har daitekeela berez, 'une hartan' edo antzeko adieran alegia. Hala ere, guztietan lokailu balioa nagusitzen dela esango genuke.

Bada lokailuarekin batera ere aurkitu dugu, biek elkar indartzen dutela:

(308) -Ez, ez, nire dirurik eztoz ikusiko

-**Orduan** zelan juango naz ba? (Kirikiño, *Abarrak*, 111)

(309) -Bestiorrek, begiratuta esan zetsan: eztoz parren txixarik eiten.

-Ezeiz? Da ori zaratorri zerena dok **pa orduan**? (J. San Martín, *Zirikadak*, 75)

Biak galderazko perpausak dira; lehenak, halere, **orduan** hasieran ageri du eta **ba(da)** bukaeran; bigarrenak, aldiz, biak bukaeran.

5.6. Honenbestez, Horrenbestez, Hainbestez

Lokailu hauen formaz den bezainbatean, aski da esatea hiru izenorde erakusleen singularreko genitiboaren (honen-,horren-, (haren >) hain-) kasuak direla lehen osagaia. Bigarrena, aldiz, beste- ezaguna, kasu instrumentalaren markaz horniturik. Ager daiteke, halere, kasu komitatiboaren markaz ere; hots, **honenbesterekin, hainbestenarekin** eta abar:

- (310) Egun berean bost minut eman zituen eta **hainbestenarekin** ahotsik gabe geratu zen.
- (311) -Nerekin dituzte gizon horiek beren egitekoak, neronek ikusiko dut zer galdetzen darotdaten.

Hainbertzenarekin joan zitzaizoten beren artera, eta bere mintzo eztiarekin galdetu zioten zer gaizki egin zioten bada harren hil izateko: eta hori bera aski izatu zen (B. Joannateguy, *Sainduen Bicitzea*, 167)

- (312) Paganoek etsitu zuten noizpeit martir sainduaren erretzen ikustea. Orduan burrego batek, iganik egur metaren gainera, sarthu zion ezpata bihotzean. Eta **hainbertzenarekin** haren arima saindua hegaldakatu zen Jesus jaunaren besoetart (B. Joannateguy, *Sainduen Bicitzea*, 161)
- (313) Aldeko ihurrian xurga xurga edanik, badut uste lo kuluxka bat ere egina nuela, noiz eta ere iruditu baitzitzautan, burrunba mutu ilhun bat, urrun urrundik heldu, entzuten nuela. Xutitu nintzen, eta, **hainbertzenarekin**, burrunba sumatu nuen nere ganik hurbilago (J. Barbier, *Ipuinak*, 148)

Hori bakarrik ez; **-beste-** gabe izan daiteke bigarren osagaia **-bat** eta ifarraldean horrelakoak, **-beste** dutenak baino erabiliagoak dira; alegia, **hunenbat, horrenbat, hanbat**. Azken hau komitatibo kasuan, **hanbateki**, da ifarraldeko autore zaharrek gehiena erabiltzen zutena, zuberotarrek bederen. Lokailu zaharra eta halatan-ekin batera zubereraz (Tartasen hizkeraz, esate baterako) ondoriozko lokailu bakarra ia-ia, **beraz** ez bait du erabiltzen eta bada oso gutxi:

- (314) Laur puntu hoiak akaba artian ezitrozuz entzun bertze izenik bekhatoria eta adeskidia baizi. Egin ezazu possiblê bada zurê profetia libru honian ikusiren edo entzunen duzun konseillu hunez (Tartas, *Onsa hiltceco bidia*, 59)

- (315) Oruk erraiten zioten (...) immortal zela (...); **hanbateki**, herioa baitzen bertze gizon ororen gehien eta iaun, bere armak haren kontre galtzen zütiala, hura zela gizonen erregia eta herioaren nabusia eta iauna (Tartas, *Onsa hiltceco bidia*, 61)
- (316) Gure bekhaiak (...) garbi eta xuri gertatzen baitira (...). Eta halatan deabruak ordu hartan eztu eskhuric ez zuzenik bekhaturik ezten lekhuau. **Hanbateki** arma hura lenkoaren da ... (Tartas, *Onsa hiltceco bidia*, 71)
- (317) Paganoak eztaki iaunaren borondatia eta debetia, eta guk bai. **Hanbateki** gehiago bekhatu egiten dugu. (Tartas, *Onsa hiltceco bidia*, 79)
- (318) Segur da (...) bekhatian iossirik eta obstinaturik egoiten gireiflo (...) deabru eta demonio girela (...). **Hanbateki** bekhatian harriturik perseberatzen duguino demonio gira, deabru gira (Tartas, *Onsa hiltceco bidia*, 83)
- (319) Ikulluko zekorrik ez da zergatik il; zerri il berria neskek labean atzo opil: onenbestez badute gosea nola isil (Orixe, *Euskaldunak*, 145)
- (320) Zure astuari belarriak moztu ixan ba'dautsoz be, eztau beretzai zurerik ezer gura ta atzera bigurizen dautsuz belarrijok. Onenbestez auzija amatuta legoke beraz (Oxolua, *Bertolda'ren...*, 177)
- (321) -Zer dan eztakidana, ortea, nola jakin dezaket nolakoa dan? -Demagun: Menon ezagutzen eztuenak, ezta nor danik ere eztakienak, eder, aberats eta aitor seme danentz jakin ote dezake? Honenbestez, auxe esan dezakegu: arpegiz-arpegi norbait ezagutzen dugunez, alakoxeak lirake onbera, zuzena ta ederra ezagutzea (J. Zaitegi, *Platon'eneka atarian*, 100)
- (322) Beste guztiak horrela egitea badaiteke, baina guk, hemen gaudenok, ez. Haiak baino askozaz kaxkarragoak garelakoan gaude eta horrenbestez hobeengandik eginahalean ikastera beharua (K. Mitxelena, *Mitzelenaren idazlan hauatuak*, 140)
- (323) Semea lainezaz betetzen duen gurasoak, galbidean jartzen du maiz asko: gorroto ote du horrenbestez? (K. Mitxelena, *Mitzelenaren idazlan hauatuak*, 269)

Ia gainerako lokailu guztiak bezala, berez, jatorriz, adberbio dira; baina, besteak legez, perpausean (mintzagaiaren atalen baten ondoren) hartzen duten lekuagatik, aurretik esanarekiko duten anafora balioagatik... lokailu bihurtu dira. Areago, hauek, lokailu bihurtzen diren beste aditzondo asko ez bezala, ezin dira inoiz galdegai izan; ezinezkoa da **hunibat** edo **horrenbestez** galdegaiaren lekuan ezartzea.

5.7. Halatan, Hala

Jatorriz, **halatan** lokailua **hala** moduzko adberbioaren forma luzatua, indartua baizik ez da, **nolatan** galdezkoari zuzen zuzen dagokiona. Horren kidea, lehen mailako erakusletik sortua, gorago ikusi dugu **beraz hunelatan** lokailu konposatu ondoriozkoa osatuz. Ez da harritzekoa, hortaz, orain **halatan** aurkitzea balio berarekin eta bi modutara gainera: **beraz** lokailua indartuz ez ezik (ikus 2.3. puntua), bakarrik ere bai. Honetan desberdintzen da **hunelatan**-etik; honek ezin bait du berak bakarrik lokailua osatu, **beraz**-i lagunduaz azaldu behar du.

Halatan bera bakarrik lokailu balioan batez ere zubereraz aurkitzen dugula dirudi, euskalki horretan **beraz**-en arrastorik ez baita ageri, lehengo mendeetan bederen. Horren lekua edo hutsunea betetzen bide du **halatan** delako honek:

- (324) Onsa biziren denak eta onsa hilen, behar du zuhur izan (...) eta iagoiti gizona ez emaztia ezira zuhur (...) ezpadut herioa gogoan. **Halatan** onsa bizi eta onsa hil nahi denak hauta beza (...) herio bere bihotzean ... (Tartas, *Onsa hiltceco bidia*, 67)
- (325) Sathan hasten da ordian gisa huntan Ienkoari minzaitzen: "Ienko handia (...). **Halatan** arima gaixoak Ienkoa (...) galdurik ifemu bamera bear du ioan (Tartas, *Onsa hiltceco bidia*, 69)
- (326) Plumak iskiribatzen nien gauzak mendez mende diraute, eta behi dira mintzo (...). Baina hitzak fite iragaiten, eta ahanzten dira (...). **Halatan** predikaria mintzo deino, haren predikua ere bizi da (J. Etcheberri (Sarakoa), *Obras vascongadas*, 151)

Azken adibide honetan nabarmena da **beraz**-en pare-pareko balioa duela **halatan**-ek (ikus 5.2.1. puntuan **beraz** lokailuaren balioaz genioena).

Eman ditugun adibideetan, bestalde, **halatan** lokailu balioan erabiltzen den ala jatorrizko aditzondo balioa gordetzen duen zalantzak sor dakizkiguke; baina orohar guztietan lokailutzat har daitekeela iruditu zaigu.

Juntagailua indartuz ere ager daiteke:

- (327) Gure bekhaiak (...) garbi eta xuri gertatzen baitira (...). **Eta halatan** deabruak ordu hartan ezin eskhuric ez zuzenik bekhatuik ezten lekhuari. Hanbateki arima hura lenkoaren da ... (Tartas, *Onsa hiltseco bidia*, 71)
- (328) Hala bada guk ere geure bekhatuak kofesatzen ditugunean, behar dugu geure gogoia, eta bihotza, intenzione gaixto guztietarik alde guztiz hutsu, xulkatu, garbitu; **eta halatan**, ura egotu den untzia bezala, bat ere hondarririk, kutsurik, eta bekhatuaren usainik, eta urrinik gabe gelditu (P. de Axular, *Guero*, 342)
- (329) Ordea beldur naiz, bata baino, bertzea lehenago izendatzeaz, huts egin dezadan zerenetariak behar bada zenbaitetik usteko baitute bat bederaren merezimenduen eredura herronka hau moldatu dukedala; ordea hau dateke gauza bat zeinetan nik ezagutzarik hartu nahi izatu ezlukedana, **eta halatan**, ahalaz entsejatuko naiz bat-bedera bere adineko edo mendeko herronkaren eredura izendatzera (J. Etcheberri (Sarakoa), *Obras Vascongadas*, 117)
- (330) Maiz zure probidentziari laket zaio osoki kontrarioak diruditen inoien batzuen bidez bere xedaterat helzea. Hala, nahi bezanbat espantagarriak diren arren ene gafean dituzun desefluak, heien adoratzeari kontent izanen naiz (A. Mihura, *Andredena Mariaren Imitacionea*, 105)
- (331) Jende guriak eta bere sentsuen esklabo direnek lakhet ohi dute floka bat aitzinean erabiltzea, haren urrin onaren atsegina maiz hartzeko (...). Hala, aphalesguneaz edo umiltasunaz egin bada meditazionea, hauxe har diteke flokatzat: Jesus bihotz-ezti ta aphaigura, egizu nerea zurearen iduriko (M. Duhalde, *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, 104)
- (332) -Bainan, jaun errotera, erranen dautazuia, zer duen ene senharrak holako afera poliza horrekin?
-Hori berek dakite.
-Hala, ene senharrak gorde dautu zerbait? (P. Larzabal, *Senperen gertatua*, 130)

6. KAUSAZKOAK

6.0. Sarrera

Kausazko lokailuak aztertuko ditugu hurrengo orrialdeetan. Harrigarri gerta lekiok norbaiti nolatan duela berrehun urte, hegoaldean eta literaturan bederen, oso erabiliak ziren batzu -hala nola, **alabaina**, **bada**- egungo egunean, zeinen gutxi ezagutzen dituen. Beste bat, **berriz**, **zergatik**, -bizkaieraz, **zegaitik** (**ze**)- bizi-bizirik dago oraindik hegoaldeko hiztunen artean, baina idazleek muzin egin diote, **zeren**-i lehentasuna ez ezik bakartasuna emanik.

Kausa izen orokorraren pean filosofiarekin zer ikusi gutxi duten arrazoi, motibo, aitzakia, estakuru, esplikazio eta abar direnak sartu ohi dira. Hitz gutxitan esateko, nola edo hala **zergatik**, **nolatan**, **zer dela-eta**, eta abarrei erantzuten dion perpausak sarritan lokailu batez hasten dira. Hauei deituko diegu kausa-lokailu.

Zer esanik ez, menderakuntzaren sailean agertuko zaizkigula galdera horri erantzuteko molderik gehienak. Horiek ez dagozkigu hemen eta orain; horietan menderagailuak agertuko dira eta gu hemen lokailuez ari gara.

Gero esango dugun bezala bakoitzaz ihardutean **zeren** (edo **zerren**) euskalki guzietakoa izan zen, guzietan erabilia; besteak, aldiz, hegoaldean bakarrik; **bada** eta **alabaina** ere bai, kausazko balioz.

6.1. Zeren

6.1.1. Forma eta balioa

Jatorriari dagokionez ez da dudarik: **Zer** galde hitzaren genitiboa da, eta hala da oraindik Etxeparegan; hona esanplu bat:

- (1) Zeren bada erho gira gaixo bekhataria? (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 97)

Alde horretatik ez du juntagailu nahiz lokailu izateko zergatikek baino eskubide gutxiago ez gehiago; bata bezain galde-hitza da bestea ere jatorriz, alegia hitz azentuduna: **Zerén**. Azentua galdurik, erlatibo bezala jokatzera pasa zen gero. Ikus Etxepareren bertso hauek:

- (2) Eztut egin gaizkirik ukheitako perilik, ezclare zeren garik behar dudan auzirik (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 181)

Lokailu eta juntagailu izatera ere iritsi da, atono gisa noski.

Iparraldean betidanik bizirik egon da, nolazpait esateko, eta orain ere hala dago literaturan nahiz aho hizkeran. Hegoaldeari gagozkiola ezin esan dezakegu gauza bera. Ehun urtez edo literaturan ia batere erabiltzen ez zelarik, euskara batuarekin batera hasi zen berriz indarra hartzen. Berriz diogu, zeren Gipuzkoan eta Bizkaian bederen XVIII. eta XIX. mendeetan bizi-bizirik egon baitzen, ia idazle guztiek zerren forma erabiltzen zutelarik. Azken urteotan goraldi handia egin du eta iparraldeko forma zeren noiznahi irakurtzen eta entzuten da, ia guztiz errankide diren zergatik, bada, ezen.... bizkaierazko ze eta besteren baten kaltetan.

Gehienetan menderagailu gisa erabiltzen da, eta orduan bait- aurrizkia nahiz -en atzizkia hartzen ditu adizkiak. Hemen lokailu soila deneko erabilera aztertuko dugu.

Batzutan nahitaez gertatzen da zeren lokailu; hala nola zeren horrek gobernatzen duen adizkia -perpaus nagusiaren zergatikoa adierazten duenat estuan aipamen gisa sartzen diren norbaiten hitzen artean aurkitzen denean eta hainbestez adizkian eraginik gabe gelditzen. Adibidez:

- (3) Hori horrela da, zeren aitak dioen bezala: "Nik dut beti arrazoiá"

Hor zeren-i dagokion aditza *du* litzateke teorikoki, baina aipamen ezin aldatuzko batekoa baita, ez du harengan batere eraginik. Hor zeren perpausetik kanpo dagoen zerbait da.

Horren antzekoa da Axularren hau:

- (4) ..peril du... arropa forraturik beharko ez tuen. Zeren Klimako sailduak dioen bezala, balentia handia da egunean eguneko deskarguaren egilea (P. de Axular, *Guero*, 124)

Hori are garbiago ikusten da aipamena beste hizkuntza batean eginan denean:

- (5) Zabilta eme, zeren *No es oro todo lo que reluce*

- (6) Hori ez da harrizkoa, zeren *Quid prodest homini*

Axularrek horrelako esenplu piloa du:

- (7) Zerbizariak alfer egoitez beraz, gaizkirik ez eginagatik ere, merezi du gaztigu. Zeren San Krisostomok dioen bezala "*Nihil boni...*" (P. de Axular, *Guero*, 24)

Gauza bertsua gertatzen da aipamena gabe galdezko perpausa txertatzen denean zeren-en ondoren:

- (8) Erhoa deitzen du aberats hura eta arrazoitekin. Zeren, zer da erhokeria handiagorik, geroko denboraz, bertzeren eskuan eta benturaz dagoenaz, bere eskuan eta segurean bailu bezala ordenatzea baiño? (P. de Axular, *Guero*, 50)

- (9)... nai lukete bera ikusi eta berarekin ahoz-ahoz itzegin, egia berari esateko, zeren zergatik itzelen ditu aur gaixoak?. (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak, I Jainkoa*;18.)

- (10) ... asko adirazi nai du, gure ustez, egunkariaren utsuneak, Leturia idazteko iankeran etzegoela esan nai ba-du noski, zeren, nor idazten du? (Txillardegia, *Leturiaren egunkari ezkutua*, 73)

Bestetan ordea, batere agiriko arrazoirik gabe, ez baitirudite **bait-** edo **-en** hartzen duten perpausetatik oso desberdin, zeren-ek gobernatzen duen adizkia biluzi agertzen da inongo aipamenik edo galdezko perpausik gabe. Ikus, beste askoren artean, Axularren pasarte luze hau, zeinek horrelako bi zeren baititu bere baitan:

- (11) Beldur naiz zerbaitetan huts egin dudan eta lehendanik gaixatu naizen, zeren iende gaixto batzuek, lehen nitzaz gaizki erraiten zutenek, erraiten omen dute orai ongi, zein baita scinale gaixtoa, zeren halakoek ez ohi dute erraiten ongirik, gaixtoez eta gaixakeriez baizen (P. de Axular, *Guero*, 291)

Honelako esenpluak nahi adina aurki daitezke:

- (12) Irugarren ondorena izan oi da eriotza gaiztoa; zeren, edo batetan ilko da onela bizi dana, edo prestera txararekin. (J.B. Aguirre, *Eracusaldia* III, 492)
- (13)... lagun zadazute eliza au bukatzen, zeren, emendik denbora gutxira, emen bizi biar dute dama pobretxo batzuek,...(C. Beovide, *Asis'ko loria*, 54)
- (14) Dohatsu dira presuna emeak eta mansoak, zeren halakoek lurra gozatu dute (E. Materre, *Doctrina Christiana*, 157)
- (15) Dohatsu dira bihotzez garbi direnak, zeren ikusiko dute Iainkoa (E. Materre, *Doctrina Christiana*, 159)
- (16) Harma haukin ni ezin higi naiteke, zeren ez naiz usatua. (P. de Axular, *Guero*, 61)
- (17) Minza zaite, Jauna, zeren zure zerbitzaria dago enzun nahiz (S. Pourveau, *Imitacionea*, 116)

Inoiz balirudike hori gertatzen dela zeren-en eta hark gobernatzen duen adizkia aurkitzen den perpausaren artean beste mendeko perpausen bat txertatu delako; eta askotan hala da, baina ez beti, ez eta hurrik eman ere. Hona ezer tartekatu ez den zenbait esenplu, non, halaz ere, adizkiak ez baitu aurritzirik ez atzizirik hartu:

- (18) Neure obligazio handiek ezterantate utziten zutzaz orhoitzapen egin gabe, liburutu hunen, kanporat aheratzeko ausartziaren hartzera. Zeren iduritzen zait ezen orafio bizi zarela (P. de Axular, *Guero*, 1)
- (19) Aizitik badirudi ezen Etxausko etxearen arropa gorriaz bestitzeko bidetan izan zarela. Zeren ezla ezlakienik ezen erregok hartarokotzat hautatu eta izendatu zinituela (P. de Axular, *Guero*, 4)
- (20) Bada eskiribatzeaz denaz bezan batean eznaiz egiteko gabe. Zeren bada hunetan ere diferentzia. (P. de Axular, *Guero*, 9)
- (21) Hunetzaz kontent ezpazara egizu zeuk zeure moldera... Zeren ez naiz ni hargatik bekhaiztuko... (P. de Axular, *Guero*, 10)

Zeren-ek horrelakoetan **bait-** ez **-en** zergatik hartzen ez duen eta hurrengo liburuan aztertuko dirugunetan zergatik bai, eta beren artean zertan bereizten diren **-batez** ere **bait-** eta **-en** hartzen dutenak- ez da hemen ikertzeko gaia.

Lokailu izatearen ezaugarri bat bezala eman dugu hark aurrean eta ondoan dituen testu zatiek perpausa ez osatzea, bestela esan, bi perpaus zati baino gehiago bi solas zati elkartzea edo batzea. Lokailu delako hori puntu eta apartearen ondoren ere aurkitzen ahal da.

- (22) ... Gureak dira faltak. Zeren San Augustinek dioen bezala: Numquam prius... (P. de Axular, *Guero*, 70)
- (23) ... Eta arrazoinekin dirudi hala. Zeren ezpaita bertze munduan izanen gaixtoentzat miseriakordiarik. Miseriakordios da Jainkoa, baiña... (P. de Axular, *Guero*, 92)
- (24) ... iustiziak ere gaixtoei ifernua emaiten derauela. Zeren Jainkoa den bihotz bera eta miseriakordios, ezta ez hunetarik hartu behar okhasinorik... (P. de Axular, *Guero*, 94)

Lehena gorago aipatu dugun esenplu berbera da, latinezko hitzei zabaltzen baitie hor **zeren-ek** bidea. Hirugarrenean menderagailua da, batetik, adizkiak **-en** hartu baitu. Bigarrenean ere menderagailua da, adizkiak **bait-** hartu duenez gero. Beraz, **zeren** beti bigarren perpausaren hasieran agertuko da, batzutan lokailu eta bestetan menderagailu delarik.

6.1.2. Beste lokailuekin batera

Gauza jakina da autore batzuk (ez Axularrek) **eta-**ren bidez indartzen dutela **zeren**. Bada, gutxitan baina inoiz bai, aurki daiteke **zeren eta** horren adizkia ere **bait-** eta **-en** gabe. Hala nola,

- (25) .. ageri da Doniane Garaziko auzokoa dela, zeren eta bere pertsuetan ibiltzen du, ez dizit, aru nizin, ez dut, aru nien, ordez. (E. Zubiri, "Lanak", *Nafarroako euskal idazlariak*, 19).
- (26) Lana goiz-goizik asirik, bazkal aintzineko... bukatzen dute, othordu berant eginikan ere, zeren eta atsaldeko ez dute sekula uzi nahi lan hori... (E. Zubiri, "Lanak", *Nafarroako euskal idazlariak*, 97)

- (27) Ematen zaigun bizia oso goitarra... ez izatea, ori ez litzake arritzekoa, zeren eta inork ez-tigu ezer zor.. (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak, I. Jainkoa* 124)

Harrigarriago dena: Elkanoko Lizarragagan bada pasarterik, non zeren agertzen baita ezi-z (ezi ez da ezen-en bariante bat baizik) indarturik eta adizkia gainera soilik duelarik . Ikus:

- (28) Ezauntzean sarzen dá amátzea ta zerbitzátzea ere, zerén ezi impossible dá ezaunduasgéros Jaungoikoa ez amátzea ta ez zerbitzátzea (J. Lizarraga, *Doctrina Christioaren Catechismo*, 46)
- (29) Zer ere erremedio eman baitut sabeltasunarentzat, baliatuko zarete uxadarentzat, zeren ezen biak bat bezala egiten baitire" (M. Dassança, *Laborarien abisua*, 587)

6.2. Zergatik

6.2.1. Forma eta balioa

Jatorria bistan dago: -gatik kasu marka itsatsia duen galde hitza da. Beraz, jatorriz galderetan bakarrik erabiltzen zen, gaur oraindik erabiltzen dugun bezalaxe:

- (30) Zergatik ez zara etorri?

Hor, zer esanik ez, tonikoa da: zergátik. Gero azentua galdurik, ordea, zeren bezalaxe lokailu izateko gaitu zen, beste hizkuntzetan gertatu zen bezalaxe; galde hitzetatik datoz, izan ere, lokailu asko hizkuntza askotan.

Batez ere hegoaldeko literaturan agertzen dela esan daiteke, aipatuko ditugun adibideetan ikusiko denez. Horrez gain, hegoaldean berean ere -eta konkretuki Gipuzkoan- ez dirudi osoro zabaldua zegoenik eta nonahi erabiltzen zenik XVIIIgarren mendearen hasieran; bada Ochoa de Arin ordiziarrak (1713) ez darabil eta Juan de Irazusta hernialdetarrak (1739) bai. Bizkaian mende honetako idazle batengan aurkitu dugu, Echeitagan. Nafarroan Elkanoko Lizarragak usu darabil.

Balioari dihoakionez zeren-en arras errankide da eta bata erabil daitekeen oro erabil daiteke bestea. Izan ere biak dira lokailu izateaz gainera menderagailu; badute haatik alde txiki bat: zergatik menderagailu denean

adizkiak **-en** atzizkia hartzen du **bait-** aurrizkia baino areago. Eta arrazoia aski ximplea da: hegoaldeko idazle askok, horien artean gipuzkoar klasikoek, Larramendi eta Kardaberaz barne (bai eta Mendiburu, nahiz hizkeraz gipuzkoarra ez den), ez dute inoiz erabiltzen **bait-**, ez bakarrik ("...berandu etorri baita") ez beste menderagailuren bat indartuz. Hortaz, zergatik-ekin nekez agertu ahalko da **bait-** aurrizkia idazle hauetan. Hona hemen, dena den, bateko eta besteko adibide bana:

- (31) Eztút escrivitu zergátik dauden óngi alá, baizik zergatik obe den, naiz ala, ezi baterez. (J. Lizarraga, *Doctrina Christioaren Catechima*, 29)
- (32) Zoaz ene ganik, Satana, skandala zaitut ník zu, zergatik ez baiduzu gusturik Jainkoaren gauzentzat... " (Math. XVI, 23) (J. Haraneder, *Testamentu berria* (oraindik argitaragabea))

Nolanahi ere, lokailu den **zergatik** da guri hemen axola diguna:

- (33) Jaungoikoak badu korputzaren figurarik...? Eztu Jaungoikoa dan partetik, **zergatik** da Espiritu purua...(J. de Irazusta, *Doctrina Christiana*, 5)
- (34) Jauna, zu aditzean beldur izan det ník, **zergatik** arkitzen naiz jantzi gabetanik. (J. de Irazusta, *Doctrina Christiana*, 220)
- (35) Zaitu bezate euren etxea eta ez auzokoa, **zergatik** inoren buruko minak astoak iltzen ditu (A. Apaolaza, *Paxiko Txerren*, 84)
- (36) Jaungoikuari kontu aundiyak eman biar dizkatzute zuben.-Bai? -Bai, **zergatik** zubenizat ez da gauza zuzenik izaten. (M. Soroa, *Baratzen*, 22)
- (37) Ai, noiz arkinuko naiz ní andre Joxepanian txokolatetxua artzen; **zergatik** jakin biar du, ní ez banaiz ezkondu, ez da faltatu zaizkitalako (M. Soroa, *Gabon. Au ostatuba*, 72)
- (38) .., baña artu bear dozu, zegaíttik laster ezkonduko iatzu etxean daukazun arrebea.. (J.M. Echeita, *Josecho*, 330)
- (39) ...arek egia esan dau, zegaíttik oraintxe-be ikusten nago (J.M. Echeita, *Josecho*, 183)

6.2.2. Tokia

Exenplu guztiotan ikusten denez, beti perpausaren buruan doa, batere salbuespenik gabe, eta adizkia soilik eta hutsik ageri da; **bait-** ez **-en** hartu gabe, alegia. Aurrizki-atzizki horietaz hornituak menderagailuak lirateke; beraz ez hetuen ikertzekoak. Eta, esan bezala, hegoaldekoak dira darabilten autore guztiak.

6.2.3. Beste lokailuekin batera

Zeren-en kasuan bezala, badira **zergatik ezen** erakusten duten adibideak, non **zergatik** lokailua indarturik agertzen baita eze partikulaz:

- (40) Arimako arerijuak pekaturako ziritatuen zaituzanian, mun eikijozu errosarijuaren garauai, edo Marijaren irudi bati: **zergatik eze**, ez da erraz pekatuan jaustia, Marijaren irudi edo errosarijo santuari gogotik mun egiten jakon une atan beratan (J.A. Uriarte, *Marijaren illa*, 29)
- (41) Ispilluak etzion ematen ainbeste satisfazio ere bere edertasunaz, baiña ematen zion best gauza batek, au da auzoko beste gazteen mormoretak, **zergatik eze**, bazeukakioten bere ikusi ezin puskatxua (P.M. Urruzuno, *Euskal Erritik zerura*, 90)
- (42) Etzera, bada, gaurgero Jakob deituko, ezpada Israel, aingeruak esan zion; **zergatik, ze**, baldin ain sendo eta irme Jainkoaren kontra eraso badezu, nola gizonak garaituko ezdituzu? (F.I. Lardizabal, *Testamentu zarreco ta berrico condaira*, 42)

6.3. Alabaina

6.3.1. Forma eta balioa

Aurretik esana dugu nola izan dezakeen balio esplikatiboa. Baina kausazko ere dei daiteke, eta are badira kausal-esplikatibo izendatzen dutenak ere. Berdin da. Hau da esan nahi dena: **alabaina-k** (eta kausazko diren lokailu guziek) osatzen duen perpausak aurreko perpausaren esana hala **zergatik** den ematen du aditzera, edo esplikatzen du. Iparraldeko idazle zaharretan eta berrietan, bai eta hegoaldekoetan, gauzak lehen nola ziren eta orain nola diren ere azaldu da han eta adibide batzu eman ere bai. Orain herren balio kausala duen **alabaina-z** bi hitz egitea dagokigu.

Han esan bezala, alabaina kausazkoaren esenplu zaharrenak hegoaldekoak dira eta hantxe aipatu da Larramendiren hura:

- (43) Ereille gaistoetan dago azaro txarra, eta gero uzta soila ta utsa. Alabañan gutxiak daki bere jayoterriko Euskeraren erdia (...) (M. Larramendi, *Carta a Mendiburu*, 279)

Azaro txarraren eta geroko uzta urriaren kausa euskara behar bezala ez jakitean datza, Laramendiren ustez. Horregatik diogu hor alabaina kausazkoa dela. Lasai ipin zitekeen horren orde zeren, ezen, zergatik, bada, izan ere.. etab.

6.3.2. Tokia

Baditu adibide horrek beste bi alderdi oso gogoan hartzekoak. Bat, puntua ezarri zuen Larramendik alabaina-ren aurrean; ez zen beharrik, ez du hor belarriak horrenbesteko geldiuonearen beharrik somatzen, eta hala puntu eta koma aurkituko dugu gero esenplurik gehienetan, eta are koma soila ere bai.

Bi, kausazko perpaus zatiaren hasieran kokatu zuen lokailua. Ez da hori beti eta nahitaez horrela; maiz ikusiko dugu barnean. Ikus ditzagun adibide batzu:

- (44) Etzen nihor arebitu haren hartzerat: etzen alabainan oraino ethorria berak bere burua etsaien eskutarat largatu nahiko zuen muga (B. Larreguy, *Testament çaharreco ta berrico historia*, 201)
- (45) Ikasi duenak, apezpiku Jaunagana joan behar due, ez du inork alabaña, ark baizik, Konfirmazioa emateko eskurik. (J.A. Ubillos, *Christau doctriñ berri-ecarlea*, 197)
- (46) Bafla biziera garbi hau ez da guzientzat egifta; da alabaña Jainkoak nai duanari ematen diona. (J.A. Ubillos, *Christau doctriñ berri-ecarlea*, 222).
- (47) Eldu ziran Belengo errira, eta etzuen arkitu non oflak sartu, horduko alabaña beteak zeuden ostatu ta etxe guziak. (J.A. Ubillos, *Christau doctriñ berri-ecarlea*, 62).
- (48) Gaizki dirudian gauza da au, batez ere emakume ezkonduetan; adizera ematen due ala baña ego-izez beteak dauzkeela goiak... (J.B. Aguirre, *Eracusaldia* I, 580).

- (49) Lege berria ez oi dira gertatu kastigu afi izugarriak, nola gertatzen ziran lege zarrean; lege berria ala baiña da amoriozkoa, ez beldurrezkoa. (J.B. Aguirre, *Eracusaldia* I, 430).
- (50) Bethi atsegin berri batekin entzuten zaitut gauza horren gainean. Hori da alabainan laborantza guziko erroa. (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 171).
- (51) Barne beltz hartan etzian ematen bere gorputzari doidoia bizirik egoteko behar zuena baizik. Etzuen alabainan egunean othuruntza bat baizik egiten.. (B. Joannateguy, *Sainduen bicitzea*, 40)
- (52) Emagun oraino, berak ez bezala bertzeak bizi ezin ikusiz, poxoluz nahi litzuketela kendu. Gaizki bizi denak ez dezake alabainan aldean ikus, ez jasan, ongi eta zuzenki bizi dena. (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 99)
- (53) Nik bezen ongi badakikezue, ardurenik mozkor ikusten direla eske dabilizan batzu; bertze deus egitekorik ez baitute alabainan, bil eia edan baizik. (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 203)
- (54) Erakustuna baduzu, ulia bezala; aldiz, ikasterik nehor kasik ez, edo guti. Gizon gazteak alabainan (...) nahiago hiri handia (J. Etchepare, *Buruchkak*, 48)
- (55) Baina ordu dugu apezaz mintzatzeko. Badut ustea, lehen-lehenik hortarik hastea nahiko ote zukeen berak. Apez zaukan alabaina oroz gaintetik bere burua. (E. Larre, *Euskera XXX*, 704)

Bigarren perpausaren buruan ere ager daiteke:

- (56) Eta zer egin du, horrela hiru hilabete preso iragaiteko? Alabainan gaixtaginak ezartzen dire preso (J. Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegi*, Gizon, 58)
- (57) Bearbada ezta egia izango; otsa ta gezurra ta irudipen bakarra izanen da: alabainan "de luengas tierras, luengas mentiras", esan nai du..." (Larramendi, argitaragabeko sermoi batean).

Bigarren perpausaren azken muturrean ere ageri da:

- (58) Ehen egunetan, haur guziak harritnak zagozin, zer demuntre zen muthico itsusi hura; soinekoen arteatik izigarrizko ile luzeak ageri zituen alabainan (J. Barbier, *Ipuinak*, 129)

Beraz, adibide guztiok erakusten diguten bezala, kausazko balioa duen **alabaina**,

- iparraldeko idazleek ere badarabilte (Larregi, Duvoisin, Joannateguy.), nahiz hegoaldekoek lehenxeago eta gehiago;

- gutxitan ezartzen zaio puntua aurrean, baina beste sinu diakritikoak ageri dira;

- gehienetan perpausaren barnean dago kokatua.

Azkenerako utzi dugu apropos Mendiburu. Hau da, beharbada, **alabaina** kausazkoa gehien darabilen idazlea. Darabiltenen artean beharbada zaharrena dugu, eta lokailu horren erabilpenean beharbada idazlerik erregularrena. Izan ere, perpausaren barnean kokatzen du, aurrean puntu eta koma ezartzen diolarik, kausazko balioaz erabiltzen du, gainera, beti, ez aurkaritzakoaz. Hona esenplu batzu milaren artean:

(59) Hau egiten duena ongi aterako da beste munduko tribunalean; ez du alabaña ara eramanen beldurrik... (S. Mendiburu, *Igandetarako irakurraldiak*, 364)

(60) ... emengo arzaia bere onagatik egiten ditu bere aranzako gauzak; egiten ditu alabaña ardiaren esneagatik... (S. Mendiburu, *Igandetarako irakurraldiak*, 311)

(61) ... ekusi zuena zen bere itxea alde batetik eta bestetik su egifia ta laster aus egifik gelditzeko bidetan sartua; zen alabaña arez, karez ta arriz ez, baizik olcz ta zurez egifia (S. Mendiburu, *Bederatziurrena*, 312)

6.4. Bada

6.4.1. Forma eta balioa

Honezaz aritu gara lehen, *ondoriozko* direlako lokailuetariko bat baita. Bada, haatik, kausazkoa ere, eta horrela deitzean, badakigu zer esan nahi dugun: **bada**-ren aurrean esana hala zergatik den adierazten duen partikula dela, alegia. Honako esaldi hauetan, esate baterako:

(62) Aspertu egin naiz, **bada** bakarririk utzi naute.

(63) Ez dut agurtu, **bada** ez dut ezagutu.

(64) Lehorte handia dago, **bada** aspaldian ez du euririk egin.

Horietan **bada**-k garbiro adierazten du zergatik bata aspertu den, zergatik besteak halakoa agurtu ez duen eta zergatik lehorte handia dagoen. Eta **bada** horien balioa eta honako beste hauena desberdina dela aski bistan dago, hauena ondoriozkoa baita:

(65) Aspertu egin naiz, **bada**; zer nahi duzu!

(66) Ez dut agurtu, **bada**; izorra dadila!

(67) Lehorte handia dago, **bada**; zuk nahi duzuna esango duzu!

Badira, halere, bi **bada** horiek bi diren dudan jartzen dutenak. Hala OEH-k aitortzen du batetik "...*actúa como relacionante entre frases (ilativa), como introductoria de explicativas,...*" -guk ondoriozko eta kausazko edo esplikaziozko deitzen ditugunak, alegia-, baina bestetik dio: "*En realidad, tanto el valor causal como el consecutivo que se le atribuyen carecen de base formal...*" (658)

Mitxelenak berak kausazko **bada** denik ukarzen duela irudi dakiokete norbaiti: "**bada** ¿puede ser causal? Desde el punto de vista vasco, parece claro que **bada**, beraz son partículas coordinativas como **baina**, **ordea**, ... Yo no veo que **bada** hori zure eskuan dago y beraz hori zure eskuan dago sean diferentes. (L. Villasante, *Sintaxis de la oración compuesta*, 156. , orripeko oharrean).

Azken hitz horiek argitzen digute Mitxelenaren hitzen zinezko esanahia; Villasantek zioenaren kontra Mitxelenak uste du, eta arrazoiz gainera, Axularren (398) hitz horietan —"**bada** hori zure eskuan dago"— (horietan eta ez beti eta nonahi), **bada** ondoriozkoa dela, ez kausazkoa (Villasantek berak "*Pues bien*" ondoriozkoaz itzuli zuen pasarte hori, hain zuzen), horrenbestez, **bada** beste perpaus batzutan kausazkoa izan daitekeela ukatzeko asmorik gabe. Baina pasarte horretan bakarrik ez, Axularren guztietan **bada** ondoriozkoa da, ez kausazkoa, gure ustez, piska bat aurrerago ikusiko dugunez.

Beste arrazoiak den bezainbatean, hots "*formazko oinarria*" falta omen dela bata ondoriozkoa eta bestea kausazkoa dela esateko, aitortu behar da alde zuzena

dela, ez baitio batak ez besteak bait- edo -en erasten bere adizkiari, baizik bietan biluzik agertzen baita; aldeez ez, ordea, horien ordeez beste zerbait berretzen baitioe batak eta besteak. Ala ez da ezer —eta ezer formala, noski— bi hitz-andana desberdin osatzea eta bi ahoskera desberdin izatea, eta zeinu diakritikoak ere desberdinak, hitz-andana eta ahoskera desberdinen arabera? Har dezagun, esate baterako, honako hitz multzo hau:

(68) Eraman ezazu bada on egingo dizu.

Bere hutsean eta soilean, hor bezala batere puntu-komarik gabe eta batez ere batere ahoskerarik gabe, ondoriozko nahiz kausazko izateko gai da horko bada hori, eta gainera hitz multzo horri ezer edeki eta ezer eratxeki gabe. Baina ondoko bi perpaus hauetako hitz-andanak eta ahoskera eta zeinu diakritikoak badira zerbait:

(69) [Eraman ezazu], [bada on egingo dizu]

(70) [Eraman ezazu, bada], [(on egingo dizu)]

Horra zergatik Mendiburuk, kausazko bada gehien (beharbada!) darabilen idazleak, idazten duen ia beti horren aurrean puntu eta koma, ondoriozkoarenean aldiz ia beti koma soila.

Hegoaldean bada kausazkoaren testigantzak bertako literaturaren sorrera bezain zaharrak dira; Ochoa de Arinek eta Irazustak maiz darabilte, gero Larramendik eta Kardaberazek ere bai; berebat XIXgarren mendeko gipuzkoarrek. Mendiburuk erruz, nahiz gipuzkera ez zen haren euskalkia. Bizkaitarrek ere bai, Fray Bartolomek eta bestek.

Iparraldeko autore zaharrek ere bai? Hor dago kakoa. Badira testu batzu, non guztiz zaila baita erabakitzea ondoriozkoa ala kausazkoa den. Hori lehen garbiri agertu da Axularren pasartean, zeinen bada Villasantek kausazkotzat hartu baitu —nahiz gero ondoriozko bezala itzuli— eta Mitxelena berriz ondoriozkotzat. Pasarte zenbaitetan bada-ren balioari igertzen zaila den seinale. Har dezagun beste pasarte hau:

(71) Baldin egiten ezpaduzue penitentzia, guztiok fin gaitz elkarrekin eginen duzue. Bada penitentiaren partelarik bai da kofesatzea, beraz ez fin gaitz egitekotz, behar da kofesatu (P. de Axular, *Guero*, 341)

Horko bada hori, begiratu batera besterik dirudien arren, ez da inola ere "zeren... bat da kofesatzea"-ren parekoa, ez du aurrean esanaren arrazoia adierazten. Ez, silogismo baten *premissa* txikia da (latinez *atqui*, gaztekeraz *es asi que* esaten dena); horregatik dator gero beraz, ondorioa adieraziz ondoriozko lokailuez aritzean esan genuen bezala. Ez da beraz kausazkoa, baizik ondoriozkoa.

Ikus beste hau ere:

- (72) Gaizki hiltzearen zara beldur, eta ez gaizki bizitzearen. Bada ezin hil daiteke gaizki, ongi bizi izatu dena (P. de Axular, *Guero*, 144)

Hor ere gauza bera, ongi begiratzen bada. Bada hori ez da zeren-en pareko, baizik Axularrek berak batzutan erabiltzen duen "Orai bada"-rena. Bestela esan: badari darraikiona ez da aurrean esandakoaren arrazoia, esplikazioa edo kausa, beste honen antzeko zerbait baizik: "...ez gaizki bizitzearen. Ba(da) jakizu gauza bat: ezin hil daiteke gaizki...", eta abar. Hemen, bada-z hasten den perpausak ondorioa adierazten du nolabait, baina aurkaritza kutsuren bat ere badute agian.

Etxepareren honetan, esate baterako:

- (73) Eztut egin gaizkirik ukheitiko perilik / ezetare zerengatik behar dudan auzirik / Bada, neure maitia, nik diotsut egia. (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 181).

Gizasemearen egia esatea nola izan daiteke emaztekiak dioenaren arrazoia? Hortaz ez da bada hori kausazkoa, baizik gaur horrela esango genukeena: *Ba(da) zuk nahi duzuna esan, baina...* Aitortu dugu, halere, eta aitortzen dugu zenbait arrazoinamendu luzeren ondoko bada oso iluna geratzen dela askotan, non ez baitakizu idazleak zer esan nahi duen: "*esandako hori egia da, bada (=zeren, zergatik, ezen...)*..." ala beste hau: "*esandako guzti hori egia da. Bada (=hortaz, beraz, orain bada)...*"

6.4.2. Tokia

Bada kausazkoaren lekua bigarren perpausaren —arrazoia ematen duenaren— hasiera edo lehen-lehena da. Eta horretan bereizten da —batzutan!— bada ondoriozkotik, hau maiz, han esan genuen bezala, perpausaren barrenzen baita. Beraz, ondoriozkoa nahiz hasieran nahiz barnean

ager daitekeenez gero eta kausazkoa beti hasieran, barnekoa beti ondoriozkoa dela badakigu; hasierakoa, aldiz, batzutan bata izango da eta besteetan bestea, eta testuinguruaren zentzuak bakarrik erakus liezaguke noiz den bata, noiz bestea.

Gaurko bizkaiera mintzatuan, halere, eta horren eraginez idatzian ere bai, apur bat, ezin uka **ba(da)** kausazkoa perpaus barnean ere erabiltzen dela. Gaurkoan ez ezik, aurreko larogei urteetako autoreetan ere agertzen dela ukatzera ez gara ausartzen. Hona gaur-gaurko bi idazleren esenpluak:

- (74) ...Ene ustez, hau da arrazoi: *Euskera* zenbaki horren istilua konpondu arte ez zuen agertu nahi. Berak bere gain hartu zuen, **ba**, aldizkaria gerra ondoan argitaratzearen erantzunkizuna, baina uste ez bezalako oztopoak aurkitu zituen, eta harik eta auzia konpondu arte, ez zuen agertu nahi (L. Villasante, *Euskera*, XXIX, 1984, 2, 489).
- (75) Hemen ere agertzen da literaturaren lehentasuna. Zurrusta meheko bildumak ziren **ba** eskuarteko bildumak, eta biltzeari ekin behar zion berea osatzeko. (J.A. Arana Martija, *Euskera*, XXIX, 1984, 2, 451).

Hau horrela izanik, perpaus barneko **bada** kausazkoa ere izan liteke; ez dugu uste, halere, mende hau baino lehenagoko idazle bizkaitarretan horrelakorik aurkituko denik.

Hona aurrean esandakoen sendogarri esenplu saila. Irakulea ohartuko da bi gauzaz: esenplu guztiak hegoaldeko idazleenak direla eta **bada** beti perpausaren hasieran doala. Kausazkoa den ala ez, berak igerriko dio ondoen; aski du horretarako **bada** dioen lekuan **zeren** edo **jartzea**, eta ea zentzu bete-betea duen ala ez ikustea.

- (76) Jaungoikoa Salbadorea da? - Bai jauna; **bada** ematen digu geure salbaziorako bere grazia. (J. Ochoa de Arin, *Doctrina*, 24)
- (77) ... aez eztegu zer tratatu Kartilla onetan, **bada** eurak dakie nola... (J. Ochoa de Arin, *Doctrina*, 15)
- (78) ... Zoratasun andia izango lizate neuronek berari esatza (...), **bada** orrenbestez eman neikek kausa edo motiboa... (J. Ochoa de Arin, *Doctrina*, 170)
- (79) Zer gauza dirade oriek? - Ez diazadala ori galdetu niri, **bada** naiz ignorantea... (Juan de Irazusta, *Doctrina Christiana*, 10)

- (80) ... ta orait ere auxé berá esán dezakegu Euskalerrienzai; bada Jainkoaren hitzaren ogia txikitu bageaz... hilzer daude asko ta asko. (M. de Larramendi, *Mendibururi egin gutuna*, 278)
- (81) Oraindik eztauzáute Euskáldunak euskéra duéla gauzarik onena ta honragarriena; bada ari ditzekala beti agertuko du bere burua, dan bezala. Españar huts hutsa. (M. de Larramendi, *Mendibururi egin gutuna*, 279)
- (82) ... ezagutu nuen hau ere niri Loyolan eragiteko izandu zela aldi artan Jangoicoak ni ara bidaltzea; bada ara ni joan ezpanintz, ez nuen ... liburrik egiten. (S. Mendiburu, *Iganietarako irakurraldiak*, 52)
- (83) Bafa ori ezta Euskararen, ezpada Euskaldunen desonra, bada oiek polikitu [...] bearrean, lotsarik gabe [...] desegin izan dute. (A. Cardaberaz, *Euskararen Berri Onac*, 10)
- (84) Bitzuba utz egiten dabee. Bada ez olgeta guztiak dira onak, ez guztiak dira txarrak edo pekatuzkuak. (Fray Bartolome, *Euskal errijetaco olgeta*, 38)
- (85) Bekatuak dira Jainkoaren treshondragarriak, [...]; bada fede-gabeak, Kristauen bekatuak ikusi, ta uste due ez dala ona... (J.A. Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 159)

6.5. Izan ere

6.5.1. Forma eta balioa

Formak ez du esplikazio beharrik; esapide hori osatzen duten bi osagaiak egunoro erabiltzen ditugu. Osagaiak, zein bere aldeik, ez ezik, esapidea bera ere aski ezaguna dute hegoaldeko euskaldunek, nahiz beti ez erabili. Bada aitortu behar da gaztelerazko "es que" neurritz kanpo hedatu dela eta izan ereren bizia arriskuan jarri duela.

Izan ere sekuentzia guztiak ez dira berdinak, halere; guztiak ez dira lokailuak, ez eta, beraz, guk hemen aztertzeak. Ez da beti hain erraza jakiten zeintzu diren lokailu eta zeintzu ez. Honako hau ez dela, aski garbi dago:

- (86) Han izango zela esan zuen eta izan ere da.

Horren berorren beste forma hau ere ez da inola ere lokailua:

(87) Eskuzahala izango zela agindu bakarrik ez; izan ere, izan da.

Horiek ere emendiozkoa bere baitan dutenak dira eta han aztertu dira. Han esan bezala, edozein aditzekin —eta ez izan-ekin bakarrik— hain maizkoak diren honako perpaus hauetakoren kasu konkretu bat baizik ez da:

(88) Etorri ere, berandu etorri da.

(89) Esan ere, bereak eta bi esan zizkion.

Horietan ere bakarrik da lokailua eta etorri, esan, partizipio soilak dira eta partizipio bezala jokatzeko dute. Orobat (86-87) esanpluetan izan partizipioa da eta ere bakarrik da lokailua. Guk hemen aztergai dugun izan ere, aldiz, oso osoan da lokailua.

Ez da erraz izan ere lokailua eta lokailu ez dena zenbait perpausetan bereiztea. Badira adibide batzu, non esan baitaiteke izan ere partizipio gehi lokailu izatetik, bere osoan lokailu izatera iristeko erdibidean dagoela. Adibidez:

(90) Astoa deitu zuen Manu; izan ere, halaxe zen.

Nekez uka daiteke bi irakurketak onartzen dituela: a) deitu bakarrik ez, izan; b) hala deitu zuen halakoxea zelako. Lehenean izan ere-ren ere emendiozkoa litzateke; bigarrenean lokailu osoa da kausazkoa. Erdibideko egoera —edota hobe litzateke bitarikoa izendatzea— argiago ikusten bide da izan ere atzean edo bukaeran dagoenean; esate baterako,

(91) ... señale zan txendoren bat zegoala egosten. Eta ala zan izan ere (A. Apaolaza, *Patuako Txerren*, 63).

Hor ez dirudi izan ere osoa lokailu izatera iritsi denik; ere bakarrik da lokailu.

Noiz den bata, noiz bestea igertzeko gauza bat eduki behar da gogoan: lehenak mailaketa bat adierazi behar du. Lehengo adibide hartan, adibidez: "esan bakarrik ez, izan ere bai". Horretan datza mailaketa eta horregatik da emendiozkoa: zerbait emendatzen, berretzen, gehitzen du hor ere-k. Bigarrenak, aldiz, arrazoiak, kausa adierazi behar du eta aurrekoaren espelikazioa eman:

(92) Saldu du; izan ere, ez zuen ezertako balio.

Hor izan ere horren orde zeren, ezen, bada, zergatik ipintzen bada, oso ongi dator. Hortaz kausazko balioa du hor.

Kausazko lokailu honen sorrera aski berria da. XIXgarren mendearen amaieran aurki daitezke dudamudazko erabilpen batzu, lokailu berri horren sortzeko bidean daudenak. Mende honetan iada exenpluak nahi adina dira. Gipuzkoakoak eta Bizkaikoak ia guztiak. Azken hoge urte hauetan ahozko hizkeran ia erabat galdu da, euskara erabiliz gero edozein euskara erabiltzea berdin dela uste dutenen artean, gaztelerazko "es que"-k lekua "jan" diola baitirudi.

6.5.2 Tokia

Perpasean hartzen duen lekuari dagokionez, gehienetan hasieran eta barnean agertzen da, inoiz amaieran ere bai, perpausa laburra denean barrena eta amaiera bat direlarik:

(93) Zorigaitzez gaifera (...) beren begiz egiziatu ahal izan zituzten lenengo egunetik. Izan ere, laister oartu ziren (...) erietzen zala... (Y. Elxaide, *Joanak joan*, 216)

(94) Ardoak saldukeri belza cgin zion (...) Izan ere, ardoa (...) neurritz gaifera samin (...) biurtu oi da. (Y. Elxaide, *Joanak joan*, 186)

Hauetan izan-ez beste aditz bat ageri da bigarren perpasean, baina ondorengo hauetan izan ageri da berriro ere:

(95) - Adizu, kontuz gero Donostiaz gaitzesan.
- A! Zu donostiarra zara, izan ere. Barka!

(96) Izarpe, zeru txiki bat zala, esan zitekean. Izan ere, lurtean etzan erreza alako zorion eta pakea arkitzerik. (N. Elxaniz, *Lur berri bila*, 95)

(97) .. amona bera joaten zitzaion aurrari atsegifetzko arpegiz losinga; Izan ere, etxeko danak txoratzeo naikoa zera zu... (D. de Aguirre, *Garaa*, 78)

(98) Urrengo domekan izango eben (...) emoteko erea. Ta izan be gero izaten eben aspaskadia.. (F. Bilbao, *Ipuin-barreka* 138)

- (99) Bizitza gertatu zaigun egunon ezaugarri nabarmena da (...) Ezaugarri nabarmena eta, erabat, ixaropenez bete gaitzakeen ezaugarri osasungarria. Gehiegitan, izan ere, ibili izan gara elkarren berri ez genekiela.. (K. Mitxelena, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 279)
- (100) Nik ez dakit gogoan ongi hartzen ote ditugun etorkizuneko euskal kultura horrek izan ditzakeen muga hertsia. Hitz horrek, izan ere, azalari, mintzabidcari begiratzen dio gehiago mamari baino(K. Mitxelena, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 85)
- (101) Erantzun honek, egia esan, badu bere pisua eta bertatik bertara begiratzca mercezi du. Zer da, izan ere, hitzen bizia? (K. Mitxelena, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 74)

6.5.3. Beste zenbait partikulaz lagundurik

- (102) ... Jainkoaganatu zituen, jaun berak lenengoa bere konpesatzalle izan zedin Erroman autaturik; bada gizon jaierradun, txit zuzen, begiratsua, ta artarakoa zan izan ere (J.I. Arana, *San Ignacio Loyolacoaren bizitza*, 89)
- (103) Bai, au ere arekin zagon, izan ere galilearra da ta. (P. Iraizoz, *Yesu-kristo gure Yaunaren bizia*, 479)
- (104) Barne kezkatua, gauza gogorren bildur da beti; izan ere, bildurra laguntza-ustela ustela besterik ez baita. (Orixe, *Quito-n arrebarekin*, 58)

Aurrean eta duelarik:

- (105) ... orduan lotsaturik yoango zifake azken alxian esertzera. Ta izan ere, zer erantzungo zioten? (P. Iraizoz, *Yesu-kristo gure Yaunaren bizia*, 294)
- (106) Orain, bai, badakit, esan zuen, eta izan ere, orixe dala arlo bakoitzaren egitekoa deritzat (J. Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 148)

Bibliografia

- Agirre, T., *Uztaro*, Bilbo, 1950 (1.º arg. Bilbo, 1937).
- Aguirre, D. de, *Auñemendiko lorea*, Bilbo, 1898.
- Aguirre, D. de, *Garoa*, Durango, 1912.
- Aguirre, D. de, *Kresala*, Durango, 1906.
- Aguirre, J.B., *Eracusaldia I,II,III*, Tolosa, 1850 (faksimila: Donostia, 1978).
- Alzaga, T., *Burruntziya*, Donostia, 1962 (1.º arg. *Euskal Esnalea 1931*).
- Alzaga, T., *Ramuntxo*, Donostia, 1961.
- Alzola, N., *Atalak*, Zarautz, 1967.
- Anabitarte, A., *Aprika-ko basamortuan*, Zarautz, 1961.
- Anabitarte, A., *Poli. Mutil umezuriz baten ibilaldiak*, Zarautz, 1958.
- Andredena Mariaren ilhabetea*, Baiona, 1838.
- Añibarro, P.A., *Escu-liburua*, 1. Tolosa, 1802 (faksimila: Donostia, 1978), 2. Tolosa, 1821.
- Añibarro, P.A., *Lora sorta espirituala, ta propositu santuac vicitza barri bat eguiteco*, Tolosa, 1803.
- Apaolaza, A., *Patxiko Txerren*, Zarautz, 1962, J. San Martinen edizioa (1.º arg. Bergara, 1890).
- Arana, J.I., *San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua euskaraz eta gastelaniaz*, Bilbo, 1872.
- Arbelbide, J.P., *Igandea edo Jaunaren eguna*, Lille, 1895.
- Archu, J.B., *Lo Fontainaren aleghia-berheziak, neurthitez franzasetik uskarara izuliak*, La Reole, 1848.
- Aresti, G., *Ipuinak*, Donostia, 1979.
- Argaignarats, P. d', *Devoten Breviarioa*, Baiona, 1665.
- Argi Done laburra*, Donostia, 1923.
- Arrese Beitia, F., *Ama euskeriaren liburu kantaria*, Bilbo, 1900.
- Arrue, G., *Mayetzeco ill, edo Birgina chit santari consagratutaco Mayetzeco illa*, Tolosa, 1888.
- Arrue, G., *Santa Genovevaren vicitza antziñaco denboretaco condairan ederre-netaco bat*, Tolosa, 1868.

- Astarloa, P. de, *Urteco Domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac*, (Zale) Bilbo, 1816 (I), 1818 (II).
- Atxaga, B. (= J. Irazu), *Obabakoak*, Donostia, 1989.
- Aixaga, M., *Gaztetxo. Bizitzako udaberrian*, Donostia, 1963.
- Axular, P. de, *Guero*, Bordele, 1643.
- Azcue, E.M., *Parnasorako bidea*, Bilbo, 1896 (faksimila: Donostia, 1979).
- Azkue, R.M., *Ardi Galdua*, Bilbo, 1918.
- Azkue, R.M., *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbo, 1905, 1906.
- Azkue, R.M., *Morfología Vasca*, Bilbo, 1925.
- Azpeitiko premioaren bertsoak*, Tolosa, 1963. A. Zabalaren edizioa.
- Baratciart, A., *Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco moldea*, Baiona, 1784.
- Barbier, J., *Légendes du Pays Basque*, Paris, 1931 (faksimila: Donostia, 1983), (= *Ipuinak*).
- Barbier, J., *Supazter chokoan*, Baiona, 1924.
- Barriola, A., *Goi-Argi*, Donostia, 1935.
- Barrutia, P.I., *Acto para la Nochebuena*, J.A. Lakarra, *ASJU* XV, 1981, 123-156.
- Belapeyre, A., *Catechima laburra*, Pabe, 1696.
- Beovide, C., *Asis'ko Loria*, Donostia, 1966, L. Villasanteren edizioa (1. go arg. Tolosa, 1855).
- Beriayn, J. de, *Doctrina Cristiana en Castellano y Bascuence*, Iruñea, 1626.
- Berrondo, P., *Don Kijote Manxako*, Zarautz, 1977.
- Bilbao, F., *Ipuin-Barreka*, Bilbo, 1959.
- Bilintx (= I. Bizcarrondo), *Bertso ta lan guziak*, Zarautz, 1962.
- Cardaberaz, J.B., *Aita S. Ignacio Loyolacoaren egercicioac I,II,III,IV*, Iruñea, 1760?, 1761, 1761, 1761.
- Cardaberaz, J.B., *Eusqueraren Berri Onac*, iruñea, 1761.
- Casenave, J., *Santa Grazi*. Pastoral. Donostia, 1976.
- Charlemagne-ren pastorala = La tragédie du Charlemagne*, *ASJU* 1988 III-1990-I, B. Oyharçabalen edizioa.
- Chourio, M. de, *Jesu-Christoren Imitacionea*, Bordele, 1720.
- Constantin, J.B., "Aipamen llabur bat Haritchabalet Jaun apezaren gainen", *Egan* 1985, 3-4, 13-43.
- Dassançã, M., *Laborarien abisua*, (1692an idatzia) *RIEV* 1908, 585-600.
- Dechepare, B., *Linguae Vasconum Primitiae*, Bilbo, 1980, P. Altunaren edizioa (1. go arg. Bordele, 1545).
- Duhalde, M., *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, Baiona, 1809 (faksimila: Donostia, 1978).
- Duvoisin, J., *Bible edo Testament zahar eta berria*, 1858.
- Duvoisin, J., *Dialogues basques* (Lapurterazko itzulpena) London, 1857.

- Duvoisin, J., *Laborantzako liburua edo bi aita semeen solasak laborantzaren gainean*, Baiona, 1858 (faksimila: Donostia, 1978).
- Duvoisin, J., *Liburu ederra aita Cardaberaz Jesuistac egina, Lapurdico escarara izulia*, Baiona, 1856 (faksimila: Donostia, 1978).
- Echeita, J.M., *Josecho*, Durango, 1909.
- Echenique, B., ik. P. Salaburu arg.
- Eguiateguy, J., *Lehen liburua edo filosofo Huskaldunaren Ekheia*, Bilbo, 1983, Tx. Peillenen edizioa.
- Eguzkitza, J., *Gizarte-Auzia. Ugazabal ta langille arteko gora-berak*, Zornotza, 1983.
- Elissamburu, J.B., *Piarres Adame*, Baiona, 1946 (1. go arg. Pabe, 1888).
- Elissamburu, J.B., *Poesiak*, in *Elizanburu. Bere bizitza ta lanak*, Donostia, 1978, 179-221, A.M. Labayenen edizioa.
- Elissamburu, M., *Framazonak eta Franziaiko hirur Errepubliken ichtorioa aburzki*, Baiona, 1890.
- Enbeita, K., *Gure urretxindorra. Enbeita'tar Kepa'ren bertso lanak osorik. Aita Onaindia'k: bilduma eta irzaurrea*, Buenos Aires 1971 (= *Bertsoak*).
- Erkiaga, E., *Arranegi*, Zarautz, 1958.
- Erkiaga, E., *Batetik bestera*, Zarautz, 1962.
- Etchamendy, M., *Mañex Etchamendy bertsoaria*, Donostia, 1972, P. Lafitteren edizioa.
- Etchaun (= P.Topet), *L'oeuvre poétique de Pierre Topet Etchaun*, Euskera 1969-1970, J. Haritschelharren edizioa.
- Etcheberri, J. (Sarakoa), *Obras vascongadas del doctor vascongado Joannes d'Etcheberri (1712), con una introducción y notas por Julio de Urquijo*, RIEV 1976 (1. go arg. Paris, 1907).
- Etcheberri, J. (Ziburukoa), *Manual devotionezcoa*, 2. ale, Bordele, 1669 (1. go arg. Bordele, 1627).
- Etcheberri, J. (Ziburukoa), *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Donostia, 1970, L. Akesoloren edizioa (1. go arg. 1630?).
- Etchepare, J., *Beribitez*, Baiona, 1931.
- Etchepare, J., *Buruchkak*, Lekorne-Aldude, 1910.
- Etchepare, J.B., *Mendekoste gereziak eta beste*, Baiona, 1963.
- Etxaide, Y., *Joanak-joan*, Zarautz, 1955.
- Etzaniz, N., *Euskal antzerkiak. Kontu-kontari*, Zarautz, 1958.
- Etzaniz, N., *Lur berri billa*, Donostia, 1967.
- Etxebarria, T., *Ibiltarixanak*, Zarautz, 1967.
- Etxebarria, T., *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*. Euskera, 1966.
- Euskaltzaindia, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I* (= EGLU-I), (Iruñea, 1985).
- Euskaltzaindia, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II* (1987).

- Euskaltzaindia, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I (Eraskina)* (1987).
- Fray Bartolome de Santa Teresa, *Icasiquizunac I, II, III*, Iruñea, 1816, 1817, 1819.
- Fray Bartolome de Santa Teresa, *Euskal-Errijetaco Olgueeta, ta Dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba*, Iruñea, 1816 (faksimila: Donostia, 1978).
- Gandiaga, V., *Elorri*, Oñati, 1962.
- Gasteluçar, B., *Eguia Catholicac*, Bilbo, 1983, L. Akesoloren edizioa (1. go arg. Pabe, 1686).
- Gaztelu (= J.I. Goikoetxea), *Musika ixilla. Musica callada. Fray Luis Leon eta donibane Guruzen olerkirik onenak, erderaz eta euskeraz*, Donostia, 1963.
- Goñi, F., *Ama Birjiñaren Agertziak eta gañerako Lurdes-ko gertaera goguangarriyak*, Zarautz, 1962, A. Zabalaren edizioa (1. go arg. Durango, 1908).
- Goyhetche, L., *Fableac edo aleguiac Lafontainenetarie berechiz hartuac*, Baiona, 1852 (faksimila: Donostia, 1978).
- Guerrico, J.I. de, *Cristau doctriña guziaren explicacioaren sayaquera*, Tolosa, 1858.
- Haraneder, J. *Gudu izpirituala*, Toulouse, 1750.
- Haraneder, J. *Philotea edo devocioneraco bide erakusçaillea S. Franses Salescoac (...) eguina*, Toulouse, 1749.
- Haraneder, J. *Iesu-Christo gure iaunaren Testament berria*, Baiona, 1855.
- Hiriart-Urruty, J., *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, Donostia, 1972.
- Hiriart-Urruty, J., *Zezenak errepublikan*, Donostia, 1972.
- Hiribarren, J.M., *Eskaldunac. Iberia, Cantabria, Eskal-Herriac, Eskal-Herri bakhotcha eta hari darraicona*, Baiona, 1853 (faksimila: Donostia, 1979).
- Hiribarren, J.M., *Escaraz eguia*, Baiona, 1858.
- Ibiñagabeitia, A., *Bergiliren idazlanak osorik: Unai-Kantak eta Alor-Kantak*, Bilbo, 1966.
- Inchauspe, E., *Maria Birjinaren hilabena*, Pabe, 1894.
- Inza, D., *Kristau ikasbidearen azalpena*, Iruñea, 1924.
- Iraizoz, P., *Yesukristo gure Yaunaren bizia lau Ebangelioetatik itzez-itz atera ta*, Iruñea, 1934.
- Iraola, B., *Oroitzak ta beste ipui asko*, Donostia, 1962, A. Zabalaren edizioa.
- Irazusta, J. de, *Doctrina christiana eguinzuana erderaz aita Gaspar Astete jesuitac. Ipinu du eusqueraz don Juan de Irazusta Erretore Hernialdecoac*, Iruñea, 1739.
- Irazusta, J.A., *Bizia garratza da*, Buenos Aires, 1950.
- Irigaray, P.F., "Lanak" in *XX-garren mendeko Nafarroako euskol idazlariak*, Iruñea, 1958, A. Irigarayren edizioa.
- Iturriaga, A.P. de, *Dialogues basques* (Gipuzkerazko itzulpena), London, 1857, Bonaparte printzearen edizioa (faksimila: Donostia, 1978).

- Iturriaga, A.P. de, *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado*, Donostia, 1842 (= *Ipuinak*).
- Iturzaeta, A., *Aita Gaspar icasbide cristinaucorraren azalduera laburrac*, Durango, 1899.
- Ixasoco nabigacionecoa* = *Liburu hau da ixasoco nabigacionecoa Martin de Hoyarza balez egiña Francesez. Eta Piarres Detcheverry, edo Dorrec escararat emana*, Baiona, 1677.
- Izeta, M., *Dirua galgarri*, Donostia, 1962.
- Iztueta, J.I., *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*, Donostia, 1847 (faksimila: Bilbo, 1975).
- Jaureche, A., *Meditacioneac urtheco ebangelioen gainean, egun guzietaco, eta Jesu-Cristo gure Jaunaren, Birjina sainduaren eta Sainduen bestetaco*, Baiona, 1840.
- Jautarkol (= L. Jauregi), *Biozkadak. Olerkiak*, Iruñea, 1929.
- Joannateguy, B., *Ehunbat sainduen bicitzea*, Baiona, 1876.
- Joannateguy, B., *Sainduen Bicitzea. Lehen zatia*, Baiona, 1890.
- Kateximak:**
- Carichima (Laneufville)* = *Catichima (...)* Charles Auguste Le Quien de Laneufville, *Aquiceco Jaun Apezpicu ossoqui Illustre eta Ohoregarriaren manuz araimprimania*, Akitze, 1780.
 - Cristau-Doctrina (Baztan)* = *Cristau-Doctrina Aita Gaspar Astete erdaraz escribitua eta orai escuaraz publicarzen duena (...)* Baztango Valleco Parroco batec, Iruñea?, 1826?.
 - Cristau Doctrine (Ulzama)* = *Cristau Doctrine Aita Gaspar Astete erdaraz escribitue eta Ulzamaco Apezac Balle ontan yarduquitzen den usquerara biurtue*, Iruñea, 1906.
 - Cristiñau Doctrinia (Laudio)* = *Cristiñau Doctrinia Aita Gaspar Astete erdaraz escribidua (...)* Orain eusquerara biyornua, urteiten dau arguitara cerbaist gueiyagotarie *Laudiyoco Abade Jaunaren encarguz eta costuz*, Bilbo, 1828.
 - Guiristino-doctrina (Luzaide)* = *Guiristino-doctrina Aita Gaspar Astete jesuitac erdaraz escribitua. Escuararat itzulia D. Francisco Echeverri Valcarlosco Bicarrioc*, ASJU 1985, I. Seguroalaren edizioa.
 - Kristau-Ikasbidea. Gipuzkoako euskeraz* = *Kristau-Ikasbidea. Gotzai Jaunaren ardurapean, Jaungoiko jakintzaren erakusle-batzordeak antolatatu du. Gipuzkoako euskeraz*, Gasteiz, 1933 (1. go arg. Gasteiz, 1922).
 - Kristiñau-Ikasbidea. Bizkaiko euskeraz* = *Kristiñau-Ikasbidea Gotzain (Obispo) Jaunaren ardurapean Jaungoiko-jakituriaren Irakasle-Batzordeak atondu dau. Bizkaika euskeraz. Iru mallatan*, Zornotza, 1921.
- Kirikino (= E. Bustintza), *Abarrak*, Abando, 1918.

- Kirikiño (= E. Bustintza), *Bigarrenko Abarrak*, Zomotza, 1930.
- Labayen, A.M., *Euskal Eguna*, Tolosa, 1931.
- Lafitte, P., *Grammaire basque*, Baiona, 1944.
- Lafitte, P., *Murtuts eta bertze ... Artho churizetako zombait ichtorio chahar*, Baiona, 1945.
- Lapeyre, E., *Credo edo sinhesten dut esplikatua*, Baiona, 1891.
- Laphitz, F., *Bi saindu hescualdunen bizia. San Inazio Loiolacoarena eta S Franzisco Zabierecoarena*, Baiona, 1867 (faksimila: Donostia, 1978).
- Lardizabal, F.I. de, *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*, Tolosa, 1855.
- Larramendi, M. de, *Carta a Mendiburu*, Donostia, 1973, J.I. Telletxearen edizioa.
- Larramendi, M. de, *Panegrico del gran doctor de la Iglesia S. Agustín*, Azpeitia, 1885.
- Larreguy, B., *Testament çaharreco eta berrico historiao*, Baiona, 1775-1777 (faksimila: Donostia, 1978).
- Larzabal, P., *Iru ziren*, Zarautz, 1962.
- Larzabal, P., *Senperen gertatua*, Donostia, 1964.
- Legaz, D., *Cristauren Itasbidea Aita Gaspar Astetec egina*, Iruñea, 1880.
- Leizarraga, J., *Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*, Estrasburgo, 1900, Linschmann eta Schuchardt-en edizioa (faksimila: Donostia, 1979); 1. go arg. Rochelle, 1571.
- Leizarraga, J., *Othoitza Ecclesiasticoen forma*, Estrasburgo, 1900 (faksimila: Donostia, 1979); 1. go arg. Rochelle, 1571.
- Lekuona, M., *Eun dukat*, in *Bi antzerki ta itzaldi bat*, Zarautz, 1965 (1. go arg. Tolosa, 1933).
- Lizardi, X. de (= J.M. Aguirre), *Itz-lauz*, Donostia, 1934.
- Lizarraga, J. (Elkanokoa), *Doctrina Christioaren catechima. I. Fede Christioaren gain*, Bilbo, 1979, J. Apezetxearen edizioa (1. go arg. 1803).
- Lizarraga, J. (Elkanokoa), *Programa de vida cristiana en una aldea de la zona de Pamplona en el s. XVIII*, in *FLV* 1975, 96-127, J. Apezetxearen edizioa.
- Lizarraga, J. (Elkanokoa), *Urteco igande guztietaraco platicac edo itzaldiac*, Donostia, 1846.
- Maister, M., *Jesu-Kristen imitacionia. Çuberouaco uscarala, herri beraurteco apheç batec itçulia*, Pabe, 1757.
- Materre, E., *Doctrina Christiana. Aita Esteve Materre San Franciscoren ordenaco Fraideac eguina*, Bordele, 1617.
- Martin Treku, *Ahal dena*, Donostia, 1971.
- Mendiburu, S., *Igande eta festegunetarako irakurraldiak*, in *Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, Bilbo, 1982, P. Altunaren edizioa.
- Mendiburu, S., *San Francisco Xavier-en bederatz urruneco iracurraldiak*, in *Mendibururen idazlan argitaragabeak II*, Bilbo, 1982, P. Altunaren edizioa.

- Mendigacha, M., "Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue", *Euskera* 1957, 120-170, A. Irigoyenen edizioa.
- Mihura, A., *Andredena Mariaren Imitacionea Jesus-Christoren Imitacionearen gañean moldatua*, Baiona, 1778.
- Mirande, J., *Haur Besoetakoa. Ipuin berri bat*, Donostia, 1970.
- Mirande, J., *Miranderen idazlan hautatuak*, Bilbo, 1976.
- Mitxelena, K., *Fonética Histórica Vasca*, 3. ed. Donostia, 1985.
- Mitxelena, K., *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, Bilbo, 1972, P. Altunaren edizioa.
- Mitxelena, K., *Orotariko Euskol Hiztegia*, Bilbo, 1987.
- Mitxelena, K., *Sobre Historia de la lengua vasca*, Donostia, 1988, J.A. Lakarraren arg.
- Mitxelena, S., *Arantzazu. Euskal-sinismenaren poema*, Oñati, 1949.
- Mocoroa, V., *Damuba garaiz, edo Bertuteric gabeco aberastasuna. Inoiz ez da eguizco zorientasuna*, Tolosa, 1897.
- Moguel, J.A., *Confesioa ona*, Gasteiz, 1803.
- Moguel, J.A., *Confesioe ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac*, Iruñea, 1800.
- Moguel, J.A., *El doctor Peru Abarca*, Durango, 1881.
- Moguel, J.A., *Kristauaren Ikasbidea*.
- Moguel, J.J., *Baserritar nequezaleentzaco escolia edo icasbidiac, guraso justu, ta jaquitun familia ondo azi ebeeneen exemplan ta eracutsijetan*, Bilbo, 1816.
- Moguel, V., *Ipui onac*, Donostia, 1804.
- Mujika, P., *Diccionario Vasco-Castellano*, Bilbo, 1981.
- Munibe, F., *Gavon Sariac edo aurtengo gavonetan Azcoytico Eleyza nagussian cantanuco diran Gavon-Cantaac edo Otsaldiac*, Azkoiti, 1762.
- Munita, I., *Gure mendi ta oianak. Zuaizti berriak antolatu, ta lengoak zaintzeko zuzenbide batzuek*, Tolosa, 1952.
- Narbaiz, P., *San Frantses Jatsukoa*, Donostia, 1966.
- Ochoa de Arin, J., *Doctrina Christianaren explicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itzeguitendan moduan*, Donostia, 1713.
- Oihenart, A., *Oihenarten gaztaroa neurthizetan*, in *Les Proverbes basques*, Paris, 1955 (= *Poesiak*).
- Olaechea, B., *Doctrina Crisñanea*, Gasteiz, 1763.
- Orixe (= N. Ormaechea), *Agustin Gurenaren aitorkizunak*, Zarautz, 1956.
- Orixe (= N. Ormaechea), *Barne-muinetan*, Zarautz, 1934.
- Orixe (= N. Ormaechea), *Euskaldunak*, Zarautz, 1950.
- Orixe (= N. Ormaechea), "Fichas y apuntes de Orixe sobre Joaquin Lizarraga, entre los papeles de la academia".
- Orixe (= N. Ormaechea), *Mireio*, Bilbo, 1930.

- Orixe (= N. Ormaechea), *Quito-n arrebarekin*, Donostia, 1987, I. Seguirolaren edizioa.
- Orixe (= N. Ormaechea), *Santa Cruz apaiza*, Donostia, 1929.
- Orixe (= N. Ormaechea), *Tormes-ko itsu-mutilla*, Bilbo, 1929.
- Oskillaso (= J. de Basterrechea), *Kurloiak. Kaletarren haur-zaroa*, Zarautz 1962.
- Otxolua (= B. Garro), *Bertolda'ren maltzurkeri zurrak eta Bertoldin'en txaldankeri barregarriak*, Bilbo, 1932.
- Oxobi (= J. Moulier), *Oxobi-ren lan orhoitgarri zonbait*, Baiona, 1966.
- Pello Errota (= P. Elizegui), *Pello Errotak jarritako bertsoak*, Donostia, 1963, A. Zabalaren edizioa.
- Pouvreau, S., *Iesusen Imitacionea*, Donostia, 1979.
- Pouvreau, S., *San Frances de Sales Genevaco ipizpicuaren Philotea*, Paris, 1664.
- Quadra, N. de la, *Doctrina Cristinauba, 1784*.
- Salaburu, P., B. Echeniquereren Bibliaren itzulpena, in *Baztango euskalkiaz I*, Bilbo, 1980.
- San Martin, J., *Zirikadak. Ipuin barregarriaren liburua*, Zarautz, 1960.
- Sarasola, I., *Hauta-Lanerako Euskal hiztegia*, Donostia, 1984.
- Soroa, M., *Gabon. Au ostatuba!*. Anton Kaiku, Donostia, 1962, A. Zabalaren edizioa.
- Soroa, M., *Baratzan*, Donostia, 1962, A. Zabalaren edizioa (1. go arg. *Euskal Erria* 1886).
- Tartas, J. de, *Onsa hilceco bidia*, Paris 1911, M.J.B. Darricarrereren edizioa; Bilbo, 1987, P. Altunaren edizioa (ez osoa); 1. go arg. Orthez, 1666.
- Testament Berria Lapurdico escuararat... = Jesus-Christo gure Jaunaren Testament Berria. Lapurdico escuararat itçulia*, Baiona, 1828.
- Txillardegi (= J.L. Alvarez Enparantza), *Leturiaren egunkari ezkutua*, Bilbo, 1957.
- Txirrita (= M. Lujambio), *Txirritaren bertsoak II*, Donostia, 1971, A. Zabalaren edizioa.
- Ubillos, J.A., *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, Tolosa, 1785 (faksimila: Donostia, 1978).
- Ugalde, M., *Itzailleak*, Caracas, 1961.
- Uriarte, J.A., Bibliaren itzulpena, London, 1857, 1858, 1859.
- Uriarte, J.A., *Dialogues basques* (Bizkaierazko itzulpena), London, 1857, Bonaparte printzearen edizioa.
- Uriarte, J.A., *Marijaren illa edo Moijatzece illa*, Bilbo, 1850.
- Urruzuno, P.M., *Euskal-erritik zerura*, Donostia, 1961.
- Urruzuno, P.M., *Ur-zale baten ipuiak*, Donostia, 1965.

- Uscara libria* = *Uscara libria, confesioniaz, comunioniaz, eta meçaco sacrificio saintiaz, bicitzeco erreglamentu bateki ...*, Baiona, 1814. *Uscara Libru berria*, Oloroe, 1837?
- Uztapide (= M. Olaizola), *Euskalerriko Bertsolarien txapelketa*, Zarautz 1960.
- Uztapide (= M. Olaizola), *Noizbait*, Tolosa, 1964.
- Uztapide (= M. Olaizola), *Sasoia joan da gero*, Donostia, 1976.
- Villasante, L., *Kristau fedearen sustraiak*, Oñati, 1962.
- Villasante, L., *Sintaxis de la oración compuesta*, Oñati, 1976.
- Xalbador (= F. Aire), *Ezin bertzean*, Tolosa, 1969.
- Xalbador (= F. Aire), *Odolaren mintzoa*, Zarautz, 1976.
- Zabala, A.M., *Gabon gau bat eta beste ipui asko*, Tolosa, 1962, A. Zabalak bilduak.
- Zaitegi, J., *Platon'eneko atarian*, Donostia, 1961.
- Zaitegi, J., *Sopokel'en antzerkiak*, Mexiko, 1946.
- Zenbaiten artean, *Euskal Baladak*, Donostia, 1983, J.A. Lakarra, B. Urgell eta K. Bigurik prestatua.
- Zerbitzari (= J. Elissalde), *Azkaine gure sorterria*, Donostia, 1985, P. Xarritonen edizioa.
- Zerbitzari (= J. Elissalde), *Ixtorio Saindua*, Baiona, 1943.
- Zubiri, E., "Lanak", in *XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak*, Iruñea, 1958, A. Irigarayren edizioa.

GAI AURKIBIDEA

- Abstrakzio** 2, 4
Adberbio 34, 172, 174
Adberbio esapide 25, 109
Adbertsatibo 95
Adierazpen perpaus 70, 144, 145, 147, 164, 165
Aditz sintagma 7
Aditzondo 4, 6, 16-18, 26, 104, 109, 148
Adostasun 140
Aginte perpaus 70, 144, 146, 164
Aginterazko adizki 157
Ahoskera 189
Ahozko hizkera ik. hizkera
Aitzitik : lokailu 24, 27, 94, 99, 107-109
 aditzondo 94
 baina (...) aitzitik 108
 eta (...) aitzitik 109
Aia 79
Alabaina : aurkaritzakoa 24, 109, 112, 114, 115, 184, 187
 kausazkoa 25, 177, 184-187
Alabadere 24, 112, 115
Alborakuntza 9, 11, 12, 16-18, 27-31
Alderantziz 103
Aldiz : lokailu 24, 27, 94, 99, 103-108
 aditzondo 94
 eta (...) aldiz 27, 106
 aldiz baina 106
Alokutibo 11, 15, 157
Alor semantiko 70
Alta : 24, 94, 112-114
 altabada 24, 113
Anafora 5, 8, 26, 174
Anbiguo 43
Anbiguetate 44
Argumentatibo (balio) 51
Argudio 162, 163
Arte horretan 112
Artean 111, 112
Aurkakotasun 96
Aurkaritza (balio) 8, 14, 27, 79, 106, 110, 112, 113, 119, 125, 130
Aurkaritza esapide 133
Aurkaritzako lokailu 93-133
Autore zahar 151, 198
Azentu 153, 178, 182
Azentudun 178
Ba 151, 152
Ba- 44
Bada : kausazkoa 25, 177, 178, 185, 187-192
 ondoriozkoa 24, 27, 84, 127, 136-140, 149-167, 172, 173, 188-190, 194
 orain bada 142
 bada atonoa 154
 bada tonikoa 154
Badarik (ere) 78, 132
Badere 23, 76, 77
Bai 28
Bai...bai 17
Baiezko perpaus 154, 156, 157, 159

- Baiezkoatasun** 67
Baina 10, 14, 16, 22, 24, 25, 27, 83, 84, 93, 95, 97, 106, 120, 125, 130, 131, 172
Baino 15
Bai- 178, 179, 181, 183, 184, 189
Baita 46
Baita ere 42, 48
Baizen 28
Baizik 15, 28, 90
Baizik eta 25, 30, 107
Baldintzazko perpaus 70, 82, 100, 107
Banakarritza 17
Barren 24, 131
Bederen : 23, 34, 65, 68, 70-72, 74-77, 89
edo bederen 75
behin bederen 72
Bederik 23, 34, 65, 66, 74-76
Behin : adizlagun 64, 74
 lokailu 65
Behinik behin 23, 34, 65, 66, 72, 74-76
Behintzat : 23, 34, 35, 64-74, 76, 77, 89, 126
edo behintzat 73
Bera 141, 143
Beraz : 22, 24, 29, 30, 127, 136-149, 150, 161, 162, 165, 167, 173, 175
begaz 136
eta beraz 27, 148
hala beraz 149
halatan beraz 149
halakotz beraz 149
horrela beraz 149
Beraz hunelatan 24, 136, 175
Berebat : 23, 57, 62-64
eta berebat 63, 64
ere berebat 64
Berriz : lokailu 19, 22, 24, 27, 85, 92, 98-103, 105, 107, 108
 aditzondo 94, 98
 adjetibo 98
bestaldetik berriz 102
eta berriz 102, 103
gainera berriz 35, 56
Bertzalde ik. *bestalde*
Bertzenaz ik. *bestela*
Bestalde : 5, 23, 34, 53-56
eia bestalde 55, 56
baina bestalde 56
bestaldetik berriz 56
gainera bestalde 35, 56
ere bestalde 34, 56
Bestela : lokailu 19, 22-24, 26, 79, 80-86, 89, 91
 aditzondo 18
eta bestela 83
baina bestela 84
edo bestela 84
bada bestela 84
ezi bestela 84
bestela ere 85
Bien bitartean 24, 111
Bitarte horretan 111
Bitartean : lokailu 24, 110-111
 aditzondo 110
baina bitartean 111
bitartean berriz 111
Bizkaiera 85, 90, 103, 122, 128, 178, 182, 189, 191, 194
Bizkitartean : lokailu 24, 94, 109-110, 114, 115
 aditzondo 109
eta bizkitartean 110
baina (...) bizkitartean 110
Bokatibo 97

- Dena dela** : 24, 94, 116-120, 123
direnak direla 117
eta dena dela 118
baina dena dela 118
edo dena dela 120
nahiz dena dela 120
Dena den 5, 24, 116-120
Denborazko aditzondo 169
Dela...dela 17
Diakritiko (zeinu) 189
Diskurtsozko estilo 142, 161
Distribuzio 6, 66
Doinu 153
Edo 22, 73, 79, 84, 91, 120
Edo...edo 17
Edota 30, 84
Edozein modutan (ere) 93, 133
Edozein moduz 133
Edozelan (b)ere 93, 133
Egitura sintaktiko 4
Ekialde 36, 37, 43, 44, 57, 69, 104, 112, 118, 128, 147
Ekintza komunikatibo 4
-ela 15
-elako 11, 15
-elarik 15
Elipsi 8
Elkarrizketa 152, 153, 160, 161
Emendiozko lokailu 14, 23, 33-78, 99, 102, 193
-en 15, 178, 179, 181, 183, 184, 189
-enez 15
Enklitiko 36
Entonazio 37
Enumerazio 37
Erakusle 4, 24, 128, 167
Ere : lokailu 23, 28, 29, 34, 35-51, 65, 84, 87, 123, 125, 131, 163, 193
 aditzondo 35
eta (...) ere 37, 45, 49
baina (...) ere 49
edo (...) ere 49
asko ere asko 49
batere 49
batez ere 49
Errekurtsibotasun 7, 10 11, 13
Erro 167
Erlatibo 110, 117, 178
Esaldi 2-5, 78
Esapide 5, 24, 93, 116, 123, 137, 138, 192
Esapide-lokailu 80
Esplikatibo (balio) 112, 115
Estilistika 105
Eta : juntagailu 11, 16, 19, 20-23, 30, 33, 49, 55, 83, 91, 106, 115, 120, 125, 130
 lokailu 33, 34
Eten 107
Euskalki 36, 39, 45, 65, 66, 69, 71, 78, 94, 96, 112, 118, 152, 175, 189
Euskara batu 118, 178
Ez 28, 44, 105
Ezadostasun 140, 155, 157, 158
Ezen 178, 182, 185, 194
Ezezko perpaus 70, 127, 154, 159
Ezezkotasun 66, 67
Ezi 84, 182
Ezpa 90
Ezpbere 24, 79, 90-91
Ezpada 91
Ezperen : 24, 79, 89-90

- edo ezperen* 90
Ezta 46
Ezta ere 48
Gainera : lokailu 5, 23, 34,
51-53, 87-89, 103, 126
posposizio 51
eta gainera 52
baina (...) gainera 52, 53
ere (...) gainera 34, 52, 53
Gainerakoan 86
Gainerakoz 86
Gaineratikoan 24, 86, 87
Gaineratze 64
Gainerontzean : 24, 53, 79,
86
eta gainerakoan 87
baina gainerakoan 87
gainerakoan ere 87
Gainontzean 82
Galde hitz 96, 101, 148, 156,
165, 174
Galde perpaus 101, 145, 147,
172, 179
Galdegai 26, 37, 54, 65, 67,
83, 96, 101, 146, 147, 165,
174
Galdera erretoriko 153, 157
-gatik 182
Goinafarrera 182
Gramatika : 2-6, 9, 10, 13,
18, 135
gramatika erregela 3
gramatika ikuspegi 3
perpausaren gramatika 5, 11
lestu gramatika 5
Gehitze 33
Genitibo 173, 177
Gipuzkera 122, 152, 167,
178, 182, 183, 189, 194
Gutxienez 65, 66, 74
Guztiarekin ere 93, 133
Haatik 24, 126, 128, 129
Hain zuzen ere 25
Hainbestez 136, 173-174
Hainbestenarekin 173
Hainbertzenarekin 173
Hala : lokailu 26, 136, 175-
176
adizlagun 57, 165
Hala ere : lokailu 5, 22, 24,
29, 30, 94, 98, 121-126
aditzondo 18
eta hala ere 27, 123
baina hala ere 123
Hala eta guztiz ere 126-131
halaz guzi arren ere 123
Hala...nola 17, 64
Halaber : 23, 34, 57-64
eta halaber 61
halaber (...) ere 34, 59, 61
nola...halaber 62
Halarik ere : 49, 121, 125
eta halarik ere 123
baina halarik ere 123
Halatan 24, 136, 175-176
Halaz eta 24
Halere 18, 19, 24, 25, 27,
115, 125, 121, 130
Halerik 123
Hanbat 173
Hanbateki 173, 174
Hanpatu 59, 95
Hargatik : 126-131
baina hargatik 127
ordea hargatik 127
Harridurazko perpaus 70,
71, 94, 97, 131, 159
Hasperen 150
Hautakari 14, 17, 24, 79-91
Hautaketa 79, 90

- Hegoalde** 114, 148, 151, 152, 170, 177, 178, 182-185, 187, 189, 192
Helburu komunikatibo 3
Hikako alokutibo 11, 15
Hitz elkartu 53
Hizkera : ahozko hizkera 148, 168, 169, 178, 194
 egunoroko hizkera 136, 151, 152, 153, 160, 161, 170
 herriko hizkera 151, 166
 hizkera doinu 43
 hizkera formal 3
 hizkera idatzi 167
 hizkera minizatu 167
Hizketa 2, 4, 5
Hizkuntz 2, 4
 hizkuntz ariketa 2, 4
 hizkuntz gaitasun 2
Hiztegi 128
Honenbesterekin 173
Honenbestez 136, 173, 174
Hori dela eta 24
Hori dela medio 24
Horratik : 24-26, 128-131
 horraik ere 129
Horregatik 24, 25, 126-131
Horrenbestez 24, 136, 173-174
Horrenbat 173
Horrela 165
Hortaz 24, 26, 136, 167-169
Hortaz gero 136
Hunenbat 173
Idazle klasiko 46, 161
Idazle zahar 143, 184
Iparralde 114, 121, 152, 170, 173, 178, 184, 187, 189
Ilatibo 135
Indargarri 30, 51, 172
Inesibo 169
Instrumental 141, 143, 167, 173
Interpretazio 42-44, 47
Iruzkin 26
Itzulinguru 156
Izan ere : lokailu 25, 39, 49, 114, 115, 185, 192-195
 partizipio + *ere* 193
 eta izan ere 195
Izen sintagma 7, 10, 16
Izenorde 167, 173
Juntadura 1, 8, 11, 12, 14-17, 27-30
Juntagailu 1, 4, 8, 11, 12, 14-18, 27, 30, 31, 79, 93
 juntagailu banakari 18
 ø juntagailu 18, 20
Kategoria 6, 10, 65
Kausa 177
Kausazko 25, 39, 177-195
Koherentzia 5, 18, 19, 21, 30
Koma 107
Koordinazio 14, 45
Komitatibo 173
Kompletibo (perpaus) 145
Kontrakotasun 19, 93, 97, 99, 104, 107, 117
Kontraste 96, 100, 102, 104
Kontsekutibo 135
Kontzesibo 117, 120, 121, 132
Lapurtera 57, 80, 95, 114, 139
Lokailu 1, 8, 18-20, 22-24, 27-31
Lokailu konposatu 149
Lokuzio 116
Lotura semantiko 4, 31
Lotura sintaktiko 4
Loturazko lokailu 149

- Mendebalde** 43, 57, 69, 103, 112, 118, 128
Menderagailu 1, 8, 11, 15, 18, 30, 184
Menderakuntza 1, 8, 11, 12, 14, 15, 177
Mintzagai 26, 37, 38, 65, 96, 100, 102, 103, 105, 108, 130, 143, 147, 162, 184
 mintzagai aldaketa 100
 mintzagai hanpatu 59, 72
Moduzko adberbio 175
Murriztaile (balio) 86, 88, 89
Nahiz 120
Nahiz eta 30
Nahiz...nahiz 17
Nola 147
Nolanahi den 93
Nolanahi ere 5, 133
Nolatan 177
Ondorio 135, 139, 141, 142, 152, 164, 190
Ondoriozko lokailu 24, 135-176
Ondoriozko perpau 136
Ordea 24, 27, 94, 95-98, 99, 101
Ordean 95
Ordena 14
Orduan : lokailu 24, 136, 169-172
 aditzondo 169, 170
 baina orduan 172
 bada (...) *orduan* 172
Orobat : 23, 57, 62-64
 orobat...nola 64
 eta (...) *orobat* 63
Oroimen ahalmen 13
Ostera : lokailu 24, 94, 99, 103-104, 107, 108
 aditzondo 94
Osterantzean : 24, 79, 85, 86, 104
 baina osterantzean 85
 osterantzean berriz 85
Perpau : 2-4, 6-8, 10, 16
 perpau arteko lotura 4
 perpau arteko muga 5
 perpau bakun 9, 10, 12
 perpau elkarketa 1, 8
 perpau elkartu 6, 9-14, 18-21, 27, 30, 31
 perpau gramatikal 3
 perpau fosilizatu 116
 perpau juntatu 13, 15, 19
 perpau konposatu 9
 perpau koordinatu 45
 perpau lokabe 16, 19, 20, 30, 31
 perpau mailako harreman 8, 18
 perpau mailako lotura 1
 mendeko perpau 10, 13, 14, 16, 179
 perpau nagusi 10, 14, 178
Pragmatika 30
Premisa 190
Presuposizio : 29, 30, 37-39, 66, 68, 69, 88, 155, 159
 entzulearen presuposizio 68
 hiztunaren presuposizio 68
Puntu eta aparte 163, 181
Puntu eta koma 185, 187, 189
Sasi-galdere 157
Segurik 65, 68, 69, 71, 76
Segurki 76
Silogismo 142, 190
Sintagmen askatasun 41
Sintaxi arau 3
Solas : 2, 5, 66, 79, 135, 160, 181

- solas mailako lotura 1, 8, 18,
 19, 29, 30, 93
 solasaren ikuspegi 3
Solasaldi 161, 162
Suposizio 36
Tarte horretan 112
Testu 6, 7, 11, 18, 20, 21,
 181
 testu mailako harreman 8, 9
Testuinguru 6, 29, 36, 42,
 43, 66, 69, 169, 191
Topiko aldaketa 99
Trukagarritasun 6
 -*tua* 15
 -*tuik* 15
 -*tuta* 15
 -*tuz* 15
 -*tzat* destinatiboa 64
 -*tzeak* 15
 -*tzeari* 15
 -*tzen* 15
 -*tzeko* 15
 -*tzera* 15
 -*zat* 64
Ze 178
Zehar-galdera 145
Zenbatasun 65, 68
Zenbatzaile 68
Zentzu osotasun 5
Zer galde hitza 177
Zeren : lokailu 25, 177-182,
 185, 190, 194
 meuderagailu 178, 181
 zeren eta 181, 182
 zeren ezi 182
 zeren ezen 182
Zergatik : lokailu 25, 177,
 178, 182-185, 194
 galde hitz 147, 182
 menderagailu 182
 zergatik (e)ze 177, 182
Zernahi gisaz 49, 93, 133
Zerren 177, 178
Zertako 147
Zuberera 152, 161, 175

REAL ACADEMLA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA

